

# Nabarnizko Hiztegia (L, M eta N letrak)

Alberto Martínez de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea  
itzultz.zamudio@bizkaia.org

## Abstract

This dictionary is based on an (oral) linguistic corpus compiled in Nabarniz. In addition to the collection and definition of the vocabulary from that area, particular emphasis is placed on displaying the phraseology and examples of usage from that corpus. The current collection covers the L, M, and N letters (L letter has 296 entries, M letter has 130 entries, and N letter has 569 entries), while the rest will be subsequently added in the upcoming issues of the magazine.

## Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahoko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta erabilera adibideak eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara L, M eta N letrak baino ez dira ekarri (L letrak 304 sarrera ditu, M letrak 417 sarrera ditu eta N letrak, berriz, 128 sarrera). Hurrengo aleetan joango dira beste atalak agertzen.

**Keywords:** Dictionary, oral speech, phraseology, Nabarniz.

**Hitz gakoak:** Hiztegia, ahokotasuna, fraseologia, Nabarniz.

## Sarrera

1. Hiztegien eginkizuna izaten da hiztun talde jakin batek erabiltzen dituen berbak eta adierak era sistematizatuan bildu eta eskaintzea. Hiztegi gintzaren azkeneko joerei jarraituta, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, erabilera adibideak ere eskaintzen dituzte hainbat hiztegi, beti ere hizkuntz corpus zabal batetik abiatu. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk erantsen zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbak diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa —edo zati bat, hobeto esanda— bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera adibideak eskaintzeko. Corpusa ahoko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahoko formei darraizkien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahokotasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztopoak kentzen laguntzarren.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilia. Grabazio digitalen transkripzioak COOL edit pro deritzon soinu editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik batutako testuetako berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetan erabiltzen diren berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, erabilera hori egiaztatu beharra izan da

berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirreraren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez berezita (**apur**, **apurre**). Forma mugagabea nagusizat hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela, esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban, alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxe*.

Aditzei dagokionez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez berezita, beti ere biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu**, **apurtzen**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez berezita. Forma nagusizat jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma

mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatua ezarri da, letra larriz eta parentesi artean. Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatuko forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat.* gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz korritzen duten berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak —batez ere, bizkai ereduak— proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreran (BIJA-HUTS, *bidaia-huts-bat.*) proposatu da, hiztegiaren haren aztarrenik aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxe* sarreran (BARIAKU, *bariku-bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabalduta dauden edo zabaltzen hasi diren ereduera igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batukoa edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik. Hiztegi honek, ostera, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntzara mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu den guztietan. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, *Elhuyar Hiztegia*, *3.000 Hiztegia*,

Juan Martin Elexpururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilibaino*, RAEren *Diccionario de la Lengua Española* eta María Molinere *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, □ ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafia bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarniztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Adibideak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik || zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Hasieran aipatu den bezala, adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehatzetan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik. Kasu batzuetan, berriemailei eurei eskatu zaie berbak definitzeko, jakingarri iritzi baitzaio berben adierak haien erabiltzaileek eurek mugarrizeari. Kasurik gehienetan, ordea, bertetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiari, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemailei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko.

9. Sarrera nagusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean □ ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapsie**, **kampo artue**, **artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin da amaitu berriemaile izan diren nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (†) (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Gabika-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiatx (Argiarrozarra), Jonas Gerrikagoitia (Ardantza),

Alberto Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea (Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arrizabalaga (Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena "Arrola" (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

**laba, labie.** (LABA, labe-bat.) Horno, panaderia. || *Laba gana.* || *Labako sue ein biou.* || *Labie kanpun egote san aintxiñe, etzien barrun barik.* || *Labie aundidxe bada, olluek-eta eukitte siren bertan txabolatxun.* || *Inpermuko laban erreko sarie!* || *Labatik pasaten dan arturi esate dxako labartue.* □ **labako palie.** Pala de horno. || *Labako palie, gero artuk sartzeko —txorten lusias eitte san a be, da egurrekue—*, *eraiñ einde, olan kasuela moduku ein, de artue.* □

**labako sue.** Fuego del horno. || *Labiñ egurre ibilte san meye, da gero lodidxaue e errete dxakos labako sue eitteko, se labik e gorittu ein biar exete ban da. Da lelengo meye, su einde, da gero ba egur lodidxe errete sittunin da labi be ba gorittute gelditzen da, ta ba gero artu sartzeko, nai ba ogidxe sartzeko, nai ba... labi prest oten da egurrek errete.* □ **labatik ara.** Recién salido del horno. || *Labatik ara? Ba..., ein barridxe esan gure dau orrek.* □ **labatik arakue.** Recién salido del horno. || *Labatik arako ogidxe.* || *Labatik arakue? Labana erre badire ogidxe, labatik arakue, andik ataraten dan ogidxe.*

**labadero, labaderue.** Lavadero para la ropa, generalmente junto al camino. || *Len be beti esate dxakuen labaderue. Oin danak das tellatuas-da ipintte. Ba len eser barik egote sirin. Arridxe, leixibie esate dxakon len, leixibe arridxe. Arridxen jote ben ori, erropak.*

**labaiñie, labañie.** (LABAINA, labana-bat., nabala) Navaja de afeitador. *Labaiñie* bizarra kentzekoari esaten zaio, bestela *kutxillue* esaten da, nahiz eta ahoa kirtenaren barruan tolestekoa izan. || *Labaiñie da bixerra kentzeko..., ser esangot neuk?, bixarra kentzeko e kutxillue, edo esangot neuk? Kutxillun antzekue. Lengo gixonak labaiñi ibilte ben, ojje es eben ibiltten.* || *Labaiñie da kutxillu lakoxe geusa bat, ba ague sorrotza dekona, da ba asarratute ibili esik labaiñi esin lei sartu.* || *Labaiñie esaten da bixarra kentzeko labaiñie.* || *Labaiñie? Olan sorrotzak dire. Arekin jakiñ ein bi da kentzen, ostantzien ebei eingo leuke.* || *Aittittek-eta beti labaiñias. Barberuk, oin be barberuk eitten dabe labaiñias. Len danak, baserriku danak labaiñias.*

**labakada, labakadie.** (LABAKADA, labekada-bat.) Hornada. || *Labakada ogidxe.* || *Labakada sagarra.*

**laban, labana.** (LABAN, labain-bat.) 1. Resbaladizo, -a. || *Arri labana dau.* || *Labana dau bidie.* || *Ño, bide labana dxak!* || *An Ameriketana da arraiñetan jute*

*giñen ba asko ta errekan, bakixu errekan ba, arridxe labanak, da agure sarrak esan ei dxuan beran burugaittik "Estrepesu edonun eittok ik!" esan tzon beren bururi!* 2. Suave, liso. || *Asal labana.* 3. Lisonjero, -a. || *Berba labana.* 4. Lisonjero, -a. || *Labana da berbetan.* □ **laban ein.** Resbalar. Ik. *laprast ein, txirrist ein.* || *Laban ei ban da ankie apurtu ban.* || *Laban eitten da an arridxen.* || *Laban ein dxuat.* □ **laban ipiñi.** Alisar. || *Ondo laban ipiñi.*

**labandu.** (LABANDU, labaindu-bat., irristatu, lerratu) 1. Resbalar. || *Sebue emote dxakon burdidxeri ardatzien, labanduteko.* 2. Alisar, suavizar. Ik. *gosatu.* || *Untuas labandu.* || *Ligorra dauna labandu bi da.* || *Ondo labanduneku da en jeneral brillue botate dabena.*

**labanka.** (LABANKA, labainka-bat.) Resbalándose, deslizándose, patinando. || *Labanka bajatu nas an bera.*

**labankada, labankadie.** (LABANKADA, labainkada-bat., irristada) Resbalón. Ik. *laprastadie, txirriste.* || *"Labankadie ein deu": ba esate baterako, lurre bustidxe dauniñ-edo, euridxe einde daunin nai ein barik daunien, ba labankadie ainkias eitten dana da, labankadie, olanik.*

**labarto, labartue.** (LABARTO) Borona secada al horno. Ik. *aixartue.* || *Arto freskue, eldu orduko ekarritte laban pasaute, areri labartue esate dxako.* || *Labartue da artue ondiño total eldu barik dauenien, bigun daun artin, eldute baya bigun ondiño artue. Da se eitten dabe? Laban sartu, da siketu eitten dabe, garandu orduko, errotara erun orduko. Ori da labartue. Da bestie da aixartue. Aixartue da ba, ya garaune erres soltate dosunien, labatik pasau barik; aixartue da ori.* || *Artue berdetxu daunin, ondo eldu barik daunien, ba batzen gendun —aspaldidxon estu batzen, oiñ erein gitxi bayo esta eitten baya—, batze gendun axa arto berdetxue, da labasu einde gero, ogidxe-eta atarata, labi ba bero-bero egote san oindiño, da sartze gendun, surittu, kendu... kapasi esate gentzon ganekuri, artaburu ganekuri, da kendu, te axe artue sartze gendun laban, igertzeko. Da gero urren egunien ba ya igertute ote san, labi be otzittute ote san, da atara eitte gendun, atara, ta garandu: labartu.* || *Olan udegonien, arto sarrak akabetan diriñien edo akabaute dasenien, alakoxe otzarakada bat edo bi, labako su ein, da ogidxe-eta atara labatik, da labi da beru egoten da ondiño, da alakoxe otzarakada bat edo otzarakada bi bota, da gero andik egun bire-edo atarate gendusen, ya labiri berotasune junde. Axe eidxote san errotara erunde, da aregas eitte gendusen e talu pe bai, —artue ainbeste eskendun eitten artue..., axartue axik igertunekuas— da aregas eitte sirien labartuas, morokille be eitte san, da taluk eitte sirien.* || *Arto garaune, artue igertze san aixetan. Aixartu esate tzon orreri. Da besti laban eitte san a, labartue.* || *Gustuk egote sin. Batzuk labako artoko urune talu eitteko gurau*

*ixete ben. Da beste batzuk es. Amen parajien es san labartorik eitten... Amen Nabarrixen aixartue. Ostera, or e Errigoitti aldien dana labartue, laban igerra.*

**labasu, labasue.** (LABASU, labesu-bat.) Fuego del horno. || *Da labasu einde gero, ogidzek-eta atarata, labi ba bero-bero egote san oindiño, da sartze gendun.* || *Ori labasue eitte saniñ ibiltten san, oiñ estu labasuri pe eitten.*

**labela, labelie, labalie.** (LABELA) Construcción que alberga el horno. || *Labie daun lekun, labie esate dxako. Ori, or badau ba, etzin kontran ori, tellatue, latien-da, ori da labelie. Da or labie egote san, ogidzek-eta erreteko-ta. Da arexen onduen, komune.* || *Etzin barrun barik, labelie: labintzako eindako txabolak dire orrek.* || *Labelie da labidune, etzetxue.* || *Atakie guk esate tzeu —ondiño be badau— labalan eoten dan ogidxe sartzeko alako..., sulotxu eukitten deu labik, palias neu pe ba sarri ein dot labako sue, da artuk, eta agidzek antxe erretzen dire. Da arixerri suluri labak-ataki.* || *Labalie? Oiñ esetako bes. Len ogidzek erreteko. Ogidzek eitte gendusenin ba ogidzek... da... etziñ eitten da ogidxen gobernue, artesan e..., oiñ artesi be kendute deku baya artesi esate dxakon.* || *An dau geurin be, aspaldidxon estau serbixidxorik ein baya an dau labalan geurin be, an dau aski, txarrixen aski.* || *Bueno, oiñ esta labalan suri pe eitten da, emen makiña bat bider eitten naben nik sue ta ogidzek errete gendusen laban baya oiñ ogiri pe esta erreten ba.*

**labore, laborie.** (LABORE) Cosecha, cereal. || *Laborik dire artuk eta garidzek. Legunbre erderas, orreri be laborie esate tzau guk.* || *Laboriek garau gogorra deko.* || *Eurten labore ederrak ixen dosak.* || *Babie, axe da proteinarik geidzen dekona kiloko, laboriek, artuek da garidzek, sebadik, orrek danok bayo proteina geidxau.* || *Imiñik eukitte ittu amabi killo t'ardi. Imiñie laborias ibiltte san: indarrakin, garidxas, artuas.* || *Gero laborie gitxi dekonari, gure ixen eskerun ba, diru pageta dxakon, a mendin truke.* || *Artzakadie? Artzakadie bai, ixer lei garidxe, artza bete gari, ixer lei artza bete arto be bai, artue..., ixer lei indarra be. Artzakadie, ba artzi bete labore.*

**labradore, labradorie.** (LABRADORE, laborari) Labrador. *Labradorie baino gehiago baserritarra esaten da.* || *Gerorutz labradore parau san.*

**labrantza, labrantzie.** (LABRANTZA, laborantza-bat.) Labranza. Así de llama tanto a la actividad misma como a los terrenos en que se desarrolla. || *Labrantzie: etzik dekosan lurrek, labraten direnak.* || *Emengo jentie labrantzan ibiltten da.* || *Goitxidzen labrantzie ondo saintzen dxue.* || *Baratza: emen baserri osuri, danari, etzie da labrantzie, solo, bedatzak...* || *Pedrok erosi dxok etzie, labrantza ederra dekona.* || *Oiñ usau be-estau eitten artzi ori-tte; len ba labrantzan askena eitte sanin, ba, olanik geuse gitxidze daunin ba, artzaketu eitte san.*

**labrau, labraten, labreten.** (LABRAU, labratu-bat.) Labrar la tierra. || *Labrau bakue da motie.* || *Ño, or deukak solo arlue labraute!* || *Labrau barik itxi dabe.* || *Lurrek e ba labrau esik salgi emoten deu.* || *Labreten dan soluen, ba labrau eitten da ta esta etorten (salgie).* || *Lur satarra da lure gogorra dana-edo ixeten da lur satarra, "Labretako satarra da"-edo.* || *Areketarako, solu labretako. Oiñ onek tratorak dausen les, arek egote siñ ordun beidxekin labretako. Arie, ara orsdune.*

**labrauera.** (LABRAUERA) Acción de labrar. □ **labraueran.** Al labrar. || *Erripatan beti etorten da labraueran lure berantza.*

**labur, laburre.** (LABUR) Corto, -a. Ik. motza. || *Ule laburrekue.* || *Narra be ibiltte san, baya narrari indar asko ein bi dxaken. Leku laburrin-de, narra be bai, baya leku lusiñ ibiltteko es, se ganaduk asko kantzeta sirin.* || *Egune laburre egoten da semendixen.*

**laburtu.** (LABURTU) Acortar. || *Prakak laburtu.* □ **egune laburtu.** Acortar el día. || *Egune laburtu deu.*

**ladrillu, ladrillue, ladreillue.** Ladrillo. || *A (kalerue) ladrilluas ei ben. Da gero Airon be bai. Airoko etzin kontra-kontran. A orantzu eindakue. A ladrillu utzas asi beyen da gorarte.* || *Laba aspidxen, onek, baldosak dire, baya ladreilluk, gorridzek, labik eukitte ban aspidxen sartute.* □ **txapako ladreillue.** Ladrillo sólido de la chapa. || *Lengun konpondu eskuen ori, txapi ori tte ba ortxe be sartu sittuen-da. Arek esteu eukitten arek ladreilluk eukitte ittun sulorik, ba a osu ixeten da, da pixutzu be bai. Txapako ladreillue esate tzeu te, txapan ipintten dan ladreillu esate tzeu.*

**lagun, lagune.** (LAGUN) 1. Amigo. Ik. aiskidie. || *Lagun eundidxe.* || *Neure lagune!* || *Au da nire lagun sarra!* || *Se Bitorio ta ni lagun itzela giñen ba. Ni sarri ote nintzen an errotan.* || *Lagune saldu ein deu orrek.* || *Ondiño lagun asko deket an erridxen.* || *Lagun asko dekeas.* || *Lagun artien dau.* || *Orrek lagunek dosus?* 2. Persona, individuo. || *Alperra eittie etxako komeni laguneri.* || *Nabarnixek senbat lagun dekos?* □ **lagun artie.** Compañía; grupo de amigos, -as; amistades. || *Lagunartien dxak txakurre or.* □ **lagun artekue.** De la cuadrilla. || *Lagun arteku da ori.* □ **lagun urkue.** Amigo íntimo. || *Lagun urku da ba e lagunik eundidxe ixetie, noberan lagun eundidxe ixeti.* || *Lagun urkue da lagunik eundidxena. Seuk dekosun lagunik eundidxena. Urku. Esan gure dau orrek... Urraku be esaten da igul baya urku esta urraku, espabere asko tzesuna, "Lagun urku dxok ori". Urraku esta igul. Urraku da ba kontran deuna. Baya urkue da lagun e ba... Parienti be urkue esate tzue. Parientik igul e, edo enterrure estala jun, edo beste geusa batera esta jun de "Joder, a urku ixen dxok, ta estok jun". Ba beren urkue dalako, beren odolekue. Da asko*

gure tzona be bardin-bardiñ esaten da. Asko gure tzona be "Urku ixen dxok ori, beren urku dok ori". □

**lagun ein.** 1. Acompañar. Ik. *lagundu*. || *Banoi lagun eitten*. 2. Hacerse amigos, -as. || *Lagun ein dire*. 3. Ayudar, auxiliar, colaborar. || *Da ordun ba eusoko gustidzek batzen dire erretille bat eitteko, olanik etzi premiñan badau. Da urruntxuaukuk, igul errikuk diriñak, da ba, lagun eitten, ba, alkarri lagun eitten*.

**lagundu, laguntzen.** (LAGUNDU) 1. Acompañar. Ik. *lagun ein*. || *Etzera lagundu tzet*. 2. Ayudar. || *Emen kamañie esta ustean, baya ba, len iketza, geurin be eitte ban, neure gixonak eitte ban, da ni pe laguntze netzon*. || *Arek lagundu deuste*. || *Erresaidxu errestan lagunduko eustesu?*

**lagungin, lagungiñe.** (LAGUNGIN) Amigable, simpático, con aptitud para ganarse amigos. || *Lagungiñe da danakiñ arregletan dana*. || *Lagungiñe? Ondo esaten dabenari esan leidxo "Lagungiñe da"*. *Ondo esaten dabenari... Esan leidxo txarto esaten dabenari be "Berena eiñ artin lagungiñe da"*.

**laguntasun, laguntasune.** (LAGUNTASUN) Ayuda, auxilio. || *Sure laguntasunas urrun esin leike jun*. || *Persona bateri, ba, geuse bat ondo eitte dxakonin, edo seoser emote dxakonin, edo laguntasune eitte dxakonin, ba "Ondo ein dxako"*. || *Laguntasun eundidxe eitte tzo*. || *Laguntasune ixeten da premiña baten basaus, laguntzen etorri basintzon, "Arek eiste laguntasune!"*. || *Beidxe deket ya askanetan les, da laguntasune bi dot*. || *Indar gitxiau dekenak-eta ipintte sirien, ba esate baterako, lau lagun das laidxetan, albo banetan indarra dekenak. Erdidxau doixenak, erdidxen doixenak ba makaltxuaukek, se bestin laguntasunas soidxe bota eitte san da*.

**laguntzaille, laguntzaille.** (LAGUNTZAILE) Ayudante, asistente. || *Berebixiku: laguntzaille bat badeko, edo badabil beragas, "A berebixiku dau egalak erakusteko", edo esateko*.

**laidxe, laidxie.** (LAI) Laya. || *Laidxen ortzak*. || *Artotarako lansar esaten dana, len eitte san laidxakin, laidxakin solue buelta emonda ipiñi leidxek eta serak lurre erre edo sertu esteidxen*. || *Laidxie sartu te ankias erein, da buelta emoten da*. □ **laidxe soidxe.** Tepe de layas. Ik. *golda soidxe*. || *Len laidxetan be eitte gendun, parau lau-edo illadan, da bost-edo, da laidxak sartu barrure, eraiñ-eraiñ ein, de soidxe atarate san, da laidxe soidxe esate tzen areri*.

**laidxari, laidxaridxe.** (LAIARI) Layador, -a. || *Laidxetan ibiltten diriñak: laidxaridzek*.

**laidxeketa, laidxeketie.** (LAIAKETA) Labranza con laya. □ **laidxeketan.** Layando. Ik. *laidxetan*. || *Laidxeketan asi*.

**laidxeta, laidxetie.** (LAIETA) Labranza con laya. □ **laidxetan.** Layando. Ik. *laidxeketan*. || *Laidxetan geuk kanpoko jenterik eskendun iños ekarten, etzekukin*

*konpontze giñin, baya batzuk e kanpoko jenti be erute ben*. || *Indar gitxiau dekenak-eta ipintte sirien, ba esate baterako, lau lagun das laidxetan, albo banetan indarra dekenak. Erdidxau doixenak, erdidxen doixenak ba makaltxuaukek, se bestin laguntasunas soidxe bota eitte san da*. □ **laidxetan ein.** Layar. || *Len laidxetan be eitte gendun*. || *Aintxiñe laidxetan eitte san asko, garidxe eraitteko. Da onek marketa ittu soidxek*.

**laidxetu.** (LAIATU) Layar. || *Len eitte san... se esangot neuk?, laidxetan. Ba gero eitte san atxurkulias a laidxetunekue pikau, de arixeri laidxik ataraten daben e sokilleri esate dxako "Lurre sokiltzu dau"*. || *Laidxatu: len aitxiñe asko eitte san ori. Neu be ortan einde nau, baya gastetan*.

**lakar, lakarra.** (LAKAR) Aspero, -a, rugoso, -a. Ik. *ligorra, latza*. || *Lakarra da geuse bat ligor antza-edo; edo arbola bat-edo, ori azal txarra: "-Ori da lakarra!"*. *Nobera pe, asala olan, ligorra: asal lakarra, edo ligorra*.

**lakartu.** (LAKARTU) Secar por acción del viento o el sol. Sin. *ligortu*. || *Soidxe be, soloko soidxe be iguel, igul e ereiñ orduko..., kendu orduko..., selan esangot nik?, soidxe kendu orduko lakartu, siketu, denpora ligorrak siketu, da siketute itxi*.

**lakaski, lakaskidxe.** (LAKAZKI) Tenacillas de madera para recoger y abrir el erizo de la castaña. || *Len basurdak eta ardidzek eta, gastañak jan esteidxen, arridxeikiñ ormie eitte san, ta an gastaña munteidxe, gastaña munteidxe... Paluas, kakuas bota da lakatzas, lakaskidxas. Lakaskidxa eitte san egurras ta taka-taka, atzamarretan..., taka-taka, sesture batu ta ara bota ta gero negurako an ixeten san*. || *Lakaskidzek egote siñ egurrekuk, olan. Egurrekuk, eltzeko orreri, berari lakatzari*. || *Da kakukiñ eratzi eitte sirin gastañak, da jeusten sirin lakatzak-eta. Arek lakatzak artzeko, ba, lakaskidxe. Da a ixete san, ser esango neu, egur bi doblaute egurre olantxerik, da artze san lakaskidxe, da arek batu eitte sirin*. || *Lakaskidxe ixete san egurrekue, olanik, egurrekue olan baya lusiau te eundidxau ixete san. Batze san olanik. Batze siriñ e lakatzak otzarara da gero eitte san pillue, enbasu eitten estaben lekun*.

**lakatz, lakatza.** (LAKATZ) 1. Erizo de la castaña. || *Gastaña lakatza*. || *Lakatza sabaldu*. || *Lakatzak sabaltzen asi dire*. || *Lakatza sabaldu eitten da garaunek urteteko, da ago sabalik ordun egoten dire*. || *Da gero eitte san a ipintteko egosteko edo erreteko-edo bi sanien eitte san, serrie erute san, da serrias txaka-txaka lakatza jote san. Lakatza esate dxako garaune eukitten dabenari*. 2. Envoltura del grano. || *Ori da garauek dekon lakatza: buruxi*.

**lakidxe.** (LAKIO) Trampa, emboscada, asechanza, lazo. || *Txoridzek atrapatzen ditto lakidxuk. Noberak etziñ eitte ban lakidxu. Edurre eitte banin, len, gu*

*mutiku giñenin, etziñ eitten gendusen lakidzuk, txoridzek anketatik atrapau. Ipintte dxako olako egurren bueltan, ak eitten deu sopreixe, a tiran dau, andik aridzek bi, olan, da koskorra emen garaunekin, a postixu-postixu eiñekun da, da an geratzen dire anketatik tak! || Lakidxue? Taket bateri eitte dxako olan goittik bera, beyen sulu ein, da a olako palo bat dobleten dana. Sopreixe ak molliiek eitten deuna, olan deunin, indderra dau ba. Goidxen eitte dxako, ataturue ipintten dxako, an koskortxue-edo, sulo bi. Aren ortik, aridxe a inderra deuna, justu-justu-justu an ipintten dxako, txoridxe jaten plantau de mobittakun, da ankatik atrapatzen deu olanik da! lakidzuk bixi-bixirik. □ lakidxue ipiñi. Detener. Sorgin batek gauaz pertsona bat zetorrela ikusi eta beste bati esan ei zion oihuz: “Ipiñidok or datorrenari lakidxue!”*

**lako, lakue.** (LAKO, bezalako) **1.** Como, igual que, semejante a. || *Arek basaurdin lako ittagiñe dxekosen. || Bera ixete san adar bat lakue, dana adar txikis beterik dauna. 2.* Algo así como (en expresiones que no indican una exactitud total). || *Arri koskorra esate dxako arri txikitxuri, arri koskorra, “Dana arri koskorres beteri dau”. Grijue arri koskorren antzeku da. Bueno, grijue apur bet aundixau laku ixengo da arri koskorra bayo.*

**lakoñie, lakunie.** Vulva del animal. || *Altan diriñien, txakurre, alta-edo. Baya ostantzien,e, lakoñie bai, beidxeri esate dxake. || Lakoñie beidxen atzeko sera da. || Lakoñie da beidzek txix eitten dabena. || Ori jeneral beidxeri esate dxako, beidzek txix eitteko ixaten da. || Katanarra da... Arek e... Onek olluk-eta, aspidxe jate tze lelengo, erropie. Arek erropan asten di jaten. Erropie, da lakunie. Lakunie bakixu ser dan? Lakuni da atzeko eperdiko sulue eta atziñ animalidzek boukos arek kunak-eta eitteko, beran txixe-da eitteko. Arexe jate tzes lelengo.*

**lakoxe, lakoxie.** (LAKOXE, bezalakoxe) Exactamente igual, igual, semejante a. || *Libru bat deket seuri lakoxie, igula. || Batzuk ixaten dire aundixau lakoxiek, beste batzuk txikitxau lakoxiek. || Mingorra txoridxe da, ollogorra lakuxe tipu iguleku, piku lusiie, da bera txikitxue: mingorra. || Aseri bustena da etxure baten piñutxu lakoxi da. || Labañie da kutxillu lakoxe geusa bat, ba ague sorrotza dekona, da ba asarratute ibili esik labaiñi esin lei sartu. || Diabru lakoxi sara!*

**lamada, lamadie.** (LAMADA) Ardor, calor proveniente de un horno o foco ígneo. || *Lamadi bai, berotasunari.*

**lamarikue.** (LAUMARAICO, lauko, lauziriko) Cuarto, moneda antigua. || *Lamarikue: antxiñeko dirue. || Lamarikue esate gendun. Dirue.*

**lamiñe, lamiñie.** (LAMINA, lamia-bat.) Ser mitológico vasco que en su mitad superior tiene forma de mujer y los pies de ave. || *Lamiñak kantera suluetan egote siren, kobatan, aintxiñeko persona*

*klasie, personan antzekuek. || Lamiñi sorgiñiri esate tze.*

**lana, lanie.** (LANA, artile) Lana. || *Lanie irun. || Lanie gardatu. || Ardi lanias eitte san koltxoye. || Ardidxen lepotik kentze dxakon lanie garbittu eitte ssan.*

**lanatzu, lanatzue.** (LANATSU) Lanudo, -a. Ik. uletzue.

**lanbro, lanbrue.** (LANBRO) Llovizna. *Sirimiri ere entzutun da, baina gutxiago. Gaur egungo gazteek, ostera, garue esaten dute geroago eta gehiago. Ik. euri saramie. || Lanbrue: euridxe, a sirimiritxue. Lañuas, a garotxue einde ba, a sirimiritxue. || Lanbrue: garue esate tze askok. Emengo gastiek garue esaten dabe.*

*Garue da, baye bustitzeko justu-justu-justu. □ euri lanbrue.* Llovizna. || *Ori jeneral e euri lanbru eitten dabeniñ, a euri se-setxu jeusten danien, orduntxe oten da goidxe soittute. || Lanbrue? Ori euri lanbrue, siri-siri eitten dabeniñ lanbrotxue? Axe. || Euri lanbrue: a garotxu dxi-dxi-dxi-dxi-dxi. || Euri lanbru da. □ lanbru ein.* Lloviznear. || *Euridxe barik, lanbru eitten deu. || Lanbru-edo eitten espadeu, jun eingo gara. □ lanbru ixen.* Lloviznear. || *Lanbru da.*

**lanbrotzu, lanbrotzue.** (LANBROTSU) Lluvioso, con llovizna. || *Lanbrotue? Euridxe eitten dabeniñ olanik gogor barik, geldi-geldi, geldi- geldi- geldi-jeusten danari esate dxako “Lanbru da” edo “Lanbrotzu dau”.*

**landa, landie.** (LANDA) Campo, pieza de terreno que produce hierba, en contraposición a ortue o solue. Ik. selaidxe. || *Landa barridxe. || Landan ganadue-eta pastun egoten da. || Landarako itxi biou. || Motie jeneralien eskiñara datorren satidxe da. Landie ya aundidxe da; da landin barrena, motie. || Landan eskiñak dira motak. || Landi be bedarra asteku ixeten da, da moti be bedarra asteko ixeten da. Landie jeneral aundixau da, motie, olan solo egaleko motatxu payo. || Len e soluri -ba soluk esate dxaken bai, baya landa iste sirin soluri ba... “Oin landi dau solu barik”-edo.*

**landar, landarra.** (LANDAR) **1.** Borra del café. || *Kafie eitten danin, da kafeteri garbitzen danin, kafe landarrak. 2.* Sedimento, residuo, harena. Esaterako, harea dagoen tokian ibili ondoren, arropak garbitzerakoan, honelaxe esaten da: *Landarres bete dau! □ Ondorengo adibidean landarra eta ondarra berben arteko desberdintasuna zein den azaltzen zaigu, nahiz eta lekuko batzuek, aurrerago ikus daitekeen bezala, itxosoko landarra ere esaten duten. || Ondarra esate dxako, esate baterako, itxosuen mari dabillen lekun gelditzen dana. Da landarra da emen baserridxen euridxe eitten dabeniñ-da ba dana basi-tte eoten da, ta basa landarra-edo arixe esate dxako. □ itxosoko landarra.* Arena marina. || *Obratarako biosu karie.*

*Kari bi da derrior. Aintxiñe eitte san itxosoko landarras da karias morterue. Da gero obran ormi eitteko porlana apurtxut bota.*

**landara, landarie.** (LANDARA, landare-bat.) Planta, vegetal. || Berakatz landarie. || Landara sistriñe. || Landara erkiñe, mardule. || Sepie: landara gastie. || Iberan landarak, arbola landara pe sartzen dire. || Landarie ipiñi, jarri, sartu. || Piper landarie. || Landarie dator lurre betien. || Bedar landari dator. || Landariri urtete tzeniñ e loratxuek, frutu ixeteko ixeten da. Landariñ e lorie ba axe ixeten da, loratxue frutu emoteko. □ **piñu landarie.** Esqueje de pino. || Txerpidxe esate dxako piñu landariri, eitten danari ba. Txerpidxe, ereittosu asidxe, da areri txerpidxe esate dxako, etzerako piñu landari ekarten danari, txerpidxe. Len emen e a Julianek askotan eitte ban txerpidxe. Piñu landari etziñ artze ban arek. || Da txerpidxe esate dxako piñu landarie ereitten dana be txerpidxe. □ **sagar landarie.** Esqueje de manzano. || Anaidxi tte bidxok jun giñen sagar landara ekarten.

**landatu.** (LANDATU) Plantar. || Landatzie? Esate baterako, asak nai porruk, ba atara. Leku baten urten dabe. Erreitten da ta urteten dabe. Urteten dabe leku baten da gero beste leku baten ipinttie. || Landatu? Landarak e lurrin sartu.

**landu, lantzen.** (LANDU) 1. Cultivar, labrar, trabajar (la tierra). || Baso lurre ekaten da..., ser esangot neuk? Oiñ eskatzak eta etartiek-eta lurrekuk jeneral estaus, ba antxiñeko etzen batzuk eukiko dabe baya, olakoxe lurreri, lurre landu bakue... Baso lurre da ibili bakue edo ondute estaun lurre. 2. Tallar, esculpir. || Sepillue: egurre lantzekue. || Asueli da, ser esangot neuk?, atxurren trasa-trasaku, da ixeten da..., asuelik eukitte ittu..., alderdi bat eukitten deu sorrotza, da aras alderdi sorrotzas egurren lantzen da, egurre lixotu, edo akatzak kendu, edo lantzen da asuelias. || Oiñ esta eitten, oin dana serrik eitten deu, dana serriek, baya len askorias eitte san landu. || "Txaplanara joixu!": egurre lantzen danin "Joixu txaplanara!" iños entzu ot. Oten da atxurre egur lantzekue. Olanik e puntara metze-metzie.

**langa, langie.** (LANGA) Cada uno de los largueros de la cancella o erromadie. Sin. trangie. || Erroma langak. || Langie atara ta pasau. || Ori ari arridxe jeneral ibiltten da erromadak, kanpun eitte diriñ erromadak, erromadatan ganetik e egurre ipintie dxake ta ganetik langi ipintteko, ari arriskuk ixeten dire arixek jeneralin

**langar, langarra.** (LANGAR) 1. Llovizna. || Euri langarra. || Langarra ein dau. 2. Menudo, -a. || Langarra? Ori langarra, ser bat. Geuse langarra esate dxako geusa eskas bateri.

**langosta, langostie.** (LANGOSTA) Pequeño animal que suele causar gran perjuicio en las hortalizas. || Langosta kokue. || Langostie kokue da, lusie. || Gero

*klasik daus langosta pe. Langostak nabue jaten dabenak badaus, sulotxue einde. Txiki-txiki-txikitxuk dire, seinde, sorridxe ixeti lakue. Orridxe danak jate tze. Dana jan. Olanik ein, begittute, olan orridxen aspidxen egoten dire, txiki-txiki-txikitxuk. Da dana jan langostik. || Inpernuko katue langosta modukue ixaten da. || Langostik dana jaten deu, te karakola pe naiku jaten deu, baya langosti esta bape ona. Ba langosti da... ser esangot neuk?, koko txiki bat, olan marranes-edo ixeten da, ta esta ona ixeten lurrerako.*

**lanpar, lanparra, lanperra.** (LANPAR) Humedad o líquido que reposa en el suelo a consecuencia de la lluvia, rocío, etc. Ik. garue. || Lanparra esate tze emen be bai batzuk, lanparra. "Au da lanparra!" iruntzeari. Garue guk esate tzeu, lanparra barik geuk. Jeneraliñ emen bertokuk lanparra barik garu da. Baya suk esan dosuna, lanparra be esate tze batzuk berton be. Lanparra da dana umel garuas ta busti-busti. || Esaten da "Selako lanparra dauen!", geldidxen inkeute daunin, a euri sirimiridxe geratute eon arren, inkeute eoten da bedarretan, da dana geldi-geldi-geldi: "Lanparra dxak itzela!". || Lanparra beyen egoten da, inkeute geldi-geldi geratzen dana. Guk jeneral garu esate tzeu busti-busti-busti daunin. Ba, bidxetara esaten da. || Lanparra euri grumiri esate dxako. Siketin be orixe be estimau eitten da, se eitten deu te ba lurrek e, apurkan-apurkan jeusten dan les artu eitten deu te ba, mesedi eitten deu siketi daunin. || Bai, euri grumetxu bada be, lanparra esan leidxo, se garu da be. Euridxe fuerte barik, sirimiridxe, lanbrue.

**lansar, lansarra.** (LANTZAR) Tierra baldía, barbechera. || Lansarra ixaten da, oin lansarra asko esta eitten, len emen olanik, ser esangot neuk?, libre dasen, nabu-edo kaskaute, libre dasen soluek atxurtu eitte sirien. Da gero udebarridxen ba ariñau prestate san eraitteko, e, artu; da ba lansarra esate dxakon arixerri, negun eitten dan, solun eitten dan bierrari: "Lansarra einde dau". || Artotarako lansar esaten dana, len eitte san ladxakin, ladxakin solue buelta emonda ipiñi leidxe eta serak lurre erre edo sertu esteidxen. || Lansarra: febreruen erdidxe pasau eskero, nabuek... kentzen dan lekuen len eitte san ori, gero artue ereitteko, da ona ixete san, gero solu garbi egote san. □ **lansar egon.** Estar arado pero sin sembrar. || Lansar dau solue (gorrittute daunin, labraute daunin solue, esebe barik).

**lantxik.** (LANTXERIK) Igualmente que. || Kurumiñuk-eta barik, ganaduri eitte dxakos arek tabanuk batun, seinde orrixek e frailleulidxe lantxik. || Da gero siketute goxuk urtete ban, normui jateko, siku-siku einde, seinde pernidxe lantxik gelditzen san a. || Mendiarrak esate tzenak, orrek e garidxe eta dana artze ben emengoxi lantxik. || Pulpie ixeten da... estakitt oiñ eitten badabe, oiñ ikusi be esta eitten da, len e dendan ote san. Da ixeten deye erromalatzak txiki-txiki-txikitute, erromalatzak eta sakutan saltze sittun

sera lantxik, babi lantxik. || Betegarridxe emote tzen seinde txondorrari lantxik.

**lantzin.** (LANTZEAN) Cada vez. || Orrek danak kontuk dire ostin, sorgiñek egote siña ta au selako sorgiñe...! Sorgiñe parik bertan lantzen bateri be iguel ikaratzeko deitze tzen. || Da gero ba lantziñ apur bi epeldu, da gero ba epeldute jan eitte siriñ ogidxas, barra bakotxa. || Ibilten da, garbittu, te ba siketu eitten danien, lantzin sati bet ipintten da gardan. || Da galtzue, ta negureko jateko iste san, sabaidxe bete, da artu be ara asko artze san da lantziñ e txapatxu batzuk e emon ganaduri e, bakotxiñ otzaratxu bet-edo ekarri tte partiduru danari axe. || Seinde suri-suri, olako buru laku eukitten deu, areri esate dxako trumo bedarra. Orrek bedartzetan lantzin leku baten. Gitxi oten dire e! || Bai, tantie, "Tantie jeusten dxakok", lantziñ apur bet igul. Da igul ba asko jeusten bada, "Tangadaka dxak, sarratu!". || Gu jute gara sanjunetan ormen ipintteko. Elorri suridxe daus, lantzin leku baten, lantzin bat e! Gitxi e! Da arexen bille, kurtziera sartzeko, elor suridxe. || Ba gerrin ba ainbeste edo bastante il san bertoko erriku pe. Bai. Lantzen bat, lantzen bat. □

**lantzin bein.** De vez en cuando. Ik. noixipein. □

**lantzin-lantzin.** De vez en cuando.

**laño, lañue.** (LAINO) 1. Nube. Ik. edoidxe, sarrasoye, kañe. || Laño egune. || Laño baltza, suridxe. || Lañue egon da. || Goittik lañu dator. || Serue estali dok lañus. || Geur lañuk altutik dxatos. || Ño, laño gitxi dxosek altzetan. || Laiño asko dau. || Edoidxe goidxeri esate dxako. Eta lañue daunien, lañu sabaldute daunien, da ikusten estanin goidxe, "Edoitzu dau". || Laño asko dau, euridxe eingo deu. || "Lañuk astun daus": euri etxuri-tte daunin. || Lañu be klase das. Batzuk e... Dabillena be bai, igul korridu eitten dau, da batera ta bestera ta "Ño, lañu dxabillek abidxadie!" edo "Trumoi dxabillek abidxadie!". 2. Nublado, nuboso. || Lañu dau edoidxe. □ **laño moltzue.** Nubarrón. || Dana laño moltzoz beterik eoten da. □ **laño montorra.** Nubarrón. || Laño montorra? Ba lañuk pillu eukitten dabeniñ e, euridxe ein bi dabeniñ-edo, euridxe ataten dabeniñ-edo, lañu pillu ataten dabeniñ-edo. || Laño montorra? Lañu ba or egoten dire lantzin bein, garbi-garbi ostantzin da laño moltzo itzelak egoten dire ta. Arexeri esate tze. □ **laño soidxe.** Nubarrón, nube aislada (cuando no forma una masa continua). || Euririk estanien, ba lañue or-emenka, or-emenka, lañue ba soittute-edo, lañue agertzen da, mantxakiñ esate baterako, da areri laño soidxek esate dxake. || Ba, baltziskak nai suriskak ixen, olan lañotuten dabeniñ, "Laño soidxek das". || Laño soidxek: satidxe-satidxe les. || "Lañue soittute dau": dana, euridxe ein bi dabeniñ-da, denpora illune daunin-da, eoten dire laño moltzuk, dana laño moltzoz beterik eoten da, da laño soidxek esaten tzeu. || Laño soidxe?

Seriñ e, se esangot neuk? Laño soidxe goidxen daun lañuri esate dxako. || Bai, jeneral e laño soidxek euridxe ekarten deu. □ **laño soltie.** Nube aislada. || Laño soltie? Laño soltie, olanik, lañue apur bet e edo geitxuau-edo daunien, bateri bestera les lañu ibiltten danien. || Laño solti badabil, olan dabillena bateri bestera, "Laño soltik dabis", "Euridxe eingo deu", edo "Atarridxe eingete deu?", ba ori be esaten da, baya laño solti emen esaten da olan dandarres dabillen lañuri. □ **be lañue.** Niebla baja, bruma. Sarrasoye sarriago entzuten da. Ik. lañue, goi lañue, kañe, sarrasoye. || Be lañu be esaten da, bera bajatzen danien. || Da be-be-beyen badau, e "Laño baju dxak". Au lañuau baju-baju-baju esebe ikusten estana, be lañue. Da batzuk sarrasoi be esate tze. || Be lañuas tapaute dau. || Be lañu dau. □ **efer lañue.** Nube que llega a Nabarniz desde el mar. || Efer lañue laño bajue da. □ **goi lañue.** Nube alta. || Goi lañuk tapaute dxak, geur etxok argittu eingo, euskidxe etxok urtengo. || Goi lañu dau.

**lañoarte, lañoartie.** (LAINOARTE, ostarte) Intervalo de nubes. || Lañoartetik argittasune agertzen da. || Lañoartie? Ba laño asko sabaltzen dana.

**lañobera, lañubera.** (LAINOBERA) Nublado. Sin. lañotzue. || Lañubera dau. || Lañobera? Lañotzu egotie, lañu, dana lañuas tapaute otie.

**lañope.** (LAINOPE) Situación bajo nubes. □ **lañopin.** Cubierto de nubes. || Euskialdidxe badaus, baya lañopin dabil euskidxe. || Baya euskialdidxe eitten deu lañopiñ egon, da gero bistatu, atzera lañu, atzera bistatu, da ori da euskialdidxe. || Euskidxe lañopin dxabik, lañopin; euskidxe etxok urteten. || Euskialdidxe egoteko lañuk egon bi deu, ostantzien estau euskialdirik, eta ordun euskidxe, bakarrik. Baya euskialdidxe eitten deu lañopiñ egon, da gero bistatu, atzera lañu, atzera bistatu, da ori da euskialdidxe.

**lañotu.** (LAINOTU) Anublarse, encapotarse el cielo. || Lañotute dau.

**lañotzu, lañotzue.** (LAINOTSU) Nublado. || Lañotzu dxak. || Goidxe lañotzu dau.

**lapa, lapie.** (LAPA) Lapa. || Lapa itxosuen egoten dire inkeute. || Lapie ba uretan eoten dan, itxosun eoten dana inkeute atxegidzetan. || Lapi: ostantziñ itxosun eoten diriñ areri, atxiñ inkaute eoten diriñari, dekela lapi ixena.

**lapan.** (LAPAN) A rebosar (de frutos, granos). Ik. lapatzin. Gaur egun, gazteek ez ei dute ezagutzen: || Baya oin, oingo gastik orixe eingo neke geure neska-mutillak estakidxela ori "Lapan dau", "Beteri dau" esateko esaten dabela "Lapan dau". || Lapan dau arbolie. || Arturi be esate dxako (lapan), bedartzu badau. Artu eraiñekutan bedarra edoselaku etorten da, da "Lapan dau bedarras", "Bedarres beteri



dekeu"-edo, "Jorratu bierrin dekeu"-edo. || *Lapan?* Beteri badau granus. Ori da keixi badau beterik, nai madaridxe nai sagarra nai frutie, esate baterako, edo lori be bai e "Loras beterik dxak" esateko. Baya "Lapan dxak" jenerues beterik e sagarra edo granu. || "Lapan beterik dxak", dingiliske dauniñ e, gausak danak bete-beterik eta "Lapan dxak dana!".

**lapatz, lapatza.** (LAPATZ) □ **lapatzin.** A rebosar (de frutos, granos). Sin. *bete-beterik*. || "Lapatzin dau arbolie": *lapatzin*, baya ori lapatz ori estou asko ibiltten. Bai, arbolie bai, sagar asko dekona bai, "Lapi les dau, beterik dau" te ba, bai, baya estou asko ibiltten. "Asko deko" ori bai, "Beterik tau", frutak eta orre pai baya..., "Lapan dau arbolie!", bai, orregas be aittuteu. || *Lapatzin?* Bai, bete-beteri badau. Lapan be esaten da, da lapatzin be esaten da.

**lapiku, lapikue.** (LAPIKO) Puchero. Ik. *tarterie*. || *Aluminiosko lapikue*. || *Lurresko lapikue*. || *Topiñik lapikuri: Ipurbaltz!*

**lapikoko, lapikokue.** (LAPIKO) Cocido, olla. || 'Lapikokue' da geuse askogas eitte osuna: nai indarra, nai lentejie, nai sopie, fideu... Ostantzien lapikokue eiñ esik, ba ixeten da geuse sikue jatie. Lapikoku ixeten da egosi dana, egositteku. || *Erdi egositte deket lapikokue*. || *Lapikoko barik gu eskara akostunbrauko*. Onek egon siriñ urte askotan bokadilluas, da sisku einda amaittu! Gu eskaus bokadilluas bixitzeko einde, lapikoku biau, bai. || *Lapikokue da geuse egosidxe, lapikoko indarra, edo patatak-edo*. || *Ikesgiñen lapikokue gosuena*. Biar asko eitte balako.

**lapis, lapixe.** (LAPITZ) Lápis.

**laprast.** (LAPRAST) □ **laprast ein.** Resbalar. Ik. *labandu*. || 'Laprast' da lenguk esate bena. 'Txirrist' oinguxiek esaten dabe 'laprast bayo ariñau. Baya ostantzien len 'txirristik' entzun be esan eitten, 'laprast' bayo. || *Laprast ein, de jeusi*. || *Laprast ein deu!*

**laprastia, laprastie.** (LAPRAST) Resbaladizo, -a. || *Arri laprastie: sera, onan, arridxe beratz, leune bada*. Mendi baten be igul arri laprastie igul ogei metron-edo, laban eiñ eskero bueltara juteko modun. || *Arri laprastie? Laban eitten dana*. || *Arri laprastie da atxegi eta barik, lixo*. Bueltaka asi eskero, garatu barik beraiño juteko modun.

**laprastada, laprastadie.** (LAPRASTADA) Resbalón. Ik. *labankadie*. □ **laprastadi ein.** Darse un resbalón. || *Laprastadi ein dxuat!*

**lapur, lapurre.** (LAPUR) Ladrón, -a. Ik. *ankabikue*. || *Lapur da*. || *Iñonak artzen battu, lapurre esate tzeu guk*. || *Ume lapurrori!* || *Katu lapurre!* || *Lapur utze da!* □ *Lapursulo* da Nabarnizko toponimo bat. *Argiarrosar* baserria baino beheragoko baso bat da, *Sasiturridxa* erreka ondoan dagoena.

**lapurreta, lapurretie.** (LAPURRETA) Robo, hurto. || *Bidxe arreleute, lapurretan jun sin*. || *Niri geuse bat faltaten bayatek solotik-edo: "Lapurretie ei-stek"*.

□ **lapurretan.** Robando, hurtando. || *Jittanokeridxe da ba geusa bat eiñ e, da edo jugadan bat-ero, da jittanuk beti be lapurretan edo jugadatan, "Jittanokeridxe, jittanuok ori jittanokeridxe ein dxok!"*. □ **lapurretan ein.** Robar, hurtar. || *Ori lapurretan eiñekue dok*.

**lar.** (LAR) Demasiado. Izenondoekin erabiltzen da, izenondoei -e(g)i atzizkia erantsita. || *Lar eundidxeidxe da olan ibiltteko*. || *Esne murgille, jatzi, txala ein, de batera eitte dxakona, lodidxe, da axe jan kollarekin, junde lantziñ etze batera olan txala eikerakun, "Esne murgille dxak, eta etorri!"*. □ **sobra ta lar.** Más que de suficiente. || *Esate baterako, iñoke agintze ba ittu landarak, ba "Ezin deketas sobra ta lar, estot biar"*.

**larako, larakue, lakue.** (LARAKO, kabila) Clavija, pasador. || *Larakue da —oiñ estire bustertzen, da esta usetan—, beidxeri ipintte dxake, beidxe bustertzen dirinien, busterridxe ipintten deu larakue, da ixaten da, ba se esangot neuk? Sostorra bayo lodidxau, aren tamañoku bayo metxuau, edo olakoxie*. Da ipintte dxakona nardeki ixeten da, beidxeri, busterridxeri sartze dxakona. Ixeten da, onen tamañoku-edo ixengo da, da eukitte ittu puntak, sartuberan, sulu-sulu-suluk eukitte ittu. Ba eukitte ittue, iru, edo lau, edo bost, edo sei-edo suluk eukitte ittu. Da laraku da antxe sulutan sartunde egoten dana, busterridxen dabixen ganaduri ipintte dxakena defendiduteko. Da laraku esate dxako ba busterridxen sartze dxakona. || *Partikan sartzen dana da larakue*. Partikik eukitte ittu, ba ser, olanik e, sulu-sulu-suluk eukitte ittu, da antxe eurrerau jun, edo atzerau jun-edo ba antxe sartzen dana. || 'Larakue': a, ganaduek burteran, larakue partikeran esartzen dxako. A ixeten da egurreskue. Ori etara, ta soltau eitten da. || *Burtedie busterridxeri eitte dxako, busterridxe eukitten deu burtedie*. Da gero burdidxen partiki, edo narra..., oin narri pe-esta ibiltten, len emen narras juten giñin, da narren partikie sartzeko, burtedan sartu bi ixate san, da lakue ipiñi bi ixate dxakon, burtediñ eurreko partetik laku esarte dxako. || *Da gero lakue esarte dxakon nardekiri, da beidxe busterridxen ipintteko*. || *Edakiñ eitte san ba an, da gero antxe sartze san, da atziñ ipintte dxakon lakue, atzera ganaduk eitte banin, ba atzera jun esteidxen*. Da eurrin beste bat. Da antxe jun biste ban ak. Aurrin bat eta atzin beste bat. Da a ganadu tireka eukitte tzone ixete san lakue. Batzuk burdiñasku usete ben, baya egurresku en jeneral guk. Au elorridxe, elorri baltza, a es san apurtzen. □ **larako sulue.** Clavijero, agujero donde se introducen las clavijas.

**largau.** (LARGAU, largatu-bat.) Dejar, abandonar. || *Largau deust.* □ Tratu bat egitean, eskatutako prezioari eusteko esateko, honela esaten da: "Es largau!": *basabis tratu bat eitten persona bategas, edo piñugas, edo ganadugas, da: "Es eidxosu largau!"*.

**largu.** (LARGO) Abundantemente. Ik. *ugeri.* || *Largu da, ser esangot neuk?, geuse franku bat.* || *Largu deko.* || *Largu emoten deu.*

**larogei.** (LAUROGEI) Ochenta.

**larogetabat.** (LAUROGEITA BAT) Ochenta y uno.

**larogetasak.** (LAUROGEITAZAK) Ochenta y tantos, -as. || *Oin semi larogetasak urtetaku-ta.* || *Larogetasak urtetako kontu di orrek.* || *Oin larogei bokos, larogeikue-ero, baya larogei pasau eskero, larogetasak.* || *"Larogetasak urte dxekosak". Esate baterako, nik e deukedas larogetabat urte ero bi tte "Larogetasak urtik ein dxak". Bein pasau eskero ortik, '-tasak', senbat es fijo, baya 'larogetasak'.* || *"Larogetasak urtik dxekosak". Oin larogei badekos, ba larogei esate tzesu. Da irurogei badekos, bardin-bardin. Ogei badekos be, 'ogetasak urtik' eta. Amar boukos, esin de esan 'amarresak'. Baya beiñ ogei pasau eskero, ogetasa pai.*

**larogetasortzi.** (LAUROGEITA ZORTZI) Ochenta y ocho. || *Urtik asko ak. Arek eukiko ittus larogetasortzi-amar urte. Bai. Da makalaldidxe be euki ban atzera. Da oiñ osta be martxi dabil.*

**larra, larric.** (LARRE) 1. Pastizal. || *Ganadue larrara daroi.* || *Badaroit larrara.* || *Ganadue larran dabil.* || *Larrien dau.* || *Larra da, beidxek-eta ibiltten dinin kanpuen jaten, larric: "Larran dabis beidxek"* || *Engantxate dxako katie bat, larran euki gure bosu, sokie lotze dxako ara, ta egoten dire.* || *Len ba saldidxe eukitte gendun, bier eitteko, bedarra, bedar berdi ganaduntzako ekarteko, se ganadurik len larrara eskendun ataraten.* || *Ganaduk botaten sus oin ba larrara, sekule ata bakuk, da arek dabis batera ta bestera ta len ibilttaku, "Eske, ekandute dxak ori lendik".* 2. Hierba. || *Larric ona dau or!* || *Larra txarra dxak or.* || *Gero (ardidxe) bejatzzen basen orra..., Gernike ondora be larrak jan ereitten.* □

**larra basue.** Bosque bien provisto de pasto. || *'Larra basue': basue bedarras, da ganaduk jateko modun deuna.* || *Larra basue ederra dxak or be.* □

**larra beidxe.** Vaca montaraz, bovino de monte. □ **larra kabaliñe.** Clavel silvestre (*Dianthus monspessulanus*). Bergara aldean basa *klabaliñe* esaten zaio (Elexpuru); Gatican *larra klabaliñe* (Gaminde). || *Larra kabaliñak ainbeste koloretakuk egoten dire, kolore bi emote ituna pe bai, gorridxe pe bai, da gorri illunek egoten dire, gorri argidxe pe bai, bardinak. Ba badas kolora bat bayo geidxau.* || *Larra kabaliñe da txikidxau. Suridxe be badau, gorridxe, kolore bi-iruku pe badas...* || *Nik pentzetot orrek larra kabaliñak naiku silbestrik diña bai, larretan be egoten dire.* || *Arek kabaliñak batzuk*

*ixeten diren aundidxauk, beste batzuk txikidxauek. Da ori larra kabaliñe ori asten da mendidxen, olan or-emenka asten da. Da kabaliñiek eukitten dabe eundidxe.*

□ **larrako saldidxe.** Caballo que no es de tiro que se le deja en el monte para pastar. || *Larrako saldidxe mendiko saldidxe da. Tirako-ta estanari. Oiñ e, oiñ e das orre ixenak. Len saldidxe esate dxakon. Oin batzu daus larrarakuk eta besti daus e tirarakuk, onek probarakuk-eta.* || *Larraku da solte ta mendidxen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba.* || *Bueno, larrako saldidxe etzera ekarten estan saldidxe da, larrako saldidxe. Larra saldidxe be esaten da, larran e..., oten dan e..., jateko larrara ataten dana: larra saldidxe.* □ **larra subie.** Víbora. Sin. *sube gorridxe.* || *Larra subie esate tze sube gorridxeri. Sube gorridxe benenu dekona da, benenu dekona. Ta emen berton larra subie etxako esaten ainbeste, sube gorridxas emen aittuten da, baya larra subi be esate tze.*

**larramendi, larramendidxe.** (LARRAMENDI) Monte bien provisto de pasto. || *Larramendidxe esate dxako mendidxeri, larri ganaduntzako dekonari-edo.*

**larregi, larregi, larreidxe.** (LARREGI, gehiegi, sobera) 1. Demasiado, mucho. *Geidxegi ere esaten da.* || *Dirue larregi euki eskero, alpertu eitten da gausa gustidxetarako.* || *Larrei emon tze jaten.* || *Larregi bota dxako ure, siriñe da.* || *Suri larridxe es.* || *Larreidxe dok.* || *Larrei estok ixango.* || *Konpuerta sarratu ei bixate san ur larrei etorri esteidxen.* || *Gerniken jente larrei ibiltten da. Bueno! Da moskorra ta abarra ta lorriñe! Akabue!* 2. Sobresaliente. || *Larreidxe dxabik.*

**larri, larridxe.** (LARRI) 1. Grande, mayor. || *Ogidxe bayo larridxau san.* || *Bero eundidxe dabil, bero larridxe dau.* 2. Apurado. Ik. *estutu.* || *Larri dau.* || *Larri egon nas!* 3. Desmayo. || *Personiri konortie galtze dxakoniñ e, "Larri eundidxe deko".* || *Etxako larridxe juen.* 4. Náuseas, ganas de vomitar. || *Larridxe etorri dxako.* || *Botateko larridxe.* 5. Excesivo, -a, muy fuerte. || *Oreganue bedar bateri esate dxako, a usein larritxu eukitten dabenari, tte batzuk e murtzillari eitte tzo.* □ **axe larridxe.** Ventarrón. Sin. *axe eundidxe.* || *Axe larridxe? Axie geldi egon esiñik dabileniñ e, ara-ona, ara-ona, axe larridxe, euridxe ekarteko axe.* || *Axe larridxe daunin jeneral euridxe ekarten deu.* || *Aixe larridxe dau oin.* □ **gomittu larridxe.** Náuseas, ganas de vomitar. || *Gomittu larridxe deko, larri dau.* □ **ixerdi larridxe.** Sudor originado por el mareo, nauseas o malestar. || *Ixerdi larridxe: ori jeneralien emakumiek enbarasada daunin, da elixan dauniñ eukitten deu ixerdi larridxe.* || *Debil daunin, edo askotan beru pasaute daunin, kanpun biarrin-edo, da bero aundidxe egonda, beru pasau-edo ein badeu, ba eukitten da*

*ixerdi larridxe.* || *Elixara sartuten bada, "Ixerdi larridxe eukin ddot".*

**larridxaldi, larridxaldidxe.** (LARRIALDI) Mareo.

|| *Larrialdidxe pasau dxok!* □ **ixerdi larridxaldidxe.** Momento crítico, caracterizado por por el mareo y el sudor. || *Ixerdi larridxaldidxe pasau deu.* || *Ixerdi larridxaldidxe euki deu.* || *Ixerdi larridxaldidxe? Ixerdidxe e urteten deu nobera erdi larri daunien, da ba ixerdi larridxaldidxe.*

**larrin, larrinë.** (LARRIN, larrain-bat.) **1.** Plataforma donde se hace la pira para producir carbón. Ik. *ikestoki larrinë, iketz larrinë.* || *Iketz larrinë olako leununer esate dxako.* **2.** Plataforma frente a la casa. Kortako satsa etxe aurreko larrainera ateratzen zen eta bertan uzten zen satsa egiten. Horregatik askok *sastaidxe* eta *larrinë* nahasten dituzte; batzuek *sastaidxe* esate dute eta beste batzuek *larrinë.* || *Larriñe esaten dxako eurreri, etziñ eurreri. Oiñ onek arregleta daus, baye len orretan larriñe esate dxakon etziñ eurreri. Egote san lurre-edo, sattarreridxe-edo, da ari larriñe.* || *Baserridxetako etzaurrekuri be larriñe esate dxako.* □

**txondor larriñe.** Plataforma sobre la que se hace el carbón. Ik. *ikestoki larriñe, txondor lekue.*

**larrittasun, larrittasune.** (LARRITASUN) Mareo. || *Larrittasune ein dxako.* || *Larrittasune etorri dxako.*

**larrittu.** (LARRITU) **1.** Marear(se), tener náuseas. Ik. *mariau.* || *Larrittu ein da.* **2.** Desmayarse. || *Larrittu ein da.* || *Larrittute dau.*

**larriune, larriunie.** (LARRIUNE) Aprieto, angustia, (momento) de apuro. Sin. *estualdidxe.* || *Larriunie euki deu.* || *Larriune itzela pasau dxok!* || *Geixori be, "Dios, larriunak pasau ei xak!".*

**larrosa, larrosie.** (LARROSA, arrosa-bat.) Rosa. Ik. *sasilarrosie.* || *Larrosa txortie.* || *Loratzue da larrosie.* || *Pipittan dau larrosie.* || *Larrosa boladie.* || *Esaterako, larrosa useiñe badau esate su: "Selako boladie da!".* || *Estau arantza bako larrosarik.* □ **asto larrosie.** Cierta variedad de rosa. || *Asto larrosie? ba, guk asto larrosie —estait emengo aldidxen geurin badau— esate tzeu lota bateri. Ainbeste koloretako lorak eukitte ittu berak. Asten da aundidxe, taketa les asten da, da urtete tze olako..., ser esangot neuk?, olako pinporta les-edo urtete tze beti gora, da arixeru urtete tzen lorak, asto larrosi esate tzeu.*

**larrune, larrunie.** (LARRUNE) Zona de buen pasto. || *Larrunie ostantziñ ixeten da, or bedarra-ero ederra badau, "Jo, an dxak larrunie!". Jateko geusi ederra.*

**lasau, lasatzen.** (LAZAU, lazatu-bat.) Enganchar, enlazar, embrollar. || *Lasaute dekoks eskuk.* || *Lasatzen: lotu eiñ eskerun.* □ Txakurak edo ganadua lotuta daudenean eta soka anketan trabatzen zaienean, honela esan ohi da: || *Lasaute dekoks anak edo Lasaute dau.* || *Beidxe, olanik, iñois neuri be asartau dxaten iñois solun katittu, ba aringaringa dabixela-edo, bata bestin*

*kontra-edo, anak, serak, deken katias edo lasuas-edo katittu eitte itue igul, da ba lasaute gelditzen dire, librau ein biar ixaten da.* || *"Txakurrek lasaute deko ainkie": lasaten badeu, bai. Lotunde daun txakurrek ainkie nastetan badeu an lotute daun lekun, baya txakurrek baki ainki libretan.*

**laso, lasue.** (LAZO) **1.** Lazo, trampa. || *Aseridxe atrapateko ibiltten da lasue.* **2.** Lazo, cuerda con que se ata el carro y la narria. || *Burdidxeri, nai narrari ipintte dxakon sokiri be lasu esate dxako.* **3.** Lazo, atadura o nudo de cintas que sirve de adorno. || *Lasu da umiri burun ipintte dxakena.*

**lastamarra, lastamarrie.** (LASTAMARRAGA, lastamarrega-bat., lastaira) Jergón, cuya funda se ha llenado con los forros de la mazorca. || *Lastamarrak kapasias eitten siren.* || *Antxiñe lastamarrakiñ einde koltxoidxe.* || *Arturi kendu a kapasie da axas ein, noberaren aspidxen lo eitteko egote san antxiñe; lastamarrie.* || *Lastamarrak beru siren.* || *Or egon san oe eundi bat, eta mollarik estekona; aspidxen olak, olak eukitte sittun, da ganin gero, lastamarra esate gentzon, kapasakin, artaburun ganeko asalas, lastamarra esate gentzon, da gero ganetik koltxoye eukitte ban. Da umik lo eitteko-ta ortxe egote san.*

**1 lastan, lastana.** (LAZTAN) **1.** Beso. Ik. *mosue.* || *Emoistesu lastan bat!* || *Ekarrixu lastantxu bat!* || *Lastan bat emongo tzut.* **2.** Cariño. Normalean emakumeek erabiltzen dute umeei esateko. || *Ene lastana!* || *Neure ume lastana!* || *Etorri ona, lastana!* || *Au gure lastana!*

**2 lastan, lastana.** (LASTAN) Parte que se encuentra debajo de la flor del maíz. Berez, *lasta-gana* edo *lasto-gana* da. || *Lastana artueri kentze dxakona da.*

□ **lastan ein.** Quitar la flor del maíz. || *Arturi lastana ein, goidxe kentze dxakonien, lorie kentze dxakonien, "lastana ein" esaten dxako.*

**lastandu.** (LAZTANDU) Acariciar, hacer carantoñas. || *Lastandutie? Ba ume bateri mosuk emoti-edo, lastandutie. Xerak eitti be bai.*

**lastasau, lastasaue.** (LASTAZAO) Gavilla, haz de paja del trigo (especialmente el utilizado como antorcha). || *Lastasuas jute giñen. Olan batze san, garidxe jota gero, jo orduko egote san lastasue einde. Da aixas, emon sue puntan, da etze batetik bestera juten giñen.* || *Lastasaue: a asaue lotute, garidxe ebeitte. Len alakoxik einde argi eitte san. Es san egoten besterik eta; farola edo axe linternie, pentzau bes!, ikusi bes linternarik!*

**laster.** (LASTER) Enseguida, pronto. || *Laster nator.* || *Ondiño loratu estok ein, baye pipittan dxak, laster loratuko dok.* || *Laster aspiretu deu!* || *Txakurrek sauste-sauste laster jango deu.* □ Hiltzeko gutxi falta zaionari buruz honela esaten da: || *A be gorako laster dok.*

**lastima, lastimie.** (LASTIMA) Lástima. || *Lastimie, egon sirin ba gurin lusero ta galdu sin.* || *Lastimie a eittie!* || *Da ori su ori kentzekun be ibili giñin de lastimi dela kentzie, emen aitte pe ta, olakoxe lekun be su ein biar ixaten dala, ta eskendun kendu!*

**lastimagarri, lastimagarridxe.** (LASTIMAGARRI) Digno de lástima, digno de compasión, que causa compasión. || *Geuse bat apurtu, nai des eitten danin, ba lastimagarridxe: "Lastimagarridxe ixen da ori pasetie".* || *Maittegarriidxe da lastimagarridxe laku.* *Maite, maite bat, maite ixetie, "Maittegarriidxe da ori eitti be", lastimie geusi apurtzi ero olan.* *Esate baterako, amen edoser e, sagar landa eder bat, nai madari... edoser geuse, "Auri ixen da lastimagarridxe!" iguk esate su, da maittegarriidxe be bai.*

**lasto, lastue.** (LASTO) Paja, tronco del maíz. || *Arto lastue.* || *Lasto artie.* || *Lasto utze da.* || *Lastue da artuna, Garidxena da galtzue.* || *Da a ota-bedarra ba asko gusturau jate dxuen a lasto santarra bayo.* □

**lasto orridxe.** Hoja del tronco del maíz. || *Siketzen danin, lasto orridxe.* □ **lasto serrie.** Especie de hoz para cortar el tronco del maíz que se da a la ternera. || *Beidxeri eskentzen joten, garidxe eraitte san len, da beidxeri eskentzen joten, baya txalari emoteko galtzue, antxe lasto serran jo eitte gendun, olantxik, ebei eitte gendun, da ebeite naiku satitxu txikidkek ein be bai, txalak jan deidxen.* *Beidxeri es, beidxeri osorik emote gentzen.* || *Bueno, ixete san, serri olan bedar ebateko moduko serri es.* *Da lasto serri ixete san, olantxik esarte san e beren lekun, burdiñatxu bat eukitte ban, da antxe burdiñatxun e atzin sera dekona ixete san, olan goitti bera sartzeko.* *Da gero serrie olantxik.* *Da antxe jote san e galtzu.* □ **lasto trongue.** Tronco del maíz. || *Lasto trongue? Ba orrek artuek asten diriñiñ eundidkek, ya lori-tte eitte dxakes, da gelditzen dana, solun gelditzen dana, arixerri lasto trongue esate dxako.* □ *Hona hemen lastue eta lasto trongue arteko desberdintasuna: || Bai, ba tire. Lasto trongue... ser esangot neuk? Lasto gastie edo bigune esta lasto trongue.* □ **gari lastue.** Caña del trigo. Ik. *trillue.* || *Gari lastue esaten dxako asauri. Asaue, se garidxe erein, te lotu, da asautan ipintten da, da gero metan ipintte san. Da gari lastue arixe esate tzen.*

**lastre, lastrie.** Lastre, imperfección del material. || *Lastrie? Bai, lastri liorra. A... seinde ori arapue esate dxako, arapu, ba antzera deuna lastrie. Lixu barik lastri. Besti lixu esate dxako, oten dana gosatzu, egur lixue.* || *Troska lastrie.* || *Arbel lastrie.* || *Onek egurrek lastrie emon dxok.* || *Da baitte olan e txaplan deun orre pe lastrie deko.* || *Lastrie... troski be alan egoten baki.* □ **arri lastrie.** Tipo del tipo de la troskie y que es muy resbaladiza. || *Da sera olan txaplana dausen arridxei be, arri lastri.* || *Emen kontu mutillak,*

*emen arri lastrie dak.* || *Arri lastrie, bai, esate tze, lastrie, a saborreidxeri esate tze lastri.* || *Arri lastrie da onek e... Biditan-da oten da ba arri troski edo labana? Arexek. "Ño, bide labana dxak!" edo "Arraspi dxak!".* || *"Arri lastri ok", arridxe, bakixu, edo labana badau, edo arridxe erripie, da "Ño, ori troski dxak!", edo "Ori laban-ok!" edo bakixu. An igul arri troski badau edo ontan alturetán, esin dosu urten, ankari pe esin dosu ipiñi tte. Alakoxiri esate gentzen.*

**lata, latie.** (LATA) **1.** Lata, tabla delgada sobre la que se aseguran las tejas. || *Gero kaperidxuen ganien latie josten da. Len gastaña adarras eitten san.* || *Gallurreko agie esaten da nausidxe, araxe doyes orrek kaperidxuk. Da gero aren ganin latie, da latin ganien tellie.* **2.** Lata. || *Emen tangarru esate tzeu, seinde tomate lata bat, nai piper lata bat utzittute jeurten dan bat, tangarri arixe esate tzeu.*

**latigaso, latigasue.** (LATIGAZO) Golpe muy fuerte. || *Latigaso bat emon tzo!*

**latigue.** **1.** Golpe muy fuerte. Ik. *garrotie.* || *Latigue emon tzo!* **2.** Vara del maestro.

**latro, latrue.** (LARATRO) Taladro. Ikus *ginbeleta, berbikiñe.* || *Latruas sulue ein.* || *Latru: egurretan suluek eitteko.* || *Latrue ginbeleta lakue da, latru.* *Orrek dire danak eskus eittekkuk. Latruk sulo aundidxaue eitten deu. Da ginbeletak eitte ittu txikiauek. Metxie esate tzeu guk orreri, onek birbikiñen puntari metxak esate tzue. Ba batzuk lodidkek, ta bestik meyauek dire orrek. Ba onek ginbeletak txikidkek ixeten dire. Ta eundidxauek ixeten dire T are pe: latrue.* || *Latru be suluk eitteko ixaten da, eskus, suluk eskus eitten dire. Edosein ba, egurreri-edo sulu ein biar badxako, ba latrues.* || *Bai, orrek e klase bat bayo geidxau daus. Dau, oten da fiñae, otan da loditxuau, oten da geusa..., sulotu, gogorra sulotzeko oten aundidxaue, orrek oten dire iru edo lau klase edo geidxau be: latru.* || *Bueno, bai, taketa sartzeko latro aundidxas eitten da sulue, da burdidxeri eitte dxakos da taketak antxe sulun sartzen dire.* || *Taladrue ta latrue diferenti di. Latrue da eskus eitten dana. Taket bat sartun, amendik taketa sartun. An latru da... Amen ague, ogu eukitten deu, ta ametik sartun ori, te onan erreitte tzo.*

**1 latz, latza.** (LARATZ) Llar, cadena de hierro, pendiente en el cañón de la chimenea, con un garabato en el extremo inferior para colgar la caldera, y a corta distancia otro para subirla o bajarla. || *Latzien eskeitte.* || *Latzien esegi.* || *Latza beko suetan egote san, latza katiakin, goittik bera tximiñidxen erdidxen, esni-te egosteko, ta galdadxak-eta ipintten siren onan, da beyen ein sue.* || *Tximidxe egote san da an egote san katiakiñ olan latza, da galdaye ipintten san, bertan galdayan esnie egosteko, betik sue einde.* || *Galdatxue da a latzari inkeute esnie egosteko usete sana.* || *Da onek ortxe goidxen, onek tximinidkek ortxe goidxen, ortxe, ortik agetik eta ona agera burdiña bat teko, da a*

latza antxe burdiñari egoten da dingiliske. || Laatza altzau te bajatu eitten da. Bi daunin ba bajatu eitten da berau, da altzau bi danin ba altzau eitten da, galdara aundidxau edo txikidxau edo lapiku eundidxau edo txikidxau selaku ipintte dxaken. ☐ || "A be latzak esautzen deu": Bai, gusurretan dabilleniñ esaten da jeneral ori, "A be etzeko latzak esautuko deu". Nai txarra dala, nai estakidxenin bayo personi selaku dan esautzen daniñ esaten da. || Etzeko latzak esautzen deu. || Ori len sarrak euki ben ori kostunbrie asko: "Etzeko latzak esautze ittu". Ori ba, lenguek asko esate ben. Noberak esteritzona-edo esatek-edo. || Etzeko laratzak esautzen dau etzeko jentie. ☐ Izakera-edo gurasoengandik edo aitita-amamengandik hartuz gero, honela esaten da: || Etzeko latzak agertzen deu nor dan ori.

**2 latz, latza.** (LATZ) 1. Aspero, -a, rugoso, -a, basto, -a. Ik. ligorra. || Latza dau. || Karduk e ba se esangot neuk? Ba payo geidxau daus karduk. Latzak estiriña pe bai, kardu badaus solun urteten dabena eta olan arantzarik estekena pe. 2. Duro, -a, difícil. || Biximodu latza ixte dxok a pe! || A pe latz ereitxi tze areri, da etxok ein, itxi tze. || Negu aundixte eitte dabenin negu latza esaten da. || Eser faltarik esposu, "Orrek etxok etziñ e esik", "Latz estok bixi ori". Da beste bat ba bixi bada txarto-edo, "Ño, biximodu gogorra dxok orrek!", "Latz dxak orrek biximodue!".

**lau.** (LAU) Cuatro. || Lau parte ein. || Badxatosak lau mutil. ☐ **lau ankan.** A cuatro patas, a galope. || Lau ankan jun da kaballue. ☐ **lau oñan.** A cuatro patas.

**lauko, laukue.** (LAUKO) Cuatro, de cuatro. || Laukue: esaterako, pareja bi ixete dires, lauko parejite esate tzeu guk.

**laukote, laukotie.** (LAUKOTE) Conjunto de cuatro, cuarteto. || Laukotie esaten da probatan. Len probak egote sin, gixon probak, bikotik, eta irukotik, ta laukoti pe bai, da ordun bai esate san. || Gixonari probatan: "Laukotie ixen dok".

**laukotx, laukotxa.** (LAUKOTX, laukoitz-bat.) Cuadruple, cuádruplo, -a. || Askok esaten dabe: Lau gixon, esate baterako, proban badaus be: "Laukotxiñ ein deus". Lauko parejien.

**launada, launadie, lanadie.** Planicie, llanura. || Launadie? Ba au, eskatza be ba, estau erriparik eta launadie. || Launadie: leune bada.

**lauortz, lauortza.** (LAUORTZ) 1. Horca. || Lauortza gitxi useten da, ortza pe oker-okerrak dekosa, alkarren kontra. 2. Rastra, rastrillo de cuatro púas. Lauortzekue ere esaten da. || 'Mamindu' guk e soloko geusiri esate gentzon 'mamindu'. Edo arias, edo bostortzas, edo lauortzas mamindu. Da oiñ estales ibiltten bostortzipes, da lauortzipes. Arie ta..., oiñ are burdiñesku pe or egongo dire estropiaute, bastartute. Oiñ are pe ainbeste estire ibiltten, len ibiltte siriñ are

pe, ariek, ba burdiñeskuk, baya oiñ estire ibiltten arek. || Lauortza da lauortzekue ba tire. Lauortzak lau..., se esangot neuk?, lau ortz eukitte ittu olanik, da solue antxiñe, solue gosatzeko ibiltte san. Edo eitten deu e olan arrastadatzuk eta sulotxu eitten deu, da antxe artu botate san.

**lauortzeko, lauortzekue.** (LAUORTZEKO) Rastra, rastrillo de cuatro púas. || Mamindu? Arie bakixu selaku dan? Ortzak eukitte ittuna. Ba arias be mamindu lei. Da len bostortza be, bost ortz dekosen, beidxekiñ ibiltte sana. Ba a asko ibiltte san, da lauortzeku esate dxakona be, lau ors dekosen be, a be beidxekiñ ibiltte san, da artu eraitte san markara, lauortzekuas olanik. Da oiñ estire ibiltten es bata, da es bestie. Arta-pur bet eraitten da.

**lauren, laurena, laune.** (LAUREN, laurden-bat.) Cuarta parte. || Ordu lauren. || Osu barik, edo erdidixe, edo laurena, kuarta bat esan gurot. || Kuartie anein laurena da. || Txala be olan partiten, len ixete san, lauren ixaten da erdidixen erdidixe, da lau laurena eitte sin txalak emen aintxiñe etzitarako. || Arek gari joteko makiñik eutz asko emoten deu personentzako. Da mudau eitte sirin, bakotxiñe iru ordu lauren-edo eingo sittuen gari josten. Da txanda bi eote sirin joteko. || Oin solorik esta karezen. Karie len eitte san. Ein karie, da solora bota ta nastaute inddarra artzeko ta geusi artzeko len konpontze sirin soluk eta. Oiñ e lengo erdi esta... lauren solo badabis, se geu pe satitxu ba tabigu bakarrik eta. || Susenien, da artu beyen, da gora jutten basara, sarran, "Sarra baten eruidxok!" edo. "Untze laune ein dxok", edo "Untze erdi ein dxok" edo "Iru untze laun ein dxosak".

**lausiriko, lausirikue.** (LAUZIRIKO) Ochoavo (moneda antigua). || Estot esautu nik lausirikori pe. Entzun bai.

**lauskittu.** (LAUSKITU) Romper, dañar. Lauskittu nahiz trauskittu esaten da. Ik. apurtu, des ein, lorrindu, triskau. || 'Lauskittu' da triskau eitti les, lauskittu, lorriñe. "Dana lauskittu ein dxok". Erropie, nai bedarra be bai. Bedarra de dana lorriñ eitte bosu: "Lauskittu ein dxok dana!" || Sagar bat erdi ainkadak ein, erdi lorrindute jaurtitten danin: "Lauskittute jaurti deu". || Dana lauskittu dau. || Trauskittu? Lauskittu, dana apurtu.

**lausu, lausue.** (LAUSO, gandu) Nube o catarata del ojo. Turbiedad. || Lausue deket begidxetan. || Lausue: esakeri da olanik begidxe-eta apur bet illundu edo sertzen dinin: "Begidxe lausu eiste". ☐ Esaterako, eguzkiari begira egon ondoren ere esaten da: || Dios, lausue ein dxatek! ☐ Eguzkiari buruz ere esaten da eklipsea dagoenean: || Euskidxeri be esate tzeu guk, a tapeu edo ori, eitten dan ori, eklipse modure: "Lausue ein dxakok euskidxeri".

**lausotu.** (LAUSOTU) 1. Enturbiarse la vista, nublarse la vista. || "Begidxe lausotu dxakos": ba bisti galdu, gitxiu ikusi-edo, lausotute. 2. Enturbiarse, empañarse.

|| *Antijuk lausotu ein dxakos, da ba kendu, te garbittute.*

**lebaskune.** (LEBAZKUNE, legatz-kume-bat.) Pescadilla. *Peskadillie* ere sarri esaten da.

**lebatz, lebatza.** (LEBATZ, legatz -bat.) Merluza. || *Lebatz burue.* || *Anklies atrapaneko lebatza asko obie da.*

**legan, legana.** (LEGEN) Excoriación. || *Legana da ori. Asala ligor-ligor eitten da, ba ori inketakue, sabaldu eitten da.* || *Legena? Seri esate dxakon esangot. Eskuen-edo, besun-edo urteten dabenari, ba arixerri esate dxako.* || *Legana? Neu pe ondo estaki ser dan baya seoser e arpeidxen edo eskutan edo nunun urteten dabena.*

**lege, legie.** (LEGE) 1. Ley. || *Legie ausi dabe.* || *Legie apurtu dabe.* || *Esteu beteten orrek legerik.* || *Aittue da legitan.* 2. Manera. || *Aintxiñeko lege sarrin.* □

**legie ein.** Cumplir con la hora de comer o con cualquier tarea cotidiana. || *-Baskaldu dosu? -Legie ein dogu.* || *Geurko legie ein dogu.*

**legegixon, legegixona.** (LEGEGIZON) Abogado, hombre de leyes.

**leges.** (LEGEZ) Legalmente, legitimamente. || *Berak leges esteko pasorik, baya pagau eitten deu, berari komeni dxakolako.*

**lei, leidxe.** (LEI, izotz) Hielo, helada. Lur azala zuri-zuri egoten denean, *leidxe* edo *lei suridxe* esaten da, baina ikusten ez denean eta gogor-gogor dagoenean, *antzierra* edo *lei baltza* esaten da. Ik. *antzierra, edurre.* || *Leidxe be suri-suri ikusten da dana, da igerten dxako. Da iguel esta igerten, da gogortute, da orreri esaten dxako antzierra.* || *Leidxe itzela ein dxok.* || *Leidxe ein bi deu geur.* || *Leidxe apur bet ei ban gero.* || *Lei apur bet bota deu.* || *Leidxe dxok gogortute.* || *Atzo leidxas gogortute egon san kamiñue.* || *Leidxe atzo egon san aundidxe.* || *Laidxakin solue buelta emonda ipiñi, leidxek eta serak lurre erre edo sertu esteidxen.* || *Dana suri dau leidxeas.* || *Leidxek surittu eitten deu ba.* || *Ure be gogortu ein dxok leidxek.* || *Bei mantie? Bueno, kortan esta ibiltten. Bai, otz aundi bat badau, lei aundidxe ta otz aundi bat badau, ba ordun ipintte dxako e txal txikidxe dekonari.* □ **lei baltza.** Hielo muy fuerte, costra de hielo. *Antzierra* ere esaten da. Ik. *lei suridxe, antzierra.* || *Ointxe esan tzu pa. Ikusten estana da lei baltza. Da askotan ba kamiñun estakixu ser daun be, basois de an sois. Da lei suridxe kamiñun bayo sano oten da bedarrien, bedarra oten da suri-tta.* □ **lei suridxe.** Helada, capa blanca de hielo. Ik. *lei baltza, antzierra.* □ **leidxek ein.** Caer heladas. || *Askordiñek jeneral leidxe dauniñ agertzen dire, leidxek eitte ittunin, orduntxe agertzen dire, bitzetan, da atzamarretan be igul, belarridxetan be bai-tte.* □ **leidxek erre.**

Echar(se) a perder a consecuencia de la helada. || *Leidxek erre dau patatie.*

**leidu, leidunten, leiten.** (LEIDU, leitu-bat.) Leer. || *Ondo leitie.* || *Ein deidxela letrie ondo, danak leidu deidxen.* || *Baten libruue leidunten juen nitzen da bei batek adarkadie emo eusten.* || *Ori beti dau leidunten.* || *Oiñ e badaus oin bertzolaridxe on daus, baya len e gorako ak bertzotan e estudidxo barik e eitteko, pastore bat..., leiten estakit takidxen arek!*

**leidxal, leidxala.** (LEIAL) Leal, fiel. Ik. *sintzue, susena.* || *Leidxala? Bueno, sigurre-edo nik pentzetot esan gureko dabela.* “*Leidxala da*”-edo, *olan gusurrik esaten estabena-edo.*

**leidxaltasun, leidxaltasune.** (LEIALTASUN) Lealtad, fidelidad.

**leidxo, leidxue.** (LEIHO) Ventana pequeña de los caserios antiguos. Gaur egun *bentanie* esaten da gehienbat.

**lein.** (LAIN, adina) Partícula comparativa de igualdad, que expresa cantidad, equivalente a *tanto...como*. Ik. *beste, beste lein.* || *Bustitzeko leiñ ein deu.*

**leittu.** (LEITU) Caer heladas; helar. || *Egunek leittu dxosak onek (egunaro leidxe eitten badeu).*

**leixa, leixie, lexie.** (LEIZA, leize-bat.) Sima. *Sulue* ere esaten zaio. || *Leixie da surru bera, da kobie da bestie, trabes doina. Leixak amen badaus, amen berton.* || *Leixie dau, berako sulue, amen berton, ganadu ille-ta botate ittue.* || *Kobak dire trabes dausenak eta leixak dire bera dausenak.* || *Illunsarren be bai, leixe andidxenetarikue Illunsarren.* □ **Iñuidxako leixie.** Sima de Ineritze. || *Or ei dau leixa aundi bat, sakona, ondobakue, da areri Iñuidxako leixie (esate dxako).* || *Iñusidxako leixie? Allustira jutun ei da, Allustiraño ango ure. Oiñ igul es. Aintxiñe se esate ben? An lexara jeusi, lexera jeusi, enbran bat-edo. Estakixu? Estekosu entzunde? Ni pai. Lexara jeusi. Eta gero aren enbrien gonien satidxe Allustiñ urten. Esetuko ben kolorie. Lexara jeusi, ta ure doye.* || *Ori Iñuidxa estaipa nik ser dan, leixiri berari ipinttako ixena, ero terrenik esteu ixena, se terrenue Illunsar da, Mandalesta esate tzela pentzatot areri terrenuri. Mandalesta, da a bittartie, da Illunsar bestie, altue. Da ori Mandalesta ta bestie onantzau Motrollu.*

**leixibe, leixibie, leixibie.** (LEIXIBA, lixiba-bot.) Bogada, colada de ropa. Norberaren arropa garbitzen denean *jabonadurie* esaten da. Gehiago bada (izarak eta), *leixibie* esaten da. I. Romanek *jabonadura* eta *leixiba* berbak batu zituen Berrizen (Berrizko Euskera), baina *leixiba* sarreran (85. orr.) agertzen den adibidea ikusirik, han ere horrelatsu bereizten direla pentsa daiteke: “oiñ be, ixera mordue daunien esaten da, ño, orrek deke leixibie”. || *Leixibi egosi.* || *Leixibi, bai, asko eitte san emen. Jabonadurie, bai, txikidxe ixete san, da gero erropa asko igul batunde eukitte batera, areri leixibi.* || *Ein dot leixibie.* || *Aintxiñe*

*leixibie esate dxakon olan arridxen jote sanari.* □

**leixibe arridxe.** Piedra o losa en la que se hace la colada. || *Errekan egote sirin leixiba arridzek, es batentzat bakarrik, espabese euso gustidzentzat.* □

**leixibe lekue.** Lavadero, lugar donde se hace la colada. || *'Leixiba lekue' esate dxako errekan arridxe ipintte, leixiba lekue, labaderue esati les. Arridxe ipiñi olan, da geu pe ara errekarra erute gendusen mutikuk, amari orrek, jabonadurie-edo, garbitzeko erropak, laguntzen, artun lepun, da leixibe lekure.* □ **leixibe otzarie.** Cesto donde se llevaba la colada. || *Leixibe otzarak sabalak dire. Len buruen erute siñ orrek. Orrek ixeten dire sumetzeskuek.* □ **leixibie jo.** Hacer la colada. || *"Leixibi jo" da erun errekarra da antxe aklaretie, ba jotie, busti tte antxe jo.* || *Orraxe jute siren len leixibi joten.* □ **leixibe ontzidxe.** Recipiente donde se ponía a hervir la ropa.

**lejia.** Lejía. || *Arenau, arias eitte san, lejias be bai, xoxias be bai, norberak ser dekon erresen, ba aixas.* □

**lejia ure.** Agua de lejía después de lavar.

**lekerikar, lekerikarra.** (LEKERIKAR) Natural del barrio de Lekerika.

**Lekitto.** (LEKEITIO) Lekeitio. □ **lekitto bedarra.** Acederilla (*Oxalis latifolia*). Nabarnizen *bermio bedarra* eta *txomin bedarra* ere esaten zaio, baina *lekitto bedarra* esaten da gehiago. || *Lekitto bedarra? Amen esta te geuriñ e egon be estau origeittik e, erosten diriñin landarak ekarten dabe baya, lekitto bedarra.*

**leku, lekue.** (LEKU) **1.** Lugar. || *Lekue emon.* || *Ain lekuten.* || *Leku onien jeusi dok.* || *Artu ixu aren lekue!* || *Leku eskasa da a mendixen igoteko, baya lanroberra juten da.* **2.** Sitio, espacio. || *Sartze dxakosan atziñ egur bi da aurrin beste egur bi, ta egurreri alkar jo eraitte dxaken da leku eukitte ban barruen lo eitteko. Da manti edo seoser ipiñi, aspiarridxe-edo, da ba antxe eitte ben lo ikesgiñek.* ||

*An dau lekue.* □ *Lekue sarriago erabiltzen da, tokidxe baino. Lekuko baten arabera animalien kasuan tokidxe erabiltzen da, pertsonentzat lekue: Tokidxe esate tzau ganadu baten..., animaidxeri, txakurreri be tokidxe esate tzau txakur tokidxe. Baya, ostantzien, txakur leku barik, txakur tokidxe. Baya jentie batu dan lekue, lekue esateu.* □ **-en lekuen.** En vez de. Ik *ordes.* || *Autobusin su es sois, esate baterako, da ordun sure ordes barik: "Sure lekuen neu jungo nas".* □ **lekun-lekun.** A cada trecho. || *Lekun-lekun oten dire akatzak.* □ **lekuten.** Muy lejos. || *Lekuten dau!* ||

*Lekutera jun da!* □ **lekutekue ixen.** **1.** Ser muy viejo. || *Lekutekue da!* || *"Lekuteku da ori": ba aintxiñeko geusa bateri esate dxako.* **2.** Ser de un lugar lejano.

**lela, lelie.** Atontada, alelada, zopenca. Ik. *lelue.*

**lelengo, lelengue.** (LEHENENGO) **1.** Primero, -a. || *Lelengo bidxetan enaben etzi topau.* **2.** Primeramente.

|| *Ik eseik lelengo!* || *Lelengo, aparidxe jaixu, gero kalera!* || *Nobera da lelengo!* || *Beste bat orri sabala esate dxakona. Ointxe be loran dau. Axe da lorie lelengo-lelengo urteten dabena.* || *Nik lelengo entzun nabenien, siñistu bes! "Jesus!" esan naben.* □ **lelengo barritten.** Al principio, primeramente. Sin. *lelengo biderres.* || *Lelengo biderres entzu dot.* □ **lelengo biderres.** Al principio, primeramente. Sin. *lelengo barritten.* || *Lelengo barritten entzu dot.* □ **lelengos.** Por primera vez. || *Lelengos ikusi dot.* || *Lelengos eittot.* || *Au lelengos jun san baso bidiean, arik eta Gostidxara arte estau kamiñurik eta.* □ **lelengotan.** Al principio, primeramente. || *Sagarrak eta frutak eta danak pipittan egoten dire lelungotan, lorik urten orduko.* || *Morokilliñ eitten dire bolatxuk, arin-arin makillias ereiñ esik. Baya lelungun eiñ arren arek bolatxuek, rasta-rasta-rasta-rasta eraitten badxako, gero segidxen gogor-gogor, arek kendu eitten dire.* || *Askordiñe pe askuri emoten deu, lelungotan, gero miñ emoten deu, baya lelungotan askuri asko emoten deu.* || *Erremuetan bedeinkatuten lelungotan elixera erun, da gero andik ekarten dan ereñotz adartxuas e eiñ ori.*

□ **lelungutan.** A primeros de. || *San Tomasetan batzuk pageta ben, da beste batzuk illen lelungutan, semendixen pageta ben errentie, da San Tomasetan be bai.* □ **lelengo ta bat.** Primeramente, antes que nada. || *Lelengo ta bat auxe mobidu bi du, a barik.* □ **lelengo ta bein.** Primeramente, antes que nada. || *Lelengo ta beiñ auxe ein biou.* □ **lelungotik.** Desde el principio.

**lelo, lelue.** (LELO) Atontado, alelado, zopenco. Emakumeei *lelie* esatan zaie. || *Plantak eitte ittu, baya esta lelue.* || *Ori da lelue!* □ *Lelo useiñe deko orrek.*

□ **akabo bako lelue.** Tonto de remate. Sin. *tonto garbidxe.* || *Akabo bako lelue a dok!*

**lelokeri, lelokeridxe.** (LELOKERIA) Tontería, bobería, imbecilidad. Ik. *tonteridxe.*

**lelotu.** Atontar(se), embobar(se), aturidir(se). Ik. *tontotu.* (Ik. soratu da/dxako) □ Desberdina da *"Lelotu ein dxako"* edo *"Lelotu ein da"* esatea. *"Lelotu ein dxako"* da leloaldi bat izan duela epe mugatu batean; *"Lelotu ein da"* betiko da.

**len.** (LEHEN) Antes. || *Lenau.* || *Lenen.* || *Len egoten siriñ etziñ indekuk.* || *Orrek dire len egon siren diruk.* || *Lendik jakin dot.* || *Ganaduk botaten sus oin ba larrara, sekule ata bakuk, da arek dabis batera ta bestera ta len ibilttaku, "Eske, ekandute dxak ori lendik".* || *Lengo saman burue.* □ **lendik onakun.** Desde antes hasta ahora, en el periodo entre antes y

ahora. || *Euskerie lendik onakun nik pentzetot gastik e...*,  
*guk eitte gendun modun estabela eitten.* □ **lengo**  
**egunien.** El otro día. Nabarnizen ez dira zabaldu beste  
herri batzuetan entzuten den *beste egunien* eta  
horrelakoak. || *Lengun be gure andrie be inbiteu ben.*  
|| *Lenguen emen esetu naben.* || *Lenguen gurera etorri*  
*suan.* || *Lengo baten.* □ *Lenien dau, esta aldatu.* □

**lengo modun.** Como antes. □ **lenau.** Antes,  
anteriormente. || *Lenau beste gogo batera eitte sirin*  
*gausak.* || *Lenautik jakin doti nik ori.* || *Urten bayo*  
*lenau.* || *Eurresku urten bayo lenau.*

**lenbailen.** (LEHENBAILEHEN, lehen baino lehen)  
Cuanto antes, lo más rápidamente posible. ||  
*Lenbailen etorri!*

**lendiko, lendikue.** (LEHENDIKO) Antiguo. || *Da*  
*untxe be etze bat erre eskeruen, nik pentzetot ori len,*  
*lendiko da, beres estau eukitten iñok obligasiñorik, baya*  
*lendiku da, ba, etzie errete dxakonari, edo etzias orma*  
*bat jeusten badxake, edo suerte txar bat pasetan bada-*  
*edo, eusun-edo ba laguntzen juen, seoser emon. Da ba*  
*ori betittiku su.* || *Ori, "Dixipuli deko", lendiko berbi*  
*dala pentzetot nik, eta oiñ ori berbi ori entzun be esta*  
*eitten.*

**lengo, lengue.** (LEHENGO) 1. Anterior, pasado. Ik.  
*eurreko.* || *Lengo egune.* || *Lengo aldidxen berbetan*  
*egon giñin.* 2. Antepasado, -a. || *Ure edateko ontzi,*  
*tanga txikitxuri-edo ba txolota esate dxakon, esate tzen*  
*lenguek, geuk estou usau esaten txolota baya.*

**lengusiñe.** (LEHENGUSINA) Prima. || *Bai, lengusiñe*  
*dot nik a. Aren ama da nire aitte nebarreba siren.* □

**bigarren lengusiñe.** Prima segunda. || *Geure bigarren*  
*lengusiña izan ei xan.*

**lengusu, lengusue.** (LEHENGUSU) Primo. || *Eta*  
*selan dabix eurek? Arek gure lengusu dire.* □ **lengusu**  
**karnala.** Primo o prima carnal. || *Gure aittas lengusu*  
*karnala ixen san Seberina, da ba sure amumas be*  
*ixengo san.* □ **bigarren lengusue.** Primo segundo. ||  
*Biarren lengusue? Nik lengusu karnal bat deket da*  
*aretatik umitatiek etorten dana biarren lengusue.*

**lente, lentie.** (LENTE) Lente, gafa. Normalean,  
*antijue* esaten da. Berriemaile baten arabera, esan  
egiten da, baina, *antiju* ez bezala, erdaratik ei dator. ||  
*Bai, antiju be bai tte lenti pe bai tte. Lenti beres,*  
*lentik estire euskeras erderas bayo, 'lentes'. Da one*  
*pa antijuk. One pe lenti dire.*

**lenteja, lentejie.** (LENTEJA, dilista) Lenteja. ||  
*Lentejie? Bai, bueno, emen berton esta artzen, baya*  
*ba erositte ekarten da. Geu pe nosipein jateko ekarteu.*  
*Amengo lurretan esta asten.* || *Nik estot esautu amen*  
*erainde asten dan lentejarik, baya lenteji ba*  
*ultramariñotik ekarten da, garbantzu-ta les saldu*  
*eitten da.*

**lepada, lepadie.** (LEPADA) Cantidad que se puede  
cargar al hombro; carga. Ik. *kargie.* *Lepokadie* gehiago  
esaten da. || *Olan kargu eundi bat ekarten danin, ba*  
*"Lepadi ekar deu".*

**lepo, lepue.** (LEPO) 1. Espalda. Lepoa baino  
beheratxoago dagoen alderdiari *biskerra* esaten zaio. ||  
*Lepoko miñe.* || *Onek deko lepo sabala.* || *Egunero*  
*pasaten siren pobriek sakue lepuen da aterik ate.* ||  
*Umie lepun artu deu.* || *Lepue jaso.* || *Kargie lepun*  
*daroi.* || *Lepoko otzarie: lepun erute dan otzarie,*  
*bedarras-edo.* 2. Parte posterior al filo (de la guadaña,  
cuchillo, etc.). || *Kodañen lepue.* || *Gastaña*  
*muntoidxe len eitte san. Lakatzak jun batuten, batuten,*  
*batuten, batuten, batuten muntoidxen, ta gero are jote*  
*siriñ e serrin lepuas, txaka-txaka-txaka-txaka-txaka ta*  
*gabiñ egosteko gastañak kentze dxakesan.* □ **lepo**

**asurre.** Espinazo, columna vertebral. || *Lepo asurre*  
*biskerrari esate tzeu.* □ **(r)en lepotik.** Vivir a  
expensas de alguien. || *Ori iñon lepotik ibilliko litxake.*

|| *Ori bestien lepotik majo bixi dok.* □ **lepotara.** En el  
juego de las tabas, posición de éstas con el hueco  
hacia abajo. Ik. *taba jokue.* □ **lepue berotu.** Zurrar,  
tundir a palos, dar una paliza. || *Lepue berotu tzet.* ||  
*Lepue berotu bi dxako orreri.* □ **lepo bete artu.**  
Recibir una tunda, una paliza. || *Lepo bete artute jun*  
*dok a be.* || *Lepo bete artu dxok a pe!*

**lepokada, lepokadie.** (LEPOKADA, lepakada-bat.)  
Cantidad que se puede cargar al hombro; carga. Ik.  
*kargie.* || *Lepokada galanta ekarri dot.* || *Lepokadie*  
*artu deu.*

**lepoko, lepokue.** (LEPOKO) Golpe en la espalda. ||  
*Lepoko galanta artu dxuat.* □ **lepokuk emon.** Dar  
palmadas en la espalda.

**lepota, lepotie.** (LEPOTA, lepote-bat.) Joroba. ||  
*Lepotie? Neu pe sigurrik estaki baya lepotie dekona...*  
*Ser esangot nik? Bai, esautu dot lepoti dekona neu pe*  
*baya olakasko esta ikusten emen, lepotadun asko.*

**lepotadun, lepotadune.** (LEPOTADUN, lepotadun-  
bat.) Jorobado, -a.

**lepotzu, lepotzue.** (LEPOTSU) De grandes espaldas  
(generalmente referido al ganado). || *Bai, ganadu*  
*ederra bada, kuadro ederretakue: lepotzue, lepo*  
*eundikue. Batzuk e lepo eundidxau eukitten dabe beste*  
*batzuk bayo.* || *Lepotzue da aurre sabala dekena. Nei*  
*ganadue.* || *Bai, aurre sabala danari be esan leido*  
*lepotzu, baya lepu be sabala bi deu lepotzu esateko.*

**lerda, lerdie.** Atontada, alelada, lela.

**lerdatu.** (LERDOTU) Abotargarse, atontarse,  
entontecer (referido a la mujer). Ik. *lerdotu.*

**lerdo, lerdue.** (LERDO) Atontado, alelado, lelo.



**lerdotu.** (LERDOTU) Abotargarse, atontarse, entontecer (referido principalmente al hombre). Ik. *lerdatu*.

**les.** (LEZ, LEGEZ) 1. Como, según, conforme a. || *Ori dok geuse gatxa, itxosoko ure dana kentzie les.* || *Arrastadori ba neu pe estaitt selaku dan, estot ikusi olan, iños ondotik estot ikusi, ta ba seinde tratora balis les ixengo da, pentzetot nik.* || *Kañie da oingo koñaka les, garratza ixete san. Ori goixin goixetik jagitte siriñak-eta edate ben, atan be gixoneskuek.* 2. Ya que, puesto que. || *Oiñ adenas negu da les, orregaittik esta etorriko, denpora otzak eta.* || *Se janik estekon les...* || *Len aintxiñe arto asko eitte sanin —oiñ es, arto gitxi eitten da les, ba gastau eitten da arin—.* || *Etze asko eon sa les, es eken jateko nora erunik e.* 3. De la misma manera que. || *Ori da les, beste geuse bat pe ixan lei.*

**lesiño, lesiñue, lesiñoie.** (LEZINO, lezio-bat.) Lección. || *Lesiñue artu.* || *Lesiñoik emon.* || *Lesiñoiek artzen emen.*

**letaiña, letaiñie, letañie.** (LETANIA) Letanía, rogativa. || *Letaiñak aintxiñe kendu siren. Urtien lau edo bost eitte siren Nabarrixen bertan. San Kristobalera bat, Santidixagora beste bat; amen San Migel egon san, oin jeusitte dau baya, oindiño ointxe jeusi da ermittie. Or eitte san ba, abadik, ba, “Santa Maria”, ta “Ora pro nobis” kantetan, elixatik eta erreminttara. Da erreminttan mesie emote san, da atzera bardin kantetan elixara, da amaitsu.* || *Siketiri be eitte dxako, da letaiñie denpora onari be eitte dxakon, Neu pe baten esautu naben lepañi... Da kirieleixona berak abadik e esate sittusen bai, santun ixenak esaten sertute san, da Santo Domingo ta Santi Mateo-ta atate sittun santu ixenak esaten jute san, da ora pro nobis bestik atzetik segidxen.* || *Len ara jute san letañie. Neu be jun nitzan baten bayo geidxauten. Da etzetik e lagun bat e kontixu, danak jute giñin. Da ba antze mesi esate san, da ba axe entzun da ba etzera.* || *Letañak e ixeten ei xirien e ba euri txarrak e erretiretako, saparrada txarrak.*

**letra, letrie.** (LETRA, hizki) Letra. || *Nik igul esango pa okerreko letrak in be.*

**letxada, letxadie.** (LETXARA, karesne) Lechada de cal, masa de cal mezclada con agua que sirve para blanquear las paredes. || *Letxadie esate dxakon aintxiñe, uregas da kariegas eitte san, da gero onek ormak surittu.* || *Letxadie: au surittuteko kariegas eitten da, uregas, da kariegas ein, da ipiñi, tte ba aixe da letxadie.* || *Letxadie? Karie botate dxako ormiri, baya oiñ e ori, ori kostunbriori nik pentzetot galdute dauna.*

**letxeru, letxerue.** Lechero, repartidor de leche. || *Au eitten on sanin, ibili nitzen ni letxeru. Kamioiegas esni eruten, da esiñ etorri biste nintzen ona. Elixalden itxi biste naben kamioie. Biderik es.*

**letxuga, letxugie.** (LETXUGA, urraza) Lechuga (*Lactuca sativa*). || *Letxugak? Bueno, letxuga pa klase*

*bat bayo geidxau das. Badau letxugie..., selaku esangot? Rixaue badau, lixue badau... Bai, lixu te rixau, geidxen-geidxen emen oten diriñak. Da ba lixue ba jaten da ensaladan, egositte be bai. Da besti be bai. Bidxek. Baya jeneral letxugie nai ixen e rixaue nai lixu ixen, ensaladan jaten da emen.*

**leu, leue.** (LAU) 1. Llanura. 2. Plano, -a, llano, -a. || *Leku leue.* || *Leu-leu, ederto geratu dok.* || *Eskolie dau an, antxe atzetxu, albut eitteko dabe probalekue, an leu-leuen.* || *Leu-leu dau.* || *Leue? Ba au eskatza be leu da, Esteko goraberarik eta.*

**leun, leune.** (LAUN, lau-bat.) 1. Llano, -a, liso, -a. Ik. *selaidxe.* || *Aldatz eta leunak.* || *Solo leune.* || *Leun dau.* || *Leun-leune da.* || *Leun ipiñi.* || *Iketza eitteko, olan, leuniñ ipintten dabe, da egurrek pillau-pillau eitte ittues.* || *Selaidxe da leku leune, edo nauku leune dana, da bedarra edo seoser asten dana, edo unik olgetan ibiltten diriña.* || *Bide leune da erriperi bakue. Esan gutena aldatzik es olakorik estekon bidie. Leue.* || *Leku batzutan e mendire bidien be ba bide erripa badas. Da beste leku batzutan be leune das.* || *Ondaroko kobik deko entradie olanik goitti bera, da gero dau leun.* || *Bai, jeneral, gastik eukitten deu arpeidxe leune.* 2. Llanura, planicie. || *Pasau itturidxe. Itturidxe bakixu nun dauen. Itturidxe pasau te leuna bat. Antxe egon san Oraindiko txaboli esate tzena. Da oin be an dau ondio, ormak-eta an das.* □ **leunin.** En llano, sin cuesta. || *Bide bat tau emendik Elixaldera jute garenin; lelengo leunin jute gara, da gero olan Elixalderaiñoko erripi dau.* || *Ba bidetik e olan esin lei ein, basun ixen biko deu, da bera be leuniñ es, espabese goitti beraku daun lekun.* □ **leun topau.** Resultar fácil o favorable. || *Gero askok esaten deu beste geusa bat: "Ak danak leun topete itu"-te. Ori da ba erres, leunin jute da les, beste geusa asko fasillle... "Fasille eitten deu ak, ero leun topete deu".*

**leundu, laundu.** (LAUNDU, lautu-bat.) Allanar. Ik. *leutu, bardindu.* || *Laundu? Launtzi da ba egur bat launtzie.*

**leunune, leununie, leunie.** (LAUUNE) Planicie, llanada. || *Olako leununeri iketz larriñe esate dxako.* || *Badeko leununie be.*

**leutu.** (LAUTU) Allanar, aplanar. Ik. *bardindu, laundu.* || *Tontorrek leutu.* || *Arbisoloko luana leutu dabe.*

**lexar, lexarra.** (LEIZAR, lizar-bat.) Fresno. (*Fraxinus excelsior*) || *Lexar tantaidxe.* || *Lexarra arbola ba ta. Gorri be olan lexarra badas, da lexarra edonun oten dire.* || *Bueno, esta..., materidxelerako esta ainbeste kastetan, baya kastau be eingo da materidxelerako edo etxako isten berari arboliri... Selan esangot neuk? Lexarra da arbola bat eta emoten deu untxe udebarridxen edo untxe udan, lori be emoten deu lexarrak. Estakitt nik materidxelako kastetan badabe.*

**lexardi, lexardidxe.** (LEIZARDI, lizardi-bat.) Fresneda.

**liberlauren, liberlaurena.** (LIBERA LAUREN, libera laurden-bat.) Cuarto de libra. *Libre laurena* ere esaten da. || *Len e gramotara be esan eitten edo nik estakitt. Da librie, pixeute, librie, libra bikue, edo killo bikue edo dana dalakue. Da liberlaurena, da libre laurena.*

**liberdi, liberdidxe.** (LIBERA ERDI) Media libra.

**libertadie.** (LIBERTADE) Libertad.

**librau, libretan, libreten.** (LIBRAU, libratu-bat.) **1.** Desatascar, dejar libre. || *Libraixu!* || *Sulu librau.* || *Baya erute san atxur me bat. Mendire, edo basora-edo doixenien, esate baterako, bidie katittute badau ureas, edo basias-edo, axe libretako, arixeri pasu eitteko. Basatxurre esate dxakon.* || *Se an sokik ostantziñ espouko, lotu eitten da asko, katittu, da esta libretan.* || *Beidxek, olanik, iñois neuri be asartau dxaten iñois solun katittu, ba aringaranga dabixela-edo, bata bestin kontra-edo, anakak, serak, deken kativas edo lasuas-edo katittu eitte ittue igul, da ba lasaute gelditzen dire, librau ein biar ixaten da.* || *“Txakurrek lasaute deko ainkie”:* lasaten badeu, bai. Lotunde daun txakurrek ainkie nastetan badeu an lotute daun lekum, baya txakurrek baki ainki libretan. **2.** Parir. **3.** Evacuar, excretar, cagar. || *Ori iñois ekarri eitten da persona nausidxentzako, ba estomangotik librau deidxen. 4.* Librarse. || *Ba gu librau giñen gerrias.* □ **piñu librau.** Limpiar de maleza y ramas una parcela de arbolado. || *Piñu libreti da, piñu sasidxas edo sikiñe badau, ba arek andik kentzie. Da beste batzuk arrama esate tze. Guk adarra esate tzeu orreri be. Beti guk adarra. Da askok arrama esate tze. Arrama garbittu te piñu librau. Da lagun txikitxue sasidxas-da igull oten da, ta a garbittu bi da urten deidxen ondo.* || *Piñu libreten ongo san.*

**libre.** (LIBRE, aske, lokabe) **1.** Libre. || *Libre itxixu.* || *Presue libre itxi.* || *Libre dau.* **2.** Libre, al descubierto. || *Nire gomutan, libre-librien eitten gendun guk gastaña munteidxe. 3.* Libre, licito. || *Bai, peskan be bai. Or Omarreta, Omarreta bakixu. Andik e, joliñ e, arrankaridxe eitten-da atrapete basen orrek! Ori! Oiñ estau eitterik, baya ordun libre san.*

**libre, librie.** (LIBERA) Libra. || *Lau libreko ogidxe.* || *Librie kilo erdidxe da.* || *Killouek libra bi dekos. Killoerdi, librie.* || *Ontzi bai, ontzie, pisuko ontzie eitte dxako. Libre erdidxe, libre laurena, ontzie...*

**libru, librué, librué.** (LIBURU) **1.** Libro. || *Libru bat deket seuri lakoxie, igula.* || *Libruetan dau.* **2.** Tercera de las cuatro cavidades en que se divide el estómago de los rumiantes. || *Jangoiko esate tzen areri. A be estie, baya a estie, baya a estie estaipa librun ero nun eukitte ban. Libru eukitten deu ba ganaduk. Aren kontra ero estai nun eukitte ban este*

*lodidxe, alakoxe estie. Da eitte san beye lotun, de goittik bete.*

**lige, ligie.** (LIGA) Liga, cinta. Ik. *sokie.* || *Ligie soki da. Sokie da geuse bat, besti ligi da, diferentie, kordelas eindekue. Sapalak dire. Da sokie ixeten da biribile.*

**liger, ligerra, lierra.** (LEGAR) Cuajo. || *Gastai esni eratzi, da segidxen, esnie eratzi, epel-epela eoten da, da eratzi, da emote dxako ligerra. Ligerra ixeten da, jeneral euma pe eukitten dabe, billotza pe eukitten dabe, jaten asi bakuek; ixeten di esnukas ondiño dasenak, estabenak jaten. Da alakoxiri kentze dxake, ligerra esate dxako. Esnie edan, da geldittute dxaken..., poltza bat eukitten dabe barruen. Da il, da poltzi kentze dxaken, da gero sera areri musturre lotu eitte dxakon, da sakutu, ba eskei eitte san siketzeko. Da gero axe esni eratzi, ta esne epelari emote dxakon, axe emon, da bide bates e..., bueno orretako be, a ligerrari kentze dxakon..., satitxu bat kentze dxakon. Eitte san dana barik, satitxu bat kentze dxakon, da trapu garbitxu baten batze san, da aixeri ligerra emote dxakon, esniri, ekukin-eskukin-eskukin-eskukin, dana urtu artin. Olantxik ibili, da urtze sanien, ba itxi eitte dxaken. Da gero esnie eitte san..., ligerra artze banin, esnie gogortute gelditze san, gogortute edo seinde bigune eote san ondiño, da gero a ra-ra-ra marka batzuk eiñ e, kutzilluas, da a gero pasau eitte san, pasau eitte san pasadorien edo trapu baten-edo, pasau eitte san, da urek atarate dxakosan, urek atara, urek atara.* || *Gastaye eitteko lierra bi da, arek gogortu bi deu.* || *Ligerra: ardidxeri, edo euntzeri-edo kentze dxakona gastaye eitteko.* || *Ligerra da geusa bat apartate dxakona euntzeri edo ardidxeri-edo apartate dxakona, arixeri esate tzeu ligerra.*

**ligor, ligorra, liorra.** (LIGOR, lehor-bat.) **1.** Seco, -a. Ik. *sikue.* || *Legana da ori. Asala ligor-ligor eitten da, ba ori inketakue, sabaldu eitten da.* □ **Soroko lanetan** ibiltzen denean esaten da: || *An basabis solun biarrien atxurren, da aro ona dau: “Ligor dau.” esaten da. 2.* Áspero, -a, toscó, -a. Ik. *lakarra, latza.* || *Ule ligorra.* || *Ligorra dau.* || *Ligorra dauna labandu bi da.* || *Sami ligorra deket.* || *Makiñie ligorra badau, koipik gosatu eitten deu, bigundu.* || *Gari bixardune ligorra ixate san, da eskutan be inkau eitte san.* || *Garidxo bedarra pa, olanik onen eingerun-edo asten dire, da ligor-ligorak ixaten di, ta orridxe eundidxe be eukitten dabe labi batzeko-ta. Alakuri esate gentzen garidxo bedarra.* || *Bedar liorra gosatzu estanari esate dxako. 3.* Tierra (en oposición a mar). Ik. *uretatik.* || *Ligorres jun dire.* || *Da gero sapo kunok e nik estaitt uretan jaidxoten diriñ ala ligorren jaidxoten dirin, sapo kunak gero agertzen dire ta ba estaitt nun jaidxoten dirin. 4.* Seco, -a, duro, -a, compacto, -a. || *Lur takarra da ligorra, gogorra. Emen ligorra esaten da, takarra bayo.* || *Lurre ligor dau, soltuegi.* || *Tremesa? Garidxas ogidxe eitte san. Baya a ligortxuaue*

tremesa. Gero birsaidxe ta gero saidxe. **5.** Seco, , -a, desabrido, -a, adusto, -a. || Berba tropekue? Berbetan liorra-edo, estaipa (...) Ariñ eitten dabenari es. Edoser geusa esaten dabenari. **6.** Tacaño, -a, rácano, -a, avaro, -a. Ik. lukerrerue, sekena, eutzidxe. || Geuse askori esate tzeu liorra, seinde garratza esati les, liorra, garratza, da orre pe. Da iguel e borondate gitxiko morroi bada be, “Ori be liorr-ok”. □ **bedar liorra.** Hierba seca. Sin. *bedar satarra*. || *Bedar liorra gosatzu estanari esate dxako*. || *Siketzen itxitte, siketu eitten da bedarra be. Siketzen daun bedarra siketutakun ba axe da bedarra, siku edo ligorra*. □ **denpora ligorra.** Tiempo seco. || *Soidxe be, soloko soidxe be iguel, igul e ereiñ orduko..., kendu orduko..., selan esangot nik?, soidxe kendu orduko lakartu, siketu, denpora ligorrrak siketu, da siketute itxi*.

**ligorrune, ligorrunie.** (LIGORRUNE, lehorrune-bat.) Aspereza, rugosidad. || *Ligorrunie ser dala esangot nik? Ligorra dasenak, ligorra dauna*.

**ligortu.** (LIGORTU, lehortu-bat.) Secar. || *Lurre ligortu*.

**lijau, lijeten.** (LIXAU, lixatu-bat.) Lijar, alisar. || *Lijau? Ba lijete papel bat edo seoser e ligorra dauna, lijete*.

**likin, likiñe.** (LIKIN) Pegajoso, -a. Ik. *labana, bigune, bustidxe*. || *Lur likiñe*. || *Estau arorik, lurre likiñe dau-te*. || *Lur likiñe: eskukin-de kolpe eskero, ba sera, bigune, da sikiñe*. || *Likiñe da esate baterako, gasta bat siketu barik a eitte dxakon telatxu, likidu eitten dana, labandu eitten dana*.

**likindu.** (LIKINDU) **1.** Perder manejabilidad el terreno como consecuencia de la lluvia, volverse pegajoso. || *Likinduk esan gure dau bihar eitteko-edo likiña daula, bihar eitteko bustidxa daula, atxurren inketen dana*. || *Lurre likindu? Lurre likinduti da, selan esangot?, erdi prestaute euki lurre eraitteko artu edo garidxe edo dana dalakue, da erdi prestaute euki, da norberak erain bayo ariñau eurittik artu, da lurre likindu. Arek eta siketu artiñ itxein bi tzen*. || *Euridxe einde lurre likinduko san: labrau, da ipiñi goldatute-edo, araketute-edo, asidxe be eraitteko, da gero euridxe artu*. || *Lurre likindute dau*. || *Lurre likindu: umedasiñoye, ya bustitzen doiñien, ‘lurre labandu’ esaten dabe batzuk, likindu. Igul e ori be morterue eitten bosu, “An likiñe dxak”, labana*. **2.** Estropearse la comida. || *Likindute dxak ori (seinde bigundu eiñ eskero)*. || *Bueno, jatekue garrasten danién, likindute geltitzen da*.

**lila, lilie.** (LILA) Lila (color). || *Kuku prakak: udebarridxen urtetén dau orrek. Bedarra da, ta puntan lora lilie, lora lilie olanik bera begira, alanik eukitten deu lora lilitxue, da ba prakie axe bera begire dauna*. || *Lilie esate dxako lora baltza be-estana, lilie, lora lilie da illune*. || *Kukupraka pe naiku lilak dire*. ||

*Da erromerue jeneral, lora lilatxu eukitten deu te txikidxe,*

**lima, limie.** Lima. || *Lima autse*. || *Lima kirtena*. || *Lima ligorra*. || *Limiek burdiñe gastetan deun les, arraspie egurre gastetakue da*. || *Arraspi gastetaku da. Egurre gastetako arraspie. Da limie, da arraspi. Bakixu ser dan arraspi? Arraspi da egurreri eitte tzona, ra-ra-ra, egurre gastetako. Da limi da burdiñi gastetaku. Geuse bi di orrek. Jolin! Diferenti total! Diferentik!*

**limo, limoye.** (LIMO) Limón. □ **limo arbolie.**

Limonero (*Citrus limon*). □ **limo sagarra.** Cierta variedad de manzana. || *Limo sagarra naiku goixetiku da*. || *Limo sagarra jeneral goixetiku da, da jateko goxu ixaten da*. □ **limo ure.** Zumo de limón.

**limosna, limosnie.** (LIMOSNA) Limosna. || *Limosnie batzen edo eskien*. || *Jitanuek limosnie batzen espaben, beste lantzien ollo batzuk arrapa ta eurrera*.

**liñarri, liñaridxe.** (LINARRI) Piedra que se usa para golpear el lino. || *Liñaridxen jo eitte san*.

**liñasi, liñasidxe.** (LINAZI) Linaza, simiente del lino.

**liñu, liñue.** (LINO, liho) Lino (*Linum usitatissimum*). || *Liñue eitteko txarrantxie usete ben*. || *Gero aregas liñuegas eitten eben ixerak eta telak*. || *Liñue egote san aintxiñe*. || *Mis erropa pai, esate dxake, len niren denporan esan eraiñ ein, ser esango neuk? Len solun eraitte ei xan asidxe, liñue. Nire denporan nik enaben esautu baya, da irebasidxe eukitte ei-dxeban da, da arixekiñ eitte siriñ erropak, edo telak: mis erropak*. || *Telie eitten da liñuas. Berton eitte ben, Nabarrixen*. || *Abarketiri, liñuas eiñekuri esate dxako soru. Abarketiñ aspidxe liñuas eitte ben, len, oiñ estai segas eitten dan be*. || *Liñue da aridxe eitten dana*. □

**liñosko ixerie.** Sábana de lino. Sin. *kirrusko ixerie*.

**liridxe.** (LIRIO) Lirio (*Iris germanica*). || *San Juanetan elixara erute san lora kargatxue, lorakin: liridxeuk, kabeliñak, larrosak, ta bedeinkatu eitte sittuen*. || *Liridxe lora bat da. Liridxuk suridxe pe badas, da ori esan dosuna, lilie be bai, ba olan gorriskak, edo olaku pe badas, kolore bat payo geidxau das*.

**listo, listue.** (LISTO) **1.** Listo. || *Jentie listu be bai gero!* **2.** Listo, dispuesto, preparado. || *Ganadu il? Ganadue, sesiñe ill ein bi dunien onetan alan ibiltén da, atara kanpora ilteko lekure ta bat e listo oten da, askori eskun dekola ta askorin buruas jo bekokidxen da bera botaten da*. □ *Hiltzeko gutxi falta zaionari buruz honela esaten da*. || *Gorako ya listu dxak*.

**litro, litrue.** (LITRO) Litro. Ik. *asunbrie, kuartillue*.

**lixotu.** (LISOTU) Alisar. || *Asueli da, ser esangot neuk?, atxurren trasa-trasaku, da ixeten da..., asuelik eukitte ittu..., alderdi bat eukitten deu sorrotza, da aras*

*alderdi sorrotzas egurren lantzen da, egurre lixotu, edo akatzak kendu, edo lantzen da asuelias.*

**lixu, lixue.** (LISO) Liso. || *Batzuk olantxik taketak eukitte sittuen inkeute, ta ba suluk eukitte sittun batzuk, beste batzuk lixo-lixo egote sirin, burdidxen. || Bueno, trobi antzeku badau, olanik lixu espada ta olan trokuk badekos. || Lastrie? Bai, lastri liorra. A... seinde ori arapue esate dxako, arapu, ba antzera deuna lastrie. Lixu barik lastri. Besti lixu esate dxako, oten dana gosatzu, egur lixue.*

**lixun, lixune.** (LIZUN) Moho, enmohecimiento. || *Lixune? Olan geusa bat e..., selan esangot, lixune, lixundute dauna... || Lixune ta geune kontixu alkarren antzeku dirila pentzetot nik. □ lixun useiñe.* Olor a cerrado. || *"Lixun useiñe dau": umedadik eitten dabena.*

**lixundu, lixindu.** (LIZUNDU) Enmohecer(se) || *Errapie lixindu. || Da a ogidxe esta alperrrik galtzen urte gustidxen be. Esta es lixundu, es alperrrik galtzen.*

**lo, lue.** (LO) **1.** Sueño. || *Lo apur bet ein deu. || Lo eskasa deko. || Lo gitxias akordau da. || Losorrue: erdi amesetan eitten dan lue. 2.* Dormido. || *Besue lo geratu dxatek. || Ondiño lo dxak a. || Surru te purru dau lo. || Losorru ixeten da an lo-lo daunien, eta ba saratias, osuen lo, edo goxo daunien esate dxako, "Lo-lo dau", losorrun. 3.* Dormido (en el juego del escondite). || *Kubike beste bat eote san, da atrapaute kubi esan biar ixate dxakon bestiri, bera axe ixate san lo. □ lo ariñe.*

*Cabezada, siesta breve. || Lokaun dauena da lo ariñe dekona-edo ba, lo erresa bako eoten dana, olan lo gogor estauna. □ lo asarrie.* Mal despertat. || *Lo asarrie deko. □ lo baten.* Dormido, sin despertarse. || *Lo baten dxauk. || Lo baten, akordau ein barik! || Lo baten eitten dot. □ lo erronkie.* Ronquido. Ik. *surrunkie. || Erronki esate dxako lo daunin, batzuk eitten dabe a saratie: "Lo erronkak eitte ittu". □ lo gatxa.* Dificultad para dormir. || *Bai, bier eitten estabenak akaso eukiko dau baya baserridxen bier eitten dabena e, da osasune badeko, esteko lo gatxik. □ lo gogorra.* Sueño profundo. || *Lo gogorra dxekok. □ lo kukue.* Sueño ligero, siesta, cabezada de sueño.

Ik. *lokaue. || Lo kukutxue ein deu. □ lo lekue.* Dormitorio. || *Eurreko partien eukitte ittu ba lo eitteko gelak-edo, lo lekuek, salatxue; atzeko partetik eukitten deu beko sabaidxe, sobre sabaidxe esate dxakona. □ lo ostie.* Despertar, humor al despertarse. Ik. *altzaukerie. || Lo ostie? Lo eindakun akordeten dan sasoi edo estaipa nik. Umiri be esate dxake "Lo osti txarra deke". || Batzuk umore txarra igul eukitten dabe lo ostin da ba "Lo oste txarra deko". □ lo sakona.* Sueño profundo. || *Lo sakona deko. □ lo txikidxe.* Cabezada. || *"Lokau ein deu": umirri-te esate dxake, lo txikidxe eitten*

*dabenin: "Lokautxu ein deu". □ lotan.* Durmiendo. || *Lotan dau umie. || Erdi lotan dau. □ lo unatxue.* Sueño ligero, siesta, cabezada de sueño. || *Lo unatxue ein deu. □ lo ein.* Dormir. || *Agos gora eitten deu lo. || Lo eitteko ordu da. || Lo asko ein dot. || Lo gitxi ein deu te umore txarra deko. || Lo txikidxe ein deu. || Lo ondo ein deu. || Almudi, seuk lo eittosuna. □ lo erein.* Hacer dormir. || *"Lolo ein" esaten dxake umiei lo ereitteko. □ lo erresa euki.* Tener facilidad para dormir. || *Esteko lo erresik. □ lo erronkaka egon.* Estar oncando. Ik. *lo sataka egon. || Lo erronkaka dau. □ lo gogor egon.* Dormir profundamente. || *Lo gogor dau. □ lo sataka egon.* Roncando. Ik. *lo erronkaka egon. || Emen geidxau esaten da olan lo daunin, da sata eitten dabena ba, "Lo sataka dau", edo "Sarati eitten dau", lo daunin, ba. Erronka pe bai, esaten da. □ lotara jun.* Irse a dormir. || *Lotara jun da. □ lue galdu.* Perder el sueño. □ *luek artu.* Dormir(se). || *Luk artu nidxok eta! || Luk artute dxak.*

**loba, lobie.** (LOBA) **1.** Sobrino. || *Lobie? Ba lobie, nire nebiña edo aistiña, umie, ba neure lobi ixengo da. 2.* Nieto.

**lobo, lobue.** Lobo. || *Loborik estao emen, Karransa aldetik edo ei das.*

**lodi, lodidxe.** (LODI) **1.** Grueso, -a, gordo, -a, obeso, -a. Ik. *sakutue, takue, tropie.* Animaliei buruz okelatze nahiz mamintzue esan daiteke, lagunei lodidxe. || *Atzamar lodidxe. || Lodi dau. || Ni lodidxe nas. || Lodidxei dau. || Ori be dau lodidxeidxe, tripostute. || Lodi-meye. 2.* Espeso, -a, denso, -a. Ik. *mardue. 3.* Bajo, (voz) grave. *Bos grabie ere esaten da. || Bos lodidxe deko.*

**lodidxera, lodierie.** (LODIERA) Grosor. || *Egurre aretxa pentzetot sala lodidxe, alako lodidxerie! An ol meye barik, ol ikeragarri lodidxe!*

**lodikote, lodikotie.** (LODIKOTE) Gordinflón, -ona, rechoncho, -a.

**lodittasun, lodittasune.** (LODITASUN) Obesidad, gordura.

**lodittu, loditzen.** (LODITU) Engordar(se), cebar(se); espesar(se). Ik. *gixendu, mardotu, nasaittu. || Ganadue lodittu. || Lau kilo lodittu ein da. || Ontzabete lodittu da beidxe. || Ik lodittu ein bi dok, argala au. □ Lagun bat loditzen eta gaztaroko itxura ederra galtzen hasten denean ere, honela esaten da: || Bai, loditzen be batzuk esaten dabe, baya "Traskiltzen asi dok".*

**lodiune, lodiunie.** (LODIUNE) Parte gruesa. || *Lodiunie deko.*

**lograu.** Lograr, conseguir. Ik. *alkantzau, lortu*. || *Etenak ein dxusak, baya lograu ein dxok*.

**logure, logurie.** (LOGURA) Sueño, ganas de dormir. || *Logure eundidxe deko*. || *Logure da*. || *Bai, errondan ein gabin, de goixien logure!* || *Umiek-eta logure eukeniin*. || *Logure eundidxe euki deu te lo ipiñi dot*. □ **logurias erreta egon.** Estar muerto de sueño. || *Logurias erreta dau ori*. □ **logurik erre.** Estar muerto de sueño. || *Umik logurik erreta dau*. || *Logurik erreten dau*.

**loguretu.** (LOGURATU) Entrar el sueño. || *Loguretute dau*.

**loi, loidxe.** (LOHI) 1. Sucio, -a. Ik. *sikiñe*. || *Gari loidxe*. || *Garidxe ta loidxe nastien datos*. || *Ago loidxe esate dxako txarto esaten ibiltten danari*. 2. Suciedad. Ik. *sikiñe*. || *Begidxen sartzen danari, samarra, edo "Loidxe sartu dxate", edo "Samarra sartu dxate begidxen"*. || *Baya galbaya ixeten da, ba esate baterako, nai indarra pasetako, nai artu pasetako; da botaten deu, ba, se esangot neuk?, berak dekon loidxe, ba galbayeri ba sulutxutik bera jeuste dxako, erain, da eraiñ einde*. || *Ollun tripak: ollu ilde ba, tripak kendu, te jeurti eitte us. Ollun tripak esate dxake ba jeurtitzen diriñ estiri, da ba berak dekosan barruko loidxeri, korotzak-edo*. 3. Secundinas, suciedad que arroja la vaca tras parir. Ik. *umeloidxe, dinderridxe*. || *Da a (ide bedarra) emote gentzen beidxeri, txala ein barridxeri, loidxe bota esiñik dausenari*. || *Ide bedarra emote dxake loidxe bota eraitteko, loidxe bota esiñik dasenien. Ba ostantziñ e esteutzeu emoten, baya loidxe bota esiñi dasenien, batu bedarrak eta egosi, ure otzitzen danien emote dxake*. || *Bigurie aprobetxeten da, ganadu batek, bei batek txala eitten dabenien, da beidxe garbittu esiñik dauenien loidxas, garbittu esiñik dauenien, ba egoste dxakos, orrixen bigurak, orrixen atziek, orren, orrixen ormiri atzie apartau, da egosi, da axe ure emote dxako beidxeri, garbittu deidxen*. □ **berba loidxe.** Grosería, palabrota, indecencia. || *Berba loidxek esaten daki!*

**loidxune, loidxunie.** (LOHIUNE) Mancha. || *Begidxen sartzen danari, samarra, edo "Loidxe sartu dxate", edo "Samarra sartu dxate begidxen"*.

**loikeri, loikeridxe.** (LOHIKERIA) Porquería, impureza, suciedad; obscenidad. Sin. *berdekeridxe*.

**loiki, loikidxe.** (LOHIKI) Manchadizo, -a, manchoso, -a. Sin. *sikiñerresa*. || *Loikidxe da arin sikintzen dana. Sikindu dana, kotxe suridxe-eta bayo txarrauk dire onek balzak. Onek gure kotxiok loikidxe dire, balzak, esan guna, sikiñe beti kotxie, da bestie, ori suriskie, kotxe asko garbidxaue*. || *Loikidx-ok ori, loikidxe!*

**loittu, loitzen.** (LOHITU) Ensuciar, pringar, manchar. Ik. *pekostu*. || *Nun loittu as olan?* || *Traskille bai esate dxako, olanik erropa asko loitzen daben umiri-te traskille esate dxake*.

**1 loka, lokie.** (LOKA) Clueco, -a, llueca. Ik. *ollolokie*. || *Ollue loka dau*. || *Lokie da olluk klo-klo-klo eitten dabenin, arrautza ixagitten, ollu lokie esaten da ordun*.

**2 loka.** (LOKA) Vacilante, flojo, oscilante, movedizo, suelto. || *Loka dauna da mobiten dana*. || *Txo, ori taketa loka dak!* || *Au maidxe loka dau*. || *Agiñe loka dau*. || *Loka deko agiñe*.

**lokarri, lokarridxe.** (LOKARRI) Atadura, correa, ligadura. || *Lokarridxe da lotzeko dan seoser, sintturie-edo*.

**lokartu.** (LOKARTU) 1. Dormirse, adormecerse. || *Oyen bueltaka lokartu esiñik ibiltten da*. 2. Entumecerse, dormirse un miembro.

**1 lokatu, lokatzen.** (LOKATU) Enclocar(se). || *Arin lokatzen da*. || *Arrautzak eitten egoten da, esta?, da gero arrautzak ein barik, abidxan egoten da, da an lokatu eitten da, abidxan egon, da arrautzak eiñ es, baya antxe egon, altzau barik bertan egon*.

**2 lokatu.** (LOKATU) Aflojar(se), soltar(se). || *Lokatu ein da*.

**lokau, lokaue.** (LOKAU) Sueño ligero, cabezada de sueño. Sin. *lo kukue, erdi lo*. □ **lokauen, lokaun, lokan egon.** Estar dormitando, dando cabezadas de sueño. Ik. *losorruen egon*. || *"Lokan dau": erdi lotan*. || *Akordetan danin "Lokauen egon nas" geidxau erabiltzen da. Losorru ixeten da an lo-lo daunien, eta ba saratias, osuen lo, edo goxo daunien esate dxako, "Lo-lo dau", losorrun*. || *Lokaun dauena da lo ariñe dekona-edo ba, lo erresa bako eoten dana, olan lo gogor estauna*. □ **lokau ein.** Echar una cabezada. || *"Lokau ein deu": umirri-tte esate dxake, lo txikidxe eitten dabenin: "Lokautxu ein deu"*.

**lolo.** (LOLO) (Haur.) Sueño. || *"Lolo ein" esaten dxake umiei lo ereitteko*.

**lor, lorra, lorrie.** (LOR) Obligación, compromiso, carga. || *Lorra da bierra, lorrari esate tzau bierra, aintxiñeko sarrak, emen berton orrenbeste bes, baya orrek kanpokuk, markiñekuk-eta lorra esate tzen bierreri, eta guk esate tzau bierra*. || *Lorra? Ser dala esangot? Lorra, burueustie, "Axe lorra artu dabena!"*. *Biar gogorra bada, ba lorra*. || *Lorrak? Ba esate baterako, pentzamentu edo buruko miñ asko dekonari "Orre pe badxekosak lorrak, esin dxok ein de!"*. || *"Au da lorrie!" esaten da, igul e buruko miñe sosegaitti daua esati les*. || *"Au da lorrie!": igul soser eitten deutzesu biarra aldrebese-ero da "Au da lorriau!" esan, esate san bai*. || *Lorrá bierrari be bai*. *"Lorra naiku emoten deu"-edo, geusa bateri, bierra emoten dabenari-edo*. || *"Artu daben bierleku!" esateko, "Artu daben lorra!"*. || *Seinde, esate baterako, entendidu esiñik bestias ero asarre-ero badau, "Lorrak dxekeusek, lorrak, eskaittuk enteniten-da"*. || *Lorra da... ba selan esango tzu pa? Seinde lorrak die ba...*

*burun e sein txarrak eukitti les, lorrak esate tzeu. Geuse nekosu edo erun esiñik-edo badabil, esateu "A pe lorra dekosa eruten". Edo etze bat eitten e ba, kostas asko eitten da ta "Are pe a lorrak dekosa arek eitten".*

**lora, lorie.** (LORA, lore-bat.) Flor. || *Artalorie.* || *Lora lekue.* || *Lorak igertu.* || *Lorie sabaldu.* || *Loriek urten tzo.* || *Lorie ein barik dau oindiño.* || *Malluki bedarrak loratxu bet emoten deu.* || *Landariri urtete tzoñi e loratxuek, frutu ixeteko ixeten da. Landariñ e lorie ba axe ixeten da, loratxue frutu emoteko.* || *Lorie suridxe asten deu (lexarrak).* □ **lora erremollotie.**

Ramo de flores. □ **lora eskudie** edo **eskukadie.**

Manojo de flores. □ **lora kargie.** Ramo de flores. || *Osasun bedarra ibiltte san len, da oiñ asko esta ibiltten, San Juanetan elixara erute san lora kargatxue, lorakin: liridxuek, kabeliñak, larrosak, ta bedeinkatu eitte sittuen, da gero a, oiñ esta ainbeste eruten baya, ori gero orrek lorak bedinketu, te ba gorde, gorde edo kamarara-edo altzau eitten dire, enbasu eittekestan lekure ta. Orreri bedarrari eitte dxaken, olan trumoye geistue daunien-da, ekarri apur bi, bajatu goittik, da ortun-edo su apur bet trumoi kalmetako eitte san.* □

**lora lekue.** Sitio donde hay gran cantidad de flores. □

**loran egon.** Estar en flor. || *Arbolie loran dau.* || *Loratuten danin, lorarik esteu eukitten, da loratuten da, loran dau.* || *Ointxe daus loran.* || *Landarak loran das.* || *Anpolaidxe? Anpolaidxe ser dala esangot? Oiñ e amen e keixak loran das, loran das da orrek, lori jeusiko dxake da garaune geldittuko dxake.* || *Beste bat orri sabala esate dxakona. Ointxe be loran dau.*

*Axe da lorie lelengo-lelengo urteten dabena.* □ *Gazteei buruz ere honela esaten da: Oin loran dau, saso onekue.* || *Oindiño loran dau.* || *Neskie loran dau.* □ **lori emon.** Florecer. || *Lori emon deu.* || *Lora oritxu emoten deu berak (gixetzak) sasoyen.* || *Lori emoteko dauna, lelengo pipittan plantetan da, da gero ba sabaldu eitten da, da lorie.*

**loradun, loradune.** (LORADUN, loredun-bat.) Florido, -a. || *Ori telie loradune da.*

**loratu, loratzen.** (LORATU) Florecer, florear. || *Keixie loratute dau.* || *Ondiño loratu estok ein, baye pipittan dxak, laster loratuko dok.* || *Nabue be loratu eitten da. Esaten da: "Loriek urten tzo, oin loran dau ta gogortu ein da."* || *Loratu biarrin das.* || *Landarak loratu dire.* || *Beste ba tau, San Jose lorie. Da axe ariñen loratzen da.*

**loratza, loratzie.** (LORATZA) Abundancia, montón de flores. || *Loratzie da lora asko daun tokidxe.*

**loratzu, loratzue.** (LORATSU, loretsu-bat.) Florido, con muchas flores. || *Loratzue da larrosie.* || *Keixie loratzu dau.* || *Keixie loratzu de.*

**lorrin, lorríne.** (LORRIN) 1. Revuelto, removido, barullo. || *Ule lorríne.* || *Lorríne da sietz eiñ estan gausie, esate baterako, amen ortuen atxurras ondo ein biarrin, dana lorríne, bedarrak eta lurrek dana nasteta; lorríne esate tzaue orreri.* || *Lorríne gause loidxeri esaten dxako.* || *Biar lorríne eitte dxok arek.* || *'Siestau' da iguel ondo ebei barik dau geusie, da gero siestau. Ondakiñek gero geratzen badi be: "Siestaik ori, lorríne dxak eta!"* || *Aridxe eta danak lorrínik badaus be, "moropillotu" esaten da.* || *Arkondari igul erute su olan dana lorrin, da "Tximurres beterik dana euki dxok ori!"* || *Amen esate baterako lorríne da ba edosein geusa lorrindu leike, nai erreminttie, nai e...* || *Gerniken jente larrei ibiltten da. Bueno! Da moskorra ta abarra ta lorríne! Akabue!* 2. Desarrapado, -a, despreocupado, -a, desgarrado, -a. Ik. *traskille, ganorabakue.* || *Traskille da geusek oker da lorríñ einde alde eitten dabena.* || *Lorríne da bierrin.* 3. Destrozo. Haizete gogor batek pinu asko sustraitik atera zituen batean honela esan zidaten: || *Selako lorrínek ein ttus!* □ **denpora lorríne.** Tiempo revuelto. || *Denpora lorríne da: euridxe goixien ein, da euskidxe gero amaikak, amabidxek, ordu batak ta euskidxe ta. Atzera bardiñ arratzaldien euridxe da: "Au dok denpora lorríne!"*

□ **lorríne ein.** 1. Hacer mal o descuidadamente el trabajo. || *Orrek badiardu lorríne eitten.* || *Lorríne eitten diardu orrek.* || *Leleñgotako artzalde bitten orre ei ben lorríne!* 2. Causar destrozos. || *Aixik lorrínek ein ttus.* || *Askonarrak artu-te jaten dau.*

*Artotan-da lorrínek eitte ittu.* □ **lorríne ipiñi.** Armar jaleo, dar motivo de disputa. Sin. *drogan ibilli.* ||

*Lorríne euk ipiñi dok!* □ **lorríñin.** 1. Enredando. Ik. *lorrinke.* || *Lorríñin botzo orre pe!* 2. Descuidadamente, malamente. || *Txaplana da lixu dauna. Au onan lixu badau, txaplana ebeite dau. Txaplana, susen. An okerra-eta barik..., a okerra bada, ba esta esaten, txaplaniñ e barik e, ordun lorríñin ebeite dau. Da txaplana susen ebatie.* □

**lorríñin egon.** Estar revuelto. || *Trasteteridxe? Geuse asko, ta naste ta lorríñin dausenak.* || *Esan gutena 'destartalaute' esaten da dana lorríñin badau be, "Au destartalaute dau"-ta. Amen, esate baterako, onek e bateko silli, besteko besti tte dana jaurtite les egoti, de "Destartalaute dau".* □ **lorríñin ibilli.** Andar enredando, armando barullo. || *Beti lorríñin dabis.* □

**lorríñin jardun.** Trabajar mal o descuidadamente. || *Lorríñin diardu orrek.*

**lorrindu, lorrintzen.** (LORRINDU, lardastu) Revolver, embrollar, desordenar, hacer las cosas mal. Ik. *des ein, endredau, nastau, matrasau, destartalau, trauskittu.* || *Jenerue lorrindu deu.* || *Lorrindu: geusie garbi tte argi barik: "Ein deu lorrindu beintzat!"* ||

Oye be ipintte..., da siestara jun de igul apur bet: "Oye lorrinduteko bayo estok ein". || Lorrintzi da apurtzi les ori eittie, destrosue. || Lorrindute dxasak.

□ **bastarrak lorrindu.** Enredar, liar, causar jaleo. || "Bastarrak lorrindu" da iguel drogak-eta ipintte ittunari be. Areri be "Bastarrak lorrindu dxosak". Jentartien igul eitte ittus lorriñek, da "Danak bastar gustik lorrindu dxosak ak bastarrak!". Iguel emen be eitte ittu e ganadu batek e jan da gero lorriñe ta "Bastarrak lorrindu dxosak".

**lorrinke.** (LORRINKA) Revolviendo, echando a perder, poniendo patas arriba. || Orrek beutzo lorrinke. || Lorrinke dabis orrek.

**lorrinkeridxe.** (LORRINKERIA) Desorden, enredo, revoltijo, jaleo. || Lorrinkeridxe? Geusa bat e eitten asi, edo eittekun juen, da eitten estana bi dan modun. || Lorrinkeridxe: umiek eta.

**lorrinsale, lorrinsalie.** (LORRINZALE) Aficionado, -a a animar jaleo. Ik. *nastasalie*. || Lorrinsalik batzuk ixaten dire, beres, gusurre esanda lorriñek ipintte ittunak.

**lorrotz, lorrotza, lorratza.** (LORRATZ) Huella, rastro, pista, vestigio. Nabarnizen errastue esaten da gehienbat, baina lorrotza eta lorratza aldaera bien artean lorrotza da erabiliena. || Lorratza esaten da ori be, da ori da ba errastue, edo markie eitten deuna, esate baterako bedarriñ-edo, marki. || Erbidxen lorrotza. || Lorrotza da errastue ero markie, esate baterako, oiñetzak ero bat pasaute badau, amen sier edurriñ ero basan, "Amen lorrotza badau" esaten da.

**lortu.** (LORTU) Conseguir, lograr, obtener. Konegidu ere entzuten da. Alkantzau gehiago esaten da lortu baino. || Bille ibilli nas, da lortu dot.

**losa, losie.** (LOZA, lauza-bat.) Losa. Losie nahiz arri losie esaten da. || Losie da gause sapala. || Ate aspidxen losa bat eoten da. □ **losatara.** Jugar a ? || Bai, len aintxiñe bai, losatara, orreas, or kuadrutan eitte sana, losak. Kuadru losi da ba, ta losak. || Losatara jokatu eitte san, txapakiñ ero olan eitte san a.

**losorro, losorrue.** (LOZORRO) Sueño profundo. || Losorrue: erdi amesetan eitten dan lue. || Lo saratias einde: losorrue. || 'Losorrue' da akordeu esin deuna, areri esate dxo losorrue: "Ño, losorrue euki dxuat!", altzeukeran edo olan, "Ño, losorrue!". □ **losorruen egon.** Estar profundamente dormido. Ik. lokauen. || Akordetan danin "Lokauen egon nas" geidxau erabiltzen da. Losorru ixeten da an lo-lo daunien, eta ba saratias, osuen lo, edo goxo daunien esate dxako, "Lo-lo dau", losorrun.

**lotaldi, lotaldidxe.** (LOTALDI, loaldi-bat.) Dormida. || Lotaldi apur bet ein deu.

**lotaratu.** (LOTARATU) Irse a dormir.

**loti, lotidxe.** (LOTI) Dormilón, -a. || Lotidxe da ba lo asko eitten deuna.

**1 lotu, lotun; lotzen, lotuten.** (LOTU, estekatu) **1.** Atar. || Atzien sokias lotzen da. || Kordel bategas lotu dot. || Txakurre katien dao lotute. || Arek busterridxegas lotuten dixenak ediek dire. || Lotu sokie seoseri! || Aresku esate tzon ari. A eitten da berderik e jun de sepi artu, da euki olan lotute. Batzuk amarrau esaten dabe. Da gero artzen deu jitxe antxe. || Doble bidxen lotu bidxako gero, baten barik! **2.** Atascar. Ik. katittu. || Txirriki da biribil bet, sokiri gibilidxe eitti lakue: txirriki. Sertako? An korridu deidxen sokik erres. Se an sokik ostantziñ espouko, lotu eitten da asko, katittu, da esta libretan. **3.** Cesar, no poder realizar algo. || Seoser biar, ein gure, ta eiñ esin: "Lotute dau, lotute dau ori personi ori, esin deu eser ein. □ Saguak haginekin egurra txikitzen duenean ere, honela esaten da: Saguk lotu deu. □ Inork batere barbarik egiten ez duenean eta beti galdezka ibili behar zaionean, honela esaten da: || Miñe lotute deko orrek.

**2 lotu, lotue.** (LOTU) **1.** Problemático, -a. || Lotue: ba persona batek beste bateri araso asko emoten tzonin, ba seosegeittik, edo beren ixekerie dalako beti bestien ganien egoteko-edo, ba ori da persona lotue, edo su lotzen saittuna. || Lotue gure dau esan, beste bateri arasu emote tzolako. || Persona lotue: berak esin dabelako. Sorga erabiltzen da geidxau, lotue be bai. || Araso lotue. || Bier lotue. **2.** Inactivo, -a, sin soltura. Ik. geldidxe. || Lotue da. || Ori lotu garbidxe dok! || Lotue ser dan? Estekola airerik; martxarik es.

**lotza, lotzie.** (LOTSA) **1.** Vergüenza, bochorno. || Ori dok lotzie emotie! || Ori eitteko lotzie deko. **2.** Respeto, educación. || Orrek lotzie bauko. □ Sarri txakurrari buruz esaten da: || Orrek bauko lotzie. □ **lotzie sartun.** Inculcar respeto, educar. Ik. esi. □ **lotzik galdu.** Morirse de vergüenza. || Lotzik galdute deko.

**lotzabaga, lotzabagie.** (LOTSABAGA, lotsagabe-bat.) Sinvergüenza. || Gallardie: olan apur bet lotzabagi danari-edo. Asko agintzen dabena be bai. || Lotzabagie lotzarik estekona da.

**lotzabako, lotzabakue.** (LOTSABAKO) Sinvergüenza. Lotzabakue berbaren esangura gogorragoa da lotzabagie berbarena baino. || Okerridxe eitten dabinari, oker eitten dabinari lotzabakue esate dxako. || Lotzabako alakue! || Ori espada lotzabaku!

**lotzabagie.** (LOTSAGABE) Sinvergüenza. Lotzabagie gehiago erabiltzen da gazte edo umeekin; nagusiekin lotzabakue esaten da sarriago. || Ori be lotzabagiori!

**lotzagaldukeridxe.** (LOTSAGALDUKERIA) Desvergüenza, descaro. || Esanik eitten estabena, da lotzagaldukeridzak esate ittuna esan txarreku da.

**lotzagarri, lotzagarridxe.** (LOTSAGARRI) 1. Vergonzoso, -a, deshonroso, -a, bochornoso, -a. 2. Desvergonzadamente, en ridiculo. || *Esate baterako, nik alondara sarra, da praka sarrak..., "Lotzagarridxe doik ori!"* || *Lotzagarridxe: ori da ba, esate baterako, seose eitten jun, aldrebes urten-do, igul jentiek barre ein: lotzagarridxe. Esate baterako, kaballuk badois or probara, da: "Ein dxok lotzagarridxe a pe!"*

**lotzaiki, lotzaikidxe.** (LOTZAIKI) Atadura, ligadura, apretadera. || *Garidxen lastu asaue da. Da ibiltte san ba..., eitte san ixotu, da neu pe asko estakitt a ibiltten, da arek eukitten deu lotzaiki bat, garidxe, da arixas lotzaikidxas saindu eitte san sue, aundidxeidxe es, txikidxeidxe eiñ esteidxen; da arixeri esate dxako suxidxe.*

**lotzako, lotzakue.** (LOTSAKO) De mucho respeto. || *Lotzakue: errespetu dekonari, edo persona sasuku danari-tte, umiri-tte barik.* || *Lotzako personie da.*

**lotzari, lotzaridxe.** (LOTSARI) Vergüenza, bochorno. || *Lotzaridxe emon tzo.* || *Lotzaridxe euki deu arek, lotzatu ein da.* || *Nik gusurre esan doten les, ba gero nik lotzaridxe artu dot.* || *A pe lotzaridxe artu deu, egidxe esan tzonin.* || *Lotzaridxe artu dxok a pe!* || *Lotzaridxe? Bai, seosegeittik-edo, oker ein danin, lotzaridxe esaten da: "Lotzaridxe euki deu", "Lotzaridxe pasau deu" edo "Lotzaridxe deko".*

**lotzatu.** (LOTSATU) Avergonzar(se), ruborizar(se). || *Lotzature dau.* || *Lotzatu ein da.*

**lotziarren.** (LOTSARREN) De vergüenza, por vergüenza, para evitar una situación bochornosa. || *Lotziarren ein deu.*

**lotzor, lotzorra.** (LOTSOR) Vergonzoso, -a, tímido, -a. || *Uxokie da: edosein patari esate dxako, nai personi be bardin, dana lotzorra-edo, jentiti eskapan-edo uxoka ibiltten dana-edo, olaku.*

**lotzu, lotzue.** (LOTSU) Dormilón, -a. || *Lotzue da lo asko eitten deuna.* || *Beti lotzu dau.*

**ludo, ludo, ludoye.** (LUDO) Niebla, enfermedad del trigo, honguillo oscuro de los cereales. || *Ludoye ixeten da gari buru baltza. Baltza erreten estan garidxe eukitte ban, gari buru baltza, da es eban balidx-ixeten, ludoye eitte dxakon, da es eban balidx-ixeten, ebaitteko etzan geusi ixeten. Oiñ errotara erun, de jateko serak, bai, ludo apurtxu bategaitti pa baltzau urtete ban, ba ya tire!, pasau eitte san, ba aprobetxau eitte san. Baya beres, se esangot neuk?, ludoye eitte dxakon garidxe iño pe es aban gure ixeten, eraitteko bes, da esetako bes. Olluntzako, da olluk eure pe obiauri padeke, jan es eben eitten, se a ludo dekon garidxe, barru suridxe euki be li, baltza atarata bayo, baltz-baltza.* || *Ludoye bedar txarra da. Gari artien egoten da.* || *Oiñ esta garirik eraitten aspaldidxon. Len garidxe eraitte sanien, garidxe ondo erreten espada, usaten da emen karie, ekarri karie, da karie nastete dxakon eraitteko garidxeri, erain bi danari, da botate*

*dxakon, garbitze san uretan garidxe, da ludoyek pixutzuk estiriles ixeten, gari garaunek ixeten dire, baya ludoye, geixu dekenak, uretan garbitzen dire, da arek ludo deken garidxe, ure botaten danien, urek kendu eitte tzo.* || *Ludoye da geixo bat, garidxe eukitten dabena.* || *Ludoye garidxeri eitte dxako, garidxe ba. Ludotzi da bi dan modun es eltzie, ein birrien eldu, gogortu, te eldu, da, ludoye da..., eitte dxako, gari garaune eitten da baltzittu: ludoye.* || *Ludoye garidxen geixu ixete san ori. Ogidxe altzau etzan eitten.*

**ludoitzu, ludoitzue.** (LUDOITSU) Que tiene la enfermedad del trigo. || *Gari ludoitzue.* || *Ludoitzu dau.*

**ludotu.** (LUDOITU) Contraer la enfermedad del trigo. || *Garidxe eraikeran ondo erreten espada, ludoye euki es arren, garidxe ondo erreten espada, ludotu eitten da. Da gero jote danin-da ba, ludoye agertze dxako, ta alaku ba errotaridxe es eben gure ixaten, se urune baltzuskari ataraten deu te, da jagi be ganera esta ondo eitten ludo deken garidxen urune.* || *Eitten espadxako eser, garidxeri ludo etorte dxako, baltzittu eitten da. Gari burue eldukeran, baltzittu eitten da, gari burue, da estau balidxo es eraitteko, da... ludotuten dan garidxe estau balidxo, eraitteko be estau balidxo, da ganaduri pentzun emoteko bes.*

**lugan, lugana, luana.** (LUGAN, luban-bat.) Vallado (de tierra) trinchera, zanja de tierra, talud. || *Lugana da desmontie.* || *Bide baten iñor pasatarik gure espadabe, igul ebai bidie, da luganak ein.* || *Motien aspidxeri esate dxako lugana.* || *An luana dak.* || *Arbisoloko luana leutu dabe.* || *Ormi da arriskue. Da ori lugana da lurras eindako olako alturie. Len aintxiñe eitte sin karkabak, lurre altzau, mujo bittartien luana.* || *Ota karabidxe pe, es ainbeste, baya luganetan einde. Oiñ ota karabidxa bajuau ixate sales, ak e, esate baterako, olako montor baten kontrara ein leidxen.* □ *Lehen norberaren basoa nondik norakoa zen (mujo bittartie jakitteko) jakiteteo luganak egiten ziren: Len basuk eukitte ben buelta gustidxen, ointxe be badaus baso txatxatxuk luganas, buelta gustidxe lugana dekenak.* || *Gurie luganetik da.*

**lugana, luganie.** (LURGANA, lurgain-bat.) Terreno situado encima de un camino. || *Luganie: bidetik goiko alderdidxen dauna.* || *Bueno, luganie esango neke nik e beyen daun e... Karkabatxu dau da luganie axe goitxue.*

**luju, lujue.** (LUJU, lujo-bat.) Lujo. || *Da oiñ orrek (arkoyek), ba suk esan dosune, erroparako, da lujutzet ipiñitte eukiteteo-ta dekes. Gurin beti usau san garidxe alakoxe lekutan.* || *Orre dire lujutat bakarrik, elegantekidxe.* || *Dana bat. Baya ba anillue eskontzen danak ipintten dau. Da besti, erastune, ba lujorako geusie.*

**lukeinke, lukeinkie.** (LUKAINKA) Longaniza. || *Lukeinki esaten tzeu guk txorixue edo murtzillena.* || *'Lukainkie' da len aintxiñe eitte sirinak, txalan odolas-da eitte sirinak sirin likainkak; txarrixenas*



eitten dire txorixuk. || Lukainkie ba, geure amak alan esate tzen, da ba lengo andrak esate tze, txorixuk esan bierrien, lukainkie. □ Hona hemen lukeinkie eta txorixue berben arteko desberdintasuna: || Txorixuk eta lukainkak, ixetes, bat tire, baya txorixue ixeten da txarrixen okelias eitten dana, da lukainki ixeten da sesiñan okelias eitten dana.

**lukurrero, lukurrerue.** (LUKURRERU) Logrero, usurero. Ik. eutzidxe, sekena, sikotza, sistriñe. || Lukurrerue: gitxi emoten dabenari-edo, emon gure estabenari-edo. || Lukurreru da.

**lume, lumie.** (LUMA) Pluma. || Olo lumak. || Lumeri pakue. || Saman lumie deke. || Lumak kendute dau.

**lumetu.** (LUMATU) Desplumar. || Gaur atzaldien antzarrak lumetu bius. 2. Arruinar(se). Ik. lumetu. || Lumetute itxi deu.

**lumetza, lumetzie.** (LUMATZA) Montón de plumas. || Patari bet lume asko dekona bada, patu-edo: "Orrek deko lumetzie!"

**lumetzu, lumetzue.** (LUMATSU) Plumoso, -a, de mucha pluma.

**lumorratz, lumorratza.** (LUMA-ORRATZ) Cañón, cálamo, pluma del ave cuando empieza a nacer. || Luma eiñ orduko, lumorratza. || Lumorratza: olan txori kunak, edo txitxak-edo, txiki-txikidxe-eta, jaidxoten diriñin-edo, ba lumorratziñ egoten dire. Lumorratza da: lumie lodi-lodidxe urteten deu puntatik, jaidxoten diriñien, da lumorratza, gero aste diriñien nai txitxak, nai txoridxe..., ori lumorratza, lumak asi eitte dxakes, da lumorratzak ba olan puntatxun lodidxe eukitten deu, da arixerri esate dxake lumorratza. A lumorratza-edo apurkan-apurkan des eitten da, ta gero ba lumie ba bi dan moduku eukitten dau.

**luperi, luperidxe.** (LUPERIA) Corrimiento de tierras, tierra de aluvión. || Luperidxe: euritti ein, de euridxe lanik lur sati bat-edo mobiduten dabenin-edo, olan sakoneruntz-edo jeusten danien, "Luperidxe ein deu". || Euridxe, urek ekarten daben lurre da luperidxe. || Dandarresa bai. Bakixu, sa mendidxe emoten daun e luperidxe, bakixu arek lurrek eta arridxe ta dana, ta gero errekkik eruten deu igul. || Luperidxe ixen da.

**luperittu.** (LUPERITU) Correrse las tierras. || 'Luperittu' eitten da, esate baterako, euritte baten-edo, da urek ure menditik bera datorrena-edo, a goitti bera datorrena-edo, errekatxu einde etorten danari-edo, ba beragas lurre ekarten deu-edo, da arixe dakarren lurreri esate dxako "Luperittu ein da".

**lupu, lupue.** (LUPU) 1. Oruga. || Lupuek berdeskak ixeten dire. || Lupue da koko berde bat, berdie ta txikidxe egoten dire, ta eundidxe pe bai. Baya arek lupu eundidxe e benenu eukitten dabela esan eitten dabe, baya euki ingo dabe seoser. Ba patatan egoten da asko, asko edo banakie patatan agertzen da. || Lupue? Animalitxu bateri, lurriñ ibiltten danari. Ba da, ba ibiltten dire orrek e patatan be bai, patati eldu bi

dabenin be, olan berdeski edo naiku berdeski dana, arixerri esate dxako lupue. || Guk emen lupu esate tzeuna berdi ixeten da. Olan beyen tatarres ibiltten dana, txikitxue, onen tamañokotxu-edo, berdie, da origeittik olakuk, tatarres ibiltten diriñak, berdik estiriña pe badas, ulie dekena pe badas, estekona pe badas. || Lupue guk e... Oiñ estaki paya oin be arek e badas, arek langostatxuk, langosta berdetxu bateri esate gentzon. || Ori lupu esate gentzona langosti da, langosta berdetxu bat. 2. Escorpión. || Benenu eukitten deu lupuk. || Oiñ esta emen lupurik. Ori esate ben erre ein bi-ste sala benenu dala ta. || Lupue txarra ixeten da. Benenu eukitten deu lupuk. Ori erre ein bi ixate san len, soster bittarte. 3. Cualquier pequeño insecto que se arrastra por el suelo. || Emen jeneral lupu esate dxake danari. Siempies be etxake esaten. || Langostatxue, ankas beterik egoten danari lupue esate dxako. || Dandarresin dabixen gausari, orrek, orrek siempiesek ankatxuk eukitte ittu, ankas beterik egoten da. Da orreri be bai, tte areri dandarres ibiltten dan areri kokuri be bai, lupu esate tzeu. 4. Mala persona. || Selako lupue da ori persona ori!

**lur, lurre.** (LUR) 1. Tierra (planeta). 2. Tierra. || Lur arlue. || Lur sail bet. || Lur sati bet. || Lur samurre. || Or lurrek txarrak dosak. || Lur askoku da solue. || Lurre pranku dau. || Da arridxeekin be eitte ittuen batzuk, noberan lur satidxe, sarratue, esta?, baya arridxas ormie einde. || Satorrak joten deu da lur pilluk atarate ittu. 3. Suelo, tierra. Esaterako, soroan lurrien esaten da, baina etxean beyen. || Lurrera jeusi dok. 4. Arcilla. || Lurresku basue. || Lurresku lapikue. || Lurresku pitxarra. || An lurresko ontzidxen ure esta berotzen. 5. País, tierra, paraje. || Beste lur batzutan.

□ **lurreskue.** Terroso, hecho de tierra. || Oiñ eskatzak eta etartiek-eta lurreskuk jeneral estaus, ba antxiñeko etzen batzuk eukiko dabe baya, olakoxe lurreri, lurre landu bakue... □ **lur arue.** Tiempo adecuado para labrar la tierra. || Lur arue, esate baterako, esate dxakon, ba, iguel ba, euri tti-edo ixete san, ba solora juteko arorik esan egoten. Da gero denpora ona etorte san, da ipintte ban siketute, ta esate dxakon: "Lur arue dau", ya asidxe ereitteko modun. □ **lur astiñe.** Tierra fofa, hinchada, esponjosa. || Lur astiñe, lur gosue, esponjan antzeko lurre. □ **lur baltza.** Tierra vegetal. || Lur baltzak daus an. || A lur baltza barik, troska lurre. □ **lurre betien.** Plenamente, rebosante, sin obstáculo alguno. || "Landarie dator lurre betien": dana erneten dauela bedarra, ona, nai eskasa, ba etorri biar estaben bedarra, etorten dala, da etorri bi dana be bai. Aberatza datorrenin, oparo datorrenin. || "Landarie dator lurre betien": Ori be bai. Ori ondo datorrena ta sarratu. Ondo datorrena, erni olan datorrena, "Dios, lurre betin dxatok!". Da falta badaus, esta esaten 'lurre betin', espabe ba faltan edo

bestie, baya an ondo datorrena, olan noberak gure daben modun de fresko datorrena esate dxako 'lurre betin'. || Lurre betiñ e, lurre betiñ e, atxurre sartutie be lurre betiñ ixeten da arek eta arridxe topau arte. || "Lurre betin sartu dxusek postik", se igul onako lekuen beyen arridxe dau, da lurre dana eitten da les... a beraiñun ein badeu, "Lurre betiñ ipiñi dxusek beintzet".

□ **lur meye.** Tierra de poco espesor que tiene piedra debajo. Ik. argana. || Lur meye esaten da, seinde, ser esangot neuk? aspidxen arridxe dekona-edo, ba lur askokue estana, lur meye esaten da. Argana be esate dxako. || Esate baterako, ortun, edo soluen-edo, aspittik arridxe badeko, a lur meku da. □ **lur motela.** Tierra floja. Sin. lur bigune. || Ba singeri da leku lurru motel bat, edo lurrek berantz eitten dabena-edo, areri esate dxako singerie. □ **lur seye.** Tierra menuda. || Lur seye egoteko, lurre prestau ein bi da. Amengo lurrek estires beres setzen. Lurre, seye, esate baterako, ba atxurtu, edo sokille jota daunin-edo, ba lur seye egoten da. □

**lur satarra.** Tierra dura, poco maleable. Lur santarra ere esaten da. || Bustiñie amen e berton geure terrenuko solun be ba barrure goldatu ero onan eiñ eskero, barrutik satarra ataraten da, bustiñi. Lur satarra dire orrek bustiñak. Gogorak. || Lur satarra da lurre gogorra dana-edo ixeten da lur satarra, "Labretako satarra da"-edo. || Lur satarra ixeten da... Ser esangot nik? Lurre ona estana ixeten da lur satarra. || Lur satarra da lur sendue, "Lur satarrak dire arek", onek e geuri di les. □ **lur takarra.** Tierra dura. || Lur takarra dxak emen, esin konpondu! || Lur takarra da ligorra, gogorra. Emen ligorra esaten da, takarra bayo. □ **lur ustela.** Tierra floja. || Lur ustela lur samurre da. □ **baso lurre.** Tierra del bosque sin cultivar ni labrar. || Bueno, baso lurre basun oten da, mendidxen be bai. Ibili bako lurre, gosatu bakue. Ba esate baterako, mendiko bedarra emoten dabena, ba esate dxako baso lurre. || Baso lurre ekaten da..., ser esangot neuk? Oñ eskatzak eta etartiek-eta lurrekuk jeneral estaus, ba antxiñeko etzen batzuk eukiko dabe baya, olakoxe lurreri, lurre landu bakue... Baso lurre da ibili bakue edo ondute estaun lurre. □ **lurre altzau.** Acarrear la tierra desde abajo hasta arriba en los terrenos en pendiente. || Solun, erripak edo aldapak sirinak, ba lurre altzate dxaken artu ereittek, edo nabu ereittek, edo garidxe ereittek. Da barrenetik gonera lurre altzate san burdidxen. || Lurre, aldatza daun lekuen, lurre larretan danielen-da, beti bajatu eitten da bera, beti bajatu eitten da. Da gero ba, gona, ba, lur gitxias gelditzen da. Altzate san ba, urrengo... labora ereitte sanien, beko lurre altzate san gonera osta be. □ **lurre bardindu.** Allonar, aplanar el piso. □ **lur emon.** Enterrar. Ik. enterrau. ||

Lur emotie egon da gaur. □ **lurre gosatu.** Preparar el terreno, abonarlo, hacerlo más manejable. || Lurre gosatu: erabilli-tte, te igul ondute, eutz eitten da:lurre gosatu. Euridxegas be bai, batzutan esaten da ba, siku badau, "Ein deu apurtxu bet, gosatzeko beste". "Gosatzeko beste ein deu", euridxe gitxi eitten badeu.

□ **lurre jo. 1.** Decaer la salud. Lagunekin nahiz animaliekin erabiltzen da. || Kepa lurre jota dxak total! || Lurre jo dxok. || Beidxe lurre jota garatu dok. **2.** Quebrar, arruinarse. Ik. bei jo, kiebren jo. || Lurre jota dau.

**lurbarri, lurbarridxe.** (LURBARRI, luberri-bat.) Artiga, tierra noval. || Lurbarridxe esate dxako, esate baterako, ein gure da solo bat, da atxurtu, da ba ondu lekue, ta ba "Lurbarridxe ein dabe", ortue eitteko edo solu eitteko. || Matarresie: dana ebaitte, dan-dana basu garbi itxi, dana ebaitte dxakola, danak kendu, onak, eta txarrak kendu, danak kendu: matarresie. Lurbarridxe eitteko be bai, edo ortu ein gure badabe, edo ona estetzelako isten, len daun arboliri, a kendu, dana garbittu, te barri bat.

**lurgora, lurgorie.** (LURGORA) Labor consistente en acarrear la tierra desde abajo hasta arriba en los terrenos en pendiente. || Burdidxas, solu erripatxu bada, gonera altzatie, orreri lurgori esate dxako. || Erripatan beti etorten da labraueran lurre berantza. Ordun eitte siren barreniñ artu, te gora erun, da deitze dxakon lurgora. Artun, eta gora erute sendun. Berantz beres etorte san, iñok ekarten ibilli bari paya. Oin ba, soluk itxitte das-da. □ **lurgoratako burdidxe.** Carro que se utiliza parala labor consistente en acarrear la tierra desde abajo hasta arriba en los terrenos en pendiente. || Guk e ba ori. Burdidxek, lurgoratako burdidxek. Lurgorataku e da kaji e txiki-txikitxuas. Orre tie esku-eskue. Orrexe eta eure sidi bi, errilla nonun, kaja laburre. Axe lurre beteta solun barnetik e gora lurre altzetan. Estosu sekule ikusi? Ta gero a lurre tra! a gora erun eta bru! jeusten da.

**lurperatu.** (LURPERATU) Pasar el arado por las tierras para enterrar las hierbas. Lagunak eta animaliak ez dira lurperatzen; lur emon edo enterrau egiten dira. || Ba, ederto lurperatu sak bedarrak. || 'Lurperatu' solun esaten du guk, bedarrak goldias. || 'Lurperatu' emen esaten da: goldak-eta len eitte ben jirau, da an botate san satarreidxe, "Lurperatu dok", orretarako esaten da.

**lurraldatu.** (LURRALDATU) Transplantar (plantas). || Lurraldatutako landarie.

**lurrikera, lurrikerie.** (LURRIKARA) Terremoto, temblor de tierra.

**lurrin, lurrune.** (LURRIN) Vapor, vaho. || Lurrinas bete. || Au eskatza dana balego ketan: "Dana lurrundute dau eskatza". || Lurrune esate tzeu guk, esate baterako: estule dau-edo, katarru dau-edo, gogo txarra dau-edo, ta ba suten, ba ereiñotza ekarri

kanpotik, da suten erre, da ereiñotzak emoten deu ba alako usein goso bat, erreten danien, da axe artu. Edo ostantzien urek, urei irakin, da araxe ur irakiñetara bota, nai eukalittu be bardin, nai ereiñotza be bardin; bota antxe irekiñien, artu, ta gero atara kanpora latzatic, da tapau manta bates-edo ganetik, arixen lurrinak. □ Vahos de eucalipto: || Eukalitu lurrune.

□ Kristala barruko beroagaz lausotzen denean ez da lurrune esaten, baue baino.

**lurrundu.** (LURRINDU) Evaporar; votalizar.

**lurtxakur, lurtxakurre.** (LURTXAKUR) Gusano que ataca a las hortalizas. || *Lurtxakurre da orrek e serak, ipintten dosusen serak, piperra nai au, letxugak eta danak, eperdidxe ebei, dana eitte ittue... Lurtxakurre esate tzon gure amak. Kokoarra da.*

**lurtzu, lurtzue.** (LURTSU) Terroso, -a. || *Leku lurtzue? Ba arririk edo eser esatuna, leune-edo ixen bi deu te.*

**lusaldi, lusaldidxe.** (LUZALDI) Estiramiento. □

**lusaldidxe artu.** Estirarse, ponerse cómodo. || *“Lusetasune ederra artu dxok”, bai, lusetasune, einde gero esaten da ori. Ba eitten detzola, ba “Majo luse tzok!” edo “Lusaldi ederra artu bidxok!”, edo einde gero, “Artu dxok”.*

**luse, lusie.** (LUZE) **1.** Largo, -a. || *Melena lusie. || Trongo luseri len sure esate dxakon. || Narra be ibiltte san, baya narrari indar asko ein bi dxaken. Leku laburrin-de, narra be bai, baya leku lusiñ ibiltteko es, se ganaduk asko kantzeta sirin. || Txonbu garbidx-ok, lusi estok! **2.** Alto, -a. □ **lusetara.** A lo largo. || *Lusetara, da trabesetara. || Onek baserri danak lusetara daus einde. || Lusetara barik, emendik onakue, sabaletara. || Lusetara, da sabaletara onenbeste dxok. || Bitzetik burure luse dok ori. □ **luse ta sabal.** A lo largo y ancho. || *Luse ta sabal meidute dau. □ **luse eritxi.*****

Impacientar por la tardanza, parecer largo el tiempo. || *Luse eritxitte nau. || Luse eritxi tze itxaten. || Se, luse eritxiko seutzan? || —Gogoitzen egon sara? —Ba luse eritxi tzet nik. □ **luse eutzi.** || “Majo luse tzo”, tirekaro dabillenin be, “Ederto luse tzo ori be”. Ori klase askotara da au, lusetziña, se esan leike e onek probalaridxek eta probantik e “Dios, ederto luse tzo!”. □ **luse itxi.** Dejar caído, tendido. || *Luse itxi deu golpe batas.**

**luseka.** (LUZEKA) Alongado, -a. || *Sapalak dire (prailleulidxek), lusekak, inkeute geratzen dire musturre sartute bertan.*

**lusenka, lusenkie.** (LUZENKA) Alongado, -a. || *Alper arridxe ixeten da, arri lusenkie, biribil-biribile dana, len solun asko ibiltte gendun sokillek apurtzeko: arri alperra. || Are subillek tire..., ari ba esate baterako lusenkatxu ixeten da, lau kudroku bayo*

*lusenkatxuau, atzetik eurrera lusenkatxu, da ortzak sartzeko, ari ibiltteko, solun ibiltteko ortzak sartzeko.*

**lusera, luserie.** (LUZERA) Largura. || *Onako luserakue. || Angillie aundidxe da. Errekakuk onenbesteko luserie eukitten dabe gitxi gorabera.*

**lusero.** (LUZARO) Por largo tiempo. || *Lastimie, egon sirin ba gurin lusero ta galdu sin. || Janaridxek lusero iraun deu. || Lusero dau or. || Lusero euki gure diriñiñ e txorixuek, ba siketzen daniñ a puxikie, putzittuneko puxikie, ba sarzen dire ba txorixuk. || Suridxe ostantziñ e luseruau, a barru oriskatxu dekon suridxe luseruau eukitteke ixeten da. || Da gero (prantzesa) luserotxuau badau, ya luseruei badau, txapelak urtete tzon, txapela esate gentzon, onen tamañoko ori, lodi-lodi-lodidxe, gorri-gorri-gorri-gorri-gorridxe. || Lusero es, naiku ariñ illte sittusen.*

□ **luserun.** Por largo tiempo, largamente. || *Luserun estok etorri. || Luserun dau etorri barik. || Luserun nau emen. || Luseruen egon da euskitten, da oiñ euskidxek pasaute dau. || Urune bota, ta ereiñ ein, de euki antxe erreten, euki erreten. Luserueu euki, te gosuu, erreten espada, tamañu saindu eskero.*

**lusetasun, lusetasune.** (LUZETASUN) **1.** Largura, longitud. || *“Lusetasune artu dxok”: asi eittie. Esate baterako, gastie ta “Orre pe artu dxok lusetasune!”. Aundidxau ein. || Ikustosu mutil gaste bat, nai edosein gaste, edosein persona bat, “Orrek artu dxok lusetasune!”. Asi aundidxe. **2.** Fatiga, esfuerzo grande. || *Da proban dabillinari be, igul, jo ta jo ta jo ta jo ta eiñ es, da “Lusetasune artu dxok orre pe!”. || Kantzeute edo etenda badator: “Lusetasune ederra atrapau dxok!” || Nik emendik au mendidxe igoten badot orra gora justu-justu: “Ño, lusetasune ederra atrapau dxok a pe!” edo “Ederto lusetu dok!” || Lusetasune? Kantzaute datorrena. “Orrek artu dxok lusetasune!”, kantzaute total.**

**lusetu, lusetzen.** (LUZATU) **1.** Alargar, estirar. || *Sokie lusetu. (Empalmar, alargar) || Egune lusetu ein deu. || Asko lusetu deu. **2.** Crecer. || “Lusetu ein da”: Asten daun umiri edo gastiri. **3.** Demorar(se), alargar(se) || *Berbetan lusetu ein dire. **4.** Fatigarse, hacer un esfuerzo grande. Ik. lusetasune atrapau. || Lusetu dok majo! || Lusetu: “Majo lusetu dok ori be!”, esate baterako kantzau-kantzau-kantzau einde deuniñ e “Dios, majo lusetute dxak a!”. || Kantzaute da ba lusetzi ixetes, baya gero esate dxako orreri. “Lusaldi ederra artu dxok!” edo “Majo lusetu bidxok ori eitteko!”. Esate baterako, pentzeute dekona eitteko, asko bauko. “Majo lusetu bi dxok ori ein biar badxok!”. Olanik esaten da emengue. || Lusetu einde, inderka. □ **egune lusetu.** Alargar el día. || *Egune lusetu deu. □ **esku lusetu.** Echar una mano, ayudar. || Kanpotik datorrenari be beti lusatzen dxako esku.***

**lusimentu, lusimentue.** Lucimiento, provecho. || *Onek jateko onek lusimenturi pe esteko. || “A*

*lusimentu emon tzona!": atara bitzola geidxau esateko. Edo onera esateko be bai: "Lusimento ona emon tzo".*

**lusinke, lusinkie.** (LUZINKA, luzanga-bat.) Alargado, -a, larguiducho, -a. || *Da koko bat rum-rum-rum-rum ibiltten dana, da deko formie..., selaku dan esangot..., lusinkatxue.* || *Lusinki da.*

**lustre, lustrie.** Lustre. || *Lustrie useten da sapatak garbitzeko.* || *Lustre baltza.* □ **lustre kajie.** Alargar el día. || *Lustre kajie? Bai, lustrie eukitten dabena. Len..., len da oin be bai, lustrie, sapatak garbitzeko lustrie eukitten dabena.*

**lutu, lutue.** (LUTU) Luto, duelo. || *Kapak ikusten siñ ordun lutue.* || *Lutue doixenak.* || *Oiñ esta lutorik usetan.* || *Len bat iltzen basan be, ba onenbeste denporan erun eitte san lutue. Edo pentzeu e, len selakuk eitte sirin: ostantzeko erropakin basaus be, or argitzue bada, olako lekuen traputxu bet ipintte, en jeneral illune. Urtebetera arte eitte san.* □ **lutu bankue.** Banco de luto. || *Luto bankuek oin be badas. Oin lengo modun estire, baya len lutu dekona eurreko bankutan egote san lutue saintzen, gixoneskuek, da kapak jaste sittun. Oin kaparik ikusi be esta eitten, da oingo unik selakuk diriñ estabe jakingo.* || *Lutu bankue oiñ arte egon da emen. Ori beti egon da emen.* || *Lutu bankuen Jose egon da.* □ **lutue euki.** Guardar luto. || *Olatak opiltxuk ixate sirien, sabaltzen sittuen domeka, da jai egun gustitan sepulturetan. Da luturik estekonari, ba trapu suri bet.* □ **medi lutue.** Medio luto. || *Beres emen lutue, urtebetin lutu erute san, da gero beiñ urtebete pasau eskerun, ba alibidxau eitte san apur bet medi lutu ipintte.*

**madari, madaridxe.** (MADARI, udare) Pera. || *Madari urtzue.* || *Madari klase asko daus.* □ **madari sagarra.** Pero, variedad de manzana. || *Madari sagarra untxe (urri hasieran) elduten da, da plasan beren tipu-tipoku badaus.* □ **madari saltzie.** Compota de pera. || *Madari saltzie: ori surittu, satittute ipiñi, sati eundidxe edo txikidxe, noberak gure idxun modukue, da edo ardaur apur bet botata, edo ur apur bet botata, da asukeri bota ta egosi. Senbat denpora eingo deu? Ordubetin bai egositte ongo da frutie.* || *Mermeladie alperrik galdu esteidxen luseruau e euki biar ixaten da irakitten, baya ori (madari saltzie) be ba segidxen jateko ta ba, ondo eoten da, ta atan be ume kuadrilli dauniñ e umiri e ogidxen ganiñ emoteko beidxenda modun-da ondo eoten da.* || *Madari saltzie: umiri emoteko ardaurik barik, ures da asukeries. Nausidxentzako botate dxako ardaue, nausidxek e jateku olan dauniñ e baskaridxe edo aparidxe edo beidxendie edo seoser, da nausidxek dasenin ba areri ardaue botate dxako, baya ostantziñ umiri-tte es.* || *Madari saltzie: madaridxeekin surittute eiñ eskerun.* □ **espata madaridxe.** Cierta clase de pera. || *Len espata madaridxe amen berton egon sin, amen, gu geuk eskendun euki, baya amen beste etzien, espata madaridxe fenomenu egon san arbolie, ederra! Eta selako garauek eukitte basan ba!* || *Espata madaridxe: es aundidxe, esajerau pes, baya olanik biribile beyen, da gora lusia, olako lusi eitte siñak siren espata madaridxeek. Ba gosu! Ona madaridxe!* □ **gabon madaridxe.** Pera invernal. || *Gabon madaridxe beranduko madaridxe da.* □ **iñurri madaridxe.** Variedad de pera. Emiliano Arriagak *pera de hormigas* terminoa batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "(Traducción literal del e. *iñurri-madari*) Pequeña pera de verano, que tiene un sabor muy semejante, aunque parezca paradójico al olor de las hormigas". || *Iñurri madaridxe gosu da, baya iñurridxen gustue eukitten deu.* || *Bai, badau indurri madaridxe be. Jateko gosu da. Len geurin be egon san. Indurri gustu laku eukitten deu apurtxut, baya jateko gosu da.* □ **ireil madaridxe.** Cierta tipo de pera. □ **kanela madaridxe.** Variedad de pera. || *Kanela madaridxe bertoku da.* || *Kanela madaridxe da ba, aiñ eundidxe be esta, txikidxe be esta, trokotxu ixeten da, ba dultze-dultzi da, kanela madaridxe, ta kolori be apur bet kanela antzeku-edo, onakoxe antzeku eukitten deu, alderdi bateti bayo espada be.* □ **kutxillo madaridxe.** Pera de invierno. Karrantza aldean, *peras de cuchillo* esaten ei zaie. || *Kutxillo madaridxeek naiku lusiek, naiku aundidxeek dire, irailien edo olan atarate dire arek.* □ **makatz madaridxe.** Variedad de perucha, de tamaño mayor que la *makatz* común. || *Makatzak, klase bi edo iru daus. Bata dau granu*

*bastante aundidxe eitten deuna; makatz madaridxe esate tzeu guk areri tamañuri. Da bestie makatza da, txikitxue, alla lusias. Makatzetan oin bat bes; orrek makatzak danak ondatu dxakusen. □ orandillie.*

Cierta clase de pera. || *Orandillie aintxiñeko klasie da. Len orandillie asko egote san onetan. Oiñ ikusi be esta eitten orandillarik. || Orandillie madaridxe da, bastante eundidxe. Orandillie bastante sasos etorten da. || Oin be orandillak bastante das, madaridxek. Len asko*

*egon san orandilli. □ Santidxau madaridxe.* Pera de Santiago. || *Santidxau madaridxe: bestik lakoxi, ba santidxautan etorten dana edo ba, esta eundidxe be esta ixeten, a madari eundidxe be esta, txikitxu be esta. □*

*sideridxe.* Cierta variedad de pera. || *Sideridxe madaridxe da. || Sideridxe urtzu da. || Sideridxe? Madari bet. Gustue apur bet gustue gogorra eukitten deu. □ ur madaridxe.* Cierta variedad de pera.

**madarikasiñoye.** (MADARIKAZINO, madarikazibat.) Maldición. || *Madarikasiñoyek esaten dire.*

**madarikatu, madarikatue.** (MADARIKATU) Maldito, -a. Lehengo zaharrek asko erabiltzen zuten hitz hau: || *Madarikatu! || 'Madarikatue' esaten da, ernegaute daunien.*

**madxodana, madxodanie.** (MAIORANA, mendaro) Mejorana (*Origanum majorana*). || *Madxodanie? Bai, badau landara bat, da landarie se eundidxe eitten dana be bai, baya oin geurin be estau madxodanarik. Da eukitten dau useiñe goxu. || Madxodanie asi eitten da eundidxe, eundidxe-edo, bai, a se esangot neuk?, beste lora batzun modun asi eitten da. Lorarik esteu eukitten, nik neuk dakitela madxodanik esteko lorarik.*

**magal, magala.** (MAGAL) **1.** Falda exterior, la que aparece a la vista. || *Magala esate dxako emen... Oiñ esta ibiltten, andrak e gonari pe estabe ibiltten, ganeko gonari pe. Da len esate dxakon magala arixeri ganeren erun bi xen goniri. 2.* Cazcarria, zarpa, lodo que se pega al ruedo del vestido. Izan liteke berriemailea maskala hitzarekin nahastea. || *Magala? Erropa-edo, gona bat-edo, euridxe einde, busten danin ba, erdi bustitte daunien, ba magala arixeri esate dxako. Maskala be bai. || Magala oiñ estakitt e iñok e, olan gastik-eta badakidxe ser dan magala.*

**magra, magrie.** Suciedad. Ik. *sikiñe.* || *Magri dxekok. || Au dxak magrie! || Esto pentzetan. Metal ure esaun dekosu. Kobri lakoxie, kobrie, urre, kapie dana, bera pasetan dana, dana inkete tzos. Arridxeri be danak emote tzos, dana. Inkete tzo magrie. Neusidxe emote tzo! Da bera ona. Kendu ein bitzesu ba, kapi eukitten deu te, kopie lantxik.*

**mai, maidxe.** (MAHAI) **1.** Mesa. **2.** Viga de roble situada en el fondo de la parte del molino conocida como *errotapie* y sobre la que descansa el eje. || *Maidxe? Orren ardatzan aspidxen dauna. || Fiñau ein gure bada (urune), maidxe altzaten da. || Ardatz aspiko*

*maidxe. □ maidxe altzau.* Recoger la mesa. || *Maidxe altzaixu! □ maire deittu.* Llamar a la mesa. *Jateko deittu* ere esaten da.

**maikada, maikadie.** (MAHAIKADA) Mesa llena de comensales. || *"Maikadie" da kuadrille aundidxe maidxen badau: "Maikadie gasak!". Jente asko deunin maidxen bueltan: maikadie.*

**maille, maillie.** (MAILA) **1.** Peldaño, grada, eslabón. || *Eskillara maillie. 2.* Nivel, altura. || *Ur maillie. || Au mailla euki deu. 3.* Salto que se pone en el camino para que obligar a los vehículos a reducir la velocidad.

|| *Mallak ipintte dasak. □ kate maillie.* Eslabón de cadena.

**maipe, maipie.** (MAHAIPE) Bajo la mesa. || *Maipin dau katue.*

**maistre, maistrie.** (MAISTRA, errientsa, andereño) Maestra, profesora (de educación primaria).

**maitte.** (MAITE) Querere, amar. Hau baino erabiliagoa da *-ri gure.* || *Maitte saittut.*

**maittegarri, maittegarriidxe.** (MAITAGARRI) **1.** Encantador, -a, digno, -a de ser amado. || *Maittegarriidxe? Maittetuten dan geusa bat, ume txikidxe-edo. 2.* Acción digna de arrepentimiento. || *Maittegarriidxe damututeko geuse bat lakue, maittegarriidxe a eittie. Maittegarriidxe txarto eitten dxakon geuse bat da: "Maittegarriidxe ixen dok a eittie!", txarto eindako geusie. || "Maittegarriidxe" da damututeko geuse bat les: "Maittegarriidxe ein dxok". || Maittegarriidxe da lastimagarriidxe laku. Maite, maite bat, maite ixetie, "Maittegarriidxe da ori eitti be", lastimie geusi apurtzi ero olan. Esate baterako, amen edoser e, sagar landa eder bat, nai madari... edoser geuse, "Auri ixen da lastimagarriidxe!" iguk esate su, da maittegarriidxe be bai.*

**maittetu, maittetuten.** (MAITATU) Querere, amar. || *Maittetu? Ba maitte ixeti beste bat, nai e umie, nai nausidxe, nai nobidxu, nai nobidxie. || Bai, umie, jeneral umi da maittetuten dana geidxen emen.*

**maixu, maixue.** (MAISU) **1.** Maestro. || *Maixuk asko parkatze tze. || Maixuk gogor artze itu. 2.* Maestro, habilidoso. || *A maixu ixen san ortan. □ Maixun Itturridxe.* *Itturtxue* edo *Maixun Itturtxue* ere esaten zaio. || *Maixun Itturridxe esate gentzon. Maixu bat egon ei xan eman, da araxe jun, de ure ekarte ei ban Elixaldera, etziñ edateko.*

**maja, majie.** (MAJA) **1.** Guapa. **2.** Noble, buena.

**majarik.** (MAJARIK) Guapa, lindamente. Ik. *guaparik. || Majarik etor da. || "Majarik saus" esate dxako ba erropa bat probetan danin, edo ikusten danin-edo: "Ondo dekosu, majarik saus".*

**majo, majue.** (MAJO) **1.** Guapo. **2.** Noble, bueno. || *Morroí majue. 3.* Estupendamente. Ik. *ederto. || Majo jan dogu. || Ori Kepan lepotik majo bixi dok. || Majo*

gasak! 4. Mucho. Ik. majo. || *Lusetu dok majo!* || *Jo, majo beratu te dxatok ori be!* || *Majo sakutu dxok.* || *A be majo kondenau dxuek!*

**majorik.** (MAJORIK) Guapo, lindamente. || *Majorik saus.*

**makal, makala.** (MAKAL) 1. Débil, flojo, -a. || *Makala erdi geixuri esate dxako.* || *Osasun makalekue.* || *Makala da ori.* || *Makal dau.* || *Euridxe makal abidxeu dok, baya oin senduego.* || *Makala: jeneral geixokidxe danari, olan osasun gusti estekonari-edo.* || *Ule makala: bai, ule..., urteyeran-da umi pa batzuk e makal-makala eukitten dabe ta nekestxuau urten be eitte tze ta alaku bai, ule makala bai, "Ule makala deko", "Ule makaleku da", "Ule mengelekue".* || *Indar gitxiau dekenak-eta ipintte sirien, ba esate baterako, lau lagun das laidxetan, albo banetan indarra dekenak.* *Erdidxau doixenak, erdidxen doixenak ba makaltxuauuek, se bestin laguntasunas soidxe bota eitte san da.* || *Kakalandru sendu ixeten da, ba onek makalak dire, onek estabe olako ainkarik eitten.* || *Bestiñ aldiñ ure makala da ori.* 2. Enorme, muy grande (en oraciones negativas o exclamativas). || *Ori matxorrie estok makala!*

**makalaldi, makalaldixe.** (MAKALALDI) Época de debilidad, decaimiento, enfermedad. || *Urtik asko ak.* *Arek eukiko ittus larogetasortzi-amar urte.* *Bai. Da makalaldixe be euki ban atzera. Da oiñ osta be martxi dabil.*

**makaldu.** (MAKALDU) Debilitar(se). || *Au koitxaduo makaldu dok.* || *Egurrek errete siriñin be brasie ya, brasie bixidxe egon barik, makaldu ein bi deu.* *Da a brasi batu eitte san, ya makaldute daunien, batu, da araxe, labako atakiñ eurriñ ipiñi eitte san batute, pilleute.*

**makalik.** (MAKALIK) Enfermo, -a, pachucho, -a. || *A makalik dxabik.* || *Makalik dau.*

**makaltasun, makaltasune.** (MAKALTASUN) Debilidad, flaqueza. || *Makaltasune dxekok.*

**makar, makarra.** (MAKAR) Delgado, -a, flaco, -a, flacucho, -a. || *Makarra olan ligorra danari, edo txikidxe danari-edo esate dxako.* *"Makarra da", geuse estanari-edo esate dxako makarra.* || *Makarra dau.* || *Makarra? Beidxeri igul.*

**makatz, makatza.** (MAKATZ) Perucha, peruétano. Ik. *baso makatz, San Jun makatza, San Pedro makatza.* || *Makastxue.* || *Makatza ixeten da madaridxe laku, baya txikidxe.* || *Makatza ixaten da ba, txikidxe madaridxen aldin. Da madaridxe ixaten da aundidxaue. Estittu baku ixaten da makatza jeneralin.*

□ **makatz madaridxe.** Variedad de perucha, de tamaño mayor que la *makatz* común. || *Makatzak, klase bi edo iru daus. Bata dau granu bastante aundidxe eitten deuna; makatz madaridxe esate tzeu guk areri tamañuri. Da bestie makatza da, txikitxue, alla lusias. Makatzetan oin bat bes; orrek makatzak*

*danak ondatu dxakusen.* □ **baso makatza.** Perucha silvestre. || *Geurin be badau baso makatza. Da makatz txikitxu bat, da kolori eukitten deu... Baya da makatz txikidxe...* □ **San Jun makatza.** Perucha de San Juan. || *San Jun makatza: goixetik eltzen dana, da makatza apurtxu sosu ixeten da, da ba ba kastaten da, umik-eta estimau eitten dabe, nausidxe pe bai.* || *San Jun makatza: jateko gitxi. Naiku txikidxe ixeten da, oriska-berdeska.* □ **San Jun makatzetan** mota bi daude. Alde batetik, arestian aipatutakoa dago, hau da, horixka-horixka dena, eta bestetik, aurrekoa baino hilabete edo hilabete eta erdi geroago heltzen dena eta gozoagoa dena: || *San Jun goixetik eltzen da, da oriska-oriskie da. Da gero beste bat eltzen da andik illebetera-edo, illebetetere Sa Jun makatza areri be, baya a da gosuu.* □ **San Pedro makatza.**

Perucha de San Pedro. □ **Santidxau makatza.** Perucha de Santiago. || *Santidxau makatza, a txikitxue, makastxu, txiki-txiki-txikitxue. Santidxau bueltan eltzen da.* || *San Jun makatza eta San Pedro makatza antzeku di, bai. Sanjunetatik San Pedro urran da. Batzuk deuke..., atrasues datorrenari esate dxako. Esate baterako, ba igul atrasuas dator esta? Santidxau makatza badau, Santidxau madaridxe. Da Santidxau illebetetere. Da orixe ixena eitte dxako, kanbidxue emote dxako orreri. San Jun makatza, da San Pedro makatza.*

**makera, makerie.** (MAKERA) 1. Cerda con crías. || *Makerie txarri amiri esate dxako. Kunak eitte ittun txarridxeri, makerie.* 2. Vieja sucia. || *Makera sarra ba txarridxeri esate dxako, eta askok personiri be bai, "Ori makera sarrori!". Andra sarra ero olan, andra sikiñe-ta, "Ori da makera sarra!"*

**maketo, maketue.** (MAKETO) Maqueto (normalmente se suele decir de la persona que no sabe hablar euskera). || *Euskerarik estakidxenari maketue esaten dxako emen.*

**makillau, makillaue, makallue.** (MAKILAO, bakailao-bat.) 1. Bacalao (*Gadis morhua*). Nabarnizen *makillaue* esaten da; kasu batean, *makillaue* entzun dut. || *Makillau saltzie.* || *Pil-pillin makillaue ipiñi.* || *Makallu pil-pillin ipiñi deu. Gasigarridxe? Bai, gasidxe daunari esate dxako, seinde makillau ipiñikot konparasiñoyen, ba "Gasigarridxe gustete dxako" ta ba, makillaue jateko ipintten danin ba "Gasigarridxe ipiñi" tte.* 2. Muy delgado, -a. Ik. *argala, errie, eskasa, sikue, simela.* || *"Makillau laku dxak!" guk esateu, olan argal daunari. Makillaue guk betik sikutzet eukitteu ba. "Makillau garbidxak!"*

**makille, makillie.** (MAKILA) Bastón, váculo; vara, estaca. Ik. *asto makillie, palue.* || *Artik ori makilleori!* || *Kolpie bauko, bastoye da; da makillie da okerri pakue.* || *Makillias jun dok bidiin.* || *Da bat egon san goixaldien Lekeittora juteko. Bat oiñes, da urte tzo*

*katuk. "Katu, aldeixu ortik!" esan tzo, da jau! Makillias emon tzo saplasue, ta alborau. || Len emen, geuriñ egon san (txipittie), da egon san, ixeten da egurrekue, pagoskue ixeten da, makillasku obeto esateko. || "Basuen jaidxo, basuen asi, errire etorri, tte bera nagusi": ori alkatin makillak ixeten dire. || Are dire urritxak. An ikustosus are sepak? Urritxak. Arek urritxa die ba bañantzako, da akuluk eta makillak-eta eitteko. □ Ortuan ere makiletan egoten dira indabak eta piperrak.*

**makilleka.** (MAKILAKA) A palos. || *Makilleka erun deu.*

**makillekada, makillekadie.** (MAKILAKADA) Varazo, bastonazo. || *Makillekadak emon tzos.*

**makillotz, makillotza.** (MAKILA HOTS) Ruido que produce la vara cuando se golpea con ella. || *Makillotza ibilli dxuek. || Arek ibilli dxok makillotza!*

**1 makiñe, makiñie.** (MAKINA) Maquina. || *Josteko makiñie. || Gari garbitzeko makiñie. || Gari joteko makiñie. || I, makiñie selan deukek? || Salan, erdidxen, olen ganien geratze san garau, da gero makiñie eukitte gendun, makiñie, bakixu, garidxe garbitzekue, da onan. Gero errotara eruteko. || Ni ibiltte nau asko gari josten, makiñie euki gendun guk, da etzerik etze ibiltte giñen. || Askanaldiñ e makiñan be jote gendun. Etorte san makiñie, or Kortasubiko batzu pe euki ben, da aixe etorte san makiñias, da jote gendusen garidxek. Ordun jote gendusen garidxek, makiñan bai, baya esate baterako, emengo kopradiko gustidxek batze giñin, da ensegida, garidxek e ordu ta erdidxen, ordu bidxen da iru orduen. Eote sirin garidxek danak eta gero etzerik etze jun eitte san. Beidxek bustertu te makiñi artu te urrengetzera. || Oiñ e beiri pe esta ibiltten e busterridxen da ein kontu! Se geu pe estous bustertzen-da, oin makiñak ibiltten dire ta ba.*

**2 makiña.** (MAKINA) □ **makiña bat.** Muchos, -as, infinidad, multitud. || *Makiña bat bider euntzun dot. || Arek egiñiko abarkak makiña bat bider jantzi gendusen eskolara juteko. || Elistxoridxe txori txikidxe da, saataka ibiltten diñak, txit eta txit eta txit ibiltten diriñak, da orrek kanpun, Bilbon-da an parkin-de makiñe bat olako ibiltten da. || Orrek danak kontuek dire. Makiña bider ori ipuiñori entzu du, egidxe dala ta. Egidxe, bai, egidxe! || Ori makiña bider entzute san, idi narru bete urre dala or mendidxen. || Galdatxue estai guriñ e oin badau. Makiña bat denpora egon san geldi. || Makiña bat mutil gixajo il! Ia! Makiña bat mutil gixajo il! Eurek e nausidxek atzien, arek refujidxutan. Bonbardeo eitten be seguru! Ta bestik an trintxeratan.*

**makiñatxu.** (MAKINATXU, makinatxo-bat.) □ **makiñatxu bat.** Muchos, -as, infinidad, multitud. *Makiña bat erabiliagoa izaten da. || Makiñatxu bet lagun egon da.*

**maku, makue, makulue.** (MAKO) Armazón de madera que se coloca sobre el burro y en la que se cargan las asto otzarak. Nabarnizen *makuk* nahiz *makuluk* esaten da. || *Makulue? Bai, astun lepun ipintte dxakosan alako..., otzarak estire ixaten, egurrekuk ixaten dire, ipintte dxakos kargak ipintteko. || Makuluek bedarrak-eta ekarteko, eurek bakarrik. Ixaten dire sotzeskuk-edo, danak egurrekuk ixaten dire. || Makuk dire astuk lepun erute ittusenak. || Onek e asturi edo saldidxeri ipintte dxakosan makuluek? Bai, arixe tire, makuluk. Kargi ipintte dxake emen da emen. || Makuk geurin be badas. Da etzin be estas ganera. Len erlatokidxe ixen san lekun das. || Guk e beti maku esate tzeu e. Da bestik makulu. Da geusa ba ta. || Da guk e eukitte gendusen makuk sididunek. Da bestik e kurbanda eitte benak, bedarra-ta kargetako. Da guri diferente.*

**makuletu.** (MAKOLATU) Encorvar(se), torcer(se), inclinar(se), agachar(se). || *"Makuletu" ba esate baterako, erdi konkortute-ero einde daunari bai. "Makuletu ero makal dxabik" ero "Makuletute dxak".*

□ **agure makuletue.** Viejo encorvado. || *Agure makuletu? Agure makurtute dauna, bai. "Makuletute dxak".*

**makur, makurre.** (MAKUR) Torcido, -a, arqueado, -a, encorvado, -a. || *Agure makurre. || Makurre okertute deunari esate dxako, esate baterako, basoyes kasan, txori bet atrapetako-da: "Makurrik, makurrik oin!"*

**makurtu.** (MAKURTU) Encorvar(se), torcer(se), inclinar(se), agachar(se). || *Makurtu adi, makurtu! || Eurrera dxoik makurtute.*

**mal, mala.** Mal, maldad, malicia; juicio, entendimiento. || *Mala? Ba, ser esangot neuk mala ser dala? Esate baterako, mala..., beste batzuk noberen modukutzat estekosena-edo, besti pa sustantzidxe gitxiu dekela-edo. || Mal barik esan deu. || Esteko malik eta! || Tentemosue: mal gitxi dekona, edoser esaten dabena-edo. || Mali pe etxekok orrek eta! || Edoser geusa ein, de "Esteko malik eta!". □ **mal bakue, mali pakue.***

Memo, -a, simple, necio, -a, sinsustancia. Sin. *malesi bakue*. Ik. *mamalie*. || *Ganguxe da mal baku, sentzun gitxiku-edo. || Ori mali pakuori! || Beti ixan da mali paku. || Mal baku da estekona sintzerik, estekona malisidxerik, mal bakue. || Mamalie esan biarrien, beste batzuk esaten dabe mali pakue, es baterako es besterako lakue. || Mal bakue: ainbeste juisidxu estekona. □ **mal gitxikue.** Simple, necio, -a, sinsustancia. || *Mal gitxiku esaten da, ser esangot neuk?, olan bi dan modun pentzetan estabenagaittik-edo. || Tentemosue: apur bet mal gitxiku danari-edo.**

**malaga, malagie.** Columna que sujeta la viga del portalón.

**malagana, malaganie.** Malagana. || *Bu! Neusidxe emote tzo ak sera, malaganie! Pasetan dan leku gustidxetan.*

**malba, malbie.** (MALBA) Malva (*Malva sylvestris*). *Malbabisku* ere esaten zaio, baina Nabarnizen gehienbat *mamokidxue* esaten zaio. || *Malbie badau, baya oin neguen estaitt urtengo badeu, edo oten bada, oten da udebarridxen-de, olan apurtxut useintzuk.* || *Malbie bedarra da beres. Bueno, da bedarra, baya ganaduk-eta estabe jaten.* □ Kasu honetan, ordea, Andere Goirienak *malbie* eta *mamokidxue* ez direla bat dio: || *Bueno, mamokidxue da bedar bat, da malbi be bedar ba ta, baya nik arek bidxek bat tirenik estot pentzetan.*

**malbabisku.** Malvavisco. (*Althaea sylvestris*) || *Malbabisku bedarra esate tzeu, te apurtxut ba, useintxu eukitten deu.* || *Malbabisku egosi eitten ei da, asukeri bota.*

**maldesiño, maldesiñue, maldixiñoi, maldixiñoie.** (MALDIZINO, maldizio-bat., madarikazio) Maldición, juramento. || *Maldesiñuek atarate dittu ago sikiñek.* □ Maldizioak beti aho-mihitan erabiltzen dituenari honela esaten zaio: || *Maldesiño utze da ori!*

**maldesiñoka.** (MALDIZINOKA, maldizioka-bat.) Maldiciendo, imprecando. || *Maldesiñoka dabil.* || *Maldesiñoka asi da.*

**Malen.** (MALEN) Malen. Muchas veces se usaba como apodo en sustitución de cualquier otro nombre de mujer. || *Malen? Ba esakerie. Malenen patrikadi esate tzen. Ixena esan biarrin, Matilde edo ba esan biarrin.* || *Apur bet esate tzena, bakixu, apur bet esate tzena Malen. Malen, Malen, "Ene, an, an doi Malen!". Bakixu esixena Malen. Esan bierrin "Mari an doye", ixena barik, "Malen an doye". Malenen patrikadi.* □

**malen partikarie, malen patrikadie, malenen patrikadie.** Bolsa que las mujeres llevaban bajo la falda atada a la cintura para llevar el dinero y a la que accedían a través de una sesgadura hecha en la falda. || *Enbrak eukitte ben aintxiñe onan, gonik kortadie euken, esta? Ba emendik gerrittik lotute erute ben poltzie: malen partikarie.* || *Malen partikarie da enbrak aspittik ibiltze ebena. Oñ esta olakorik usetan.* || *Andraskuk erute ben malen partikarie, goniñ aspittik sartunde olanik. Gonik eukitte ban onek, irrikittue ametik, da gero esku sartze ben.* || *Malen partikarie? Bittu, au bayo lusiau, esta? Poltzikue, eta onantzik ebeitte. Da gona barrure, ta es san ikusten. Da antxe ibiltte sittusen diruk, aintxiñe.* || *Su pe or dekosu malen patrikadi.*

**malesi, malixi, malisidxe, malesidxe.** (MALIZIA, maltzurkeria) Malicia. || *Malesi asko dau.* || *Malisidxe deko.* || *Malesidxas esan deu.* || *Malesidxes beterik dau.* || *Mal baku da estekona sintzerik, estekona malisidxerik, mal bakue.* || *Osoku da dana siñistuten deuna. Dana siñistu. Nik esate tze edoser gusurre, ta eske "Oso-osoku ok ori!". Malixirik estekona.* || *Oso-osokue malixidxeri pakuri esate dxako: "Ori oso-osoku dok".* □ **malesi bakue.** Persona sin malicia. Sin.

*mal bakue.* || *Umik malesi bakuk ixaten dire, geusi dan modun esaten dabe.*

**maleta, maletie.** (MALETA) 1. Morral para llevar provisiones o ropa cuando se va al bosque o al monte. || *Baskaridxe-edo, beridxendie-edo eruten danari ba maletie esate dxako.* 2. (herr.) Embarazo. Ik. *maletadune.* || *Maletias dau.*

**maletadun, maletadune.** (MALETADUN) (herr.) Embarazada. Ik. *enbarasada, ernai, maletie, umedune, estadun egon, familidxe eukiteko egon.* || *Jeneral maletie esate dxako emen: jeneral soltaratan enbarasada gelditzen diñari be bai: "Maletadun dau".* || *Maletadune? Bai, soltera bateri esan leidxo, badeko maletie da esteko jauberik.*

**mallotu.** (MAILATU) Magullar. || *Sagarra mallotu: golpi artun, de eitte dxake, se esangot neuk?, olan golpi artzen daben lekun balzune antzeko bat.* || *Geusa bat, esaten da, jeusitte ba, okertu-edo eiñ eskerun atxurre, edo seoser, ba: "Okertu ein da", edo "Mallotu ein da".* || *Mallotu esaten da, esate baterako, jeusten daniel, bigune badau frutie, mallotu eitten da. Baya geu pe makiña bat bider ein dus, gastik ixen giñenin be, olan be jota mallotu, ainke jateko.* || *Sagarra be bai, artzen badau golpie, au be mallotu, edo kaskau eitten da sagarra be.* || *'Mallotu' da sertute, estropeaute. Fruti esate baterako, "Mallotu ein da".*

**mallu, mallue.** (MAILU) Almádena, mazo de hierro con mazo largo, para romper piedras. *Tersiadora* eta *matxukie* baino handiagoa da. Ik *mallukie, matxukie, porrie, tersiadora.* || *Matxuki esate gentzon, arri apurtzeko matxukie. Txikitxue. Aundidxe pe badaus. Mallo aundidxe pe bai. Mallue esate dxakon bateri. A mallu da arri aundidxek apurtzeko.* || *Mallue da beste bat. Mallu da arridxe apurtzekue. Da batzuk esate tze porrie, da bestik esate tze mallue. Da ori da arridxe apurtzekue.* || *Mallue, matxuki, tersiadora... Iru klase daus. Ori mallue da eundidxena. Burdiñesku burue. Seinde porri edo masi esate tze ba, igula baya alderdi bidxek karak, sorrotzak, onen tamañoko sabalerakuk.* || *Da guk mallue, mallu esate tzeu arridxe eitteko neusidxeri, bos killoko edo sei killoko orreri. Mallu arek arpei bidxekin.* || *Ori da mallu sarra!* || *Mallue da eundidxe, arridxek apurtzekue; oin gitxi usetan da, baya len kanteretan-da malluas.* || *Mallurik baukek etzien?* □ Beste herri batzuetan, *mallue* esaten da Nabarnizen *mallukie* esaten dena izendatzeko eta, batzuetan, nahasteak sortzen dira: || *Oin pentzau selan din geusak e! Nik e lengun orreri lobiri esan gentzon "Kaguen, au be itzel dok e! Guk au... Mallukiri mallu esate tze, da guk malluki!".* □ Hona hemen zelán bereizten diren *porrie* eta *mallue*: || *Mallu da porri ba antzerasku dire. Erdi antzerasku dire. Guk e basun usete gendun, pago botaten-da ibiltte giñenin, sididxe sartzeko, porrie. Da mallu da karabidxarako ta kalerurako-ta, arridxe apurtzekue. Da bata da porrie, da besti mallue. Da gero arridxe jotekue, matxukie.*



**malluke, mallukie.** (MAILUKA) Martillo. Ik. *mallue, matxukie, porrie.* Alfonso Irigoienen arabera (*En Torno a la Toponimia Vasca y Circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, 40. orr.), "En Vizcaya es muy considerable el número de topónimos terminados en **-ica**, pero de ahí no se puede sacar la conclusión de que todos pertenecen a un estrato de época romana, pues se puede probar que ese modelo siguió siendo productivo hasta más tarde aplicado a nombres de persona diversos, y de hecho el sufijo **-ka**, además de usarse en la Edad Media incluso con antropónimos no terminados en **-i**, tiene valor de diminutivo en lengua vasca en algunos casos, cfr. vic. **malluka** 'martillo', frente a **mallu** 'mazo'." || *Malluki esate dxako untzi sartzekuri, tok-tok jotekuri.* || *Gixonak mallukias da sintzelas preparaunekuek dire orrek arridxok.* || *Ekarri ori malluki!*

**malluki, mallukidxe.** (MAILUKI) Fresa (*Fragaria vesca*). || *Malluki salbajiek eta ipintakuek; ipintakuek garau eundidxe eukitten deu. Bereskue txikidxe da. Orrek beres urteten dabe.* || *Mallukidxe ortun asten da.* ☐ **malluki bedarra.** Fresa estéril (*Potentilla sterilis*). || *Malluki bedarra: mallukidxen antzeko orridxek eta dana eukitte ittus, loratxu bet emoten deu. Orrek asten dire ortun be bai, da motan.* || *Malluki bedarra? Bueno, malluki bedarra mallukidxen antzeku, antz-antzeko orridxe ixengo da.*

**malmais, malmaixe.** (MALMAIZ, almeriz) Almírez, mortero de metal, pequeño y portátil, que sirve para machacar o moler en él las nueces. *Motrollue* ere esaten da, baina gutxiago. || *Emen, intxeurrek-eta jotekuk beren-beren ixena deko. Motroku etxako esaten, emen beintzet estot entzun. Masu be bai, masu be bai, baya malmaixe, almaixe-edo, malmaixe-edo. Ixeten da kobresku, ori katxarru, pixutzu-pixutzu. Da ixeten da katillutxu lako ontzidxe, da joteku eukitten deu, ba, goitti bera joteku..., gurin badau bat.* || *Malmaixe: astun-astun ixaten da. Ori kobri, edo orretaiku ixaten da. Orrek ibiltten dire intxeurrek joteko, intxaur saltzi eitteko intxeurrek joteko. Intxeurrek apurtu, ipiñi satidxek, eta jo-jo ein, intxaur saltzi eitteko.*

**mama.** (MAMA) (haur.) Agua, bebida. Ik. *ure.* || *Mama gurot!*

**mamala, mamalie.** (MAMALA) (Mujer) tonta, insustancial, lela. || *Mamalie esate dxako sentzun biar beste estekenari.* || *Mamalie da ta!* || *Mamalie esan biarrien, beste batzuk esaten dabe mali pakue, es baterako es besterako lakue.* ☐ Ondorengo adibidean azaltzen den legez, *mamalie* apur bat gustu txarreko berba da: || *Mamalie bayo mali bakue oboto esanda dau. Nitzako..., nik oboto ikustot, se mamalie esan biarrien mamali ba ganorabakuri-edo, ta besti ori ba obeto esanda daua neutzako.*

**mamarrue, mamorrue.** (MAMARRO) Coco, fantasma, espantajo. Ik. *kokue, mamue.* Kasu batean

*mamorrue* batu badut ere, *mamarrue* da gehien korritzen duen berba. || *Gu aintxiñe ibiltte giñiñ olgetan, da eskutetan da topetan ibiltte giñiñien, ba mamarru esate gendun.* || *Mamorrue esaten da umi-edo ikaratzeko-edo, mañaka-dasenin-edo, baya ainbeste estau mamorru esateko seri pe, baya esan eitten da.* || *Mamarrue koko bateri esate dxake askotan negarres dausenien: "Mamarru etorriko dxatzu, negarres saus" be baya.*

**mamin, mamiñe.** (MAMIN, mami-bat.) **1.** Carne, parte blanda y mollar de pan, frutas, viandas, peces. || *Da moskolie a ganien dekona, gero oskola, da gero mamiñe barruen intxaurrek.* || *Asaltzu dok ori sagarra, mamin gitxikue.* || *Nik gurau dxuat ogi asala ogi mamiñe bayo.* || *Ori suk esan dosun ogidxori onan bayo, onako ogidxe (lusinkie) barik, ogi biribille, mamiñe dekona ixeten da.* || *Mikekunie an, abidxatki alde eitteko bayo ariñau egoten da astune, sera mamiñ askokue.* || *Únie: asurrek tekona, se esangot neuk?, sulodun asurrek eukitten daben, barrun eukitten daben a mamiñe.* || *Asurre gogorra ixeten da, baya ori kirrikirridxorreri oten da mamiñeas, da jaten deu animalidxek, e txakurrek nai katuk jaten dabe kirrikirridxe.* || *Pernille? Edoseiñas eitten da, norberak gure dabenas. Beres atzekuas eitten da. Mamin geidxau eukitten deu de atzekuas eitten da.* || *Txikola bakixu seri esate dxakon? Gastañiri. Gastaña garaueri, arek espadeko mamiñiik, "Ikolak dxasak ainbeste!"-ta. Areri etxako esaten mamiñipakue, espabe ikola.* **2.** Gordura, chicha. || *Mamiñek jaso esiñi tabil.* **3.** Tierra (en contraposición a roca). Lur sail batean lur azpia harritsua bada eta lur geruza mehea bada, honela esaten da: || *Mamin gitxikue da.* || *Ba mamin gitxi dekonien, esate baterako, nai arias pasau, nai goldias pasau..., bueno goldik berak ataraten deu sokille..., ba sokille eukitten badeu, sokiltzue lurre oten da.* ☐ **eperdiko mamiñe.** Nalga. ☐ **euri mamiñe.** Lluvia abundante y provechosa. || *Euri mamiñe: ori ba esate baterako, siketatxu daunien, da ba saparrada ederra eitten dabenien, da ba "Euri mamiñe eisku"-te.* ☐ **mamiñe ein.** Desvolver, mullir, labrar bien la tierra. || *Jorraidxe da artue jorrazeko, jorraidxe atxur normala. Da gero badas atxurkulak, ainka bikuek. Atxurkulak atxurren eitteko, soidxek atarateko, ta sera mamiñe eitteko solun.*

**mamindu, mamintzen.** (MAMINDU, mamitu-bat.) Desvolver, mullir, labrar bien la tierra. || *Mamiñe solun ein: artu eraitteko edo labrau ein bihar ixaten da edo nabu eraitteko —oin naba asko esta eraitten— da mamiñe solu ein ba, axe da, solu araketu, solu mamindu, eraitteko.* || *'Mamindu' guk e soloko geusiri esate gentzon 'mamindu'. Edo arias, edo bostortzas, edo lauortzas mamindu.* || *Lurre mamindu? Soluen ibili ganadukin, de ba mamindu, artu-edo eraitteko.* || *Mamindu? Arie bakixu selaku dan? Ortzak eukitte*

ittuna. *Ba arias be mamindu lei.* || *Solue mamintzeko ibiltte san. Oiñ estire ibiltten are burdiñeskuek.*

**mamintzu, mamintzue.** (MAMINTSU, mamitsu-bat.) **1.** Migoso, -a, pulposo, -a. || *Ogi mamintzue.* **2.** Carnoso, -a. Ik. *okelatzue, ederra.* || *Txal bat lodi-lodi daunin: "Txala mamintzu dau" esaten da. Animaliei buruz okelatzue nahiz mamintzue esan daiteke, lagunei lodidxe.* || *Mamintzu dau ganadue.* **3.** Fétil, copioso, -a. || *Dios, mamintzu dxauk solue, mamintzue!"*

**mamo, mamúe.** (MAMU) Fantasma. Umea ikaratzeko, honela esaten zaio: || *Edo "Txakurre etorriko da!", edo "Txori eundidxe dator!", "Edo mamu etorriko da"-edo ikaratzeko ba esate dxakes olakuk.* || *Mamue: umiri-edo esate dxake "Mamu etorko da"-edo, baya mamu ba esta geuse bat existitzen dabena.* || *Mamuk, mamu pai orrek, seinde or tapaute eta olan ibiltte diñak, mamue eta orrek ixeten die bai.* || *Amen mamu pa orrek seinde jantzitte ta or tapaute ta "Mamu, mamu dator"-da umiri-tte esate dxakona.* □ **mamo antzin.**

Amodorrado, -a. Gaur egun gutxi entzuten da, baina lehen zaharrek sarri esaten zuten: *baya orrek berbi orrek esteu ainbeste segiten. Paseute dau.* || *Mamo antzin dau.* □ **mamu les.** Amodorrado, -a. || *"Mamu les dau": logurias, gabas juergan einde. "Mamo les dau ori". Esan gure deu orrek lon faltie, mamu les, "Or dau ori mamu les, atzo juergan egingo ban"-edo esati les. "Bai, amen dau mamu les". Bat etorten jatzu nire galde, ta "Karina etzin dau?", "Bai, amen dau eskatzin mamu les".*

**mamosorroka.** (MAMUZORROKA) Juego de la gallina ciega. || *Mamosorroka, begidzek tapaute, da gero ak atrepetan bestiek, da atrepetan badeu bat, gero ak ixena igerri ein bier, nor dan igerri ein bier.*

**mamukidxue, mamokidxue.** (MAMUKIO) Malva. || *Mamukidxue da bedarra, mamukidxue. Selaku dan esangot? Astute nau. Ba olan, ba eridari materidxe atarateko ipintte dxake, ipintten da mamukidxue. Ori beres malbie da.* || *Oinguek mamukidxu ser dan igul estabe jakingo. Oin malmi igul geidxau esango da.* ||

*Mamokidxue esta ona.* □ Kasu honetan, Andere Goirienak malbie eta mamokidxue ez direla bat dio: || *Bueno, mamokidxue da bedar bat, da malbi be bedar ba ta, baya nik arek bidzek bat tirenik estot pentzetan.*

**mamutu, mamotu, mumotu.** (MAMUTU) Quedarse absorto, -a, pasmado, -a. Berba hau gutxi esaten da, sortu gehiago esaten da. Sin. *tenteldute.* || *Mamutute dau.* || *Mumotute dau.*

**manantial, manantiala, manentia, mantiala.** Manantial. || *Manantiala topeu dabe.* || *Manantiala an agertu da.* || *Manantial sendu da ori.* || *Da len askok eitte ban, ure aprobetxetako depositurik eta olan manentia-eta estekona, eitte besen depositu eundidzek eiñ or, da araxe ipiñi, ittusurako ure esate dxakon areri.*

**mandako, mandakue.** (MANDAKO) Muleto, -a. || *Mandakue esate dxako jeneralien muliri edo manduri. Manduek estabe kunarik eitten. Da esate dxake mandakue. Mandaku jaidxoten da beres astue, da saldidxengandik. Astu, ta se esango neu?, mandue ta mulie dire eurek kunarik eitten estabena, baya mandu te mulie jaidxoten dire astuas, da saldidxas ibilliñekutatik.*

**mandauli, mandaulidxe.** (MANDEULI) Mosca borriquera, de caballo (*Hippobosca equina*). Nabarnizen *mandaulidxe* zer den ezagutu eta esan ere egiten da, baina duda barik gehien korritzen duen berba *prailleulidxe* da. || *Mandeulidxe-eta udan egoten dire jeneralien; da ixeten da olan euli txikidxe bayo aundidxae, serari, ganaduri inketa dxakena.*

**1 mando, mandue.** (MANDO) **1.** Mulo macho. Ama zaldia eta aita astoa izanez gero, arra bada, *mandue* da eta, emea bada, *mulie* da. Ama astoa eta aita zaldia izanez gero, *burriñue* da, arra nahiz emea izan. || *Mandu da arra; saldidxe ama, da astu deko aitte. Da mandue da arra. Da emie bada, mulie da.* || *Burriñu da astu dekona ama. Da mandu saldidxe dekona.* **2.** Grande. || *Ño, ak botate dxosak gusur manduek!* || *Ori da patari mandue!* □ **mando bedarra.** Tipo de hierba basta. || *Mando bedarra da beste bedarra payo aundidxae asten dana, da mando bedarra esate dxako.* || *Mando bedarra mendixen-da asten dana ixeten da. Mando bedarra ixeten da beste motako bedarra bayo bastotxae.* || *Mando bedarra ganaduk e estabe asko estimetan. Mando bedarra ixeten da ligorra.* □ Hona hemen *mando bedarra* eta *elbitze* berben arteko desberdintasuna: || *Mando bedarra da olako eundidxe eitten dana. Da elbitze da txikidxe. Mando bedarra asko dau ontan. Bedar satarra da ori mando bedarra. Da elbitze da sarratu urteten deun ori bedar e, bedar meye. Ta mando bedarra da... lodidxe planteten da. Jan be ganaduk estabe eitten. Elbitze be esta ain gosu, baya mando bedarra bayo gosuu.*

**2 mando, mandue.** Bando. *Bandue* ere esaten da. || *Nabarrisko erriko gixonak, erriko ayuntamentuko gixonak agindu dabe mandue.*

**manejau, manejeten.** (MANEJAU, maneiatu-bat.) Manejar, dirigir. || *Txirrimolie: arue. Aruek egote sin. Neu pe euki naben. Txirrimoli da arue, errementaridxe eitte ban, esta? Da areri eitte dxako beste burdiña bat olan, an olako angulutxuas da areas menejete san.*

**manga.** (MANGA) Banquete de Carnaval, antes de la Cuaresma. || *Manga da karnabalatan. Manga da garixumin sartuerie, manga ori. Kuaresma, kuaresman sartzen da, miercoles de Cuaresma, garixumin sartu. Da manga da, mangak esan gure deu jataldidxe eittie. Garixuman ba penitentzidxe esta? Gero, da mangak axe esan gure dau, jataldidxe, manga. Tostadak-eta. Gure amak manga esaten*

ekidxen. || *Atostiek e ba, len esan detzude les, manga da garixumin sartuerie. "Manga-manga plast, tostadak sakure tas!" Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da. || Lelengo atoste selebreten san emen, tostadak jateko sera, gero basatoste andik atzeratu, gero manga esaten san gaba, a ixeten san tostada geidxen jaten san gaba. || Manga esate tze, selan esangot? Karnabal irugarren egune esate tze, da manga esate tze, tostadak eitten diña. En kambio, geuk, nire etzien manga sekule esta esan. || Geur manga da.*

**mangutzik.** (MANGUTSIK, mahuka-hutsik-bat.) Remangado, -a.

**maniau, maniau.** (MANEAU, maneatu-bat.) Preparar(se), disponer(se). Ik. *atundu, preparau.* || *Maniau: norbera jasten danin-edo, bai, maniau, nonora juteko. || Manieu sara mendire juteko?*

**manka.** (MANKA) □ **manka-manka ein.** Golpear, apalea, dejar tullido. || *Manka-manka einde itxi dabe.*

**mankal, munkala.** Banco largo. || *Mankala: egote san anditxik onaxekue, bankue, da su ederra eitte sanin, de negun-de, otz daunin-de, umik estimau ibiltte ben banku ori, alkarrerri saka-saka einde: munkala. || Da emen munkala be egon san, anditxik onaxe, da sue galanta einde, negun-de, eskolatik datosenin be, umiek artu ogidxe, ta ogidxen ganekue, soser, da ortxe makalin paraute eote sirin sueri begire, erdi bustitte etorri etzera-ta. || Txixillue etartiñ eoten dan munkala da. Txixillu be geu payo geidxau geure amuma sanak eta aitte sanak esate tzen, da guk e munkala esate tzeu, kanpoko munkala.*

**mankau, munkauten.** (MANKAU, munkatu-bat.) Mancar(se), lisiar(se), herir(se). Ik. *saurittu.* || *Mankaute geldittu da. || Juan Etxebarrikue arbolatik jeusi de munkau da. || Pedrok Mikel munkau eiñ ei deu. || Pedrok Xabier munkau te gero il ein dok.*

**manko, munkue.** (MANKU) Manco. Berba hau baino gehiago *mantxúe* esaten da. Ik. *mantxue.* || *Besori paku bada, mantxu esate tzeu guk. Manku be esate tze, baya guk e beti mantxu, beso bakarria dekonari. || Bueno, eskurik estekona be manku da.*

**manta, mantie.** (MANTA) Manta. □ **bei mantie.** Manta con la que se cubre el ganado. || *Bei mantie? Iños probarik ikusi dosu? Ba beidxeri, proban einde, ixerdittute egoten diriñin lepun ipintte dxakena. || Bei mantie? Bueno, kortan esta ibiltten. Bai, otz aundi bat badau, lei aundidxe ta otz aundi bat badau, ba ordun ipintte dxako e txal txikidxe dekonari. || Kamañie: idie badau basun, ide siku bedarra, idi ipiñi aspidxen, da ba ganetik e bei manti-edo botate dxakon, da beste manta sar bat, edo bi badas, arixekin tapau, da ba olantxik.*

**mantar, mantarra.** (MANTAR) 1. Trapo. Ik. *trapue, esku trapue.* || *Esku mantarra. || Mantarra trapu sarrari esate dxako, onakoxeri, apurtute dauna esate*

*dxako mantarra. 2. Pañal que se les ponía antiguamente a los niños. Sobre éste se le vestía el mantue. || Umiri oin jeneralien etxake mantarrrik jasten, se ipintte dxakes plastikuk-eta. Baya len umiri, umik txikidxek sirenin —neu pe useu neittusen-da alakoxik-eta—, mantar suritxu bat aspittik jaste dxaken, da gero mantu ganetik. Baya oiñ etxake jasten, manturi pes, da mantarri pes. || Mantarrak: umi txikitxu ixaten danin kentze dxakosen trapuri. Trapuk-eta, umin kanbidxuek-eta, etxakon esaten oingo modun, ume mantarra. 3. Descuidado, -a, negligente, basto, -a. || Mantarra? Bai. Mantarra ba erdi tatarres da ardure bari les dabilenari "Mantarrori, mantarrori!". Eseri ardurerik artze estetazona les, mantarra. □ mantarretako umie. Niño de pañales.*

Ik. *mantuku umie, uidxeletako umie. || Mantarretako umie esate san len, da alan esate dxakon, mantarretako umie. Da oin ba, mantuku-edo, ume txikidxe-edo. □ Galdetu dudanean zein esaten den sarrien, mantarretako umie ala uidxeletako umie, honela erantzun didate: || Oin nik esango neke bata, ta besti estiri esaten, oingo umiek, oingo gastiek mantarretako umi ser dan estabe jakingo, ta uidxelak sertzuk diriñ estabe jakingo.*

**mantekille, mantekillie.** Mantequilla. Berriemaile baten arabera, lehengo zaharrek *guriñe* esaten zuten. Beste berriemaileek, ostera, ez dute *guriñe* berba ezagutzen. || *Mantekilli, bai, beti, guk olantxik ikesi du. Bai, guriñe be bai. Origeittik e mantekilli bayo guriñe euskaldunentzako erresau da.*

**mantenidu.** (MENTENIDU, mantendu-bat.) Mantener(se), alimentat(se), sustentat(se). || *Ume kuadrilli daunien, da bi dan beste estekenien manteniduteko edo ba, "Erruki emoteko das".*

**mantille, mantillie.** (MANTILA) 1. Mantilla, trozo de encaje o de tul que se ponían antes sobre la cabeza las señoras para ir a la iglesia. || *Mantillie elixera juteko aintxiñe ipintte gendun. || Uidxela be asko-asko esta esaten, baya oingo gastik jakiñ estabe eingo ser dan uidxela be. Baya uidxela, emen uidxela esate dxakon len —oiñ e elixara be esta eruten baya— burun eruten dan mantilli, mesi entzuteko-edo elixara juten danin, arixeri burun erute san mantilliri, arixeri esate dxakon, euskera esateko, uidxela. 2. Capa fina de grasa que cubre la tripa del ganado y del cerdo. || *Mantillie esate dxako: kentze dxakon tripe ganiñ egoten dan koipe sare sari ixeten da, arixeri esate dxako mantillie. Da ganadu pe eukitten deu, de txarridxe pe eukitten deu. || Mantillie da sesiñeri kentze dxakona, tripe..., sabaltze sanien, tripe ganiñ eote san olan koipe sare-sarie ixete san. Ixeten da, ganaduk, nai txarridxe pe bai, arek tripak, estik, eta danak tapaute eukitte ittu koipe sare-sare batas. || Mantillie esate dxakona da, a koipe lodidxe barik, eukitten deu bigune, mantilli esate dxakona ixeten da, a koipe lodidxe eukitten dabena estitan, da tripan-da baya, arek tripan eukitten deu, baya mantilli esate**

*dxakona ixeten da sare-sarie. || Bai, batzuk eukitten dabe tripin ganién ba sari lakoxie, da axe da koipe sarie. Da mantilli be bardiñ esate tzeu, lengo andrak mantilli esate tzeu.*

**mantu, mantue.** (MANTU) Manto, capa. Ik. *mantarra.* ☐ **mantutako umie.** Niño de pañales. Ik. *mantarretako umie, uidxeletako umie.*

**mantxa, mantxie.** (MANTXA) Mancha.

**mantxo, mantxúe.** (MANTXO) Manco, -a. || *Mantxúe besori baku da, beso ba tekona. Oiñ e bidxek baukos falta dittuna, neu be mantxu esango tzu, baya bat falta deunari mantxu esate tze. || Mantxue? Esku batekue, beso batekue. || Besori paku bada, mantxu esate tzeu guk. Manku be esate tze, baya guk e beti mantxu, beso bakarra dekonari.*

**mantxotu.** (MANTXOTU) Quedar(se) manco, -a. || *Mantxotu ein da. || Kendu eskerun, besu, nai anki kendu eskeruen, ba esaten da "Mantxotu ein dabe". || Mantxotute dxak.*

**mantzeliñe, mantzeliñie, mansanillie.** (MANTZANILA, kamamila) Manzanilla, camomila (*Chamaemelum nobile*). || *Mantzeliñe mendixen asten da, amen etze bueltan be igul asten da, da axe mantzeliñe, ba buruko miñe-edo, tripako miñe euki eskerun, axe mantzeliñe eitteu. || Orain mantzeliñe kasteteu, batu eitten da, untxe, ya batzeko sasoyen ixengo da. Batu eitten dire loratxuek, siketute gorde eitten dire. Da ementxe egon eingo dire eurten batunekuk tirenak. Da gogo txarra dauniñ-edo ba a ure edateu. || Mansanillie artu dot tripalak kentzeko. || On ein tzo mansanillik. || Mantzeliñie ibiltten da onetan geidxau.* ☐ **mantzeliñ ure.** Infusión de manzanilla. || *Umik bixidxuk eukitte ittunin, guk e len mantzeliñ ure emote gentzon.*

**mantzo, mantzue.** (MANTSO) Tranquilo, -a. || *Gixon mantzue. || Itxosue mantzo-mantzo dau. || Mantzue da animalidxe bat geistu estana. Animalidxe esaneku edo noberak ibiltten daben astu-edo "Esana eitten deu" edo "Esaneku da"-edo, esta..., geistu esta. || Iko pasie da mantzu esati les. Bai, geusa noblie, mantzue. "Iko pasa garbidxok ori!". Iko pasi ixeten da les...*

**mantzotu.** (MANTSOTU) Tranquilizar(se); aplacar(se). || *Etorri da etzera mantzotute. || Sulu pe eitte dxakosen (txondorrien), sulu pe. Or-emen, or-emen, apurtxut mantzotu deidxen-de.*

**maña, mañie.** (MAINA) 1. (herr.) Lloriqueo, murria, lloros de los niños. || *Maña asko eitten deu. || "Muxek dekos": mañak artze ittunin, edo mañakin daunin.* 2. Destreza, capacidad, habilidad. || *Gausa erresak eitteko be, bere mañie bi da.* ☐ **mañak ein.** Lloriquear. || *Mañak eitte ittu orrek.*

**mañaka.** (MAINAKA) Lloriqueando. || *Mamorrué esaten da umi-edo ikaratzeko-edo, mañaka-dasenin-edo.*

**mañoso, mañosue.** (MAINOSO, mainontzi-bat.) Llorón, -ona. Ik. *negartidxe. negar erresa.* || *Beti negarres dabillen umieri "Au da mañosue!" esaten dxako.*

**maon, maona.** (MAON, maoi-bat.) Mahón. || *Maonesko prakak.*

**mara-mara.** (MARA-MARA) Con abundancia, copiosamente. || *Mara-mara eitten deu eurre.* ☐ *Pertsona bat berbalduna denean ere esaten da: || 'Mara-mara' berbetan asko eitten dabenari esate dxako: "Mara-mara berbetan pareu de". || Mara-mara? Berbetan ekiñin dabixenari esate dxako mara-mara. "Mara-mara dabil".*

**mardo, mardue.** (MARDO, mardul) Robusto, rollizo, grueso. Adjetibo hau lagunei nahiz animalei ezartzen zaie. *Mardue hitzarekin lagun bat lodidxe dagoela uler daiteke, baita itxura ona dekola ere. Ik. trapaue, trokotza. || Beren trongue lixue da, ta mardue barik, bigune paratzen da. || Askonarra mardo-mardo-mardu ixeten da, da anka txikitxuk eukitte ittu. || Trokotza da mardo bat ixeti les, da laburre. Lusie esta esaten trokotza. Da fuertie, laburre. "Trokoz ok a". Mardu, ta ori txikidxe, laburre esan gutena. || Mardu burue lodidxeri esate dxako, da trokotza be lodidxeri esate dxako. || Trapaue? Bai, trapaue: mardue. "Ño, ori argala dxak, baya ori bestiori, ño, trapau dxak!". || Prakatze ixeten da isterrak-eta lodi dekosena. Jeneralien. Ganadu pe isterrak-eta lodi, "Dios, prakatzu dok ori, prakatzu!". Isterrak mardu.* ☐ *Emakumea haurdun dagoela edo behia kumea egiteko dagoela esateko ere erabiltzen da: || Jeneral, ori mardo berbiori ibiltten da txala eitteko dasenien, edo emakumi pe famelidxe eitteko badaus ba: "Mardu das".*

**mardotu.** (MARDOTU, marduldu) Poner(se) rollizo, -a, enlozanarze, engordar. Ik. *lodittu.*

**margaritte, margarittie.** (MARGARITA, bitxilore) Margarita (*Bellis perennis*). || *Margarittie lorie da. Margarittie da onexen tamañan, edo txikitxuau ixengo da, buelta-bueltan surittute eukitte ittu, te erdidxe asi oritxue eukitten deu.*

**mari.** (MAREA) Marea (movimiento periódico del agua del mar). ☐ **mari gora.** Marea alta. || *Mari gora dabil.*

**mariapostolu, mariapostolue.** (MARIPOSTOLU) 1. Cierta variedad de flor. || *Orrixek tire mariapostoluk. Oiñ estai bape gelditzen da ba, baya ementxe be egon san olakue ta ba se esangot neuk?, orrek e eundidxek-eta estire, bajuk tire. Berak aste ittunin, ser esangot neuk?, berak e arbolatxu edo arbolie be esta, orrek e orren arrimun sabaltzen da ori mariapostolue. Da orrixek e larrosa pe estire. || Mariapostolue ixaten da*

lora sabaltxu bat, asulka suritxu bat, da erdidxen urtete tze diadenak, edo arek antenatxuk. || Mariapostolue badau geurin be. Da eurten estaitt emongo daben berak. || Ori da jeneral ormara-edo asten dan lekura-edo, mariapostolu. Ta ixeten da beres olakotxu bat ixeten da da olan erdidxen e olako bedartxuk, iru bedartxu-edo eukitte ittu ta arixe esate gentzon mariapostolu. **2.** Parado, -a, calmoso, -a, sin vigor. || Se igul laguneri esate tze beintzet, alan geldi dauna, "An dxak mariapostoluau!". || An dxak mariapostolu plantaute!

**mariartasi, mariartasidxe.** (MARIARTAZI) Libélula. Mariorratza ere esaten da. || Arek ainbeste kolore eukitten deu, berdeski-edo ixaten da, da areri, e, ri-ri-ri-ri satie eitten deu te, areri mariartasi esate tze. || Mariartasi ixaten da berdie, edo berde antzeku ixaten da, ta ru-ru-ru-ru-ru-ru ibiltten da. || Mariartasidxe erreketan, da uretan, ur pariñ ibiltten da. Ego lusik dekos, da berdi ixaten da. || Mariartasi: ru-ru-ru-ru egas ibiltten dana; olanik berdeska antzekuk eukitte ittu eguk-eta, da sati eitten deu ru-ru-ru-ru. || Mariartasidxe esate dxako egan ibiltten dan euli antzeko bat, burrun-burrin-burrin-burrin einde, bateri bestera, arboletatik-eta, ba danetatik ibiltten dana.

**mariau, maritan.** (MAREAU, mareatu-bat.) **1.** Marear(se). Ik. larrittu. || Marieute dau. || Diskordidxau? Ba, se esangot neuk?, bat marietan danin-edo, "Diskordidxaute dau". **2.** Marear; molestar. || Buru maritan dabil.

**Maridxe.** (MARIA) María. || Peru ta Maridxe. ☐ **maridxe tellaganekue.** Mariquita a la que los niños arrojan el diente caído. || Aintxiñe agiñe jeusten sanien, geuk esate gendun "Maridxe Tellaganekori!". Jeurti, da alan Maridxe Tellaganekori. || Len botate sirin, nik oiñ estaitt botate basittuen, baya tellatu ganera "Etzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!" esanda, "Maridxe tellaganekue, eutzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!". || Maridxe tellaganekue nik estakitt oin seri esate dxakon baya guk aintxiñe agiñe jeuste dxakoniñ agiñe, lelengoko agiñe jeuste dxakonin, arixeri esate gentzon maridxe tellaganekue, "Maridxe tellaganekue, eutzi agin sarra, ta ekarrixu barridxe!".

**marigorri, marigorridxe.** (MARIGORRI, katalingorri) Mariquita (Coccinella septempunctata). Marigorringue ere esaten da, baina marigorridxe da gehien erabiltzen dena. ☐ Marigorria atzamarrean ipinita honela esaten dute umeek: || "Marigorri txiripiri, esaidxosu Jangoikuri bidzar denpora ederra eitteko, edo ba euridxe eitteko". Umik olgeta gendun geuk marigorri atrapaute kokotxu bat ixeten da marigorri, gorri..., gane gorritxuas, da sertxuk eukitte ittu, olako pinportatxu batzuk eukitte ittu baltzak, da gorridxe ixeten da ta egan ibiltten da. || "Marigorri txiripiri, esaidxosu Jangoikuri, bidzar denpora ederra eitteko, edo euridxe eitteko", umik esaten dabe.

**marigorringo, marigorringue.** (MARIGORRINGO, katalingorri) Mariquita (Coccinella septempunctata). || Marigorringo da kokotxu bat, gorritxue, baltzuna txikitxu batzuk dekosana, egas ibiltten dana. ☐ Umeek, atzamarra gora begira daukatela, bertan ipini ohi dute eta gora igo eta hegaz hasten bada, segurua ei da eguraldi ona datorrena. Bitartean hau esaten dute: || Marigorringo, txurin gorringo, euski ala euridxe ingo.

**marimatarraska.** (MARI-MATARRASKA) (Niña) traviesa. || A marimatarraska, astu ganen doi ta! || I as marimatarraska!

**marimutil, marimutille.** (MARI-MUTIL) Marichico, marimacho. || I as marimutil! || Marimutil bayo txarrau sabix! Bajatu seix orti bera, jeusi etzeixen!

**mariñera, mariñerie.** Marinera. Emakumezkoen janzkia, enborra estaltzen duena eta gehienetan txamarraren edo jertse baten azpian janzten dena. Gizonezkoena, alkandorie izaten zen, baina orain emakumeek ere alkandora janzten dute.

**mariñero, mariñerue.** Marinero, pescador. || Mariñeruek jun dira atune atrapetan. || Orrek len, txankluek, orrek mariñeruek usete sittuen onetako jenti payo geidxau.

**mariorratz, mariorratza.** (MARIORRATZ) Libélula. Mariartasidxe ere esaten da. || Mariorratza ser dala esangot? Olan euskitten da denpora ederra danin burrun-burrin-burrin-burrin ibiltten dan koko bat. Lusetxu ixeten da. || Mariorratza? Olan denpora onien e, kanpun arbolarik arbola-ta ibiltten dana, rum-rum-rum-rum-rum einde.

**mariposa, mariposie.** Mariposa. Ik. txiripiridxe. || Mariposa suridxe.

**mariurkulu, mariurkulue.** (MARI-URKULU) Marichico, marimacho. || Enbrari esate tzeu mariurkulue. Igul e edonora ta kriti-krata! "I as mariurkulu i!" esate tzeu. Gastetan ademas asko. Lorrin dabilena, mariurkulu.

**marka, markie.** (MARKA) **1.** Marca, señal. Ik. arrastadie. || Golda markie. || Oin markak egon dire an. || Nabarra jartze dxako da len —neu pe esautute deket— da arixas eitte sirin markak, marka-markak-markak solun, da antxe nabarran markatik nabarran markara laidxetan eitteko bota biar ixete san soidxe. || Txakurrek eisten ainkadias betiko markie geratu dxate. **2.** Marca (de competición). || Au da marka aundidxe ein dabena! || Aren markie ondu bayetz! || Lengo markie tapau bayetz! ☐ **markara erein.** Sembrar en el surco de la rastra. || Ba a asko ibiltte san, da lauortzeku esate dxakona be, lau ors dekosena be, a be beidxekiñ ibiltte san, da artu eraitte san markara, lauortzekuas olanik. Da oiñ estire ibiltten es bata, da es bestie. Arta-pur bet eraitten da. || Markara erain: lauortzekiñ eraitten da, eitten olantxik..., ondiño guriñ ongo da lauortzekue, da eitten deu...

markatxu eitten deu, da araxe markatxure eurretik doiñak, beidxen eurretik doiñak artzu altzuen e artue da araxe, oiñ eitten daben markatxure barik len eiñeko markatxure botaten deu, oingo markatxure barik lengo markatxure. Da oin datorren e..., oiñ atzetik-atzetik datorrenak tapau eitten deu, da tapaute gelditzen da. Da gero urrango doiñien osta be, markatxu eitten deu, da artue botaten da araxe markatxure. Da urrango datorrenak ostabe tapau eitten deu.

**markador, markadora.** Marca, que se emplea con la tierra antes de la siembra del maíz, nabo, remolacha y alubia. Aramaio aldean 'markue' esaten omen zaio. || Ondiño markadora guriñ egongo da. Bai, bai, markadora, artu eraitteko. Da artue eraitte san, onek e iru marka eitte ittu, de au bat..., bueno, len eiñeko markatik erun biar ixate san bat, bestik susen eruteko. Da aretan botaten san artue. || Arek txerrenak ortzak-eta eukitte dittu. Da bestia da, markadora da palak eukitte ittuna, pala bi edo iru illadan, marketako. Da bestie da a jorratu eitteko, bittartin pasetan dana, txerrena. || Markadora: orrek eitte ittun markatxutan ba ereiñ eitten da artu. Ori marketaku da. Da beidxeikiñ ibiltten da. Geu be beidxeikiñ ibiltte giñen. Oin traktorak ibiltten da, oin beiri pe esta bustertzen da.

**markau, marketan.** (MARKAU, markatu-bat.) Marcar, señalar. || Bai, markadora be bardiñ esan leidxo, se au marketaku da. Markau, onek marketa ittu... Aintxiñe laidxetan eitte san asko, garidxe eraitteko. Da onek marketa ittu soidxek. Au gixoneko bik-edo, ba sendu, naiku sendo dasenak, artzen dabe pinttittako partika bat, emen aurretik, da beste bat atzetik, da onexas markau eitten deu soidxe, laidxetan eitteko soidxen..., joteko nundik jo bi dan. || Da punteruas ta! Markeu, an markatxu eitten deu, sin... da antxe markan gero eitten deu taladruk. || Ta gero euen arpana, trontza serriñ antzekue. Goitti eitte dxuan batek, eitte dxuen erreidixe iketzas, iketza edo lurras, ipiñi sintta bat eta altzau sinttie. Ya! jote dxuan a, markau eitte dxuak ak.

**marlota. 1.** Oveja que no tiene corderos. || *Marlotak: ardi billotzik estekenak. 2.* Fuerte (aplicado generalmente a los hombres o a los jóvenes. || *Marlota igul esate tzeu fuertiri: "Dios, marlota dak ori!"*.

**marmar.** (MARMAR) Murmullo, cuchicheo. □

**marmarrien.** Murmurando, cuchicheando. Ik. ekiñien. || *Marmarrien, ekiñien dabixenagaittik, se esango neu?, beste batzukaittik txarto esaten dabixenagaittik-edo esate dxako: "Marmarrien ekitte tzo beti"*. □ **marmar detzo.** Está murmurando. □

**marmar ibilli.** Andar murmurando, cuchicheando. || *Marmar dabil.*

**marmarka.** (MARMARKA) Murmurando, cuchicheando. || *Ixilek egoten estaki tte, marmarka ibiltten da beti!*

**marmitte, marmittie.** (MARMITA) || *Marmittie? Esta ontzi bat marmittie? Olan sarten antzeko bat?*

**marmittekue.** (MARMITAKO) Marmitako. (cocido de bonito). || *Marmittekue ba esaten da ba esate baterako, ipintten danin sartaneku-edo, txorixu te urdeidxe ixeten dire, marmitteku esate dxako.*

**marmo, marmue.** (MARMO) Máscara, persona disfrazada. || *Marmuek disfrasatzen dinak dire; ixete san broma moduen, umiek ikeratzeko-ta eitte benak. || Len marmue esate geutzen olan jantzitte, gabonetan-da. Marmue da: jantzi, edo orrek einde juri les, esetute estan modun jutie, kapakiñ edo seras. || Jantzitte ibiltten diñak-edo, ba marmuek esate dxake, arpeidxe tapau, te jantzitte dabixenak. || Marmuek datos! || Marmuek jeneral ixate sirien, ya, ser esangot neuk?, ya garixumie datorrenien, marmuek jasten diriñak dire ba buru tapaute, arpeidxe tapaute, edo ba jantzidxe mudaute-edo, marmue arixeri esate dxake beres. □ **marmo denporie.** Tiempo de disfraces, de*

máscaras. || *Ointxe dxatosek marmo denporak. □*

**marmo jantzi.** Disfrazarse, enmascararse. || *Marmo jantzitte dabil. || Marmo denporie eitten dana, basatuste-ta eitten dana, olan marmo jaste sirinak, ba arixeri esate dxake marmuek.*

**marmol, marmola.** (MARMOL) Marmol. || *Ereñoko marmola.*

**marras, marrasa.** (MARRAS) **1.** Delantal de tela basta. || *Marrasa esate dxako, esate baterako, bier asko daunien-edo eurrien ipintten dan sakusko amantalari, sakusko amantalari. 2.* Guangoche, tela basta, especie de arpillera para embalajes, cubiertas, etc.; saco hecho de guangoche. || *Saku marrasa. || Esaten da, beres, len... —oin ba alakoxeri pe esta eitten da— mollari aspidxen eukitte be a saku, marras aundidxe, aspidxen e..., ganien teli asule edo urridxe-edo ipintte dxaken, baya aspittik ipintte dxaken sakuri, saku ipintte dxaken aspittik, da marrasa esate dxakon. || Marrasa molliri ipintte dxakon aspiko partetik. || Koltxo..., mollek aspidxen eukitten dabena be saku marrasa da. 3.* Estropajo con el que se limpia el suelo. **4.** Descuidado, -a en el vestir. || *Marrasa? Ondo jantzi barik eta erdi or dabillenari, erdi dingiliske erropak eta olan dabixenari marrasa esate tzeu. Ondo konpondu baku. □ **marrasako amantala.** Delantal de tela basta. || *Bai, da eurriñ amantal sakusku be ibiltten da, neuk ibilli dot len, ondiño estakit eta estot ibiltten baya sakusku ta, noberak ibiltten daben amantalari be esate dxako marrasako amantala.**

**marraskillue, marraskulue, marroskillue.** (MARRASKILO) Caracol (*Helix*). *Marraskulue* baino gehiago *marraskillue* esaten da. Dena dela, *karakola* zabalduago dago gaur egun. □ *Andere Goirienak honela bereizi ditu karakolak eta marraskuluk: || Bueno, gabonetan jaten danari karakola esate dxako. Lurriñ*

ibiltzen dirin kokuri esate dxake marraskuluk. Jaten dabe ba, ser esangot neuk?, jaten dabe esate baterako, indarra be gastetan, oiñ erne ta ara, gastetan jan eitten dabe, da beste geusa bat pe, baiñi be jan eitten dabe, da orreri ba, orreri kokuri esate dxake ba marraskulue. Bueno, danari, olan ortun de solun-de ibiltzen dirin kokuri, danari marraskulue esate dxake. || Marroskillue esate tzeu, karakola-nai barik, marroskilluk, dandarres dabixenak. ☐ Berriemaile baten arabera, marraskillue erabiltzen da lagunei iseka moduan esateko. Animaliei karakola esaten zaio, ez marraskulue. || Guk e karakolari karakola esate tzeu. Marraskillu esate tzeu e olako erdi geusestan personiri ero olan. Bai. "Marraskillu garbidx-ok ori be!". || Marraskulue laguneri esate dxako: "Marraskuluori!", "Marraskulue!"

**marrau, marraue.** (MARRAU, marru-bat.) Maullido. || Katun marrauk. || Katuk alkarras erristan dabixenin, marrauk eitte itue, baya ya euren sasoye dxatorkenin be, bakidxes marrauk eitten. || Kunek artzeko sasoye-edo etorte dxakenin be bakidxes marrau galantak eitten-da, katarra etorten dxakena.

**marrauke.** (MARRAUKA, marruka-bat.) Maullando, dando maullidos el gato. || Marrauke dau katue.

**marroi, marro, marroye.** (MARROI) Marrón. || Begidxek marroi tekos. || Ba ixengo da iguel, marrotxuau ixengo da beste... Beste mosoluek, mosolu danak, au papar buelti au, au buelti au, jeneral suridxe eukitten deu, suridxe, edo suriskie, da orrek estau eukitten, ori indarra ixaten da, marroye, edo illune da; baltza be esta.

**marti, martidxe.** (MARTI, martxo, epail) Marzo. || Euskidxe, da euridxe, martiko egueldidxe. || Martiko ilberi da artue konserbateko onena. ☐ **marti setie.** Seta de marzo, seta de primavera (*Calocybe gambosa*). Bergara aldean eta beste leku batzuetan susie esaten zaio. || Marti setak leluguen balidxo ixeten dabe seretan, restaurantetan, baya abidxa jakin bi dabe, abidxak, da abidxa ona jakiñ eskero bakarrik artzen da bastante. Baya asko batzen gatxa da. || Merti setak martidxen egoten dire. || Seti da txikidxe. Onek e marti setie areri be perretxiku esate tze, baya guk estetzeu esaten orreri perretxiku. Setie. || Perretxikue: urdin perretxikue, urritxa perretxiku, da robilloi be perretxiku da orreri perretxiku aundixauri esate tzeu perretxiku. Onguri be 'seti' estetzeu esaten. Perretxiku. Onguri be esan eitte dxako perretxikuten. Beste batzuk esaten dabe igul "Ongotan noidxek". Da beste batzuk "Gu perretxikuten goidxek". Baya perretxiku ya dana jote ittu, dana, jenerala jote ittu perretxikuk. Baya seti da marti setie da onek txikidxek.

☐ **marti sosue.** Variedad de tordo de pico amarillo. || Gitxi ikusten dire piku oridxek oin. Len ainbeste egote san sosu piku oridxe. Marti sosu esate gentzon guk.

Kantetan orrek martidxen askenien, da kuna pe bai goistik ein. || Marti sosue ixeten da piku oridxe eukitten deuna; da bestiek baltza eukitten dabe. || Marti sosuk kunak atarate ittu ariñau. Orrek piku oridxek, e..., orrek iltterik estau. Baya emen jentiek il eitte ittu bardin. || Orrek (marti sosuek) kunak atarata kantau eitten deu orrek ondo. Da bestik estabe kantau. || Marti sosuk kantau eitten dabe ederto. Onek iltzerik estau oin be. Ba jentik emen esteu pikorik begitzen. || Marti sosu entzu su kantetan? Estosu entzu e! Marti sosu sati entzu ot nik ointxe amabost-edo.

**martidxen, martidxena.** (MARTITZEN, astearte) Martes. || Astelena, martidxena, eguestena, eguena, baridxe, da sapatu.

**martxa, martxie.** (MARTXA) 1. Marcha, funcionamiento. || Baya au (grabadora) martxan dau? 2. De paso. || Paseko txoridxek: martxan doixen orrek. Berton geratzen diña barik, martxan orrek juten di ba uso manduk. 3. Funcionamiento, conocimiento sobre algún lugar o actividad. || Seberinak bakidxen emengo martxi ta. 4. Recuperación, reanimación. || Urtik asko ak. Arek eukiko ittus larogetasortzi-amar urte. Bai. Da makalaldidxe be euki ban atzera. Da oiñ osta be martxi dabil.

**masa, masie.** Porra, mazo metálico con mango de madera que se utiliza para golpear la cuña, estacas, etc. Sin. porrie. || Masie da porrie. Ori biribille. Orrek arpeidxe deko biribille alde bistatik. Sididxe erdidxen astin sartu, da nai batetik nai bestetik.

**Masandei.** Caserío de Nabarniz. || Masandei baserridxe da, emendixi be bistan dau. || Masandei da baserri baten etziñ ixena. || Masandei estaipa Nabarriskue estan. ☐ **Masandei sagarra.** Cierta tipo de manzana originaria de Masandei. || Masandei sagarra be goixetiku da. || Masandei sagarra esatu dot. ori agertu san oin da..., nik irurogetamairu urte kotas, oin da irurogei urte. Beres etorri, da sagarrak emon, da andidxe Masandei sagarra, Masandeiñ agertu salako. Da an urte ban sagar orrek beres. Da sagar ederra da, gasie, bastue, da asko, ser eundidxe, exitu eundidxe euki ban. Niri gustate dxaten konpota eitteko, gordiñik jateko es. || Geurin be egon san masandei-te. Da naiku goixetiku da, da naiku sagar aundidxe, da da dultzie, edo sosu-edo, dultze sosue. || Masandei sagarra beres etorrineku san, a Nabarrixen agertu san, Masandei basun.

**masandeitar, masandeitarra.** Natural de alguno de los caseríos de Masandei. || Masandeitarrak. Etze bi dause les. Etze bat baletxeke, Masandei esango letxeke, baya etze bi dause les, masandeitarrak. Da Arrolaku pe arrolatarrak, se an bixitza asko ganera. Iru bixitze on siñ an beko etzien. Ta goiku be a Arrola da. Orrei arrolatarrak esate dxakue.

**maseta, masetie.** (MAZETA) Mazo grande. || *Taketa joteko masetie.* || *Emen masetie esate dxako masuri, masu aundidxeri, masue lodidxe ta aundidxe, olanik e, ba ba ser esangot neuk?, goitti bera palanki joteku-edo, estaitt selan aittuten emongo tzuten be.* || *Masetie da maso bat, maso ba ta ba..., bueno, solun ibiltten danari masu esate dxako, baya ba maseti ba goitti bera jotekuri esate dxako.*

**maskal, maskala.** (MASKAL) **1.** Humedad, mojadura. *Magala* ere esaten da, baina askoz gutxiago. Ik. *garue.* || *Selako maskala bota deu!* || *Euridxe eitten dabenin, "Selako maskal dau!" esaten da: beye bustitte badau, bedarra ta danin.* || *Euridxe-ta daninde, igul erropak alderdidxetan bustitte, ta ba areri maskala esaten dxako.* || *Esate baterako, bustitte daunin, euridxe danin, da auridxe atrapatzen danin, da ba etzera bustitte etorten danin, da ba "Maskales beterik dator!"* || *Suk dekосу maskala!* **2.** Húmedo, -a. Ik. *maskala.* || *Egun maskala: erdi sirimirdixe da onan danin.* **3.** Cazcarria, zarpa, lodo que se pega al ruedo del vestido. Emiliano Arriagak *mascales* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "El lodo y los barro que las mujeres recogen con sus vestidos en las calles cuando ha llovido mucho y se forma en ellas aquella especie de *miscla* tan peculiar hoy en la *ex tacita de plata...*" || *Nora soyas, maskala batzen?* || *Batun deu orrek maskala!* □ **denpora maskala.** Tiempo lluvioso. Ik. *denpora umela.* || *Denpora maskala? Ointxe daunari. Euri apur bet, da maskala, busti eitten dabena.* || *Denpora maskala dau.*

□ **maskala batzen.** Recoger cazcarria o humedad en el vestido. || *Garu batzen danin, da bustitzen danin barnak-eta: "Maskala naiku batu du".* || *Maskala batzen dabil. (iruntze daunien bedarrien-edo).* || *Maskala batzie da euridxe eitten dabenin-edo: "Or dabil maskala!"* || *Maskalak batxosak.* || *Maskala batzen: garu-edo, bustidxe batzen.* || *Maskala da garue. Guk garue esate tzau: "Maskalak batu dous", dana busti-busti beye. Garue, bakixu, iruntze.* || *Euridxe danin be batzen dire maskalak, bedarra ebatzen-da, kargi ipintzen-da.*

**maskaldu.** (MASKALDU) Enlodar(se), manchar(se) con lodo. || *Basias sikindute dau, maskaldute.* || *Maskaldu nas.* || *Erropak dana maskaldute deketas.*

**masma, masmie.** (MARASMA, armiarma) Araña. *Aramu* eta *aramu sarie* ere erabiltzen da, baina gutxiago. || *Etziñ oten dana da masmie. Are masmik eitten dau beran abidxie, da a oten da saran barrun egoti lantxik. Da are dekös e arek, abidxi einde. Da a apurtzen bosu bera, a masmi dator bera, da a beyen sapaltzen esposu ankias, atzera badoya, atzera atrapeten deu, sulu atrapeten dau, da gero arek ostabe abidxi eitten dau. Da orrek e etzitan-da orrek asko eitten dires. Eskobi pasetan esposu ba edonun eitten da masmie.* || *Masma aundidxek.* □ **masma**

**sarie.** Tela de araña. *Masmaraune* baino gehiago erabiltzen da hitz hau. || *Masma sarak-eta kentzekue da gardastie.*

**masmaraun, masmaraune.** Tela de araña. *Masma sarie* gehiago esaten da.

**maso, masue.** (MAZO) Mazo, maza (para romper terrones). || *Egurresko masue.* || *Masuas lurre jotie, a be eitte san len, lurre apurtzeko, da gero jorratu ganetik.* || *Ba, solun bier eitten danien, ba sokillek egoten dire, da arek sokilburuk ta, len..., oiñ estaus masuas be joten, len masuas jote gendusen sokilburuk.* || *Masue: sokillek apurtzeko ibiltten dana, baya estakitt oiñ iñok eskun artzen badeu te askok jakin be estau eingo selangu dan be. Masu ixeten da..., kirten lusi eukitten dau te puntan ba sokillek apurtzeko, puntie lodidxe eukitten deu.* || *Da masu ostantziñ ixeten da kirten lusias da solun sokillek joteko.* || *Masue egur utze da. A etziñ eittosu.*

**mastegi, mastegidxe.** (MAHASTEGI, mahasti) Viña, viñedo.

**mastikeu.** (MASTIKAU, mastekatu-bat., mamurtu) Masticar. || *Mastikeu barik tragau deu orrek jatekue.*

**masustra, masustrie.** (MASUSTRA, masusta-bat., martxuka) Mora (*Rubus fruticosus*). || *Masustrie sasidxen egoten da.* || *Mermeladie ba eitten da, esate baterako, botate dxako asukerie beren tamañun, masustran tamañun-edo, da egosi eitten da ordubetiñ-edo, ordu bidxen-edo, nik estaitt. Neu pe esteket kostunbrerik itteko ta.*

**matadero, mataderue.** Matadero.

**matarras.** (MATARRAS, baso-soilketa) Corta a hecho, tala a mata rasa. || *Rasun be iguel. Piñu sartzeko bada, rasuen. Dana, arluen. Matarras.*

**matarraska, matarraskie.** (MATARRASKA, matarraski) **1.** Raedera. || *Matarraskie: artesie garbitzeko. Ogidxe iette sanien, amasie eitte sanien, inkeu eitte san olan ganien. Da a garbittuteko matarraskie uste san.* || *Ogidxe ein de gero, garbittute isteko, olan garbittute san matarraskias. Burdiñesko alako katxarrotxu bet san.* || *Matarrasie ibiltte gendun, artesie, an kortan dau artesie, artesie labako su eitteko ibiltte gendun. Artesie da beren kirtentxuas, da seinde beren agotxu lakoxi eukiko deu, beye sorrostxue, artesako..., labako su eitte gendunin, artesako ondakiñek, un ondakiñek, eta mas ondakiñek, matxakau ibiltte gendun, matarraskie.* **2.** Revoltosa, liosa, camorrista. || *Ori da matarraskie!* || *Matarraskie, atzo bateri, andra bateri, andra bateri, apurtxu bet sera bada, matarraski esate dxako.* || *Matarraski da ba, bera dana, bera jaun eta bera seriñ eitten dana, matarraskie.*

**matarresa, matarresie.** (MATARRASA, baso-soilketa) Corta a hecho, tala a mata rasa. || *Matarresie: dana ebaitte, dan-dana basu garbi itxi, dana ebaitte dxakola, danak kendu, onak, eta txarrak kendu, danak kendu: matarresie. Lur barridxe eitteko be bai, edo ortu*



ein gure badabe, edo ona estetzela isten, len daun arboliri, a kendu, dana garbittu, te barri bat. ☐ **matarresan.** A mata rasa. || *Matarresan bota dabe basue.*

**matasa, matasie.** (MATAZA) 1. Copo. || *Edur matasie.* || *Matasan eurre eitten!* || *Eurre matasan dok.* || *Matasie da, an matasa itzela!* || *Bigune ixeten da matasaku.* || *Au matasa negargarridx-osak!* || *Matasie? Eur eitten daunien, eurre jeusten da matasan. Olako matasa osuk jeusten dire da kanpu de tapau eitten deu da "Eurre matasan da, kanpu be tapau ein deu".* 2. Madeja; tupido, -a, espeso, -a, cerrado, -a. || *Matasi dau.*

**materi, materidxe.** (MATERIA) Pus. || *Enplastue eitten da solittute daun lekuen materidxe kentzeko.* || *Aundittu: geuse bat eitten dana, epai bat-edo, arantzi sartu-edo, ta aundittuten dana, "Materidxe eitte dxako" be bai, "Aundittute deko".* || *Sanbruk esteko materidixerik, granuk eukitten deu bakarrik.* || *Materidxe einde deko.* || *Ba olan, ba eridari materidxe atarateko ipintte dxake, ipintten da mamukidxue.* || *Puslie: esate baterako, atzamarra solittute, ta materidxe einde dau, da "Solittute deko, puslatute dau".* || *Bonak ixeten dire..., bonari eitte dxake..., asten dire pinporta payo aundixuauek da puntan eitte dxake materixu.* || *Txapel bedarra orman-da asten dana da ta ona ixeten da olan materidxe atara eraitteko-ta ori be.* || *Solittu eitten da geusi da materidxe eitte dxakona.*

**materidxal, materidxala, mateidxala, materidxela.** (MATERIAL) Material, madera. || *Udan-da esta bota biar materidxala gordetekue; a ein bi da orridxe jeusitte, negun-da, a estau sitzek jaten.* || *Esteko arek materidxelik, es, lodi-lodi esta ixeten. Matzen antzera.* || *Bueno, urkidxek olan mataridxelako estau bali ixeten, egur floju ixeten da ta.* || *Bueno, esta..., materidxelerako esta ainbeste kastetan, baya kastau be ingo da materidxelerako edo etxako isten berari arboliri... selan esangot neuk? Lexarra da arbola bat eta emoten deu untxe udebarridxen edo untxe udan, lori be emoten deu lexarrak. Estakitt nik materidxelako kastetan badabe.* || *Bardingue? Esetako materidxelik es eser estekona, egur bardingue.* || *Gabillie? Egurre... Narra bakixu ser dan. Narrak aspidxen baseta eruten deu, beran aspidxen gastau esteidxen mateidxala. Se a mateidxala gastetakun ostabe barridxe ipiñi bi dxako. Da es gasteteittik, ba aspidxen geigarridxe ipintte dxako alako sididxekin.*

**materittu.** (MATERIATU, hala ere Sarasolaren *Euskal Hiztegian* jasotako forma antzinakoena *materitu* ageri da, 1801ean) Formar(se) pus. Sin. *solittu.* || *Materittu ein dxako.* || *Solittu eitten da a errenekue, da materittu be eitten da, da materidxe atara bi ixate dxako osatzeko.*

**matrailla.** (MATRAILA) Mejilla, carrillo. || *Golpe batas matrailla jo ta bera bota dxuan.* || *Asal urdiñe: alan matrallak gorridxek dausen umiri, asal urdiñe. Jeneral umiri esate dxako.* || *Gure amak euki ban*

*pasaute ori naparridxe ta matrallak danak pikorrak, denpora gustiko.*

**matrillagin, matrillagiñe.** (MATRILLAGIN) Muela, molar.

**matrillasur, matrillasurre.** (MATRAILEZUR) Mandíbula, maxilar; hueso maxilar.

**matrailleko, matraillekue.** (MATRAILAKO) Bofetazo, torta, guantazo.

**matraka, matrakie.** (MATRAKA) 1. (Igart.) Revoltosa, caracoleta. || *Matrakie da beti drogan daun bat, drogosa bat.* 2. Carraca, matraca. Ik. *kirrikarrie.* || *Aintxiñe matrakie esate dxakon trasto bat, aste santutan jote ben kanpaye gelditzen sanin, eguenes, eguen santus ba onetan erridxetan. Kanpaye eguen santus, kanpaye geldittu eitten da, baridxe ku santus estau kanpairik. Da joten dabe tarra-tarra olan, karraki lako geuse bat traka-traka-traka erain, de aixe esate dxakon matrakie.*

3. Cantinela, rollo. || *Ori da matrakie!* ☐ **matrakan ein.** Armar bulla. || *Matrakan eitten dabe.*

**matrakera, matrakerie.** (MATRAKERA) Bullanguera.

**matrakero, matrakerue.** (MATRAKERO) Bullanguero. || *Matrakeru da, beti ekitte tzo ta!*

**matrasau.** (MATRAZAU, *matrazatu-bat.*) Maltratar, molestar. || *Astandela: biarrin sausela, da miñik eiñ esteixun be, ba biar eitteko beras. Sera, arek oratu, barrutik lotunde egote san trapuas; a ganetik sartu, de ba matrasau esteidxen, apurtu esteidxen, txarrau eiñ esteidxen-edo. Bai eridie matrasau esteidxen, igul lorrindu, aundixau edo txartuau parau, a saintzeko, a saintzen atzamarra, ariñau saniau deidxen.* || *Matrasau: ba igul seoser baukosu, da ibiltte sara bierrin, da igul dana lorrintz-osus odoletan-edo, al dan modun-edo: "Dana matrasau dosu!"*

**matxaka, matxakie.** Trilladora. *Trilladora* ere esaten da, baina *matxakie* da gehien erabiltzen dena. || *Matxaki da... Trilladora esate tze ba garidxe jotekuri. Da trilladora lenauku siren... es eken besterik tanborra, erdidxen tanborra, dana ortz utzes beterik. Da an sartun ori asaue, sartun da atara da sartun de jeurti. Da ak ebei eitten deu. Matxaki axe da.* || *Au esta matxakie. Au gari garbitzeko makiñi da. Matxaki da... Garidxe joteku san matxakie, motorras ibiltten dana. Au da eskus ereittekue.* || *Matxakek e geu gaus ibiltte-ta, asko-ta.* || *Matxaki da garidxe jotekue. Ni gari joten asko ibiltte nau ba.* || *Gari joteko motorra, matxakie.* || *Asau sartze tzen matxakiri, da matxakik jan eitte dxuan ba. Ta ra! jute san aspire.*

**matxet, matxeta.** (MATXET, *matxete-bat.*) Machete. || *Matxeta oin be ibilko da, pentzetot nik, olanik noberak esteritxon..., noberan gustoko egurre, edo seoseri..., seinda atxurreri kirtena eitteko-edo matxetas ebaitte.*

**matxin, matxiñe.** (MATXIN) 1. Caprichoso, obstinado, terco. || *Matxiñe da temak artze ittuna.* 2.

Obstinación, especie de celos o enfado. Normalean umeekin erabiltzen da. Esaterako, ume bat haserretzen denean eta deitu arren etorri nahi ez duenean, hauetarikoak esaten dira sarri: || *Matxiñek dekos.* || *Matxiñekin dau.* || *Seoser etxake gustau, batac esanikue, da ba igul kasurik ein barik-edo: "Matxiñekin dabil."* || *Matxiñek artu ittu.* □ **matxin bedarra.** Zarrampín, acedera. || *Guk aintxiñe, umik ixen giñenin da eskolan ibili giñiñin, matxin bedarrak, motan e, bedartzan urtete ben matxin bedarrak, asis beterik urtete ben, olan txupau te sera eukitte ben, euren ure, garrastxue bai, baya ba txupetako modukue.*

**matxialto, matxixaltue.** (MATXISALTO, matxinsalto-bat.) Saltamontes (*Stauronotus maroccanus*). || *Matxixaltu da koko berde bat, ainbeste ainka eukitte ittu, saltuk eitte ittu, ta koko ba ta ori.* || *Matxixaltuk Australian kalte itzelak eitte ittue, etorten dire bandak.*

**matxorra, matxorrie.** (MATXORRA) 1. Se dice de la mujer bulliciosa, que sobresale. || *Ori matxorriori!* || *Ori matxorrie estok makala!* || *"Ori dok matxorriori!"* (esate dxako) nabarben apurtxu bet dabillinari: *"Matxorriori!"* be. 2. Vaca esteril. || *Da ori artute esteuna da matxorrie, matxorraute.*

**matxorratu.** (MATXORRATU) Volverse estéril, secarse. Sin. *antzotu*. Esaterako, behi batek txahalik gehiago hartzen ez duenean esaten da: *Au matxorratute dau.* || *Beidxe matxorraute dxak, ya txalik esteu artzen.*

**matxorrite, matxorritie.** Mujer pequeña y briosa. || *Gogorra bada be ganera: "Dios, or dxoik matxorrita gogorra!"*. || *Matxorrita ba olakoxe ganaduri esate dxako, txalik artzen estabena.* || *Matxorrita bai, esate dxako orreri, txatxar gogorrari te orreri. Esate baterako, enbra txikidxeri te gogorrari te "Matxorritie, gogor ori!"*. || *Da ori matxorritie ixeti da, esate baterako, gogorra ixetie. Orren neska tamañuk eta "Matxorritte diabru gogorra!"*.

**matxuka, matxukie.** (MATXUKA) Martillo de tamaño pequeño para picar piedra. Ik. *mallue, mallukie, porrie, tersiadora*. || *Matxuki da arridxe apurtzekue. A txikidxe da matxuki. Beste bat eunditxuau dau tersiadora. Urrengo, ori mallue.* || *Matxuki: alde bidxetatik dau karie, biribille. Erdidxen kirtena sartu te joteko, arridxe. Arridxe, kari eitte sanin, kanteran-da, len kamiñotarako be olakoxekin jote san. Makiñarik es eun len apurtzeko, da olakoxekin jote san.* || *Matxukie? A bai, kirten lusetxuas oten da, da matxukie ser esangot nik? Emen estau matxukari pe esateko. Arridxe joteko ibiltten dana, matxuki guk arixe esate tzeu.* || *Arri apurtzekuk daus matxuki, tersiadora, mallue.* || *Mallue tau-tau joteko ixeten da, bidiñ-edo estrepesu-edo badau-edo. Matxuki be kontixu antzeku da.* || *Matxukie da sera eitten dana, arridxe apurtu eitten dau matxukik.*

*Matxuk egoten di. Bidxek eukitte ittu. Erdidxen sulu eukitten deu, da beste bidxek dana bardin. Bi eukitte ittu. Olan lusenka ixeten da. Matxuki axe da. Erdidxen sulu, da onegas nai onegas beste alderdi bidxekin jo, onan apurtxut e tronbatxue sulu dekon lekun, da matxukie. Matxuki esate tzeu.* || *Matxuki esate gentzon, arri apurtzeko matxukie. Txikitxue. Aundidxe pe badaus. Mallo aundidxe pe bai. Mallue esate dxakon bateri. A mallu da arri aundidxek apurtzeko.* || *Matxukie, a arridxe jotekue. Txiki-txiki-txikitxue. Da asta lusias ibiltte gendun guk. Mallun antzeku baya txikitxue.* || *Ba garatxuk ostantziñ e bakixu setarako usete gendusen guk? Matxukie, matxuki arridxe jotekue? Matxuki esate dxako a, malluki barik. Da aren kirtena, ba, auxe atzamarran tamaño lodieraku da. Da egur gogorra ta dobleten dana ixen esik, apurtu eitten dire onek gastaña eta aretxa ta one beste gustik danak apurtu eitten dire. Garatxu es.* || *Mallue, matxuki, tersiadora... Iru klase daus. Ori mallue da eundidxena.* || *Tersiadora da txikidxaue. Ori da e... Tersidora da mallugandik urrengue, txikidxaue. A arri txikitxue apurtze dxakon. Da gero da andik urrengo matxuki. Txiki-txikitxue. Matxuki. A, len esan dotena, aren kirtena bi dabe garatxue ixetie, on-on-ona orretako.*

**matz, matza.** (MAHATS) Uva. Ik. *aseri matza*. || *Matz baltza, suridxe, moskatela.* || *Matz orridxe.* || *Matz parrela.* || *Parreleko matza.* || *Emen matza gitxi dau.* || *Etzauneko etzik deko ortu partetik e matza, apur bet, apur bet bakarrik, da origeittik txakoliñe ein dabe aurten.* || *Matza emen suridxe ointxe dau eltzen da jateko moduku dau, baya gustuk artute dau. Gorridxe be badau, gorridxe apur bet mingostxuau da, da guriñ e aras gorridxas sera eitten dabe, txakoliñe eitten dabe apur bet etziñ edateko, baya apur bet.* □ **mas mordie.** Racimo de uvas. || *Ya eltzen dauniñ edo eldute daunin: mas mordie.* || *Mas mordie: matzak eukitten dabena, arek garaunekiñ eukitten dabena, mordie.* □ **mas parrela.** Parra de uva. □ **mas pasie.** Uva pasa. □ **mas sepie.** Cepa de la uva. || *Mas sepie: matz landari edo ba, matz txikidxe.* □ **matza artu, atrapau, euki.** Emborracharse. || *Matza artu deu itzela!* || *Orrek atrapau deu matza!* || *Matza ederra dxekok!*

**matz, matza.** Humedad, mojadura. Ik. *maskala*. || *"Matz itzela dxak matza!"* esate tze garuri be. *Bustidxe, dana uretan daunin "Dios, dxak matz bat e! Dana uretan dxak kanpu te!"*. *Dana busti, nobera, oñetakuk bedarrin-de juten da. Da "Matz itzela dxak!"*.

**mauke-mauke.** (MAUKA-MAUKA) (Comer) vorazmente, a dos carrillos, devorando. Ik. *paute*. || *Mauke-mauke jan.*

**max, maxa.** (MAX, maiz-bat.) Ordinario, -a, desgarrado, -a. || *Maxak dire.* || *Maxa? Ori ba, ser esangot neuk?, estala preparetan edo ba, maxa. Edo*

"Maxtasune deko". || *Maxa? Ser esangot neuk? Max dabilenari, gitxi jasten diriñari edo ba, erropa taidxuskuk ibiltten estittunari edo ba, masa.* || "Max dabil?": *ba bestin modure dotore estabillena jantzitte.* || *Maxa jasten da.* || *Ostikopekue geuse maxari be esate dxako ta. Maxari, esan gutena, seinde tatarres dabilen geuse bat. Menosa esati laku da ori. "Ori ostikopeko garbidx-ok!"*.

**maxtasun, maxtasune.** (MAXTASUN, maiztasun-bat.) Ordinariez. || *Badeko maxtásune apur bet.*

**mayetz, mayetza, maitza.** (MAIATZ) Mayo. || *Mayetziñ ereitten da artue emen.* || *Txarbie sagarra da. Oten da aprillera arte, mayetzer arte baya usteldu barik.* || *Kúku berandu dator. Kuku, ba, junio bueltan. Mayetz akabu, junio.* || *Setoridxek urteten dau e mayetzeti gora. Junio, julio, agostun be. Julion asko oten da.*

**mayorasgo, mayorasgue.** (MAIORAZKO) Mayorazgo.

**mayordomue.** (MAIORDOMO) Mayordomo, persona a cuyo cargo está el gobierno de una hacienda. || *Mayordomu da agintzen dabena, ordesko ipintte dekona. Nik, esate baterako, sure pentzuran... 'Pentzuran' be esate tzeu guk. Estakit aittuten bosu 'pentzuran'. Ba sure pentzuran dau ori geusie. Suk agintzoso se ein bi dan suk agindu kridxaduri edo biargiñeri. Mayordomue.*

**me, meye.** (MEHE) **1.** Delgado, -a, opuesto a grueso, -a. Lagunei ere esaten zaio, nahiz eta horrelakoetan argala gehiago esan. Ik. *argal.* || *Me-meye.* || *Me-metxue.* || *Egur meye.* || *Atzamar meye, estuaue bestiek bayo.* || *Ori be me dau.* || *Ori palue meye dok.* || *Baya meye dok ori!* || *Esate baterako, soluen sartu biosu taket bat, da nasai, olan dao, ta "Meyeidxe jarri dok eta!"*. || *Labiñ egurre ibiltte san meye, da gero lodidxauk e errete dxakos labako sue eitteko, se labik e gorritu ein biar exete ban da. Da lelengo meye, su einde, da gero ba egur lodidxek errete sittunin da labi be ba gorittute gelditzen da.* **2.** Ligero, -a, poco denso, -a. || *Meyeidxe dau, esteko gorputzik.* || *Beidxek eukitten deu esnie meyaue, ardidxek eukitten daben bayo.* || *Gastai eitteko, esni aparteta san, euntzena jeneral. Len euntze pe euki gendusen, da oiñ estekeu bape baya. Da euntzen esnie meyau ixeten da beidxena bayo. Da euntzen esnie aparteta gendun gastaye eitteko.*

**medelin, medeliñe.** (MEDELIN) Pared medianera que separa la cuadra y el pajar del resto de la casa y evita que en caso de incendio éste se extienda a toda la edificación. || *Medeliñe: etzien erdidxen doyen ormie, kortie da au aurre partie ebaten dabena, ortxe daun ormie.* || *Medeliñe da ormie, atzien olan trabesera dauna.* || *Batzuk medeliñik estabe eitten.* || *Da a suentzako arrasku aundidxe, sue artuko baleu etzik, ba, amen sue artuten badeu, badoye derrepente sabaire sue. Da oiñ orrek medeliñek dekon les ormie,*

*ba es isten arek.* || *Medeliñe euki espaleu, au etzie erreko san dana.* || *Medeliñe: etziñ erdiko ormie, osea, noberan biximodutik da sabaittik apartaten dana.* □ Hiztegi askotan (*Labayru Hiztegian ez*) MEHELIN forma proposatzen da euskara baturako, ziurrenik Kandido Izagirrek Oñati-Arantzazun bildu zuen *meelin* hitzetik nolabait abiatuta (aurreko hitza *mee* zen eta agian harekin nahasturik). Baina erdaraz *medianil* hitza badela eta Nabarnizen *medeliñe* esaten dela kontuan harturik, *h* horretara jo beharrik ez dut ikusten. Gotzon Loberak ("Bizkaieraren lege aldarte: izendazioen mundua". *Mendebaldeko euskeraren ekarria* liburuan) *mehelin* berbaz hitz egiten du, nahiz eta berak jaso duen aldaera *medelin* izan.

**medikamentu, medikamentue.** (MEDIKAMENTU) Medicamento. || *Saldar bedarra entzunde badekot, saldarrak sertu-te eitteko. Medikamentu edo orrek.*

**mediku, medikue.** (MEDIKU) Médico. *Osagillie be ibiltzen da, baina gutxiago. Ik. sasimedikue.* || *Medikuniñ egon nas.* || *Medikunera jun nas.* || *Apurtuneko asurre osatzeko, medikugana erun, nik besterik eser ber be, guk emen eskendun jakin ser eitten dan. Medikugana erun, de ba ipintte tzon.* || *Sayetz asurrek apurtu eskerun, ordun be medikuanera erun bi ixate san, neure gixona baten mendidxen, jun de mendidxen saldidxek golpi emon da apurtu sittunde.* || *Karreran dabil, mediku eitten dabil.* □ *Osagillie ere esaten baden galdetu nien eta hona hemen erantzuna:* || *Jeneral mediku geidxau useteue, oinguk osagillie be esaten dabe. Baya ori gitxi esaten da. Origeittik osagillie emen bayo geidxau esaten da erri eundidxetan, esate baterako, Gerniken, medikue bayo osagillie gastiek geidxau ibiltten dabe.*

**medixiñe, medixiñie.** Medicina. *Botikie ere esaten da.*

**meeune, méeunie.** (MEHEUNE) Punto débil.

**meida, meidie.** Medida. Ik. *neurridxe.* || *Orrek dire aintxiñeko medide sarrak.* || *Ba, meidi deko arregik, eukittes.* || *Tranbau da ebatie, ser esangot neuk?, egurrek meidara ebeite tranbau esate dxako, meidara, ebei bi diñ egurreri.* || *Da kentze dxakos sospalak soser meidaku ein dure dabenin, da arixe esate dxako sospala.* □ **meida bakue.** Que no llega a la medida. || *Neurri baku da geuse txikidxe, ero olan. Neurridune da ya neurridxe, pasau eitten deu neurridxe. Da neurri bakue, apia pe esate tzeu: "Orrek neurri bakuk dire". Igul iru ontzakue. Apie ixeten da, iru ontzako apiek punta bi ixeten deu. Da arek espoukos, esaten da bai meida bako, edo neurri bakue.* □ **meidie artu.** Medir. Ik. *meidu.* || *Baya meidak artunde eukitte ittue, onenbeste egur edo iketz, da onenbeste arri.*

**meidu, meiduten.** Medir. *Neurru gutxiago esaten da.* || *Luse ta sabal meidute dau.* || *Len laborie oin bayo*

geidxau eraitte san, da artze san da meiduten. Batzuk naidxau ixete ben imillaunas meidutie, beste batzuk pixaute.

**mejorau, mejoretan.** Mejorar, sanar. Ik. sendotu, indartu. || *Badoye mejoretan.* || *Tripostute daun ganadue mejoretan gatxa da.* || *Karik mejorau eitten deu lurre.* || *Len argala! Oin be argala dau, baya len olakotxi egon san or ospitaliñ egonda etor sanin.* *Total jota! Bai, mejorau ein da, bai.*

**melau.** (MELAU, melatu-bat.) Mojar(se), empapar(se). Adizlagun gisa erabiltzen da bakarrik. Ik. busti, uidxeldu. || *Melaute etorri nas.* || *Melau-melau einde etorri nas.* □ **melau-melau ein.** Empapar(se), hundir(se).

**melokotoi, melokotoye.** (MELOKOTOI) Melocotón (fruto). Honen antzekoa *preskue* da.

**memoridxe.** (MEMORIA, oroimen) **1.** Memoria. || *Memoridxe gitxikue.* || *Memoridxe jun ein dxako.* || *Memoridxe esaten dana burus dakidxena-edo batek, esaten da memoridxe.* **2.** Conocimiento. || *Memoridxe jun ein dxako.* || *Memoridxe galdu deu.*

**menbrillu, menbrillue.** **1.** Membrillo (fruto). || *Menbrillu frutie da ori, da arixe pe euki gendusen len, baya onetan esteu menbrillu frutik asko emoten, garaun gitxi eukitte ben, gitxi eukitte ben, da garaun gogorrek e, bueno, a be eurek beres ixengo siñ alakoxik, gogorrek.* *Santarrak ixeten dire, olan eurek jan eitteko.* *Baya menbrillu eitteko ondo, baitte sagarras nastaute eitteko.* || *Menbrilluk len geurin be egon sirin. Oin ba be estot pentzeten gelditzen danik.* || *Menbrillue beres sagarra lakoxi da, garaunek ekarte ittu, baya esteko sagarren gustori pe, apur bet, se esangot neuk?, garraskiau, edo mingoskiau-edo ixeten da, da espesiala ixaten da menbrillu eitteko.* **2.** Membrillo. || *Bueno, egokidxe dana menbrillu eitteko, ona ixeteko, ixen bi deu —te nik makiñe bat bider ein dot menbrillu etzin—sagar garratza ixen bi deu. Da axe surritute ipiñi, asukerie, bota onenbeste asukera, da bein bayo sarridxau ein dot nik menbrillue, etzien.* || *Gabon saridxe: esate baterako, errekaduk eitten diriñien denda baten, ba igul emoten dabe ba turro bat, edo menbrillo sati bat, da ba gabon saridxe.*

**mendatar, mendatarra.** (MENDATAR) Natural de Mendata.

**mendau, mendetan.** (MENDAU, mentatu-bat.) Injertar. Halaz guztiz, Nabarnizen *estittu* berba da gehien korritzen duena. || *Baya emen jeneral eitten dire, kendu satidxe, da sartze dxakos ba adartxu bi, an mendetan dan lekuen askorias eiñ ebaitxu bet, da antxe arrakalatxun barrun sartzen dire, ta gora bera satitxu ipintte dxake sepie emoteko.* || *Kentze dxako satidxe, da olantxik askorias eiñ ebaidxe, da antxe ebaidxen barruen sartzen da adar bat, edo bi, antxe sartzen dire, da mendau esate dxako.* || *Txerpie esate dxako, olanik, mendetan dan geusa bat, ba: "Txerpik*

*artu tzo".* || *Sagarrak, eta madaridxek-eta ba mendau eitten dire klase obiau ataratiegaittik.* || *Txarbie beranduko sagarra da, garratza. Mendaunekue da, mendaute.* || *Mendau bakue ixengo da.* || *Bueno 'mendau' eitten da arbolie, nai sagarra nai madaridxe nai keixi nai edoser arbola mendetan da norberak e gure daben frutara, mendetan da.*

**menda, mendie.** (MENDA) Maquila, porción de grano o harina que corresponde al molinero por la molienda. || *Sorrue pixau, da euneko amarra kentze dxakon: mendie.* || *Ño, niri askotxu kendu sta arexek mendie!* || *Errotaridxek kentze tzen méndie. Selan kentze tzen? Anegako killo bi-edo, estaitt senbat ixan san.* || *Errotik konsumidu eitten deu, antza dan les, eitten daniñ urune, artu nai garidxe konsumidu eitten deu.* || *Gero laborie gitxi dekonari, gure ixen eskerun ba, diru pageta dxakon, a mendin truke, beren killo bidxek kentze tzosan errotiña, konsumidute danari. Da gero gure ixan eskeruen, neu pe ba, amen bederatzi seme-alaba asi gendusen, da neu pe bein bayo sarridxau esan netzon errotara junde, dirue pagau, da mendie ekarritta.*

**mende.** (MENDE) □ **mendien.** Sometido, bajo el dominio de. Adibidez burruka batean esan daiteke: "*Ori mendien dau*" edo "*Ori aspidxen dau*". || *Burrukan-edo eiñ eskerun, ba: "Mendiñ artu deu bestik".* || *Andrik gixona méndin deko.*

**mendebal, mendebala.** (MENDEBAL) **1.** Viento que acaba trayendo tormenta. || *Mendebala aixie da, da euridxe danielen.* || *Mendebala ondiño otzaue da, otzaue ta denporalie geidxau ekarten deu.* || *Mendebala da otz gitxi, denpora flojue, aixiak badaki etorten baya otza es. Leon, Galixidxe, Koruña da ortik datorrenari, guk mendebala esate tzagu.* || *Txo, geur mendabalas, geur denporiek kanbidxeko deu.* **2.** Borrachera. || *Orrek atrapau deu mendebala!* || *Arek dxok mendebala!*

**mendel, mendela.** (MENDEL) Apretador, fajero, faja de niños, ceñidor. || *Umiei len batzen dxakonari deittuten dxako mendela; umien gerridxen batzen dxakona. Onen sabalera ingerukue ixete san, da len eukitte ben mantatxu modun, edo traputxue eukitte ben lusie, da aren ganetik lotzen dxakon mendela.* || *Mendela faja modukue da.*

**menderatu.** (MENDERATU) Dominar, someter, vencer. || *Menperatute dau.*

**mendi, mendidxe.** (MENDI) Monte. Lekerikatik Ereñora doan kamioa ardatz legez hartzen badugu, *basue* eskerraldeko alderdia da, baita *Arrola* ere. Kamiotik eskumaldeko alderdiari, oster, *mendidxe* esaten zaio, nahiz eta bertan basoak ere egon. Horrela bada, Ilunzarri *mendidxe* esaten zaio, Arrolari *basú*. || *Mendi puntie.* || *Mendi artie.* || *Mendi biskerra.* || *Mendi karkabie.* || *Mendiko beidxek.* || *Oiñ esta iñor bixi. etzi pe jeusten das. Da aspaldixuen esta iñor be bixi mendidxe. Len ba mendidxen auso bat bat egote*

*san mendidxen. || Baya or mendidxen dasen etziek, bai, Nabarrixenak dire batzuk, beste batzuk Gixaburuak artuko ittu, beste batzuk Aulestik artuko ittu. Da estire, Nabarrixenak bakarrik estire, ba da bai, iru erri edo lauk artze ittue etziok, berau dausenak, alborau dausenak. Baya eurek ondo konpontzen sin; nai Gixaburukuk ixen, nai Aulestikuk ixen, nai Nabarriskuek ixen, ondo konpontzen sin. □*

**mendi bastarra.** Base o espacio recogido a partir del cual se levanta la montaña. || *Mendi bastarra: Mendidzek kontrastola egalien eukitten deuna, bastarra a da, egala. Esate baterako, au Urruxola ostie ero Airo ostie esati les, bastarrien. Ba bastarrien da egala. || Bastarra emen esate dxako mendi sati bateri, "Mendi bastarra da", edo "Mendi bastarrin dabis ardidzek". □ mendi bidie.* Camino de monte. || *Len mendi bidi pe konpondu eitte sirin, de ba erreka ardidxe pe alderilla erun eitte sirin, bidik konpontzeko.*

□ **mendire bidie.** Camino de monte. || *Leku batzutan e mendire bidien be ba bide erripa badas. Da beste leku batzutan be leune das. □ mendi gallurre.*

*Cresterío. || Mendi gallurre? Altun dauna, tunturre. || Mendi gallurre? Gana, mendidxen gana. || Mendi gallurre ganiri. Arrolan be mendi gallurre. □ mendi ganie.* Cumbre o cinta de monte. || *Mendi ganie? Ba leune-edo ixen biko deu. || Mendi gani da sertxuau, onen mendidxen antzien, mendi ganie ori. Da gallurre da sorrotzaue. □ mendi rasue.* Monte pelado. □ **mendi tontorra.** Cumbre del monte. *Mendi tunturre ere esaten da. || Mendi tontorra? Ba mendidxen e, or-emen dasen arek e tontortxue, mendi tontorrak. □ Ondorengo adibidean azaltzen den bezala, mendi tontorra zorrotza da eta mendi ganie lauagoa da. || Mendi tontorra diferenti da. Mendi tunturra da olako sorros bat ixeti mendidxen. Olan punte modure eukittie. Mendi gana da ba... Gana esate baterako, asi an, Illunsarren da ona bagatos, da onek mendidzek, mendi ganin. Da mendi tontorra da bat, mendi bat ixeti olan sorrotzera, tontorra eukittie.*

**mendiar, mendiarra.** (MENDIAR) Montañés, nombre que se aplicaba a los que vivían en el macizo de Ilunzar. Bertako baserriak dira: *Airo, Mugire, Oiñil, Urrixola.* Domeketan elizara jaisten zirenean, honela esateko ohitura zegoen: *Batos mendiarrak! || Ointxe datos goitti bera mendiarrak! || Mendiarrak or goidxen bixi sirin, or mendidxen ostien, Illunsarren ostien. || Mendiarrak esate tzenak, orrek e garidxe eta dana artze ben emengoxi lantxik.*

**mendigoixale, mendigoixalie.** (MENDIGOIZALE) Montañero, -a.

**mendisalie, mendisalie.** (MENDIZALE) Montañero, -a.

**menditzu, menditzue.** (MENDITSU) Montañoso, -a.

**mendu, mendue.** (MENDU, mentu-bat.) Púa de injerto, brote, vástago de injerto. Ik. *begidxe. || Sartzen dana mendue da. Beste bateri kendu, de sartzen dire. || Mendue sagarrari, edo madaridxeriedo inkete dxakon adarra, adar barride etorteko: mendue. □ mendu batekuek ixen.* Ser semejante, estar vinculado familiarmente. || *Bai, famelidxe batekuk badire, "Mendu batekuk dire" esaten da. || Bai, jenidxo alkarren antzeku badeke, "Mendu batekuk dire" esaten da.*

**mengel, mengela.** (MENGEL) Débil, enclenque, flaco, esmirriado. Pertsonei dagokienean, *argala* erabiliagoa da. Ik. *makala. || Erropa mengela. || Ori da mengela! □ ule mengelekue.* De poco pelo. || *Ule mengelekue. || Ule metxada: ba geusestana-edo, mengela.*

**menespresidxue.** Desprecio. || *Txitxilinborlas? Bai olakuk esaten di. Ori da menespresidxu emoti bateri, "I as txitxilinborlas!" edo olaku.*

**menos, menosa.** (MENOS) Insignificante, de poco valor. || *Menosa? Ba geuse ona estanari edo ba noberak gure daben moduku estanari. || Menosa: estanin geusa... Ser esangot neuk? Inportanti estanin, ba geusa menosa. Bastuau dalako. || Ostikopekue geuse maxari be esate dxako ta. Maxari, esan gutena, seinde tatarres dabillen geuse bat. Menosa esati laku da ori. "Ori ostikopeko garbidx-ok!".*

**menostu.** (MENOSTU) Desgastar(se), desmenuzar(se). || *Saborreridxe? satidzek, eutze edo olan, dana ya menostute deun geuse bat; saborreridxe da menosak, geuse menosa, sati txikidzek-eta.*

mocetón, chicarrón, robusto. || *Morrosko tropie da. || A kiputze? Bai. A Gipuskuakue ixetes, ba amen egon san eskondute. Morrosko mutil bet. Kiputze, pastori sana. Berton bixi san, an Arrolan, an tontorrien, basuen, antxe bixi san. || Bai, Elorza edo olako serbait. Ba, morrosku itzela! Bertzutan jo! Ondo eitte ban ak! || Morrosko eundi bet san. Bai, eundidxe san.*

**mortal, mortala.** (MORTAL) Mortal. 1. || *Esate baterako, au geure eperdin (jarlekuan) daun agiñ au, orren garaune mortala dala esaten dabe. 2. Grande. || Auxe dok gausie mortala!*

**mortero, morterue.** (MORTERO) Mortero. || *Ormie morteruas eitten da sarpiau. Apur bet pikeu, garbittu, te gero sarpieu. || Igul e ori be morterue eitten bosu, "An likiñe dxak", labana. || Obratarako biosu karie. Kari bi da derrior. Aintxiñe eitte san itxosoko landarras da karias morterue. Da gero obran ormi eitteko porlana apurtxut bota.*

**mortzie.** Ramillete, manajo, hacecillo (de manzanas, cerezas, etc.). || *Matzari mordi esate dxako, da bestie mortzie, bat estire. Matzen mordi ta ser..., bestie ixeten da bost edo sei bakotxak. || Mortzi da pillu deuna. Igul sagarrak iru-lau beku batetik urtenda, sarauek, sagarra nai okana nai e fruti edosein.*

**mosal, mosala.** (MOZAL) Bozal. || *Mosala txakurreri ipintte dxake.*

**moskatel, moskatela.** (MOSKATEL) Moscatel.

**moskittue.** (MOSKITO) Mosquito. Ik. *eltxue. || Moskittue da eltxu diferente die. Eltxu da... esteu pikerik eitten. Da moskittuk sastasu itzelak eitte ittu. Bi die orrek. || Moskittuk pike eiste. || Eltxu dana igul ibiltten da, ainbeste eltxu, begidxetara eta dana, baya orrek pikerik estabe eitten. Da moskittu pai. Sastasu eitten dabe.*

**moskola, moskolie.** (MOSKOLA) 1. Corteza verde que envuelve las nueces. || *Intxaur moskolie. || Da moskolie a ganiien dekona, gero oskola, da gero mamiñe barruen intxaurrek. || Intxaurrek ganiñ eukiten deu ser bat, asal bat, da arixe moskolie. Da a eldute egote danin, soltau eitten dxake. Gero, intxaurre agertzen da. || Da moskolie intxaurre pe, inketen dxakona, a intxaur berde-berdi batzen bada, dana mantxete ittu atzamarrak. Da "Bittu selako moskolak inkeu din!". || Moskolie kentzen gatxa da ixen be. 2. Mancha que deja la corteza verde de las nueces. 3. Género de mala calidad. || *Iguel jenerue**

badosu on eta eskasa, orrek moskolak. || Traste moskolak jeurtixek orra, etxu balidxo ta! Moskola tosak eta! || Sagar moskoli bai. Moskoli da eskasa. Txikidxe-ta moskoli esate dxako alakuri, beti iguel sagar ona ero edarra esate dxako. Da olako txikidxe ero errie-ero, "Sagar moskolak artu sak". || Da sagarra pe bai, usteltzen dutzen igul: sagar moskolak.

**4.** Sucio, -a. || Ba ostantziñ e "Traste sikiñek or egongo dire goidxen"-da. Da beste geusa edoser. Trastiek e dire moskolak ero geusak or dausenak, nai e garbidxe pe bai, trastik. || A moskoli sara su! **5.** Suciedad. || Beittu orre tabillen moskolie! **6.** Persona pequena, enclenque. || Moskolie laguneri be esaten dxako, eskasa danari. || Ori moskoli ori!

**moskolatu, moskolatzen.** (MOSKOLATU) Ensuciar(se). Sin. sikindu. || Au libruie moskolatute dxak, etxuek balidxo. || Umiri igul esate dxake: "Moskolatute satos su!"

**moskolero, moskolue.** (MOSKOLERO) Sucio. Sin. sikiñe. || Moskolero be esate tzen len sikiñeri-tte. Umiri dana moskolaute. Esate tzen "Beittu orre tabillen moskolie!", "Moskolero orrosak, moskolero!"

**moskor, moskorra.** (MOZKOR) **1.** Borrachera. Ik. kargie. || Moskorra atrapau, artu. || Moskorras doye. || Orre pe moskor ederra daroye. || Edo albalboka badoye, "Ño, orre pe moskorra ederra dxekok!". || Orrek atrapau deu moskorra! || Bai, batzuk esate tze bai "Txoliñe atrapau dxok", baya guk e moskorra, guk e beti moskorra. || Orrek esate ban, baten moskorras a, Elixaldekue, gure kinttue, Elispekue. Arek e ari Rupertori, taberneruri, ba beti a idietan, da geusak esaten, da au te, "I, ididxek asko! Ididxek asko!". 'Idie' esateko, 'ididxek', moskorra euken itzela. "Ididxek, ididxek!". || Bidegiñi a ixete san. Gero erridxek e ori emote ban, ardaue. Errasiñoye esate dxakon. Da asko moskortute. Bai, aporetzetan, da gero moskortu. Bueno, len bidegiñetan-da moskorra kin jentie. Usau bes ardaue edaterik! Baserridxetan-da pentzau bes ardaue edaterik! Baten batek ardaue edate baban! Baya pentzau bes! Ure. **2.** Borracho, -a. Ik. edarisalie, edatune, drinkilaridxe. || Gerniken jente larrei ibiltten da. Bueno! Da moskorra ta abarra ta lorriñe! Akabue!

**moskorti, moskortidxe.** (MOZKORTI) Borracho, -a.

**moskortu.** (MOZKORTU) Emborrachar(se). Ik. aixe ederra artu, ederra artu, beratue artu, matza artu. || Moskortu antzin dau. || Moskortute dxak.

**mosokitterra, mosokitterrie, mosokittarrie.** (MOSOKITARRA, musukitarra-bat.) Armónica. Berba honen sinonimoa mustur soiñue da, baina oso gutxi esaten da. || Mosokittarrie aguas josten dana da. || Mosokittarrie musturras josten dana. || Soñu jotzaili da edoseiñ instrumentu, edosein. Nai e filarmoniki, nai mosokittarri, nai e gitarrie... Ba gitarristi orregaittik gitarra jole esate dxako. Ba onek e

akordeoi tte onek josten dabenak ba... Da bestie dultzeiñerue diferente da. Se emen len dultzeiñi jote ben, tanborra be bai.

**mosolo, mosolue.** (MOZOLO) **1.** Mochuelo (común) (Athene noctua). || Mosoluk e gabas e onan uuuuuU! eitten dabena mosolu da. Kolori marroye, elegantik orreri txoridxe. Oin gitxi dau. Da gois gustidxetan, goixaldiñ amentxe eitten deu beti..., sataka egoten da. Gois gusti..., goixaldin beti e! Beti ku-ku-kuuuu!, ku-ku-kuuu! Len mosolu asko egote san. || Mosolue txori bat da, ku! eitten dabena. || Mosoluk buru aundidxe eukitten deu. || Mosolu esta egunes ibiltten e. Esaten dabe egunes estala ikusten, da gabas. Ori esta egidxe, esakuni bada, baya nik egunes be ikusi dot e ibiltten. || Mosolue, mosolue jakingo su ser dan esta? Leku batzutan mosoluri, se esate tze? Ontzi esate tze, ontzi. Mosolu da eta ontzi esate tze leku batzutan. Emen mosolu esate dxako. Kuuuuu! Eitten deu saata, baya mosolu da. Da leku batzutan ba ontzi esate tze. **2.** Tonto, -a, lerdo, -a. || Mosolue? Bai, mosolu bai, noberak eristen batzo ganora baku-edo, "Mosolu alakue!" esaten da. || Mosolue erdi tonturi esate dxako, "Ori da mosolue!". || Tentel mosolue. || Mosoluo! **3.** Fantasma, coco. ☐ Umeak beldurrazteko honela

esaten da: Mosoluk datos! ☐ **mosolo txikidxe.** Variedad de mochuelo. || Mosolo txikidxe badau. Orrek mosoluk uuuuuU! eitten deu, baya ori mosolo txikidxe esate tzeunak txiiiiIK! eitten deu. Bidxek dire antzekuek. Ba ixengo da iguel, marrotxuau ixengo da beste... Beste mosoluek, mosolu danak, au papar buelti au, au buelti au, jeneral suridxe eukitten deu, suridxe, edo suriskie, da orrek estau eukitten, ori indarra ixaten da, marroye, edo illune da; baltza be esta. ☐ Hona hemen mosolue eta mosolo txikidxe artean dagoen desberdintasuna: || Mosolo txikidxe da txatxartxue, bai, arek estau satarik eitten. Kolori igula. Ba txatxarra e! Olako txori txikidxe, asko aundidxau estana. One beste mosoluk aundidxe dire, aundidxek, lumie eleganti. Arpeidxe, personiñ arpeidxe laku, begidxek itzela begidxek alaka buruas. Elegantiau! Oiñ ikusi be esta eitten.

**mosto, mostue.** (MOSTO, muztio-bat.) Mosto. || Mostue? Ori da garrastu barik eoten danielen, eitten danielen ixeten da, beres sagarra apurtzen oten danielen, nai matza apurtzen oten danielen, areri a beren gustue etxako kentzen egun bi edo iru pasa barik, da arixeri esate dxako mostue. Da gero ba eitten da garrastu, gero irakiñ eitten deu, da gero garrastu eitten da. Da gero irakitten danielen sartzen da botilletan.

**mostu, mosten.** (MOZTU) **1.** Afearse. || Orre pe mostuko sak. || Asko mostu da. **2.** Desafilar. Motzittu ere esaten da. || Kutxillue mostute dau. || Kutxillue mostu ein dok. || Mostute dau. || Mostu da.

**mosu, mosue.** (MOSO, mosu-bat.) Beso. Ik. lastana. ☐ **mosu emon.** Besar. || Emoistesu mosu bet! || Mosuk emon tzos alkarreri.

**mota, motie.** (MOTA) **1.** Campo, pieza de terreno que produce hierba. Ik. *landie*. || *Mota bastarra*. || *Emen landie, jeneral —bai, oin gastiek landie geidxau esate tze—, baya jeneral emen motie esate dxako emen. Bedarra ebate sanari motie*. || *Mando bedarra mendixen-da asten dana ixeten da. Mando bedarra ixeten da beste motako bedarra bayo bastotxuau*. || *Motan bedarra beres asten da*. || *Orrek soluk ixenikuk dire, baya mota eitti ittus*. || *Motako lorak*. || *Landie da undidxau*. *Da txatalari motie*. **2.** Ribazo verde de campos sembrados. || *Motien aspidxeri esate dxako lugana*. || *Motie landin barrena da*. || *Solun egalín motie egoten da*. || *Labrau bakue da motie. Se soluk egaletan motie eukiten dabe*. || *Landie da aundixde, da txikidxeri motie esate dxako, iru metro sabalekori nai laukori be motie. Landie da ba metro askokue*. || *Motie jeneralien eskiñara datorren satidxe da. Landie ya aundixde da; da landin barrena, motie*. || *Landan eskiñak dira motak*. || *Motan ereiñ esta eitten, baya bedarra ebai eitten da*. || *Solun esta ereitten motarik, bedarra isten da*. || *Moti da..., solun ertza be bada, baya moti da bedarra asten dana*. □ *Batzuetan, landie eta motie berben arteko desberdintasuna ez dago oso argi. Motie belarra hazten den soro hegaleko zatia izan daiteke, baina belarra hazten den lur zati txikia ere izan daiteke. Dena dela, landie beti handiagoa da: || Landi be bedarra asteku ixeten da, da moti be bedarra asteko ixeten da. Landie jeneral aundixau da, motie, olan solo egaleko motatxu payo*. **3.** Talud.

**motel, motela.** (MOTEL) **1.** Flojo, que tiene poca actividad o vigor. Ik. *ille*. || *Su motela*. || *Pausu motela deko*. || *Olanik igerte dxakeniñ e “Axe ollu motela dau”, ba ill eitten da, da kittu, kendu enbasutik*. □ *Inor gogogabeturik badago, ezertarako gogorik gabe, honela esaten da: Kepa motel dau*. **2.** Comida insípida, sosa. || *Motela dau*. || *Saldie motela dau*. **3.** Soso, -a, abúlico, -a. || *Sosongie, ganora gitxi dekonari, jeneraliñ esate dxako. Motela danari be bai tte bidxoi esate tze*. □ **lur motela.** Tierra floja. Sin. *lur bigune*. || *Ba singeri da leku lurru motel bat, edo lurrek berantz eitten dabena-edo, areri esate dxako singerie*.

**motelaldi, motelaldixde.** (MOTELALDI) Debilitamiento, indisposición, malestar pasajero.

**moteldu.** (MOTELDU) **1.** Aflojar, disminuir. || *Ertz bixidxe moteldu*. **2.** Enfriarse las relaciones. || *Bixi-alargundute? Bai, baya alargundute beres, normalin barik, eurek bata bestias ba ser esangot nik? Alargundute-edo, moteldute-edo, alkarrengana juten estiñak-edo*.

**motibu, motibue.** (MOTIBO) Motivo, causa, razón. Ik. *geidxauko barik*. || *Lagunek motibu barik itxi dotas*.

**motor, motorra.** (MOTORE) Motor. || *Orrek motorra eukitte ban, orrek gari joteko orrek*. || *Au esta matxakie. Au gari garbitzeko makiñi da. Matxaki da... Garidxe joteku san matxakie, motorras ibiltten dana. Au da eskus ereittekue*.

**motrollue.** (MOTROILU) Almirez, mortero de metal, pequeño y portátil, que sirve para machacar o moler en él las nueces. Berba hau esaten bada ere, Nabarnizen gehien entzuten den berba *malmaixe* da.

**motz, motza.** (MOTZ) **1.** Corto, -a. **2.** Feo, -a. || *Ori motza da*. || *Se motza da ori!* **3.** Desmochado, -a, trasmochado, -a. *Iñustue gehiago esaten da*. || *Pago motzak, egurrerako*. || *Adar motza: ya adarrak kendute dekosana, arbola bat adarrak ebeite badau, ba “Adar mostute dau”, edo “Adar motza dau”*. || *Bei bateri be bai. Adarra apurtzen badxako, igul jeusi-edo, deskoideten basan-edo, jeusi txarra-edo eukitten badeu: adar motza*. || *Atxak daus tantaidxek, eta daus asmotzak. Asmotzak esate dxake tantai asten isten etxakelako. Oiñ idxe, onek arbolak idxe galdu dire. Len eitte dxaken goidxe kendu; arek ixete siñ as motzak. Da as tantaidxek ixeten dire mostu bakuk*. || *Pago motzari be kentze dxakon goidxe*. || *Goidxe kentze etxakena: tantaidxek; da bestik motzak*. **4.** Desafilado, -a. || *“Motza dau” esaten da kutxilluek espadau ebei gure, “Motza dau”*.

**motzaila, motzailie.** (MOTZAILE) **1.** Esquilador, -a, trasquilador, -a. || *Motzallak eskilletan etorte siren aintxiñe. Jittanuek ixete siren*. **2.** Gitano. Hitz hau baino gehiago *ikittanue* erabiltzen da eta oraintsuago *jittanue*.

**motzittu, motzitzen.** (MOTZITU) **1.** Afearse. Sin. *mostu*. **2.** Desafilat. Sin. *mostu*. || *Kutxillue motzittu ein da*. || *Kutxillue be motzitzen da*. || *Kodañe bedar ebateko motzittu ein da*. || *Pikau ein bi da, motzittute dau*.

**mudau.** (MUDAU, mudatu-bat.) **1.** Perder el color. || *Mudaute dau erropie*. || *Mudau de erropie*. || *Marmuek jasten diriñak dire ba buru tapaute, arpeidxe tapaute, edo ba jantzidxe mudaute-edo, marmue arixerri esate dxake beres*. || *Arpeidxe dana mudeute deko, ta enbarasada egongo da*. || *Kotona ari bat ixete san. Batzuk ixete siriñ illuntxuau, beste batzuk argitxuau ixete sirin, da mudau eitten estana kotona ixete san. Da oyetako erropari eitte dxakesan kotonak*. || *Da erropie..., kolori galtzen badxako be “Mudau ein dok”*. *Oiñ au kolori te gero uras-ero igul e beste kolor bat artzen dau, da “Mudau ein dok a erropi”*. **2.** Mudar, degenerarse, corromperse. || *Euskerie emen berton mudeute dau*. || *Kalidadie galtzen dabeniñ, “Gustu mudaute dau” esaten da*. **3.** Ponerse ortra ropa. || *“Mudau” da erropak kanbidxoti be “mudau” esaten da*. || *Orrek erropak mudeu ixek, bustitte sak eta!* **4.** Cambiar(se), turnar(se). || *Arek gari joteko makiñik eutz asko emoten deu personentzako. Da mudau eitte sirin, bakotxiñe iru ordu lauren-edo eingo sittuen*



gari joten. Da txanda bi eote sirin joteko. **5.** Cambiar de un sitio a otro. || Ori mudau ein dosu. || Ori mudau ein da. **6.** Cambiar el tiempo. || Denpori gordinduti da esate baterako, igul denpora ona dau da ensegidako baten mudau deu denporie, da otzittu ein deu, da orixe da denporie gordindutie.

**mude, mudie.** (MUDA) Muda, cambio. □ **mudie ein.** Crecer. || "Igestik ona orrek ein dau mudie!": esan gure da asi ein dala, asi dalako. "Orrek ein deu kanbidxue!", "Orrek ein deu mudie!". Mayormente esate du ori denporias asi ein dalako, desarrollo eundidxe ein dalako esateu geidxau. || Igestik ona orrek ein deu mudie": bai, asi bada-edo, eundidxe asi bada-edo, mudie. Ganaduri, txalari bardiñ esaten dxako "Mudi ein deu". Asi, ya mudau, lodittu-edo ba, asi apur bet edo ba.

**mueble, mueblie.** Mueble. || Burukiñ eitte san. Bestelakue saldu eitte san. Ustela espauen, a saldu eitte san, da erute besen serrara, gero olak einde muebleterako, mueble fabriketarako.

**mugie.** (MUGA) Limite, término, frontera. || Mugie mujoneri esate dxako.

**mugiretar, mugiretarra.** (MUGIRATAR) Natural de uno de los caseríos de Mugira.

**mugitta, mugittie.** (MUGITA) Tortero, planta de la familia de las gramíneas, que tiene en la raíz varios bulbos en figura de disco. (*Arrhenatherum elatius* edo *A. avenaceum*). Erresaidxo bedarra ere esaten zaio. || Mugittie, bedarra da ori be; arek granotxuk, mugitta bedarrak. Ori be txarra da. Erre gustue deko. || Gero beste bat dau, arek garauntxu-garauntxu eukitte ittu lurren barruen, da areri selan esate tzeu? Enas akordaten. Arek, burutxu-burutxu lurren barruen aste itunari ser esate tze? Mugittie. A da bedar bat, ba kalte eitte tzona laboriri. Arek aste ittu, bola garantxu-garauntxu-garantxus beterik egoten da. || Asi bedarra onetan solun urteten deu. Olan garauntxuk, garauntxu-garauntzuk ixeten dire. Txarra da, lurre artu eitten deu te. Mugittie esate tzeu orreri. || Asi bedarrak? segun bedarrak selakuk dirin. Ori, mugitti esate tzeu guk orreri. Orrek lurriñ eitte ittu olan garauntxu-garauntxu-garauntxu, dana garauntxuk lurriñ eitte ittu orrek, da naiku kalte eitte tze orrek arturi, tte olanik. || Mugitti, bai, erresaidxo antzeku da beres, baya a erresaidxuk eukitten daben a biribiltxue bayo estutxuau deke arek. Mugitti sabalau ixaten da. || Orrek e olan biribilleniñ asten diriñ olakuek? Seinde orreri muittak esate tzeu e. Solun be asten dire, motan asten dire, da eurek emoten daben bedarra berde-berdi ixaten da.

**mujoi, mujoi, mujoye.** Mojón, límite. Soroen artean harrizkoak ipintzen ziren haien mugak ezagutzeko. || Mujoi-tte eitten dabe ba, partidu, basu be mujoi partiduten dabe, solu be bai, danak mujoyek. □ Batzuetan mugak nondik norakoak diren jakiteko pinuak edo altzifreak jartzen dira: Piñue sartu dxok mujotzat. || Oin be eitte ittues basutan, onek piñuek,

sipresak, arek nekes asten dinak, sartun bittartien, mujotzat, jakittekondik nondik nora dan. || Terrenu partiduten dabena mujoye esaten da. □ **mujoi arridxe.** Mojón. Mujarridxe ere ahoskatzen da. Sin. *mujonerie*. || *Mujoi arridxe: arridxeikiñ eitten da mujoneri ta. Da mendixen be bardin, mujonerak.* □ **mujoi bittartie.** Terreno acotado por mojonos. || *Lugana ein dabe mujoi bittartie jakittekondik.* || *Igul beittu, esta? Ta "Bueno, orreri soki be bota leidxo!". Aintxiñe esate san. Susen es. Bakixu mujoi bittartie da andik ona susen. Da kodaña barru ebeite. "Orreri soki be bota leidxo!". Aintxiñe esakeri. Ondo estaulako ebeite. Oker ebeite, subi moduen.*

**mujoi karri, mujoi karri dxe.** Mojón. Ik. *mujoi arridxe, mujonerie.*

**mujonera, mujonerie, mojonerie.** Mojonera, lugar donde se ponen mojonos. || *Erriko mujonerak.* || *Mujoneri deko.* || *Onaxiñe dau gure mujonerie.* || *Mujoneri esate dxako, esate baterako, gure partin dau solo bat, edo mota bat, da beste batena sartze dxako ondu. Da mujonerie esate dxako, are bestiek mujoi ipiñi bi dabe, guri nundik dan, arena bestiñan..., axe da mojonerie.* || *Mojonerie: ori apartetako terrenue, nire solun ondun badeko beste batek terrenue.* || *Inbidxosue, "Ño orre dxekok inbididxe! Ori estok beteko"-ta. Sure... Igul sure eskiñara, sure mujoiñ e bedarra atrapatat badeu. Mujoneran be kodañas atrapate.* || *Mujoneran dau Mendata Nabarrixek.* □ Hona hemen *mujoi arridxe* eta *mujonerie* berben arteko desberdintasuna: || *Mujoi arridxe da sartze osun arridxe. Da mujoneri da arlun doiña, "Mujoneri andi da". Esate baterako, au soluri buelti einde bouko, nundi dan, dana doiña, "Mujoneri andi dau".*

**mukit, mukitte.** (MUKIT) Tajo, cilindro de madera (para cortar madera). || *Bierbada leku batzutan trangadi be igul esan eingo tze, emen berton es, emen mukitte.* || *Mokitte: egurre txikitzeu. Bera be egurresku da, lusenki-edo, biribille-edo, atrapatat dana.* || *Mukitte: arbola sati bet-edo, mukitte, suterakue.*

**mukur, mukurre.** (MUKUR) Tronco. Ik. *trongue.* Emiliano Arriagak *mucur* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Leña nudosa partida en astillas". || *Egur mukurre.* || *Gure denporan asi siriñ iketza eitten mukurras. Ostantzin dana adakidxe sartzen du.* || *Mukur bi ein leis onas, batera aundidxegidxe da ta.* || *Mukurre: sue eitteko.* || *Mukurre? Trongo bat, egurre setu eitteko, edo okeli setuteko-edo.* || *Mukurre ba sueri alun ipintteko-ta, besueri, aintxiñe besue eitte san, dana bekue, da ba mukurrek, mukurrek sartun. Mukurrek albutan ipiñi tte gero egur seye erdidxen ipiñitte su eitteko.*

**mule, mulie.** (MULA) Mula. Ama zaldia eta aita astoa izanez gero, arra bada, *mandue* da eta, emea bada, *mulie* da. Ama astoa eta aita zaldia izanez gero, *burriñue* da, arra nahiz emea izan. || *Mandu da arra;*

*saldidxe ama, da astu deko aitte. Da mandue da arra. Da emie bada, mulie da.*

**multe, multie.** (MULTA, isun) Multa. || *Gerniketiekarte basan edaridxe, edateko geusie, koñaka, nai ardaue, nai..., ixiliñ ekarten basan, da atrapetan baben, orrek ipintte tzen multie pagau ein biar ixate san.*

**mun, mune.** (MUIN) Beso, ósculo (referido al beso de respeto que no se da en la cara). || *Mun ein.* || *Mun emon.* || *Esku munera jun da.*

**mundu, mundue.** (MUNDU) Mundo. □ **munduko aldidxe.** Vida. || *Munduko aldidxe ein deu.* || *Munduko aldidxe kunplidu deu.* □ **mundurik andar.** Trotando por el mundo. || *Mundurik andar? Bai, asko ibiltten danari-tte.* || *Bai, mundurik andar ibiltten da.* || *Mundurik andar or ibiltten da.* || *Mundurik andar? Bera gure daben lekuti dabilela.* □ **mundurik mundu.** Trotando por el mundo. || *Mundurik mundu ibiltten da.*

**muntoi, muntoidxe, munteidxe.** Cercado de piedras donde se depositaban las castañas. Orozko aldean 'kirikiño' esaten ei zaie Enrike Azkuna Dimak dioenez (*Gorbeia*, 165. orr.): "Estas (las castañas) eran almacenadas en el monte en unas construcciones de planta circular, sin cubierta, con un espacio útil de 3 a 7 metros de diámetro, y hasta de 1,80 de altura. La puerta podía tener unos 90 cms. de anchura. "Kirikiños" los llamaban algunos en Orozko, seguramente por la presencia de las púas en las castañas, como en los erizos". Etniker taldearen *La Alimentación Doméstica en Vasconia* liburuan (243. or.) beste hau irakurtzen dugu: "Todavía se recuerda un sistema de depósito y conservación de castañas en pleno monte, *gastañudien bertan*. Vareados los castaños, se levantaban del suelo los frutos mediante pinzas a los cestos. Se vaciaban en unos cercos de piedra, *kirikiñusiek* (Zeanuri-B), que existían en el *castañal* o en sus proximidades. En Carranza (B), estas construcciones se conocían como *oríceras* u *ordineras*. || *Len basurdak eta ardidxek eta, gastañak jan esteidxen, arridxeikiñ ormie eitte san, ta an gastaña munteidxe, gastaña munteye... paluas, kakuas bota da lakatzas, lakaskidxas, lakaskidxa eitte san egurras ta taka-taka, atzamarretan..., taka-taka, sesture batu ta ara bota ta gero negurako an ixeten san.* || *Se basun, urrunien, etzera ekarten e..., gastañak ibiltzen sien sasoyen, biar asko, da bertan, munteidxe esate dxakon ari, gastaña munteidxe. Da gero neguen jun da eskuari buruas edo, txaka-txaka-txaka jo ta garauek eta, tita-tita-tita garauek saku bete ta etzera ekarri, jateko.* || *Da ardidxek jan esteidxen, ordun bai ormie eitte dxakon bueltan, kontixu. Da egote siriñ olako orma orrek. Gure gastetan munteidxe, gastaña munteidxe eitte san orrekin. Pilleu, lakatzak, batun, jo ta bota kakuas bera, da batun, de pilleute ipiñi.* || *Gastaña muntoidxe len eitte*

*san. Lakatzak jun batuten, batuten, batuten, batuten, batuten muntoidxen, ta gero are jote siriñ e serrin lepuas, txaka-txaka-txaka-txaka-txaka ta gabiñ egosteko gastañak kentze dxakesan.* || *Oiñ estau gastaña muntoirik.* || *Muntoidxe len geu pe eitte genduen, gastañak on siriñ asko da geu pe gastañak batu de muntoidxe eitte gendun. Otzarakadak batu, da pillu eitte gendun. Da gero eitte san a ipintteko egosteko edo erreteko-edo bi sanien eitte san, serrie erute san, da serrias txaka-txaka lakatza jote san. Lakatza esate dxako garaune eukitten dabenari. Da apartau eitte sirin, apartau, edo egosteko edo erreteko apartau eitte sirin.* □ **egur munteidxe.** Montón de leña para hacer carbón. || *Egur munteidxe txondorra eitteko.* || *Iketza eitteko egur munteidxe.* || *Egur montoi eta egur munteidxe ba diferenti taus. Munteidxe txondorrari esate dxako, txondorragas eitten dan e... su emoteko ta ipintten dana munteidxe san. Da egur pillu da..., egur montue da bata, ta egur munteidxe bestie. Egur montu da pillo baten eittosu pillo aundidxe... da egur pillue eitten da. Da bestie munteidxe. Munteidxe ondo ipinttako orreri.*

**murgil, murgille.** (MURGIL, bikor) 1. Leche cortada de la vaca tras parir la ternera. || *Murgille: bei batek txala eitten dabenien eukitten deu esne murgille, lelengotan, esni garbittu barik, da egosten da, da ba dana bat les egosittakun gelditzen da, da axe murgille, nik esatotzena.* || *Txala eitten deun eunetik: murgille esate tzeu guk, esne murgille. Galduniku ixeten da. Selanik esango tzut pa? Irakindakuen garatzen dxako ure, apartaten dxako, da orrek tumultxuk-tumultxuk garatzen dire, moltzotxuek, gastayeri eitte ku lakuk. Ori iru-lau eguniñ eukitten dabe txala einde, iru-lau egun edo olan. Da a jan eitte san aintxiñe, ure apartau te bera, a murgille. Ak esteu balidxo, olan arrosa-ta eitteko, da kafekonletxe artzeko bes, ya murgille da-ta.* || *Murgille esate tzeu guk esne barridxe dauenin, esne murgille esaten du, esne barridxe dauiniñ ebaitte-ebaitte les geratzen da, ta areri deitze tzau murgille, esne murgille* 2. Grumo, burujo. || *Ur irikiñetara botaten da urune, eraitten-eraitten euki bixu, bi dan modun, murgille geratu esteidxen.* □

**esne murgille.** Leche cortada de la vaca tras parir la ternera. || *Esne murgille da, txala ein, da segidikue. Txala einde esteu esnie garbidxe eitten, a esne murgille. Aintxiñe, esne murgille, gu mutikotxuk giñenin jate gendun. Esne murgille, jatzi, txala ein, de batera eitte dxakona, lodidxe, da axe jan kollarekin, junde lantziñ etze batera olan txala eikerakun, "Esne murgille dxak, eta etorri!". De esne murgille.* || *Esne murgille jaten e. Len e emen e kopradixden aintxiñe, gastetan gu ondiño, ba sortzi urte, bederatzi euki gendusenin. Orti gora ya olakorik es san usau eitten, asko. Baya len emen kopradixden egote giñen e a sortzi-amar mutil, da neska pe beste ainbeste, da olan txalik eitten ebenin, abiste*

ben juteko, esne murgille daula, da sarataka. Oiñ iñok estau gure ori-ori-ori-oridxe, lodi-lodidxe.

**murgildu.** (MURGILDU) 1. Formarse grumos. || Oiñ aspaldituon esta ein, baya nik len morokille sarri eitte nabena ba. Arto uruen be, urune irakitten daumien, ba eskugas, bota esku batas, da bestias sera ein biar ixate dxako murgildu esteidxen. || Urune murgildu ein da. 2. Cortarse la leche. || Esnie egosten ipiñi. Igul egosi barik esteu eukitten ak murgille. Da ipiñi te egosten daula eitten da murgildu, dana, ure eitte dxako. || Ebeitte dau a esnie, esne murgille. "A murgildu dok" esni galdutakun be esaten da oin be. Ba esne murgille, ostantziñ esne murgille da txala ein de egun bat garrenerako dauna. || A txalak bayo, a noberak edateko estau balidxo ixeten, a murgildu eitten da. || Utzarriñe da (beidxen) erropie gogortutie. Otzak-edo eitten dabena da, erropan esnie gogortu. Utzarriñe axe da. Erropi gogortu. Uras, uras... Urek osatzen deu. Uras jo erropie. Gogor jo, gogor jo, da berotu. Ur otzas. Da ak eitte tzo, jo ta jo ta jo, golpeka, erropie gorritu eitte dxako, da onantxi. Gero jatzi bi ixaten da, murgildute eukitten deu esnie ta. Utzarriñe esate dxako.

**murmu, murmue.** (MURMU) 1. Moquillo, muermo, enfermedad virulenta y contagiosa de las caballerías, gatos y perros, caracterizada principalmente por ulceración y flujo de la mucosa nasal e infarto de los ganglios linfáticos próximos. || Katuk, eta txakurrek-eta eukitten dabena geixo bat da mormu esate dxakena. Musturre-ta baltzitu eitte dxake, edo olan. kostratxu les-edo, ba mormue esate dxako. || Ganadu pe bai, txakurre pe bai. Ori txarra da, murmu, txakurrentzako ta txarra. || Murmu se ixeten da? Txakurrek eukitten dabena, adurre botaten dabena-edo? Murmue. 2. Por extensión, catarro, cargazón. || Batzuk eukitten dabe esakerie, kostipaduas badau be: "Murmu galanta deuket". Baya beres astuna da. || Murmu deket.

**murristu.** (MURRIZTU) Rebajar, disminuir. Ik. gitxittu. || Murristu? Se esangot neuk? Gitxittu eitten dan geusa ba ta. Gitxittuten dan geusa bateri "Murristu ein da". || Murridxe? "Murristute dau"-edo, "Sertute dau"... , ser esangot neuk? Geuse gitxidxe-edo.

**murruke.** (MURRUKA) 1. Corneando. || Ganaduri, alkarregas dabixenin drogan: "Ganaduk murruke dabis". || Ganaduk eitten dabena erridxitiri murruke esate dxako. Ostera gixonak, edo personak eitten dabena erridxitiri "Burrake ein dabe". 2. Cornada, golpe con el cuerno. || Murruke batzuk ein dittu. ☐ **murruke ein.** Cornear. || Murruke eitten dabe. || Murruke ein: alkar joten adarrekin.

**murruntzari, murruntzaridxe.** (MURRUNTZARI) Mugidor, -a.

**murruntze, murruntzie.** (MURRUNTZA) Mugido. Ik. orroye. || Beidzek murruntze eitten deu, ia se pasaten dan! || Kortan txalak eitte ittusenin murruntze aundidzek, "Orrek eitte ittue orroyek!" esaten da. ||

Murruntze orroye esta. || Euntze garrasike. Euntze pe, igul esate baterako, "Garrasike dxak euntze". Beidxeri etxako esaten garrasidxe. Murruntzi. Baya garrasike, "Euntze be garrasike dxak".

**murruntzeka.** (MURRUNTZAKA) Mugiendo. || Murruntzeka? Bai, beidzek gose diriñin.

**murruntzelari, murruntzelaridxe.** (MURRUNTZALARI) Ruidoso, -a, escandaloso, -a. || Da baitte sarata eitten dabena, kanpokuk, gixona pe bardin: murruntzelaridzek.

**murtzille, murtzillie.** (MORTZILA) Morcilla de cerdo. A la que se hace con cecina se le llama odolosta. Ik. buskentza, odolostie, jangoiko. || Odolostie txalanari esate geuntzen guk. Sesiñe eitte san semendixen, da txarrixena gabon bueltan edo, txarrinari, murtzillie. || Txarrixena da murtzillie, txalana odolostie esate dxako. Eiiñ igul-igul. Buskentza da este nausidxe, edo olako lodi bet dana bete. || Murtzillie ondo beteta dau. || Nik batzuk buskentza esate tzela pentzetot murtzillieri. Batzuk, guk geuk esteutzegu..., guk geuk murtzillie esate tzeu. || Oiñ e jun dan urtes estu ein, baya ba len txala bi ilte san etzien, da aren eitte sanari odolosti esate gentzon, buskentza barik. Da txarrixena murtzilli, ta ba ganaduna odolostie. || Murtzillak-eta ba orduntxe eguniñ eitten dire, baya ba, txarri gobernue, ba axe txarrixena il de ba... se esangot nik? Beren geusak e ipiñi-edo.

**mus.** (MUS) Mus, juego de cartas. || Da musin be iru jokora. Musiñ esate baterako, laure, bire nai batera eittosu ba, jokutara. Nai briskan, nai edosetan. "Joko bire ingo dxuau au". Jeneralin musin ba iru jokutara ixeten da. Ba iru joku orniduti da ori da, iru klasetara.

☐ **musiñ ein.** Jugar al mus. ☐ **musin jokatu.** Apostar algo al mus. Musiñ eittie eta musin jokatzie ez dira bat. Hona hemen azalpena: || Musiñ eitti da..., edoser jokatu leike, da "Musin jokatuko dxuat ain geuse" esatie, ba edo iguel jate sue jatordu bet, edo tragu bat, edo beste ta: "Musin jokatuko dxo!".

**musera, muserie.** (MUSERA) Cojinete de madera mediante el cual se ajusta la prolongación de hierro del eje del molino a la muela. || Muserie kojineteta modukue da.

**musike, musikie.** (MUSIKA) Música. Ik. soñue. || Musike soñue.

**musker, muskerra.** (MUSKER) Lagarto (*Lacerta ocellata*). || Gitxi ikusten dire oin muskerrak.

**muskildu.** (MUSKILDU) 1. Dejar algún alimento a medio comer, desaprovechar. || Muskildu da, artu jenerue, ta esku artien edo, muskildu, figurie kendute les istie. || Katakunak okela sati andidxeri: muskildu, esin jan eta bueltaka ibilli ta... muskildute. || Dana muskildu dau! || Muskildu? Muskildu, jan eitten estabena muskildu eitten dabe ganadu pe. Ondo jan eitte estabena be "Ganaduk dana muskildu ei dxuek".

2. Hacer las cosas mal. || *Bardin-bardin lorriñ eitten badau be. "Muskildu" da txarto, dana lorriñe ein, garbittute estaun geusie, sikiñ isten deuna, muskildute.*

**muskin, muskiñe, muskille.** (MUSKIN) Residuo, despojo. ☐ **bedar muskiñe.** Hierba que deja el ganado mal comida, desperdiciando mucho. || *Bedar muskiñek? Bai, ganaduk e larran jaten dabeniñ e muskiñen ondakiñek iste ittu antxe, bedar muskiñek. || Bedar muskiñe? Bedar erdi ganaduk janda dauna edo euntzek edo seosek, ta muskiñe ondakiñ itxi dabena. || Bedar muskiñe? Beidxek e isten daben ondakiñe. || Bedar muskille da jan es barik lorrindu eitte deunari. Da jateku be bardin, ju eittosu an da "Jateko gusti muskildu dxok, jan etxok ein baya".* ☐ **sagar muskiñe.** Manzana que se deja mal comida, desperdiciando mucho. *Sagar mutxikiñe ere esaten da. || Muskiñe? Olan geuse ondakin bat, se sagarra be erdi janda daunin, sagar muskiñe.*

**muslari, muslaridxe.** (MUSLARI) Jugador de mus.

**mustur, musturre.** (MUSTUR, mutur-bat.) 1. Hocico, jeta, morro. || *Musturre au bueltie da. || Mustur baltza. || Joten baut musturrien, ixilduko as! || Musturrek apurtu deutzos. || Mosugittarie musturras joten dana.* 2. Punta, cabo, extremo. || *Saragin musturretik edaten da. || Da alakoxiri kentze dxake, ligerra esate dxako. Esnie edan, da geldittute dxaken..., poltza bat eukitten dabe barruen. Da il, da poltzi kentze dxaken, da gero sera areri musturre lotu eitte dxakon, da sakutu, ba eskei eitte san siketzeko.* ☐ **mustur baltza.** Ceño, gesto de enfado. || *Orrek deko mustur baltza!* ☐ **mustur okerra.** Ceño, gesto de enfado. || *Mustur okerra deko orrek!* ☐ **mustur soñue.** Armónica. Oso gutxi esaten da. Gehienetan *mosokitterrie* esaten da. || *Mustur soñu da aguas joten dosuna.* ☐ **musturre sartu.** Entrometerse. ☐ **musturrekiñ ibilli.** Estar enfadado. || *Musturrekin dabil.*

**musturkada, musturkadie.** (MUSTURKADA, muturkada-bat.) Porrazo, batacazo.

**musturke.** (MUSTURKA, muturka-bat.) Enfadado, -a. || *Musturke ibiltten dire.* ☐ **musturke ein.** Hozar, hocicar. || *Iñusar ein: txarrixek eitten deu iñusar, eitten dabe musturke lurrin. Basurdi pe eingo deu, neuk estot ikusi basurdarik baya eingo deu. Txarrixek eitten deu ta basurdi pe eingo deu, se basurdik esaten dabe or lurrin barrun oten diriñ e geusa batzuk jan eitte ittuesan-da basurdik. Musturke ein, da topau, da jan eitte ittue.*

**musturluse, musturlusie.** (MUSTURLUZE, muturluze-bat.) Hocicudo, -a.

**musturraldi, musturraldixe.** (MUSTURRALDI, muturraldi-bat.) Crisis pasajera en la amistad.

**musturreko, musturrekue.** (MUSTURREKO, muturreko-bat.) Bofetada, mojicón.

**musturreundi, musturreundixe.** (MUSTURHAUNDI, mutur-handi-bat.) Hocicudo, -a.

**musturtu.** (MUSTURTU, muturtu-bat.) Enfadarse. || *Musturtute dau.*

**mutik.** (MUTIK) Ni mu, nada. || *Mutipes: ixilik egotiedo, "Berbari pe estau ein" esatie da ori, "Mutik ein bes".*

**mutiko, mutikue.** (MUTIKO) Muchacho (de unos 6 u ocho años más o menos). Ik. *mutille.* || *Mutikotxu giñenien, gu pe kubike. || Mutikotan juten giñen gu orra. || Ni mutikue ixen nitzenien au paseta san. || Airoko pague, neu be parteku ixenda nau botaten. Bai, mutikue. Neuk eukiko nittusen amar-amabi urte. || A morro ona da. Mutiko ona.* ☐ **mutikutan.** De muchacho, siendo un muchacho. || *Ara jute giñen gu mutikutan. Oin sasidxe, da sikiñe dau.*

**mutil, mutille.** (MUTIL) Chico, muchacho. || *Orrek mutil koskortxuok. || Mutiko da txikidxe, da mutille da aundidxaue. Solterue, nik esate tzat mutille, aunke bekus ogetamar urte be, ba mutille. Da mutikue da sortzi-amar urteko mutikue, olan txikidxe.* ☐ **mutil**

**asidxe.** Muchacho crecido. ☐ **mutil bardingue.** Muchacho mediano, de mediana estatura. || *Mutil bardingue: ba umi payo eunditxuauk tire ta ba olgetan dabixenien. || Mutiko bardingo bat pasau da. || Umik olgetan ibili dire, neska-mutil bardinguek. || Mutiko bardingue da or amar, amabi, amalau urteko mutil bardingue. || Bardingue? Bueno, ume bateri, mutiko bateri nai neskato bateri esan leidxo ba "Bardingu da", es aundidxe ta es txikidxe estala. || Mutil bardingue da erdis erdikue. || Personatan, ba mutil bardingue. Orrek ya asten dausenien e, tamaño dausenin, "Ori mutik bardingue dxak", ya bastante asitte.* ☐ **mutil eiñe.** Muchacho ya desarrollado. Sin. *ondo ornidute.* ||

*Mutil eiñe dxak ori.* ☐ **mutil kaskondue.** Joven que ha dejado la infancia, hasta la adolescencia. || *Bueno, mutil kaskondue ba, umetako denporie ya juti dxakoniñ edo, eskolara abidxetan daniñ-edo, ta or dosena bat edo amalau-amabost urte eukitte ittun artin, mutil kaskondue. || Mutil kaskondue? Bueno, ixe lei sartxuauae. Esteko, esteko serik. || Mutil kaskondue ba ya dosena bat urteti goraku edo olaku da. || Sarrau danin be bai tte eskolara asten danin be bai-tte, estau eukitten ipiñiri-tte. Ixeten da sartxuau danin be, mutil kaskondue edo gastetxuau danin be ba "Kaskondute dau" te ba "Eskolara abidxau da". || Ya mutil kaskondu, amabost urte bueltie, ortik e dabillena.* ☐

**mutil koskorra.** Mozalbate, hasta hacia 10 años. ☐

**mutil taketa.** Joven robusto, grandullón. || *Mutil taketa: aundidxe, ta lodidxe danari-tte mutil taketa esate dxako.*

**mutildu.** (MUTILDU) 1. Desplumar, quitar las plumas. Hau Nabarnizen beste modu batzuetara ere esaten da: "Lumak kendute dau" edo "Lumetute dau". || "Mutildute dau": esate baterako, oillo bat ilten da, da lumak kentze dxakos, da "Mutildute dau", kentzi beren erropak-edo, berak dekona kentzi. || Kasik oin 'mutildu' bayo geidxau 'lumetu' esango neki esaten dala, batzuk ser dan estabela jakingo 'mutildu'. 2. Cortar, amputar, arrancar. || Mutildu esaten da, baya mutildu da ya apurtzie geusa bat. Mutildu da orridzek kentzie, edo adarrak kentzie, edo ori esan gure deu. □ Mutildu eta iñusi bat ote diren galdetu ostean, honela erantzun didate: || Mutildu, da iñusi bat estire, baya baten antzekuek dire. Iñusti da arbola bateri adarrak ebatie, adarrak ebei, te ipiñi arboli-ta; axe da iñustie, adarrak ebei, noberak kendu, da ba iñusitte dau, tantaidxe ba iñusitte dau, adarrak kendute dekosenin. Mutilduk geidxau esan gure deu apurtzie, apurtu, kendu orridzek-edo, adarra-edo, dekosenak, da ba apurtu, te jeurti, da ba mutildu.

**mutilsar, mutilsarra.** (MUTILZAHAR) Mozo viejo, solterón. || Belendixen mutilsar bateri erre dxakon etzie. || Nabarrixen Ospittala ixena dekon etzie badau oin be, mutilsar bat antxe dau oin be. || Mutilsar dau.

**Muttibar, Munttibar.** (MUNITIBAR) Munitibar. || Bera muttibarkue san. || Muttibarko alabie san au. || Emen e or e aintxiñe-ta oten san kinkilleru, esta? Or Munttibarren bixi san, da a orra berruten etorte san.

**muttibartar, muttibartarra.** (MUNITIBARTAR) Natural de Munitibar. || Bera muttibartarra da.

**mutu, mutue.** (MUTU) Mudo. Ik. gormutue. || Mutue barbarik eitten estabena da.

**mututu.** (MUTUTU) Enmudecerse. || Kukue agertu da, martidxen ogeta bost eurretik agertzie da emen kostunbrie, da San Pedrotako mututu. || "Mututute dau" esaten da, ba, barbarik eitten etabenari, edo barbarik esan gure estabenari.

**mutxikin, mutxikiñe.** (MUTXIKIN) Troncho de la fruta. Sagar muskiñe ere esaten da. || Madari mutxikiñe. || Sagar mutxikiñe. || Mutxikiñe: sagarra edo madaridxe janda, a gelditzen dan ondakiñe, a jeurtitzen dana.

**mutxuridxo, mutxuridxue, muntxuridxue.** (MUTXURIO) Tresnal, pequeño montón de trigo. Julian Alustizak hauxe diosku *Euskal Baserriaren Inguruan* liburuan (Arantzazu Frantziskotar Argit., 83. orr.): "Eta hau ere jakingarri daiteke zuretzat, alegia, Aztiria aldetik "mutxirioa" deitzen geniola gari metatxo honi; "garia mutxiriatu" esaten zitzaion, berriz, egitekoari berari". || Gari mutxuridxuek, arek txikitxuek ixeten sirin, saspí-sortzi eskukada. || Mutxuridxue garidxe kiñ eitte san aintxiñe; txikitxuek eitte siren, da gero aundidxe, metie. || Senba denporan oten dan mutxuridxue? Ba segun denporak selakuk eitte ittun, onak eitte ittuen edo euritzuk eitte

ittuen, se euritzu eitten badeu denporie, edo siketzeko esta modukue, siketu artin muntxuridxu oten da. Da gero ba meti eitten da. □ Hona hemen mutxuridxue eta metie berben arteko desberdintasuna: || Ba meti ixeten da, gari meti ixeten da..., buelta aundidxe artzen deu, da antxe pillaute dasen garidxek metatute oten dire. Mutxuridxu ixeten da txikitxue. Muntxuridxu eitten da: garidxek ebaten dire, lotzen dire, da muntxuridxun ipintten dire apur bet igertzeko. Da gero igertute dausela pentzautekuen meti eitten da.

**mutxuridxotu.** (MUTXURIOTU) Hacer pequeños montones de trigo.

**mux, muxe.** (MUX) Lloriqueo, murria, lloros de los niños. Ik. maña. || "Muxek dekos"-edo, olan mañak artute dauniñ-edo, ba muxek esaten da, baya estakitt oinguek e aittuko badabe be berbi ori. || "Muxakin dau", umiri esate dxake.-

**1 nabar, nabarra.** (NABAR) Entre blanco y negro, mezcla de blanco y negro. || *Asto nabarra.* || *Karakol nabartxuek.* || *Mikie, txoridxe ixena da ori, mikie. Mikie orrek nabarra dira arek, busten lusias ibiltten diñak.* □ **asto nabarra.** Asno, estúpido, bruto. Lagun bati buruz *Ori da asto nabarra!* esaten denean, *nabarra* izenondoak ez du koloreari buruzko ñabardurarik ematen, esakunea halakoxea da eta. □ **begi nabarra.** Ojo azul, claro. || *"Begi nabarrak dxekosak orrek", ba begidxek e batzuk e or eukitte ittue suri-batza, ta begi nabarra.* || *"Begidxek nabarrak dekos": nabarra da baltza, da suridxe.* || *Begi nabarra da.* □ **bei nabarra.** Vaca holandesa. || *Bei nabarra da suri-baltza, pinttie.* || *Bei nabarra be suri-baltza ixeten da, baya estire ixeten olandesan modun esnetzuk.* □ Hona hemen olandesen eta *bei nabarren* arteko desberdintasuna: || *Da olandesa estaturan be txikitxuau da, da erropatzuaue, da esne geidxau emoten dakidxena. Da ostantzeko bei nabarrak e ba, ostantzin be badas, bardin das ostantzin be, da bei nabarrak ostantzekuek, dire bei nabarra pai, baya estire esnetzuk ixeten.* □ **erropa nabarra.** Ropas chillonas, que no conjugan entre sí. || *Erropa nabarrak: esate baterako, kolorik, tokete estiñak. Se nik oiñ esate baterako, jertze suridxegas-da jungo banintzeke, edo erreidxeuekin-de: "Jolin, ori be nabarben doye!".* □ **indar nabarra.** Alubia abigarrada. || *Indar nabarra da diferentie. Onek tolosanik eukitten deu pinttu-pinttu..., orrek suriunetxuk, da bestik satidxe gorriski, ta bestie suriskie: nabarra.* || *Bueno indar tolosani pe suridxe ta gorridxe dekos nastin. Indarra badau, amen esta eraitten, esetu estalako edo estai segaittik, da indar nabarra, asko nabarra dekona. Da bestie da tolosanie, nabar gitxiu dekona, naiko gorridxe.*

**2 nabar, nabarra.** (NABAR) Reja idéntica o muy parecida a la del arado, sujeta a una pértiga, que sirve para cortar la tierra en incisiones paralelas a modo de carriles, cuya anchura ha de ser apropiada al número de layadores que hayan de intervenir en el volteo de la tierra. || *Nabarras ebei.* || *Nabarra? Ba, egurreku da baya..., ixeten da beres, atxurrek ixeten diriñ e kalsekuek, laidxak-edo ixeten dirin kalsekuek ta ixeten da... Nabarra jartze dxako da len —neu pe esautute deket— da arixas eitte sirin markak, marka-markak-markak solun, da antxe nabarran markatik nabarran markara laidxetan eitteko bota biar ixete san soidxe.*

**nabarben, nabarbena, nabarmena.** (NABARMEN)  
**1.** Atrevido, -a, desvergonzado, -a. || *Nabarben dabil.* || *"Nabarbena da": bat ondo estabillela, ondo estan geuse bat eitten dabelako, ondo esaten dabelako.* || *"Ori dok matxorriori!" (esate dxako) nabarben apurtxu bet dabilenari.* **2.** Desaliñado, -a, estrafalario, -a, exagerado, a. Oso arropa arraroak edo elkarrekin ondo ezkontzen ez direnak janzten dituenari ere hala esaten zaio. || *Ori da nabarbena!* || *I as nabarbena!* ||

*Erropa nabarrak-edo olako orrek dabixenari: "Nabarben garbi doye!".* || *"Nabarmena es ixen e!", ba umiri be esate dxake, ta aundidxaui be bai, geusa bat esajeraute dabeni-en-edo.* **3.** Basto, -a, que no guarda la compostura. || *Nabarbena: jaten be igul brou-brou-brou!, "Jaten be nabarbe garbidxe!" esaten da. Dana erdi batera, trope.*

**nabarbendu, nabarmendu.** (NABARMENDU) Hacer(se) notar, escandalizar. || *"Nabarbendu" da "Edoser eitten dau", "Edoser astakeridxe eitte dxok", "Nabarben dxabik". Bakixu tabernan-da be edo drogatan, edo enbra bat plasan, "Nabarben dxabik", erropakiñ edo dana... || Nabarbendute ibil dxok. || "Es nabarmendu geusie!": apur e ixillau pasau, bakixu, nabarben-da barik, apur bet, ixillau, eskandalu gitxiaugas.*

**nabarniskue, nabarriskue.** (NABARNIZKO) Natural de Nabarniz. Ik. *mokillerrikue.* || *Sati bet Nabarrisku be basara.*

**nabarnistar, nabarnistarra, nabarristarra.** (NABARNIZTAR) Natural de Nabarniz. Ik. *mokillerrikue.* || *Morokillerrikue eta olako geusa pai. Emen ba morokillek len fami. Ta nabarristarrak koko txarrak nariarrari tte orreri. Erridxe, Nari ba berton joten dau. Da koko txarra. Danari.*

**nabartu.** (NABARTU) Salpicar de diferentes colores. || *Edurek nabartu deu kanpue: edur gitxi, unekadetan, da beste unekada batzuk bistan, da gitxi, nabartu, gitxi.* || *'Kanpu nabartu' da ebaitten istie, dana suri barik, apur bet surittu. Da esaten da "Nabartu ein deu". Da nabarra ixate da les suridxe, da baltza, ba kanpu erdi egote dan les, ori illune, ba nabarra esate dxako areri be.* || *Guk e eur eitten dabeniñ esate tzeu kanpue erdi surittu, erdi surittu, da "Kanpu nabartu ein deu".*

**nabasi, nabasidxe.** (NABAZI) Semilla de nabo. || *Nabasidxek ipintten diriñin ba, ainbeste adartxu asten dabe, da ataraten dabe lorie.* || *Nabasidxe urrengo urterako ereitteko etziñ artu bisten da, da txoridxek jaten dabe asidxe eldutakuen, bueno! Da orduen ipiñi ein bi dxako txori jabolie.*

**nabo, nabue.** (NABO) Nabo destinado al ganado. Ik. *arbidxe.* || *Arbidxe da personak jaten dabena, da nabu da ganaduri emote dxakona.* || *Nabarrisko nabuek eukitte ben famie, da Nabarrixera asidxen bille, jente asko etorte san, nabu asidxen bille.* || *Nabu be gitxi eraitten da, len solokadie eraitte san, solo bat edo bi-edo, negu gustiko nabue egon deidxen. Da oin patatie egoten dan satidxen eraitte-u geuk. Da beste batzuk axe be estabe eraitten.* || *Aintxiñe nabue apurtute emote dxaken beidxeri.* || *Nabuek bein loriek urten eskero sartzara juten dire, gogortu.* || *Da len emen etorte siren abustuen, nabo sasoin, nabu atarate eben orrek. Da oiñ esta etorri be eitten eser.* || *Garidxe jeneralien emen atzeratxuau etorte san Nabarrixen. Nabarrixen junion lelengo... Ortxe ibiltte san*

garibatie. Berandutxuau nabu ereiñ abustum. Arek garidzek ebei, da egote san e solue ba geldi, esan gutena, eser erein barik. Da gero ereiñ ein biar, da nabu erein. □ **nabo lorie.** Flor del nabo.

**nabondo, nabondue.** (NABONDO) Rastrojera, terreno de rastrojos de nabo. || *Nabondue? Ba nabue, oin bayo ariñau eraitten da, semendidxen eraitten da, da bera nabue ondixik-edo, nekestxuautik edo arintxuautik kastau eitten da, da arixeri nabu kastaunekuri, lekuri.* || *Kastau? Nabu kastetan danien, ba gelditzen da eser barik. Arixeri esate dxako nabondue.*

**naborri, naborridxe.** (NABO ORRI) Hoja de nabo.

**nabota, nabotie.** Especie de nabo malo para comer. || *Nabotie txarra da, jate estana, txongo modure dauna. Esta txongue, baya da rasie bidxetarikue, arbidxe ta nabuna, da esta jatekue, a da satarra, da esta jaten. Da olakuas erein, da senbat..., bueno!, arbidxe dalakuen, nabotie! Esaten dabe arbidxe nabun kontran badau, mestixau eitten dala. Estaipa nik ori bada e. Baya nabotak urteten dabe sarriten. Arbidxen artien nabotie.* || *Nabotie: suk jan dosun antziñ arbi tipuk jatekuk es, arbidxekiñ ereinde. "Nabotak urten dxuek danak", da nabu klase lako, baya tipus es, tipus arbidxe lakoxe igulak, baya asidxe txarra-ero. Jo, senbat bider urteten dau olan, ereiñ, arbidxe artzen jun, de "Nabotak dosak!".* || *Nabotak dosak garbidxe parik arek!*

**nabotza, nabotzie.** (NABOTZA) Gran cantidad de nabos.

**nagi, nagidxe.** (NAGI) Perezoso, -a, poco inclinado al trabajo. Ik. *alperra, suridxe.* || *Nagidxe: batek biarrik ein gure estabenin, da an egoten dana.* || *Nagi dau.* □ **nagi bakue.** Despierto, -a, vivo, -a. *Nagiri pakue* ere entzun dut. || *Nagi bakue biskorra danari esate dxako.* □ **nagidzek atara, bota.** Desprezarse.

**nagikeridxe.** (NAGIKERIA) Holgazanería, vagancia, pereza.

**nagittasun, nagittasune.** (NAGITASUN) Ociosidad, vagancia. || *Nagittasuneas beste gausa gustik be galdu.* || *Itxittasune da nagi egotie. Nagittasune nai itxittasune ya bat dire. Nagittasune da sorra..., ba ein guresda les egotie.*

**nagittu.** (NAGITU) Emperezarse, hacerse perezoso, indolente. || *Orrek esteu jun gure, nagittute dao.*

**nai, nei.** (NAHI, nahiz) O, o bien. || *Batera nai bestera.* || *Gixonak nai andriek bardiñ agintzen dau.* || *Ba, baltziskak nai suriskak ixen, olan lañotuten dabenin, "Laño soidxek das".* || *Bueno, batara nai bestera esaten da.* || *Orma errimun egon nai egon es esnie, trumoi geistu dabilleniñ e, galtze sittun.* || *Beidxeri be pulpas-da, saidxas-da einde, osalie, osali da. Osali ixen badeuko, bai ganaduri nai txarrixeri emon.* □ **nai... nai...** Sea..., sea..., tanto... como... || *Nai baso okanak esaten da, nai sasi okanak esaten da.* || *Au*

*jirau eitten da nai batera nai bestera.* || *Baya eurek ondo konpontzen sin; nai Gixaburukuk ixen, nai Aulestikuk ixen, nai Nabarriskuek ixen, ondo konpontzen sin.* □ **nai tte.** Aunque, a pesar de que. || *Astilli da apurtuten dan satidxe, an osorik deuna es, nahi tte txikidxe ixen.* || *Lengo sarrak ibiltte ben jakie, ba jakie normala lakoxi ixate san, nai tte ba astegunetaku ixen, jakie esate dxakon.*

**nai.** (NAHI) Nabarnizen gure da erabiltzen dena.

**nai, naidxe.** (NAHI) Voluntad, gana, deseo. Ik. *antojue, gureidxe.*

**naidxau.** (NAHIAGO IZAN) Preferir, tener preferencia por. Ik. *gurau ixen.* || *Nik ori naidxau dot.* || *Bardiñin naidxau dot jaidxoterridxen bixi.* || *Gero mendire eruteko, potiñek ibiltte sirien, apurtzen dirin potiñek. Nire gixona sanak naidxau ixete ban potiñe erutie emendik. Ure freskuau egoten da potiñin.* || *Len laborie oin bayo geidxau eraitte san, da artze san da meiduten. Batzuk naidxau ixete ben imillaunas meidutie, beste batzuk pixaute.*

**naidxe, neidxe.** (NAHIA) Suficiente. Sin. *gure dan beste.* || *Piper naidxe deku.* || *An dau fruti naidxé.* || *Amen esate baterako, Anderek saastidxe dana beterik deko, da esate su: "Neidxe deko an"-da.* □ **naidxan, neidxan.** Satisfecho, -a, hartado, -a; colmado, -a. || *Naidxan dauna da ya persona bat, edo ganadu bat, naidxan, beti beteta dabillena, goserik, es eser barik, neikuas dauna; da "Naidxan dauna" orixe da, naidxan. Da naidxé dauna da pillu eundidzek deusena.* || *"Naidxen dau": Ori jaten neikuas: "Neidxan dau an, neidxan!".* □ *Mokoroaren esakuneen biduman (72534. sarrera, 2828.orrialdea) Muxika aldeko adibide hau dakar: "Txakoliñe edan-ala geunken, ta jakia nai-naian".* □ **naidxe ein.** Colmar, satisfacer, hartar. Ik. *naikotu.* || *Naidxe ein barik jateku akabo!* || *Sopias naidxe einde dau.* □ **naidxe jan.** Comer hasta hartarse. || *Atostiek e ba, len esan detzude les, manga da garixumin sartuerie. "Manga-manga plast, tostadak sakure tas!" Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da.* || *Arku baju dxauk, orrek etxok naidxe jan.*

**naibage, naibaga, naibagie.** (NAHIBAGE, nahigabebat., atsekabe) Disgusto, pena, aflicción. *Naibages beterik nahiz naibagas beterik esaten da.* || *Naibagie artu deu.* || *Egun atan esan faltau negarra ta naibagie.*

**naibagetu.** (NAHIBAGETU, nahigabetu-bat.) Disgustar(se), desconsolar(se), apenar(se). || *Naibagetute dau.*

**naibagetzu, naibagetzue.** (NAHIBAGETSU, nahigabetsu-bat.) Disgustado, -a, desconsolado, -a, apenado, -a.

**naikotu.** (NAHIKOTU) Colmar, satisfacer. Ik. *naidxe ein.* || *Sopias naikotute dau.*

**naikue.** (NAHIKOA) Bastante. || *Tramankulu neiku deu or!* || *Sapatuen ipiñi solun jateku neikue.* || *Bai, neiku bat dire orrek.* || *Maskala naiku batu du.* || *Barri naiku ein de jun dire.* || *Ori ain bigune-ta barik, naiku siku emote dxakon olluri.* || *Arrokeridxe naiku deko!* || *Argala dau neikue.* || *Geurkoeittik naiku da.* || *Berbi naiku eitten deu.* || *Arturi ainbeste kalte estetze eitten.* || *Indarrari gorriñek naiku kalte eitte tzo.* || *Kaltzadan naiku arri dau, arridxekiñ orniduneku da.* || *Anpolaxek be naiku keixa aundidxek ixaten dire.* || *Lusero es, naiku ariñ iltte sittusen.* || *Indi gastañie ixeten da..., naiko gastaña garaun eundidxe ixeten da, da nik estakitt jateku bada, personik jateku bada.* || *Kridxadentzako naiku borondati euki ban.*

**naittenaiez.** (NAHI ETA NAHI EZ) Forzosamente. *Baita gure nai gures ere.*

**nanan.** (NANAN) □ **nanan ein.** Comer (en lenguaje infantil).

**napar, naparra.** (NAPAR, nafar-bat.) Navarro, -a. || *Guk emen saku usete gendun len biarrerako. Txoto ein da... Onek naparrak da onek usete ben ardi narrue. Ardi narruas einde... Da es siren busten. Alantxik eitte ben biar arek.*

**naparrei, naparridxe, napárreidxe.** (NAPARRERIA, nafarrerria-bat.) 1. Glosopeda, fiebre aftosa, enfermedad epizootica de los ganados, que se manifiesta por fiebre y por el desarrollo de vesículas o flictenas pequeñas en la boca y entre las pezuñas. Ik. *apatxartekue, apatxetakue, bittartekue.* || *Naparridxe, ganaduen geixue da ori.* || *Naparridxe ganaduri etorten dxake, ardidxek estot iños entzun, ardidxek ta euntzek ta orrek estot pentzetan, baya beidxek eta txalak eta ganadue pai, naparridxe.* || *Len naparridxe, apatzak-eta ya ondatu eitte dxakuesan, da einbeste san kuarentanie edo, ganadue barruen euki biar, besteri inkeu estaeidxuen geixue. Geixu txarra, txal txikidxek eta olakuk il igul; eundidxek es.* || *Apatxarteku da apatx bittartiñ eukitten daben..., ganaduk-edo, euntze pe bardiñ eukitten dabe erida bat, apatx bidxen erdidxen eitte dxaken erida bat, apatxekue. Apatxarteku, da naparraidxe antzekuk dira. Naparraidxe be ba apatxiñ egoten da-ta; bueno apatxiñ esta egoten, naparraidxe agun eukitten dabe, miñien, miñiñ eukitten dabe. Da apatxartekue egoten da apatxin.* || *Geurin be ganaduk urte baten pasau ben naparraidxe. Inkeu eskun guri-te.* || *Apatxarteku da ori. Baya beste bat, miñiñ urtete tzena da, anpollak, baya enas akordetan ixenas, se geu pe urte baten pasau gendun-de. Da inkaute dxake ganaduri miñie atrapau eskerun e, da jatekuri be itxi eitte tze, se aguen anpollak urtete tze miñin, da ganadu asko kostaten da alaku atrapau eskerun. Ardaue emon este dxako sosteniduteko, da gero ba osali be bai, da esta oso ona ixaten. Gero botiki be emote dxako. Esta ona ixaten, es,*

*ona es gitxiau bes. Naparraidxe da! Da miñiñ urtete tze olan, bona eundi batzuk urtete tze, bonak urtete tze, da arixek errementau artien, ganadu sufriduten dau, de gobernau bier ixeten dabe ba espesial.* || *Naparrei geixue? Ganaduk eukitten dabena. Oiñ estabe entzu be eitten, baya len ote san.* || *Naparraidxe? Amen gu keuk eukitte us ori. Urtik die, baya urtik, urte pillu da. Neuk esautu nabem etzien. Etzien e ganera es... neuk eukiko nabasan... ba senbat urte..., ba se, soldau orduntxe junde ero ni, nik e... etxaten suertau emen baya anaidxi tte aitte ta ama ta danak etziñ egon siren, da ganaduk atara barik kuarenteni eitte dxakon ordun be. Berrogei eguniñ e ganadurik esiñ eidxen atara kanpora. Da es e txakurrekiñ onekiñ animalidxekin kuidau itzela! One pe soltau bes. Ta gero erropak, noberen erropak e etzetik sartukeran, kanbidxeu ta kortara ta bierrak ganadunak beste erropa batzukiñ ein, inkeu esteidxon orreri, kontajidxau esteidxen.* || *Pikorra musturrien (naparraidxas). Da bitze botaten dabe. Ba argaldu eitten dabe. Ill estire eitten. Guri etxakun bape il.* || *Naparraidxe da apatxetakue, bai, antzekue da, baya bat be estire. Apatxetakue ba geixo bat ixeten da, naparraidxe estana.* || *Musturriñ eukitten dabena naparraidxe da.* || *Naparraidxe ganaduk eukitten deu. Txaridxe pe bai.* 2. Viruela. || *Naparraidxe lagune pe eukitten dabe. Baya diferentie. Naparridxe txarra da personana. Naparridxe da... gero olaku isten dau naparridxek ostie, edo lepie edo soser, jeneralien. Gure amak euki ban pasaute ori naparridxe ta matrallak danak pikorrak, denpora gustiko.* □ **asto naparraidxe.** Viruela loca, viruela que no tiene malignidad. || *'Sarampión' da naparraidxe, personak eukitten daben naparraidxe. Da asto naparraidxe da jeneral nausidxe parik, umik eukitten dabena, jeneral urtete tze umiri, da bai egun bi, edo iru danak onak estittue pasetan, se kalenturatxu be igul eukitten dabe, beste batzu pe estabe eukitten, da inportantidxeri pe estau eukitten, baya kargu apurtxut ein bi dxako busti esteidxen-da. Ba urtete tzenin, e, olanik, oiñ estau umerik gurin baya, eskolara botau barik-edo ba eukitte gendusen beste batzuri inkeu eitte dxake-ta.*

**Naparru.** (NAPARROA, Nafarroa-bat.) Nafarroa. || *Naparru aldien.*

**nar, narra.** (NAR, narra-bat., lera) Narria, carretón (trineo rústico para arrastrar pesos). Abadiñon-eta lerie esaten ei zaio. Ik. *sestue.* || *Narra ibiltten dabe beidxek. Eundidxe ixeten da narra, da beidxek ibiltten dabe. Da len aspiaridxe-ta, mendittik-eta —basotik es, basotik burdidxas ibilte giñen— da bedar siku-ta, aspiaridxe-ta ba narriñ asko ibilte san, beidxekin.* || *Narrak die tatarres ibiltten diñak. Len narra asko! Oin be bai, onek ibiltten dabe narra, manduas be.* || *Narra be ibilte san, baya narrari indar asko ein bi dxaken. Leku laburrin-de, narra be bai, baya leku lusiñ ibilteko es, se ganaduk asko kantzeta sirin.* || *Oin narri pe-esta ibiltten, len emen narras juten giñin, da narren partikie*



sartzeko, burtedan sartu bi ixate san, da lakue ipiñi bi ixate dxakon, burtediñ eurreko partetik laku esarte dxako. || Narrien erun deu. || Egur lodidxe burdidxen da egur meidxe narrien. || Mukurrek guk narrien manejeten dogu, erres saltaten dan les, narrue da bajue, da emon buelta da... || Narrie tatarres eruten da. || Narriñ ekarten dire, dandarres be ekarten dire. || Narra ba ixeten da nai bedarra, nai aspiarridxe, nai edoser ekarteko ixeten da narra. Egurre be bardin. || Narrak eukitte ban espatie. Da gero eukitte ittun barak, asturi inketako edo saldidxeri inketako. Da eukitte ban kollarra. Kollarra bakixu ser dan. Da arexe kollarrin sartze sin barak, edo aparaju pe bai.

□ Hona hemen narra eta trakulue berben arteko desberdintasuna: || Oiñ esta ibiltten narrik, da trakuluri pes, kontixu asko. Narra da dandarres ibiltten dabena, beidxe, da ekarten dana aspiarridxe edo bedar sikue, da len beidxe ibilte ben narra. Da trakulu da burdidxe, da erreilla bi alderdi banatan ibilte ittu, da arbolie ba eundixuau nai txikitxuan ganiñ ipiñi, da beidxe karreteridxe eiten dabe. □ Inor behin eta berriro geratzen ibiltzen bada, honela esaten zaio: || Narren antzekue da. □ nar bidie. Sendero por donde se conducen cargas en narrias.

**naranja, naranje.** (NARANJA, laranja-bat.) Naranja. □ **naranja ure.** Zumo de naranja.

**nardei, nardeidxe.** (NARDAI) Pértiga corta con cadena adosada utilizada para arrastrar la narria. || Nardeidxe? Narrak eukitten dabena. Bai kate bategas egoten da narrari lotute. || Narrari ipintte dxakona nardeidxe san. Nardeidxe san taket aundi bet e atzin sulu einde narrari lotute, da gero gidxara olan, beste katiak alderdi bidetara. Da nardeidxe.

**nardeka, nardekie.** (NARDEKA) Pértiga para uncir el ganado. || Nardeki da geusa bat, ser esangot neuk?, len ganaduk bustertzen siriñien, edo solun araketan eitteko, edo sestoketan eitteko, edo goldaketan eitteko, nardeki ipintte dxaken. Egur biribil bat ixaten da, da beidxeri, bei busterridxeri esarte dxaken erdi-erdidxen. Bi ixaten dire, ta erdi-erdidxen esarte dxaken busterridxe. Busterridxe eukitten deu..., busterridxen nardeki sartzekuk, etxat akordauko... Busterridxen eukitten deuna narruas eiñeku ixaten da. Da eitte san beidxen ganadu narruas. Ipintte dxakon busterridxeri, da narru utzesku ixate san, sulue eukitte ban olanik nardekie sartzeko. Da gero latue esarte dxakon nardekiri, da beidxe busterridxen ipintteko. □ Hona hemen nardekie eta partikie berben arteko desberdintasuna: || Nardekie da partikie ba tire. Bueno, ba tire ta estire. Nardekie da..., oiñ esta ibiltten nardekari pe. Partiki da burdidxena, narrena, osun datorren..., katiakiñ-edo lotute oten da beyen, da beidxen erdittik etorten dana. Burdi partikiri be bardiñ esate dxako, partikie. Edo “Partikes gora dau”, edo “Partikes bera dau”. Nardeki solte ixeten da, da katiakiñ ibiltten da. Len ibilte san

soluen, arikin, sestuas be bai, bostortzas be bai, da nardeki areri esate dxako. || Nardekie? Beidxe busterridxen solum biar eitteko ipintte san a. Egur bat, busterrittik. Partiki da osokue, da nardeki txikidxe. Nardeki katayas.

**nariar, nariarra.** (NAREAR) Natural de Narea, barrio de Aulestia colindante con Nabarniz. Ik. koko txarra. || Koko txarra nariarrari tte allustiarrari-tte.

**nariku, narikue.** (NAREAKO) Natural de Narea, barrio de Aulestia colindante con Nabarniz. Ik. koko txarra. || Narikuk di koko txarrak.

**narkada, narkadie.** (NARKADA, narrakada-bat.) (Contenido de) una narria, carretón (trineo rústico para arrastrar pesos). || Narra pe atziñ eukitte dxuasen arek, lotu-te eitteko bakik? Da gero eitte sendun narkadie eurriñ ibilte ban espatie. Espati alto. Da areri gero inkete dxakon ori... Selan san bera? Ugerie. Da a eitte san gero lotu.

**narras, narrasa.** (NARRAS) **1.** A rastras, arrastrando(se). Tatarres gehiago erabiltzen da. Ik. arrastaka, tatarres. || Narras erun dabe. **2.** Desaliñado, -a, abandonado, -a. Ik. traskille. || Narrasa da, esta jasu.

**narratz, narratza.** (NARRATS) Abandonado, -a, desliñado, -a. Ik. traskille. || Narratza: erdi sikiñe.

**narru, narrue.** (NARRU, larru-bat.) **1.** Piel de los animales. || Aseri narrue. || Konejuri narrue kendu bitzet. **2.** Cuero, piel. || Narrusko sintturie. || Idi narru bete urre gorri dao or mendidxen baya iñok esteu topeten. || Aren narruas abarkak eitten siren. || Abaille, kordel bi tte narrutxue ipiñi, ta an ipiñi arridxe ta emon bueltak. || Etzan ibiltten gomasko abarkarik, espabese narrusko abarkak, narruas etziñ eiñiko abarkak. Da a narru ixate san, etzien ba neguen gabonak eurretxun-edo ba txala ilte san, da eitte san okelias, gatza emote dxakon, da ba sesiñe. Da aren narrue eitte san, ba goidxen, goiguruen, kamaran josi eitte san, aren narruek sabal-sabal-sabal ipintte untzikin, taka-taka-taka-taka-taka josi eitte san narrue dana, joste san da iñor ete san abarkak eitteko, an narrue. Da aregas eitte sirien abarkak. **3.** Cubierta de cuero que se colocaba sobre el yugo. Ik. edeganekue. || Adaburuko narru. □ **narru gorridxen.** Desnudo, -a.

Ik. billosik. □ **narru utzin.** Desnudo, -a. Ik. billosik.

□ **busterriko narrue.** Cubierta de cuero que se colocaba de adorno sobre el yugo. Ik. edeganekue. □

**ardi narrue.** Vellochino, zalea. || Edeganekue? Beidxen ediñ e ganekue? Narrue, beidxeri ipintte dxaken narru, da busterridxe tapeta ipintte dxaken... ganetik ipintte dxake ardi narrue edo billotz eundidxen narrue. || Beidxe buru ganiñ eruten dabe narrue, ardi narrue ixete san a. □ **narru kendu.** Despellejar. Ik. asala kendu. □ **narruten ein.** Joder, follar.

**narrukada, narrukadie.** (NARRUKADA, larrukada-bat.) Hartazgo. Ik. *betekadie, tronkadie.* || *Narrukadie einde dau te!* || *Ak dxok narrukadie!* || *Ganadu batek, iguel bedartza ederrera botaten da, or deun lekure, solora, ta ya tripie bete-bete, ta "Ak ein dxok narrukadie!", edo tripekadie, edo olanik.*

**narruko, narrukue.** (NARRUKO, larruko-bat.) Golpe. || *Baukesak artzeko narrukuek!* || *Emongo tzues narrukuek.* || *Atrapau dxok narruko ederra!*

**nasai, nasaidxe.** (NASAI) **1.** Tranquilo, -a, cómodo, -a, ancho, -a. Ik. *trankille, sabal.* || *Nasai dau.* || *Nasai-nasai dau jarritte.* || *Oyen nasai-nasai dau.* **2.** Flojo, -a, suelto, -a, holgado, -a. || *Nasai dau.* || *Esate baterako, soluen sartu biosu taket bat, da nasai, olan dao, ta "Meyeidxe jarri dok eta!".* || *Abarka sididxe, beste bat punte sorrotza dekona egote san , da areas ein sulue nasaitxuau.* || *Barragarrixe: esate baterako, erropa bat, edo gona bat, edo jantzite nasaidxei, edo lusiei badeko: "Barragarri deko".* **3.** Ocioso, -a, desocupado, -a; tranquilo, -a. Ik. *bardaskie.* || *Nasaidxe da, pasientzi eundiku da.* || *Gixon nasaidxe.* || *Nasaidxe: edosetara, siskir-saskar dabil, lorrintzera.* **4.** Ancho, -a, amplio, -a. || *Bide nasaidxe.* || *Atzaputze? Nasaidxe da sabala. Lodidxe da jeneralin, lodidxek. Lodidxe beste geuse bat da. Se lodi, estu deuna lodi ego lei, baya nasaidxe sabala.* || *Atzaputze? Bai, enbrari-ero atzaputze. Enbra nasaidxe ero orrek baya "Atzaputzori!". Lodi ero olan deunari.*

**nasaittasun, nasaittasune.** (NASAITASUN) Tranquilidad, calma, sosiego.

**nasaittu.** (NASAITU) **1.** Tranquilizar(se). || *Nasaittu nas.* || *"Bidxotza nasaittu": estu daunin ba, pasientzidxa artzen danin ba, bidxotza be nasaittu eingo da.* **2.** Soltar(se), aflojar(se). || *Ta estutu, da nasaittu eitte sus are sididxekin.* **3.** Anchar, tomar mayor grosor. Ik. *lodittu.* || *'Pikeu' da pika-pika, jo ta jo ta markak ein. Dana pikaute itxi. Ariñ asteko, intxaurreri ein bi ixate dxako ori. Intxaur landarie ebei tte lodittu ariñau eitten da, pikeute ipintte. Asala, olan satidxe kendu. Asi, lodittu eitten da. Ori estakigu e! Ba ori baten bayo sarridxau entzu ein dot nik ori, intxeurreri ein bi ixete dxakola, asala ebeidxek ein, da asala ebeitte nasaittu deidxela. Batzuk eitten dabe ori oin be. Oiñ onek beste arbolak es. Piñuk eta sagarrak eta orrek es.*

**nastasale, nastasalie.** (NAHASTAZALE) Liante, enredador, -a. Ik. *lorrinsalie.* || *Jentartiñ olan nastin dabillena nastasalie da.*

**nastau, nastetan, nasteten.** (NAHASTAU, nahastatu-bat.) **1.** Mezclar, revolver. Ik. *desberdindu.* || *Danak nastaute daus.* || *Lurre ta bedarra nastau eitten dabe da gero atzera erein jenerue.* || *Osali da egosiñeku geusie, ba, ipiñi baldien, da arturune bota, edo garagarrurune bota, da osalature emon, nastaute emon.* || *Dana nastau!* || *Da gero ba arrautza*

*suringuas nastau, da eittosu tortillie beras.* || *Len garidxe eraitte sanien, garidxe ondo erreten espada, usaten da emen karie, ekarri karie, da karie nastete dxakon eraitteko garidxeri, erain bi danari.* || *Botate dxako garidxeri kare bixidxe, ta nastau-nastau-nastau eitten da kare bixitten, da botate dxako.* || *Allorbiri nastete dxako ori txiderra.* **2.** Mezclar, confundir. || *Olan ume txikidxe-edo, gaste batek e, berbetan ondo estakidxen bate pa nastau eitte ittu berbak, da estittu esaten susen be, da kalamatriki aixeri, alantxe umik eitten daben berbeti.* || *Da batek berbetan be klaru eitte espadeu: "Danak nasteu eitte ittu orrek!", klaru eiñ es.* **3.** Enredarse. || *"Txakurrek lasaute deko ainkie": lasaten badeu, bai. Lotunde daun txakurrek ainkie nastetan badeu an lotute daun lekun, baya txakurrek baki ainki libretan.* **4.** Frecuentar, tratar, andar con alguien. || *Saltza banderie da danakin nasteten dana, gusurre ta abarra ta olaku.* □ **naustau-nastau ein.** Mezclar, revolver. || *Gatzure? Uteri gatzu bota, da nastau-nastau ein, da axe ur gasidxe. Samako miñentzako-ta esta txarra ixeten.* || *Botate dxako garidxeri kare bixidxe, ta nastau-nastau-nastau eitten da kare bixitten, da botate dxako.*

**naste, nastie.** (NAHASTE) Mezcla; revoltijo; confusión, enredo, embrollo. Ik. *endredue.* || *Arek urte ban nastie!* || *Lorriñe da sietz eiñ estan gausie, esate baterako, amen ortuen atxurras ondo ein biarrien, dana lorriñe, bedarrak eta lurrek dana nasteta.* || *Noberan gustukue esan dabenu: "Nastik esate sus".* || *Eur euridxe: eurre ta euridxe naste danin, eur euridxe esan eitten da.* || *Uregas ein, da gero esnie artu katilluetan, da andik morokille bota ara, da esnias naste.* || *Trasteteridxe? Geuse asko, ta naste ta lorriñin dausenak.* || *"Argitu dosu" da, geusie argitzie da susen ipiñi eittie geusak. Igul dabillu diskusiñoye edo abarra, da gero bidxek konforme geratzie. "Argitu dosu" Esan tzasu bi dan modun geusie?" edo olako geusie. Da nasti dabillena, geusa garbi ipinttie.*

**nasteborraste, nasteborrastie.** (NAHASTE-BORRASTE) **1.** Tumulto, barullo. || *Nasteborrastie saltzie da.* || *Asarraute dabillenin: "Naste borrastie dabil".* **2.** Liante, enredador, -a. || *Gusurregas ari, besteri ta dana dabillena nasteborrasta da.*

**nasteborrastetzu, nasteborrastetzie.** (NAHASTE-BORRASTETSU) Liante, enredador, -a. || *Aregas, da onegas-da, danakin dabillen pat pe, ba nasteborrastetzu da ori.*

**nastien.** (NAHASTEAN) **1.** Mezclados, revueltos entre sí, en desorden. || *Garidxe ta loidxe nastien datos.* || *Ak ekarten deutzu, orrek, nastien banaka banaka.* || *Tremesa: urune ta birriñe nastin.* || *Euridxe, da aixi nastin direnien: "Bixutze dau".* **2.** Alborotando, enredando. || *Jentartiñ olan nastin dabillena nastasalie da.*

**nastero, nasterue.** (NAHASTERO) Liante, enredador. || *Nasterue da.*

**natille, natillie.** (NATILLA) Natillas. || *Natilli bau, natilli esate dxako emen. Urun suridxas, arrautzak eta asukri-da. Natillie guk esaten deutezu.*

**natubittate, natubittate.** (NATIBITATE) Natividad. || *Natubittate egune.*

**Natxitxu.** (NATXITUA) Natxitua. || *Gero, arantziñ erregatiban..., neu iños junda nau Natxitture amendixik, Natxitture, eta an amabidxetan jentie itxeitten euki gendun de bidera urtete-skuen.*

**nausi, nausidxe.** (NAGUSI) **1.** Amo, dueño || *Etzeko nausidxe. || Nausidxe da. 2.* Jefe, -a, superior. || *Makiña bat mutil gixajo il! Ia! Makiña bat mutil gixajo il! Eurek e nausidxe atzien, arek refujidxutan. Bonbardeo eitten be seguru! Ta bestik an trintxeratan.*

**3.** Enorme (principalmente en exclamativas). || *Destartamentu neusidxe! || Arek (prailleuidxek) ainkadi! Inkeute geratzen dire bertan, arik eta..., isten badxako, arik eta odoles bete arte alde estau eitten, sastasu nausidxe! || Metal ure esaun dekосу. Kobri lakoxie, kobrie, urre, kapie dana, bera pasetan dana, dana inkete tzos. Arridxeri be danak emote tzos, dana. Inkete tzo magrie. Neusidxe emote tzo! Da bera ona. Kendu ein bitzesu ba, kapi eukitten deu te, kapie lantxik.*

**4.** Referido a la edad, mayor, de más edad. || *Ume bat illten danin, ba aingeru kanpaye esate dxaken emen, umiri. Il kanpai barik, ya nagusi bateri il kanpai ibiltten dire. || Txikuek dire, esate baterako, kuni bayo eunditxuau danien. Neusidxe pes, baya orrixo esate dxake txikue. || Umie neusidxen plantak eitten ibiltten da. || Kopetie? Bai, laguneri be, len eukitte ben gixoneskuek, mutille pe bai, mutil txikidxe-eta, nausidxau eindakun gero ba uli arrasto eitte ben. || Ori iños ekarri eitten da persona nausidxentzako, ba estomangotik librau deidxen. || Ipiñi arridxe, lelengo ipintte san e ser bat, age bat-edo, anpor bat olanik, arridxe arixen errimun ipintte sirin, da umik-edo, gastik e asauk eruten, da neusidxe antxe arridxe jo ta. □ **nausi ein.** Mandar, tener el mando. || *Nausi eitten deu.**

**neba, nebie.** (NEBA) Hermano (respecto a la hermana). || *Arantxak beste neba bat euki dau.*

**nebarrebak.** (NEBA-ARREBAK) Hermanos (hermanos y hermanas). || *Nebarreba asko dire. || Bai, lengusiñe dot nik a. Aren ama da nire aitte nebarreba siren.*

**nebera, neberie.** Nevera.

**negar, negarra.** (NEGAR) **1.** Llanto, lágrimas. || *Negarrak urten, atara. || Negarrak urten deuste. 2.* Lágrimas de las velas. || *Negarra daridxola. || Negarres. || Kandela negarra, an daridxola dana. 3.* Goteo, líquido que brota de cualquier sitio. || *Negarra daridxola dxak piñue (briek urtete tze).* □ **negar anpulue.** Lagrimón. Negar handiak egiten direnean honela esaten da: *Negar anpuluk eitte ittu gero! || Negar anpuluk atara ittu gero! || An dau, negar*

*anpuluk doixela goitti bera. || Negar anpulu daridxola egon da. □ **negar baten.** Deshaciéndose en lágrimas,*

*llorando a lágrima viva. □ **negar erresa.** Propenso, -a a llorar. Ik. mañosue, negartidxe. || Ori beres da negar erresa. || Arin negar eitten deu orrek, negar erresa da. □ **negarres.** Llorando. || Itto biarrien dau negarres. || Umiek negarres asi dire. || Beti negarres dabillen umieri “Au da mañosue!” esaten dxako. || Negarres dau umie, ta mintxu deko. || Negarres anpuluk daridxola egon da. || Mamarrue koko bateri esate dxake askotan negarres dausenien: “Mamarru etorriko dxatzu, negarres saus” be baya. □*

**negarretan.** Llorando. || *Ori be negarretan dxak. □ **negar sotinke.** Sollozando, gimiendo, gimoteando. ||*

*Negar sotinke dau. □ **negar ein.** Llorar. || Negar eitteko gogu deket. || Negar eitte ban soli. □ **negar***

**erein.** Hacer llorar. □ **negarrari emon.** Echarse a llorar, romper a llorar. || *Negarrari emon tzo. □ **negar eittiri emon.** Echarse a llorar, romper a llorar. || Negar eittiri emon tzo. □ **negarrari itxi.** Dejar de llorar. || Negarrari itxi tzo. □ **negar eittiri itxi.** Dejar de llorar. || Negar eittiri itxi tzo.*

**negargarri, negargarrixo.** (NEGARGARRI) **1.** Desgracia, lamentable. || *Negargarrixo: pasetan danin seoser esbiarra-edo: “Negargarrixo sartau dxake”. || Negargarrixo da! 2.* Enorme. || *Au matasa negargarrixo-osak! || Kaguen, txintxek negargarrixo! Sastasuk, kaguen! Ordu arte sekule bes, e jakin bes ser dan bes! || Pena negargarrixo, aguntau es eitteko modukuk! || Eukitte ban bolantik e ba kargatan erute ban burdidxe lako lau bider geidxau. Akorten nas burdidxe, ba geidxen be, amabi kinttel, tonelada erdi pasautxu ortxe. Da orrek erute sittuen lau tonelada be bai. || Kotxik, fenomeno kotxi gero! Negargarrixo kotxik!*

**negargarrixo, negargarrixo.** (NEGARGARRIZKO) Lamentable, triste, lastimoso, -a, deplorable. || *Otxandixon negargarrixo atakik ei besan. Batin batak artun da bestin bestik.*

**negargure, negargurie.** (NEGARGURA) Ganas de llorar. || *“\*Negarguri dekot” amen berton olan esta esaten, espabese “Negar eitteko gogu deket.” || Negargurie etorri dxate.*

**negarraldi, negarraldixo.** (NEGARRALDI) Llorar, cada vez que se llora; llorera. || *Negarraldixo ein deu.*

**negarti, negartidxe.** (NEGARTI) Llorón, -a, llorica. || *Negartidxe da.*

**negosiantie, negosiantie.** Negociante. || *Judixu asko dau aretan e. Judixuk negosiantik. Orrek dendak eta orrek judixunak geidxenak.*

**negosidxo, negosidxe.** (NEGOZIO) Negocio. || *Baridxeu erregularra nai sapatu erregularra ba*

*erdis erdiko ori. Suk, esate baterako, negosidxo ba tekesu, da ba asko be da gitxiu be estosu eitten, erregularra.*

**negu, negue.** (NEGU) Invierno. || *Negu partie.* || *Negu gogorra dau.* || *Datorren illien eitten deu onetan negue gogorrau.* || *Da arturunas eitten dxake olluri emote dxaken ori, arturunas, olan denpora otza dauninda, negu partin-da, ba epel-berotxuas ori ein, de emote dxake, beru artu deidxen.* || *Negu txarra bada "Negun erdidxen gas da!". Otza badau, da denporali badau.*

□ **negu bedarra.** Tipo de hierba que se produce en invierno. || *Negu bedarra esate dxakona ba oiñ erain be esta eitten, baya korte asko estaitt emoten badxake be. Korte bi-edo, bi edo iru altuena emote dxakos.* || *Negu bedarra: ori da bedar barridxe, len e-san egoten, ori es eben eitten. Oin negukue kanpotik etorten da. Negu bedarra ereiñ eitten dana da ori. Ori da korte asko emote dxakona, ariñ asten da ori, solutan ereitten da ori.* || *Negu bedarra be oiñ ereitten dabe, aintxiñeko gure denporan es, lenau es baya.* □ **negu gorridxe.** Invierno crudo. || *Negu gorridxe ein deu (negue otza dauenin).* □ **negu latza.** Invierno crudo. || *Negu aundidxe eitte dabenin negu latza esaten da.*

**negute, negutie.** (NEGUTE). Invernada || *Neguko denporak, denpora txarrak asko badaus, negutie esaten da.*

**negutu.** (NEGUTU) Llegar el invierno, entrar en el invierno, hacer tiempo de invierno. || *Aurten arin negutu deu.*

**nekatu, nekatue.** (NEKATU) Fatigoso, -a. || *Bier nekatue da.*

**nekau.** (NEKAU, nekatu-bat.) Cansar(se), fatigar(se). Lehengo zaharrek esaten zuten honela; gaur egun, kantzau erabiltzen da gehiago. || *Nekaute dau.*

**neke, nekie.** (NEKE) Trabajo, fatiga, cansancio. □ **neke-neke ein.** Agotar(se). Ik. *kantzau-kantzau ein.* || *Neke-neke einde dau.* □ **neke ta abar.** A trancas y barrancas. || *Neke ta abar ein dogu (biar gogor bat eitten danin).*

**nekes.** (NEKEZ) Difícil, trabajosamente, penosamente, a duras penas. || *Txakur saunkalaridxe nekes eitten deu ainke.* || *Nekes argittu deu. (Geur arin-ariñ esteu egune sabaldu).* || *Ure nekes botaten deu.* || *Baya usteldu nekes eitte san, nekes usteltze san egurre.* || *Orrek siketu nekesau eitten dire, ogi sapalak.* || *Ule makala: bai, ule..., urteyeran-da umi pa batzuk e makal-makala eukitten dabe ta nekestxuau urten be eitte tze ta alaku bai, ule makala bai, "Ule makala deko".* || *Bueno, umeloidxe beste bateri esate dxako. Umeloidxe esate dxako txala ein de gero..., umetokidxe esate tzeu guk. Gero batzuk arin botaten dabe, beste batzuk nekesau botaten dabe.* || *Apurtxut nekestxuau les.* || *Nekes bost ogorloko irebasten. Lau ogorloko orduen. Da gabas! Orduri pe es euen orduen.* □ Berriemaile

bati hitz honen esanahia galdetuta, lan bat egiteko denbora luzea egon beharra izan denean erabiltzen dela esan zidan: *Nekes ein dogu!*

**neketzu, neketzue.** (NEKETSU) Fatigoso, -a, agotador, -a, sufrido, -a. || *Bier neketzue da.*

**nekoso, nekosue.** (NEKOSO) Trabajoso, -a, arduo, -a, fatigoso, -a. || *Geuse nekosu edo erun esiñik-edo badabil, esateu "A pe lorra dekos a eruten".* || *Bier nekosu da ori.*

**nene.** (NENE) (Haur.) Leche. || *Nene emongo tzut.*

**nerbidxu, nerbidxue.** (NERBIO) Nervio. || *Alakuk (aseri bustenak) pa neu pe iñois batu tzet, da egosi, da aixen ure edan, nerbidxuk kalmetako ixeten dire, baya nik pentzetot ori nerbidxuk kalmetako barik, nerbidxuk biskortzeko ixengo da.* || *Bai, ori e esakera, persona pe bai. Igul e edo gogorra bada, edo au edo ori, "Ño, ori katokidx-ok!", "Ori estok kantzetan", edo "Ori gogorr-ok!" edo... Beste geusa bat esan biarrin ba, "Katu arrasi ok ori!", "Katokidx-ok ori!". Edo eskasa, edo nerbidxu utze bada, da "Katokidx-ok ori!".*

**nerbidxosa.** Nerviosa. || *Ta ba kalmetako esaten dabe, baya nik esango neke kalmetako barik nerbidxosa ipintteko ixengo dala.*

**neska, neskie.** (NESKA) Muchacha soltera. || *Neska fiñe.* || *Neska koskorra.* || *Neska txatxalie.* || *Neskie esate tzau guk solteriri.* || *Neska tronpetie da ori.* □ *Umea jaiotzen denean Neski ala mutille ixen da? galdetzen da.* □ **neska lagune.** Novia, compañera, amigo. Azkeneko urteotan hasi da gero eta gehiago entzuten berba hau. □ **neska laguntzie.** Acción de acompañar a la novia hasta a su casa. || *Neska laguntzie ixeten da neska-mutillek alkarras etzera etorten direnin: "Neska laguntzen jun da", "Neska laguntzen etorri da".*

**neskasale, neskasalie.** (NESKAZALE) Mujeriego, aficionado a correr tras la chicas.

**neskasar, neskasarra.** (NESKAZAHAR) Solterona. || *Neskasar dau.*

**neskatille, neskatillie.** (NESKATILA) Muchacha de unos 14 o 16 años; muchacha soltera. || *Neskatille txikidxe bada: "Neskatille dotorie ikusi dxuat"; neskatille galanta bada: "Neskatille ederra ikusi dxuat".* || *Ori neskatillie famelidune dok.*

**neskato, neskatue.** (NESKATO) Muchachita, señorita, jovencita. || *Neskato, etorri ona!* || *Neskatue tamañakotxue daniñ esaten da, edadias sei-sortzi urte.* || *Majue dau neskatue!* || *Ni neskatotxu nintzela, ni txikitxu nintzela ein san beste etzie.*

**neu.** (NEU) Yo mismo. || *Neuk esan netzan.* || *Gastaye neu pe eitten dot, baya esatekorik es.* || *Seu etorriko sara ala neu etorriko nas?* || *Mamalie bayo mali bakue oboto esanda dau. Nitzako..., nik oboto ikustot, se mamalie esan biarrin mamali ba ganorabakuri-edo, ta besti ori ba obeto esanda daua*

neutzako. || Bai, eukitten dabe, neu pe ikusitte deket eta.

**neugandu.** (NEUGANDU) Hacerme con, conseguir, apropiarme de, adueñarme de. Sin. *alkantzau*. || "Neugandu dxuatek": iguel terrenu bat be, estau osue, seuk artzeko ori dabixue alegiñe, ero pentzamentue, da esin dosu ein, de gero igul ba eittosu te, ba "Neugandu dxuat!". || Neugandu dxuat a be.

**neures.** (NEUREZ). 1. A mi manera. || Neures ein dot. || Neures, neure eritxidxen erain dot. 2. Por naturaleza (referido a uno mismo). || Adin motela deket neures.

**neurri, neurridxe.** (NEURRI) 1. Medida. || Neurridxe da kanie. || Ori neurrire ein dabe. || Da egurreri be esate dxako, ba "Egurre tranbau ein bi dau", ipinteko neurridxen. || Asulie ixeten da atxurren antzekue, baya eukitten deu askori les ago sorrotza, da aregas ba neurriko egurrek-edo ebaten edo eiñ-edo eitten dire. || Betekadi da ba neurritti fuera jan dosun betekade. 2. Moderación, mesura, comedimiento. || Neurris eixu berba! □ **neurri bakue.** Que no llega a la medida. || Neurri baku da geuse txikidxe, ero olan. Neurridune da ya neurridxe, pasau eitten deu neurridxe. Da neurri bakue, apia pe esate tzue: "Orrek neurri bakuk dire". Igul iru ontzakue. Apie ixeten da, iru ontzako apieku punta bi ixeten deu. Da arek espoukos, esaten da bai meida bako, edo neurri bakue. □ **neurri kordela.** Cuerda con la que se mide el grosor del ganado. || Neurri kordela ganaduk mediteko ibiltte san. Ganadu danak, txarridxe, nai..., txarridxe gitxi useten dire, onek beste ganaduk, danak. Len tantora botze san ganadue, pixure barik. || Neurri kordela da ganadue mediteko sinttie. □ **neurridxe artu.** 1. Medir. || Basuri neurridxe artzeko, basun ektarea pe badi ta. 2. Mesurarse, moderarse, dosificarse. || Neurridxe bierrari artutie batzutan e ona ixeten da. Bier larrei oiñ estau eitten, baya ba bierrin kantzante daun personik e neurridxe artu biarra eukitten deu. □ **neurrittik atara.** Sacar de las casillas, hacer perder los estribos. || Neurre neurrittik ataraten nau!

**neurridun, neurridune.** (NEURRIDUN) Que llega a la medida. || Neurri baku da geuse txikidxe, ero olan. Neurridune da ya neurridxe, pasau eitten deu neurridxe.

**neurtu, neurtzen, neurtuten.** (NEURTU) Medir. Meidu gehiago esaten da. || Oin be saltze ittue tantora, da neurtu bari pe bai, tantora be bai, neurtute be bai, baya karnaseruk neurtuneko txalik-eta estabe artu gure ixten, arek eurok neurtu gure ixaten dabe. || Bai, esteridxue. Apiak-eta oiñ alan eitten dire. Neurtzen dire, da onenbeste metro kuadrau, ba onen beste esteridxu esaten da.

**ni.** (NI) Yo. || Ori geusie ondo dator nitzako. || Mamalie bayo mali bakue oboto esanda dau. Nitzako..., nik oboto ikustot, se mamalie esan biarrien

mamali ba ganorabakuri-edo, ta besti ori ba obeto esanda daua neutzako. □ **ni neu.** Yo mismo. || Kañe, da lañue..., lañu pe eitten dau kañe be, da kontixu, ni neutzako bat dire. || Ni neuk takitela es. || Nik neuk estot entzun.

**nimementue.** Limimento. || Nimementue, bai, len eitte ben etzien, geuriñ ama sana pe eitte ban. Segas eitte ben? Astute nau segas eitte ben be. Koipie ixete san sati bet, ganadun koipie, ganadun, aparte dxakon, illte saniñ aparte dxakon koipie ixete san sati bet eta oridxue nik pentzetot botate tzela ta neu pe estai sertzue geusa eitte tzesan be. Da arrautzan gorringu be estaitt es eutzen eitten. Baya neuk estot eiñ iñois da esin nei esan, baya ama iños ikusi ñeben, olanik eridari ereitteko, saldarrari edo orrek suk len esan dosun orreri saldarra esate gentzen, olanik urtete ben e..., ser esango tzet nik? Dana dalaku, da arixentzako-edo, arixeri ein, jaboie be eitte dxakon, jaboie, koipie, da beste geusa bat seoser be eitte dxakon, da eraiñ-eraiñ ein de egosi eitte san, da gero olan ontzitxu baten-edo sarte san, da ba axe eitte san e olan saldarrari iguel, da seoser e daunien ba axe eitte san.

**nobedadie.** (NOBEDADE) 1. Novedad, noticia. || Jakiñ estan geusa bat jakitten danin-edo: nobedadie. 2. Novedad, alteración en la salud, sintoma de algún mal. || Nobedadie: eurretik seoser sentiduten bada, "Len be nobedadie euki ot", edosetan, tripeko miñas badau be, ba tripeko miñek agertzen badire, "Len be nobedadie euki ot". || Esta ondo topetan, nobedadie deko.

**nobera.** (NORBERA) Cada uno, uno mismo. || Nobera da lelengo! || Olanik noberan terrenuetara beste leku batekuek etorri eskero, atrapau te noberen kortan gorde. Da gero ba noberak ein bidau abixau jaubiari. || Esan, noberak modu askotara esate ittu. || Norberanas jaubetu.

**noberagandu, norberagantzen.** (NORBERAGANDU) Apropiarse uno mismo. || "Etzi orrek esteko garbittasunik": noberagantzeko diru asko gastau bier e..., jauberik estekona se..., paper asko ein bi da ta. || Konegidu: norberak estekon geusa bat norberagantzen daniñ-edo, konegidu.

**nobidxe, nobidxie.** Novia. Andrageidxe oso gutxi esaten da. Orain neskalagune ere hasi da entzuten. || Antxe nobidxie topau nidxuen.

**nobidxu, nobidxue.** Novio. || Maittetu? Ba maitte ixeti beste bat, nai e umie, nai nausidxe, nai nobidxu, nai nobidxie. □ **nobidxu-nobidxak.** Pareja de novios. || Eskondu bari pe badaus eskontzen estiñak, neska-mutillik, esan gurotena, nobidxu-nobidxak, arek errimeute daus, eskondu barik errimeute.

**noble, noblie.** (NOBLE) Noble. || Mutil noblie.

**nois, nos.** (NOIZ) Cuándo. || Or dau nos ilgo. || Noistik ona? || Bueno eitten da... Nos esangot? Andramaidxetan edo jaidxe danien edo aparteko soser

*daunien: espatadantzan.* ☐ **noixin bein.** De vez en cuando. Ik. *beñ edo bein, lantzin bein, noixipein.* ☐ **nos edo nos.** Alguna vez. || *Nos edo nos normaldu da.*

**noisgure.** (NOIZGURA) En cualquier momento, cuando quiera. Sin. *noisnai.*

**noisnai.** (NOIZNAHI) En cualquier momento, cuando quiera. Sin. *noisgure.* || *Bueno, "Pitxin-pitxiñ etorten da" bayo, "Noisnai etorten da" geidxau esaten da.* || *Txakurre bai noisnai eusike egoten da, beste txakurren bat etorritte-edo.* || *"Otziñ-otzin falleten deu": ba noisnai fallau eitten deu-edo.*

**noixipein.** (NOIZIK BEHIN) De vez en cuando. Ik. *beñ edo bein, lantzin bein, noixin bein.* || *Sabela tripiri esate dxako. Emen korrintiñ esta esaten sabela, baya ba aitzen da ta ba noixipein batzuk e soltau eitten dabe sabela.* ☐ **noixipeiñin.** De vez en cuando. Ik. *beñ edo bein, lantzin bein, noixin bein.* || *Eta aspiko ortzak noixipeiñin ba kendu, te sorrostu eitte dxakosan, sorrotzak egon deidxen.*

**nonor.** (NONOR, nor edo nor-bat.) Alguien. Ik. *baten bat.* || *Nonor etorri da* || *Nonor dabil or.* || *Konbidautzie? Ba, beste leku batekuek e, edo anaidxari edo arrebie edo lobak edo nonor etzera etorri, da ba baskari bet jatie: konbidautzi.*

**nonora.** (NONORA, nora edo nora-bat.) A alguna parte. || *Bat einde jun dosak kabroi alakuk nonora!* || *Amen Nabarrixen e ba estakitt on basan eulerik. Allustire edo nonora pentzetot erun bi ixate sirila.*

**nonun, nunun.** (NONON, non edo non-bat.) En alguna parte. || *Or dabil nonun.* || *Lasto serrie geurin nonun egongo da ondiño.* || *Etzutie? Ba ser dala esangot? Edo bedartzan edo nunun, leku, ona dan lekun, noberak deitxon lekun euskidxe artzeko...* || *Da amen Mungidxen-ero badau Txorierrri nonun.*

**nor.** (NOR) Quién. || *Ixilunie? Bai, barbarik e eitten estanien-edo, barbarik nogas eiñik estauniñ edo ba, ixilunie.* || *Nor da?*

**nora.** (NORA) A dónde. || *Oin nora jun bixara?* || *Etze asko eon sa les, es eken jateko nora erunik e.* ☐ ... **nora, ... ara.** Allá donde. || *Euskidxe nora, erropak ara.*

**noraiño.** (NORAINO) Hasta dónde. || *Ia noraiño pasaten dan, ia nora doyen.* || *Noraiñoko indarra dekon aprobetan doye.*

**noraiñoko, noraiñokue.** (NORAINOKO) Hasta qué punto. || *Kolorie aldatu be, batzuri eitte dxake, beste batzuri etxake eitten, segun noraiñoku dan beren mingostasune.*

**norbait.** (NORBAIT) Alguien, alguna persona.

**noreseko, noresekue.** (NORA EZEKO) Forzoso, -a, necesario, -a, irremediable. || *"Noreseku da alegiñek eittie" (ein gure estabenari).*

**noresin.** (NORA EZEAN) **1.** Sin rumbo, a la deriva, sin una meta concreta. || *Noresin? Bai, esate baterako, nora jun estakidxela dabilenari-edo: "Noresin dabil".* **2.** Forzosamente, necesariamente, a la fuerza, sin remedio. || *Noresiñ ipiñi dot (beste ipintteko modurik euki estabenin).* || *Noresin ba olantxik ipiñi dot.* || *Noresin jo ein deu.*

**normal, normala.** (NORMAL) Normal. || *Bueno, alkar utz eittie esta geusa gatxa. Bata bide sidorretik jun bada, ta besti bide normaletik jun bada, arek utz ein dabe alkar.* || *Espeloidxe da..., espeloi esate dxako olan ri-ri-ra..., eser..., "Espeloidxori!" esate tze, normala estana laku, burletzat esate dxako ori.* || *"Arnasestute" esate dxako igul e personiri, "Arnase altu deko" esate dxako, apurtxu bet normaletik fuera eitten dabenari.*

**normaldu.** (NORMALDU) Normalizarse. || *Nos edo nos normaldu da.* || *Sertu ein da, normaldu ein da apur bet.*

**normalin.** (NORMALEAN) Normalmente. || *Bixi-alargundute? Bai, baya alargundute beres, normalin barik, eurek bata bestias ba ser esangot nik? Alargundute-edo, moteldute-edo, alkarrengana juten estiñak-edo.*

**nortaixie.** (NORTE HAIZE) Viento norte. || *Nortaixi dau.* || *Onetan itxoso axe asko estau eitten. Iperra be bai, da ori nortaixie be otza da, naiku otza da.*

**norte, nortie.** (NORTE) Norte. || *Edurre eittekie ortik esta etorten en jeneral aixie, aixie emendik etorten da edurre ein bi dabenien, nortetik.* || *Nortetik dabil aixie.* ☐ **norteko aixie** edo **norte aixie.** Viento norte.

|| *Norteko aixi dau.* ☐ **norteko ixerra.** Estrella del norte. ☐ **nortekue.** Viento norte. || *Nortekue, norte partetik datorrena.*

**numero, numerue.** (NUMERO, zenbaki) Número. || *Ardidxeri, nai beidxeri, nai larran dabixenei eitte dxake markie, da eukitten deu noberen etzeko numerue. Numero bat eukitten deu. Da a eitten da..., kirtena lusetxu eukitten deu kolpeteko, da eukitten deu olako plaka bat, da eukitten deu arixek numerue, da axe eitten da berotu, suten, berotu, de gorrittu eitten da, da aixe inkete dxake larran dabixen ganaduri, noberen ganaduek numerutatik esautzeko.* || *Amairu, suerte txarreko numerue.*

**nun.** (NON) Dónde. ☐ **nun o nun.** En alguna parte, en algún lugar. || *Partikerie? Ondiño gurin batabat nun o nun ongo da. A gerrixen lotute ibiltte san.* ☐ **nun se barri.** Cotilleando. || *Nun se barri jakingo dabil.* || *Or ibiltt-ok nun se barri dan jakitten.* || *Or ibiltt-ok nun jakingo barridxe.* || *Nun se barri dabil.*

**nunbeitten.** (NONBAITEN) **1.** En alguna parte, en algún lugar. **2.** Seguramente, sin duda. || *Nunbaitten esteu euririk eingo.* || *Nunbaitten: ba pentzetosu estala, pentzetosuna estala eitteko: "Nunbaitten etxok ori*

*ingo". || Igul esate tzu fulanok, batek, "Jolin, a apurtu ein bi dxok!"; igul esate tzut, bestik esate tzu: "Nunbaitten etxok ingo ori!"*

**nundik.** (NONDIK) De dónde, por dónde. || *Begittu nundik datorren. || Txixie txikidxe daniñ e, ollun erreskadan ibili eitten da, ollu e nundi dabillen e, antxe ibiltten da.* □ **nundik nora.** De dónde a dónde, por dónde, dónde. || *Estakigu nundik nora ("No sabemos ni dónde"). || Esaungarridxe: esate baterako, ba mujoye ixeten da, esaungarridxe, nundik nora dan esautzeko mujoye. || Eidxosue kargu nundi nora dabixen.* □ **nundik norartekun.** De dónde hasta dónde. || *Estakigu nundik norartekun dan.*

**nungotar, nungotarra.** (NONGOTAR) De dónde, natural de dónde. || *Orrek estai nungotarra dien.*

**nungue.** (NONGO) De dónde, de qué lugar (procedencia). || *Berbetan igerten dxako nungue dan ori.*

**nungure.** (NONGURA) Dondequiera, en cualquier parte. || *Orrek nungure daus.*

**nunondik.** De alguna parte, por alguna parte. || *Eskapie esate dxake, esate baterako, ittogidxek nunondik-e, ure botako baleu itturridxek sabaltzen estan lekutik. || Etze sarra esautu naben ondo, da barridxe ei ben, dirue tokau dxaken Ameriketatik, edo nunundik, da gero barri-barridxe ei ben. || Atara ben askanin, baya atara ben kostata. Atara ben, baya estakitt e es sittuen ekarri Bilbotik edo nunondik olantxik e, olakoxik atarateko.*

**ño.** (ÑO) Exclamación de admiración. || *Ño, edoidxe klaru dxak gaur! || Ño, ak bota dxok parabolie! || "Ño, ori personi ok edukasiño gitxikue!" edo "Ño, etxekok berbeta ederra!". Bakixu berbeta santarreku edo "Edukasiño gitxiku ok!". || Eser faltarik esposu, "Orrek etxok etziñ e esik", "Latz estok bixi ori". Da beste bat ba bixi bada txarto-edo, "Ño, biximodu gogorra dxok orrek!", "Latz dxak orrek biximodue!". || *Biximodu eskasa sabillek.**